

# VI. GERRIKO

## IKERLAN - SARIKETA

San Adrian eta Inguruen Kondaira

Xabier Azurmendi Agirre

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:

Zegamako Udala eta Kultur Etxea



## **GERRIKO IKERLAN - SARIKETA**

- © Sortzailea: Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea
- Antolatzaileak:
- Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea  
Elosegi, 16 1.a esk. - 20210 Lazkao  
Tfnoa.: 943 16 02 82
  - Maizpide Euskaltegia  
Elosegi, 40 bis - 20210 Lazkao  
Tfnoa.: 943 88 92 31
  - Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea  
Euskadi Enparantza z/g. - 20210 Lazkao  
Tfnoa.: 943 80 54 11
- Koordinatzailea: Mari Joxe Madariaga Irastorza (GEE)
- Zuzendari Zientifikoa: Joxemartin Apalategi Begiristain  
Antropologia Soziala eta Euskal Kultura Garaikide eta konparatuaren  
Antropologo eta Irakaslea (EHU)
- Argitaratzaileak: Caja Laboral - Euskadiko Kutxa
- Laguntzaileak: Zegamako Udala eta Kultur Etxea eta Caja Laboral - Euskadiko Kutxa.
- Egilea: Xabier Azurmendi Agirre
- Azaleko Argazkia: San Adrian, Mikelete etxea erre aurretik. Don Alfontso Zabalak,  
orduko Zegamako Parrokoak, 1893an ateratako argazkia.  
“Euskal Erria” aldizkarian argitaratua.
- Inprimategia: Gráficas Lankorpe.
- I.S.B.N.: 84-922191-8-1
- L.G.: SS-61/02

## JOSE INAZIO GERRIKO (1740 - 1824)

Seguran (Gipuzkoan) jaioa. Mutiloan bizi izan zen bertako apaiz. Madrilen ikasi zuen. Bere idazlana, *Cristau Doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo doctriñetan partituric*, bera hil ondoren argitaratu zen (1858an). Liburuaren aurkezpenean esaten denez, argitaratzeko baimena eman ahal izateko, espainierazko itzulpena eskatzen zioten...



XIX. mendeko Segurako bista.

Joxe Mari Tellería Lezetak 1985ean Lardizabal etxeko koadro bati ateratako argazkia.



## AURKIBIDEA

<b>SARRERA</b> .....	11
<b>1. Lanaren aurkezpena</b> .....	15
<b>2. Sarrera</b> .....	19
<b>LEHENENGO ZATIA. ERROMATARREN URRATSAK ETA SANTIAGOKO BIDEA</b> .....	23
<b>3. Santiagoko bidea</b> .....	23
3.1. Bere hastapenak .....	23
3.2. Santiagoren mitoa oso berandukoa da .....	23
<b>4. San Adriandik lehen erromesak?</b> .....	24
4.1. Bide baten beharra .....	26
4.2. Nola egin zen bideetan famatuena den hau? .....	27
4.3. Gipuzkoako bideak .....	28
4.4. Antsoaren bidea baino lehen nondik zebiltzan erromesak? .....	29
4.5. Gaztela eta Gipuzkoaren elkartzea: 1200. urtea .....	32
4.6. San Adriani buruzko testurik zaharrenak .....	33
<b>5. Erromatarren bideak Gipuzkoan</b> .....	33
5.1. Urrats zaharrak .....	33
5.2. Noiztik ote bidea San Adrianen? .....	35
5.3. Toponimiak .....	35
a) Toponimiak aztertuz .....	37
b) Toponimiak aztertuz .....	38
5.4. San Adrianen erromatar biderik ba al zen? .....	40
5.5. Arrazoiak Erromateko galtzadaren alde .....	42
5.6. Erromatarren toponimiak Zegaman .....	46
<b>BIGARREN ZATIA. TENPLARIOAK ZEGAMAN ETA SAN ADRIAN ERDI AROAN ETA ARO MODERNOAN</b> .....	51
<b>6. Tenplarioak Santi Espiritun</b> .....	51
6.1. Ordenaren sorrera .....	51

6.2.	Tenplarioen araudia .....	51
6.3.	Tenplarioak Gipuzkoan .....	55
6.4.	Tenplarioak Zegaman .....	57
6.5.	Tenplarioen izen txarra Zegamako beste tradizio batzuetan ..	58
6.6.	San Adriango lapurra .....	59
6.7.	Santi Espirituko Frailea .....	59
<b>7.</b>	<b>Tenplarioen Gurutzea .....</b>	<b>62</b>
7.1.	Jerusalengo Patriarken Gurutzea .....	62
7.2.	Carabacako Gurutzea .....	64
7.3.	Bagako Gurutzea .....	65
7.4.	Segoviako Gurutzea .....	65
7.5.	Astorgako Gurutzea .....	66
7.6.	Murugarrengo Gurutzea .....	66
7.7.	Eunateko Gurutzea .....	67
7.8.	Aberingo Gurutzea .....	67
7.9.	Zegamako Santi Espirituko Gurutzea .....	67
<b>8.</b>	<b>Erdi Aroko berriak Zegaman .....</b>	<b>69</b>
8.1.	Ladrón de Zegama .....	69
8.2.	Berri jakingarriak .....	70
8.3.	Partzoneria .....	70
8.4.	San Bartolomeren Kofradia .....	71
8.5.	Euskal Herriko lehen polizia .....	72
8.6.	Segurako judutarrek erbesterrantz .....	72
8.7.	Segurako judutarren oroitzak .....	74
<b>9.</b>	<b>Ladrón de Zegamaren politika .....</b>	<b>75</b>
9.1.	Sancti Spiritus Ospitaleko fraileak Zegaman .....	75
9.2.	1503. Julio II.aren Bulda Santi Espiritun .....	76
9.3.	1516: Debako Biltzar Nagusiak .....	77
9.4.	1546: Erromako Bulda berria Santi Espiritun .....	79
9.5.	Migel Ladrón de Zegamak Iruñean auzia .....	79
9.6.	Santi Espirituko Patronoa nor zen auzia .....	80
9.7.	Santiagoko bidearen gainbehera .....	81
9.8.	Gesalbizkarko (Iruetxeta) ermita .....	85
9.9.	Iruetxetako Ama Birjina nola agertu zen .....	86
9.10.	Orreagako paperak .....	87
9.11.	Zegamako eliza berria .....	90
<b>10.</b>	<b>San Adrian lau mende luzeetan .....</b>	<b>91</b>
10.1.	Mendeetako mila gora-behera .....	91
10.2.	Zegamako elizaren lehenengo luzatzea .....	97
10.3.	Zegamako elizaren bigarren luzatzea .....	98
10.4.	Gatzagako bide berria. Caracasko Elkartearen ondorioa .....	98
10.5.	Kijotada harrigarri bat, San Adrian galdu ez dadin .....	100
10.6.	Kantauri eta Mediterraneo elkartu .....	101
10.7.	Aurrera doa kijotada .....	102
10.8.	Napoleon .....	102

10.9.	Santos Ladrón de Zegama .....	103
10.10.	Kamio berria .....	104
10.11.	Trenbidea. San Adrianen azkena .....	104
10.12.	Tunel Handia nola egin zuten .....	105
10.13.	Herriari entzunak .....	106
10.14.	Ermita zaharra berrituz .....	108
10.15.	Bukaera .....	110

## **HIRUGARREN ZATIA. SAN ADRIAN KRISTAU IKUSPEGITIK . 113**

<b>11. San Adrian Gipuzkoako elizetan zaharrena. Bertako santorala ..</b>	<b>113</b>
11.1. Santa Trinitastik San Adrian .....	113
11.2. Baionako Arsio Gotzainaren karta .....	115
11.3. Antso Nagusiaren karta .....	116
11.4. Arnald von Harff .....	116
11.5. San Kiriko eta Santa Julita .....	116
11.6. Araba eta Errioxako ermitarien kobak .....	119
11.7. Araba eta Gipuzkoako santoralaren harremanak .....	122
11.8. Oñatiko San Elias .....	123
11.9. Kortezubiko Santimamiñe .....	124

## **LAUGARREN ZATIA. IDATZITAKO ETA AHOZKO LITERATURA SAN ADRIANEN ..... 127**

<b>12. San Adriango bidaztiak .....</b>	<b>127</b>
12.1. Pedro Padilla el Cartujano. 1490 .....	127
12.2. Herman Kunig von Vach. 1495 .....	127
12.3. Arnald von Harff. 1499 .....	128
12.4. Felipe eta Joana Gaztelako Printzeak. 1502 .....	128
12.5. Navagiero. 1528 .....	129
12.6. Garcilaso de la Vega eta Albako Dukea. 1532 .....	129
12.7. Federiko II.a. 1538 .....	130
12.8. Braun eta Hogenbergius. 1567 .....	132
12.9. Giovanni Bautista Venturino. 1572 .....	133
12.10. Vicente Espinel. 1574 .....	133
12.11. Diego Cuelbis. 1599 .....	134
12.12. Senlisko Kofradi liburua. XVI. mendean .....	134
12.13. Anonimoa. 1612 .....	135
12.14. Anonimoa. 1617 .....	135
12.15. Francois Bassompier. 1621 .....	135
12.16. Baltasar de Monconys. 1628 .....	136
12.17. Frantzisko Bel. 1633 .....	136
12.18. Antoine de Brunel. 1655 (bere lana argitaratu zen urtea) .....	137
12.19. Francis Willughbyk. 1664 .....	137
12.20. Jean Muret. 1666 .....	137
12.21. Albert Jouvin. 1672 .....	138
12.22. Maria Katherine le Jumel de Baneville. 1679 .....	138

12.23. Juan Álvarez. 1707 .....	139
12.24. Guillaume Manier. 1726 .....	140
12.25. Larramendi. 1754 (?) .....	140
12.26. Alfontso M. <sup>a</sup> Zabala. 1893 .....	141
<b>13. San Adriani buruzko herri aipamenak .....</b>	<b>142</b>
13.1. San Adriango lapurrak .....	143
13.2. Barriola (1) .....	143
13.3. Barriola (2) .....	143
13.4. Barriola (3) .....	144
13.5. Barriola (4) .....	144
13.6. Barriola (5) .....	145
13.7. Barriola (6) .....	146
13.8. Barriola (7) .....	146
13.9. Amiñagone .....	147
13.10. Landaetako zazpi anaiak .....	147
13.11. Elizako San Martin .....	148
13.12. Euzkitzeko Joane .....	149
13.13. Ipuin idatziak. Erdaraz .....	149
<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>153</b>
<b>14. Kristautasuna noiz sartu zen gure herrian? .....</b>	<b>153</b>
<b>15. San Adrianen aurkitu ziren txanponak .....</b>	<b>156</b>
<b>BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>159</b>
<b>2. EDIZIOKO ERANSKINAK .....</b>	<b>166</b>
<b>16. Antolatzaileen sarrera: “Aitzin solasetik azken solasera”.....</b>	<b>166</b>
<b>17. Zegamako Udalaren sarrera .....</b>	<b>167</b>
<b>18. Argazkien eta marrazkien oinak osatuta .....</b>	<b>168</b>
<b>19. Berriemaileen zerrenda osatuta.....</b>	<b>170</b>
<b>20. Berriemaile argazkiak .....</b>	<b>171</b>



## SARRERA

VI. Gerriko Ikerlan Sariketarako deia 1994ko udazkenean egin genuen, 1955eko udaberrian hiru lan jaso genituen eta 1996ko udazken honetan hiru lanekin osatutako beste horrenbeste liburuki aurkezten dizkizuegu. Jaso dituzten sarien ordena berean sartzen dira hiru lanak Gerriko Ikerlan Sariketako liburu-bilduman:

9. *Ataungo euskara*  
Joxe Migel Azurmendi Albizu
10. *Karobiak Ataunen*  
Nekane Urdangarin eta Leire Munduate
11. *San Adrian eta inguruen kondaira*  
Xabier Azurmendi Agirre

Hirurak gai interesgarriak, landuak eta txukunak direnez zorionak eman nahi dizkiegu ikertzaileei, lehen ere horrelamoduzko lanetan ihardunak batzuek, mundu horretan berriak besteak.

Esan beharra dago hiru lanetatik bi Atauni buruzkoak direla. Goierrin zutabe garrantzitsua den Ataungo herriak badu zer ikertua eta zer esana, dudarik gabe.

Ezkutuagotik baina beti presente, lanean aritu den beste hainbat pertsona ere, aipatu gabe ezin dugu utzi antolatzaileok. Lehenik eta behin, sariketa hau sortu zenetik gurekin fin-fin lanean ari den Joxemartin Apalategi Begiristain jauna. Donostiako Filosofi eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean Antropologiako irakasle denak, epaimahaikide moduan hasi eta bigarren ediziotik aurrera Zuzendari Zientifiko dugunak eskaintzen digun laguntza, paregabea da. Izan ere, 1989tik lanean ari bagara ere, eta urteek emandako esperientziaren jabe bagara ere, beti sortzen dira «arazo» berriak eta horiei ere erantzun egin behar izaten zaie.

Edizio honetan epaimahaikide izan ditugunak hauek ditugu:

- Pilartxo Etxeberria, fonetikaria eta EHUko irakaslea.
- Luix Mari Zaldúa, etnologo aplikatzailea.
- Martin Mendizabal, historialaria.

Esan beharra dago epaimahaikide bakoitzak lan bat zuzentzeko ardura berezia izan badu ere, erabakia talde-lanaren ondorioz eta aho batez hartua izan zela. Dena dela, argitarapenari begira lan batekin izandako ezadostasunak bitarteko, Xabier Goñi historialariaren aholkua ere beharrezkoa izan da. Guztien aholku eta laguntzari esker eskaintzen dizkizugu gaur hiru lanak, irakurle.

1995eko apirilean jaso zituzten sariak ikertzaileek eta irailean hasi zituzten zuzenketa- eta osaketa-lanak. Luze joan dira aurtengoan lan horiek, erditze hi-

rukoitza izan baita alde batetik, eta geroz eta txukunagoak aurketzen saiatzeak ere lanak ematen baititu, bestetik: Ataungo euskararen azterketa zorrotza egiten da batean, desagertu eta betirako ahazteko arriskuan zeuden Ataungo karobiei buruz hitz egiten da bestean eta, hirugarrenak San Adrian inguruko kondairen berri ematen digu. Goierri gehixeago ezagutzeko bidea eskaintzen digute hirurek ere.

Dena dela esan beharra dago, ikerlan bakoitzean adierazten dena, beti ere ikertzailearen erantzukizuneko delata eta epaimahaikideek irizpide zuzentzaileak eman arren, azken finean egilearen borondatea eta askatasuna ez direla bortxatu nahi izaten, beraz, gai edo atal eztabaidatsurik suertatuz gero, ikertzailea bera egiten da argitaratu duenaren erantzule.

Hiru lanak hizkuntza eta forma aldetik zuzendu dituen Antton Idiakez izan da. Sariketa honetako aurreko edizioetan partaide eta ikertzaile izana delako sariketa barrutik ondo ezagutzen duen Maizpide Euskaltegiko irakaslea. Oso begi zorrotzez zuzendu ditu hiru lanak eta hasieratik bukaerara bateratzen egin duen lana oso ona izan da. Badakigu jakin oraindik ere agian akatsen bat edo beste aurkitu dezakezuela, inoiz bukatzen ez den lana baita zuzenketena, baina egindako lanagatik eskerrik asko eta zorionak, Antton.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, baita ere, Zegamako Udalari eta Kultur Etxeari, liburu hau argitara dadin eman diguten diru-laguntzarengatik.

11 liburukitan 14 ikerlan argitaratu ditugu dagoeneko eta 1989an hasitako bideari jarraitzeko asmoa dugula esanez agurtzen zaituztegu. On dagizula irakurketak eta datorren urtera arte.

Lazkaon, 1996ko martxoa

**ANDONI SARRIEGI ESKISABEL**  
GEE Kultur Elkarteko Lehendakaria

**LURDES AMUNDARAIN AIESTARAN**  
Maizpide Euskaltegiko Zuzendaria

**JOAN FELIPE BARANDIARAN GARMENDIA**  
Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordeburua

# SAN ADRIAN ETA INGURUEN KONDAIRA

*Jose Antonio Azurmendi,  
Rosa Suarez  
eta  
Aitor Azurmendi  
maitasun handiz.*



## 1. LANAREN AURKEZPENA



San Adrian, Mikelete etxea erre aurretik. Don Alfontso Zabalak, orduko Zegamako parrokoak, 1893an atera zuen argazkia. «Euskal Erria» aldizkarian argitaratua.

Udazkeneko arratsaldea zen. Zegamako baserri gehienak ikusten hasia nintzen banaka-banaka, zaharrek ziotena entzunez eta magnetofoniar hartuz. Arratsalde hartan Eguzkitze-zaharrean nuen solasa nere adiskide jator Joxe Mari Arakamarekin.

Ez zen erraz isiltzen zen gizona.

Oraindik gogoan daukat, udazkeneko arratsaldea zen, hego haizea soroko artalastoei soinu lehor bat kantarazi eta ihesi zihoan haur jolasti bat bezala.

Eguzkitze-zaharreko Joxe Mari San Adriango ipuin bat kontatzen zihar-  
duen, euskaldun baserritarrak gauzak kontatzen dituen trebeziak, eta San Adriango  
galtzada zaharra aipatu zuen.

– San Adriango galtzada zaharra? Zer da hori? Galdetu nion.

– San Adrianen bi galtzada daude, bat galtzada berria eta bestea zaharra,  
guk behintzat horrela deitzen diegu. Erantzun zidan adiskide jatorrak.

Galtzadei buruz mintzatu ginen luzaro; nik galtzada ezezaguna non zegoen  
galdetzean, semeari deitu zion.

– Jabier, erakutsiko al diok apaizari galtzada zaharra?

Jabierrek galtzada neri erakustea bere gain hartu zuen.

Egun gutxi barru Jabierrek erakutsi zidan aspaldiko bidea.

«Hainbeste aldiz korritu izan dudan lekuan bide hau nola egon zitekeen?»  
galdetzen nion neure buruari.

Ezin nuen sinetsi ikusten ari nintzena. Hain zen ederra bide zahar hura!



Jose Mari Arakama.

Ederra eta bitxia zen izkutuko galtzada, oraindano ikusitako galtzada guztiak baina bitxiago eta xarmentago, han zegoen lurrean etzanda Jaungoikoak daki noiztik.

Aizkorriko harri zuri-zuriz zegoen egina; behar bada Euskal Herriko mo-  
numenturik ederrena bera izango zen.

Jakintza arloan zerbait zirela uste nuen guztiei gertatuaren berri eman nien. San Adriani buruz eman diren iritzi okerrak zuzenduko zirelakoan nengoen. San Adrianez idatzi dutenek ez baitzekiten bide hau zenik ere.

Gure jakintsuek ez zioten begiratu ere bide ederrari.

Nik, nahiz kondairagile izan ez, gai hau neure gain hartu dut.

Gaizki edo ongi, San Adriango kondaira idaztea erabaki dut eta hor doaz Euskal Herriko lekurik sagaratuaren berriak.

Leku askotatik hartu behar izan ditut argitasunak; azkenean irakurlearen sakonera iristea da nere nahia.

San Adriani buruzko nere iritziak garbiago eman nitzakeela?

Zalantzarik gabe bai, baina hau da hain leku eder eta garrantzitsuari eskaini zaion lehen lana eta lehen bibliografia.

Erromateko galtzada bat badago San Adrianen, nahiz inork ezagutu ez, eta ordua da mendirik ederren honi buruzko ikuspuntuak eta bere kondairari buruzko iritziak aldatzeko.

Zegamako Eguzkitze–zaharreko Joxe Mari Arakamari zor diot bide eder honen ezaguera eta bere seme Jabierri ere bai.

Mila esker bie!

Liburuaren lau gaiak:

1) San Adriango bi galtzaden kondaira edo hipotesirik egokiena hau izango delakoan nago. Lehenengo saiakera da hau gai garrantzitsu honi begira.

2) Santi Espiritu eta Iruetxetaren (Gesalbizar) berriak hor daude, jakin nahi dituenarentzat.

Tenplarioak: Fraile hauek Gipuzkoan egon zirela ere zenbait idazlek ukatu egiten dute. Zegamako tradizioari eta arkeologiari esker ikuspuntu hori hautsirik izango dudalakoan nago.

Ladrón de Zegama: Zegaman Erdi Aroaren azken mendeetan hasi zen bizitzen Ladrón de Zegama; Ladrón de Gebararen semeren bat zen ziurki; Tenplarioen hutsunea betetzera etorri zela dirudi.

Bere inguruan erabili zuen Zegamako bizitza ehundaka urtetan. Bere politikaren berri ematen saiatu naiz ahaleginean, nahiz erraza ez izan.

San Adriango bidetik gertu egin ziren komunikabide berriak ere aipatu ditut. Gaztelatik Frantziara joateko, nahiz Erdi Aroan, nahiz gaur, San Adriango pasoa ez ezik, Altzaniakoa ere derrigorrezkoa denez.

3) San Adriango sinismenaren Arabako zutarrak.

San Kiriko: Aizkorriko artzain zaharren tradizioari esker, San Kiriko eta San Adrianen arteko ezberdintasuna gainditu nahi izan dut, ahalegin guztiak eginez, gainera.

Lan honetan ez naiz lehenengoa izan. Llorentek Godoy jauntxoaren aginduz, euskal testu zaharrak «Noticias Historicas» liburuan argitaratzean, Arsioren Kartan agertzen den Sanctam Trianam San Adrian zela konturatu zen XVIII. gizal-diaren azkenetan. Isaak Lopez Mendizabalek, Pyrenaica errebistaren 1. alean, Sanctam Trianam Sancta Trinitasen laburpen bat dela zioen 1967an.

Lehen elizari Sancta Trinitas zeritzon garbi asko.

4) San Adriani buruz bidaztieki idatzi zutena.

San Adriandik zehar pasatu ziren idazleek bortu honi buruz ziotena ere euskaraz eskaini dut, niretzat ezagunak diren testuak behintzat.

San Adriani buruzko herri aipamenak.

San Adriango mendien inguruan sortu diren herri ipuinak, batez ere lapurren kontuak, herriak buruan zeuzkanak bildu ditut.

Bide Zaila: San Adriango bideak oinez edo zaldiz kurritu behar ziren eta sekula ez zuen inork dilijentzian edo zalgurdian pasabide hau gurutzatu.

«...porque la reina no podía bajar del Puerto de San Adrián en “litera”, sino en silla de manos, mantuviese el cuidado de elegir cuatro personas que fuesen menester...»<sup>1</sup>

Beste idazle batek hara zer dioen:

«El paso por el monte San Adrián sólo es bueno para gentes a caballo y a pie, porque el camino de carrozas que sale de Vitoria va por Salinas...»<sup>2</sup>

Hara beste iritzi garrantzitsu bat:

«Fernando el Católico justificaba la necesidad de usar Navarra como vía de paso porque sus tropas y artillería, no podían nunca cruzar el difícil paso de San Adrián, que divide Alava y Guipúzcoa.»<sup>3</sup>

Nafarroak askatasuna San Adriango bidea zaila zelako galdu zuen, zalan-tzarik gabe.

Dilijentzientzat San Adriandik biderik ezin egin zitekeelako, Gatzagako bidea 1780an zabaldu zen eta San Adrian ahazten eta alde batera uzten hasi ziren bidaztiak.

Jose Manuel Gil jaunari mila eratako laguntzak ez dakit nola eskertu.

Liburu hau idazteko gaia Joan Garitano, Zumaiako zegamar adiskide zaharrak eman zidan. Bere iritzi erakuskorak sarritan hausnartu ditut.

Besterik gabe bukatzera noa.

Liburu honen saririk handiena niretzat, irakurlearentzat atsegina izatea litzateke.

Besterik ez.

Hernanin, 1995eko otsailaren 12an.

---

<sup>1</sup> LASA, J., *Tejiendo Historia* (San Sebastian, 1977) 33 orr.

<sup>2</sup> SANTOYO, J.C., *Viajeros por Alava* (Vitoria, 1972) 70 orr.

<sup>3</sup> SANTOYO, J.C., *De Crónicas y tiempos Británicos* (San Sebastián, 1974) 28 orr.



## 2. SARRERA

Urriak 28 dugu, hain zuzen. «*San Simon eta San Juda,  
juan zen uda,  
eta negua eldu da,  
artzai gaxoa galdu da*»

ORIXE. Idazlan guztiak III, 1094 orr.

Goizean goiz jaiki eta San Adrian zaharreko bideari ekin diot.

Nere bizitzaren erritmoan igo ditut mendiak, amas kolpe bakoitza ere das-  
tatuz, izadiari barnean leku egin ezinik.

Zeinen ederra den izerdia galtzeak gorputzari dakarkion atsegina!

Udazkeneko eguzkiak, zeruko biderik motzenetik, korritua du sabai zahar  
urdina eta bere zilarrezko orratzak buru gainera datozkit, zuzen-zuzen.

San Adrian zaharra, amets, kondaira eta ipuinen erresuma, zeinen ederra  
haizen!

San Adriango zulotik Gipuzkoa orlegia eta zero zuri urdina dauzkat aurrez  
aurre.

San Adrian ederraren poeta eta kronista umil sentitu dut hemen neure burua.  
Haitzek berun zikindua dirudite.

Haitzuloaren begi bakarrak Tartalorenaren antza dauka.

Begi handi bakar horretatik dakusat Gipuzkoa.

Aita Larramendi, bi aldiz gizon zenaren hitzak datozkit burura:

«Zinekin esan San Adriandik dakusagun menditarte honetan, hainbeste herri,  
eliza, baserri eta gizamota daudenik.»<sup>1</sup>

Hitz batean, Gipuzkoa, foru zaharren kabi noblea, aurrez aurre daukat,  
noblezia eta gizon leialen bizileku zaharra.

Azken usoak, udazkenarekin, izarren eta haizearen bide harrigarrietatik ba-  
doaz.

Haizeak biluztu berriak ditu zuhaitzak, basoak.

Itzali ziren zelaietako margo lodiak.

Udazkenarekin amets dagit, batez ere nire udazkenarekin.

Une bakoitza une berri gertatzen zait.

---

<sup>1</sup> LARRAMENDI, M., *Corografía de Guipúzcoa* (S. Sebastián, 1982) 81 orr.

Izatea ere une bakoitzak aldatu egiten dit: Demokrito greziar pentsalariaren erreka dirudi, bi aldiz igerira sar ezin litekeen osina.

Xorien xinta une bakoitzean berri.

Ni ere une bakoitzean berritzen naizen korapiloa.

Nere iraupena hostoena bezain laburra da, hegoak daramatzan orbelena bezain motza, tximeleten maitasun dantza bezain usaintsua.

Bortu zahar ederra, hi eta ni ez ote gaituk bat?

Nik bakarka eta bakarrik zaindu dizkiat hire oroitza, pelegrinoen intziriak, artzainen otoitzak.

Garoak, kobre margoz jantzi dituk, edo herdoilez; udazkeneko arropak kutxa zaharrean ondo gorderik zeuzkatean.

Hemen senti izan dut gizon izatearen malura eta Jainko seme izatearen poza.



**Bär, Harri Urdingo meatzeko injinieruak ateratako argazkia.**

Irudimenaren hegoek mila izar dituzte eta barne antsiak betikotasunaren garrasi dira.

Gipuzkoako mendi putzu orlegiari begira, hire sabaitik erortzen dihoan ur tantaren hotsa entzunez, zenbat gauza datozkidan burura, haitzulo maitagarria!

Ur tanta hori harrizko katilu batera erortzen omen zuan, pelegrino idazle zaharrek ziotenez; gaur lur biluziak edaten dik.

Pelegrinoen ipuinetan aipatu ohi zuten taberna edo jantokiak ez dik aztarrenik utzi; 1918an, mikeleteak bertan bizi zirela, erre zuan eta, gizonen urratsak elur gainean bezala, aspaldi izkutatua duk. Pelegrinoek aitatzten duten hire tabernako emakume lodi hura non ote zebilek baxoerdiak ateratzen!

Hire barruko gaztelu zaharraren arrastoak, erlearen pausoak bezala, galduak dituk. Zegamarako bidean zutunik dirauen ate gotikoa eta ermita gelditzen zaizkik, eta neurtu ezinezkoa den hire xarma.

Hire ederra kantatuz pasa zituan hemendik, Kolon Amerikaren bila zebilen egunetan, Joan Padilla «el Cartujano», olerkari artega eta ibilkaria.

Arnald Von Harff, aleman idazle famatua.  
Urte batzuk geroago, Venturino italiar fina.  
Navagiero, Veneziako enbaxadorea.  
Palatinadoko kontea... Eta bere ardurak.

Erregeek, zaldunek eta mila eratako jendeak kurritu zizkieten bide eder hauek, hire ederraz liluraturik.

Europako jaun eta jabea zen Karlos I.a enperadorea, burua makurtuz sartu zuan hire Haitzuloan. Baserritarrek diotenez, Txaparritik behera bere zaldiak utzi zuen perra zuloa oraindik ageri duk.

Hik ez baitiek enperadoreei ere errespeturik.

Hiri enperadoreak eta artzainak, gotzainak eta ikazkinak berdin zaizkik, bakardade goren horretatik ezin bailitezke berezi giza armada haundi honetan geure buruari ezarri dizkiogun gradu xeble eta handi-nahi zentzugabeak.

Ez zekiat gogoratuko haizen, Santa Kruz apaiza sarri pasa ohi zuan hire bihotzetik zehar, gaztaina sastraka bat makilatzat, eta beste armarik gabe. Bi armadaren aurka jardun zian artzain makila arrunt batekin; gure egunetako eta gure lurreko Kixote, Euskal Herriak sekula ulertuko ez duen gizona zuan.

Hura bai gizona!

Ordulari betikoaren une motzak ziruditek lur biluzean galtzen diren hire sabaiko tantek.

Milioika urtetan, tanta horrek zabaldu dik karaitz hutsune eta haitzulo berdingabe hau.

Ez zekiat milioika tanta diren edo milioika laztan urak harriari emanak dizkionak, nolnahi ere lurralde karstiko hau tanta horrek aldatu dik, garai batean, bidaztiek ziotenez, harrizko katilu handi batean jaso ohi zen ur tanta honek.

Tanta hori, izadiaren mailu biguna, zenbait lanen aita, betiko erlojua, itsasoaren zati mikrobiotikoa, San Adriango zuloa zabaldu duen lima urezkoa: Betikotasuna zirudik.

Zer dituk loreen bizitza, gizonarena eta herriarena, tanta arrunt horrekin konparatuta? Gaurkoa dirudik eta noiztik ote hator haitzak zulatuz?

Hire milioika urtetako mailua ere nahikoa motza duk Big Bang lehertu zen unearekin konparatuz gero. Artean goiza eta gaua ez zituan jaio.

Denbora orokorra eta espazio zabala ere kaxa txiki batean gordetzen zitian artean Jaungoikoak.

San Adrian ederra, zer duk handia, ederra, betikoa?

– Jaungoikoa duk bakarrik handia. Dirudi dioela San Adrianek.

Nere baitan bildu naiz inguruko isiltasunean murgildurik eta bihotzaren tau-padek San Adriango sabaiari darion tantaren hotsa ziruditen. Bihotzaren ondoan neukan, isil-isilik Jaungoikoa, Big Bang baino lehenago bazena, beste hoge mila milioi urte barru ere izanen dena.

Gizonaren arrangurik ederrena Jaungoikoa da beti.

Ondo pentsatuz gero, begi nekatuak dira bakarrik izadiaren edertasuna eta Jaungoikoaren xarma ulertuko ez dituzten begi bakarrik.



## LEHENENGO ZATIA ERROMATARREN URRATSAK ETA SANTIAGOKO BIDEA

### 3. SANTIAGOKO BIDEA

#### 3.1. Bere hastapenak

Duero ibaiaren ibar zabalak biztanlerik gabe gelditu ziren 729–753 urteetan, gudateak, lehorteak eta goseteak bitarteko zirelarik. Lurralde hauetan bizi ziren mairuek Al–Andalusko hirietan aurkitu zuten egoitza. Alfontso I.ak, aldiz, Duero, Ebro eta Miñoren ibarretako kristauez, Asturiasko hiri eta eremuak biztanlez hornitu zituen une berean.

Ibar hauetan, beraz, lur sail handiak hutsik eta biztanlerik gabe gelditu ziren urte luzeetarako.

Artzainen batzuk beste inor ez zen gelditu bertan.

Aro honetan Asturias, Kantauriko mendi–soken eta itsasoaren artean, mairuen indar–ekintzetatik bere burua babesten zuen lurralde bat zen.

Mairuek, Asturiasera sartuko baziren, bi alde zeuzkaten, Ebro ibaiaren ibarra edo Sil ibaiarena.

Denbora pasatuz zihoan, ordea. Asturiasko Alfontso II.ari, aipaturiko urteetatik 60 edo 70 urtetara, Ebro eta Silen ibarretako lurretan (Asturiasen bi irteera bakarrak) hiri berriak jasotzeko asmoa sortu zitzaion.

Erregeak zeregin hau bi gotzainen esku utzi zuen.

Balpuesta hiriko Gotzain Joanek Bureba gazteluz gotortu zuen; lurralde honi gerorantz, gaztelu hauek zirela eta, Gaztela deituko zitzaion. Ebroren ibarra Asturiasekin lotzen zuen Bureba zaharrakkondairan egin zigun lehen agerpena, Gaztela izenez.

Horrela sortu zuen gotzain batek Gaztela hain sonatua, geroago Espainiaren erresumarik indartsuena izango zena.

Silen ibarretan, Ullako gotzain Teodomirok ez zeramatzan ekintzak hain erraz; lurralde honetara ez zetorren inor bizitzera, mairuen beldurrez.

Eremuak eremu zirauen.

#### 3.2. Santiagoren mitoa oso berandukoa da

V. eta VI. gizaldietan «Apostoluen Katalogoak» idatzi ziren grekoz. Latinezko itzulpenean Santiago Espainian izan zela diote Katalogoek.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> GARCÍA VILLOSLADA, R. eta beste batzuk, *Historia de la Iglesia*, Vol.II (Madrid, 1963) 50 orr.

Liebanako Beatok Apokalipsiaren komentarioetan eta latinezko beste himno batean (783–788) «Regens Iohannes dextra solus Asiam Eiusque frater potius Spania» dio.<sup>2</sup>

Hari hauei jarraituz, Teodomirok, hain zuzen, gau batean erromatarren hilerri batean argi–txakur batzuk ikusi, nonbait, eta lurra zulatu ondoren, gizaki baten hezurak aurkitu omen zituen.

Hezur hauek norenak ziren?

Santiago Apostoluarenak izango zirela pentsatu zuen Gotzainak.

810. urtea zen. Argi–txakurak ikusten ziren hilerriari Campus Stelae deitu zitzaion. Izarraren lurraldea = Campus Stelae, edo Compostela.

Itxuraz, hilerriaren inguruan ba omen zen Jupiter Trumoitsuaren Jauretxe bat ere, ia erorian.

Jesusek Zebedeoren semeei Trumoiaren Semeak deitu izan zien.

Teodomirok, dirudienez, Jupiterren trumoiia Santiagoren abizenaz lotu eta, besterik gabe, mirariren batzuk bitarteko zirelarik, Silen ibarretan hiriak egin eta Santiagoren debozio sutsua sortu zuen Konpostelan denbora gutxian.

Hain zuzen, erromatarren aroan ere, per–agri–noak (kanpoan zehar doaze-nak) etorri ohi ziren inguru hauetara.

Finisterrae munduaren azkentzat zeukaten erromatarrek; eta, nolana ere, lur honek lehendik ere bazeukan sakralitaterik.

Erromatarren denboran bazen Finisterrera pelegrinantzan joateko ohitura.

Gertakizun hauek kontuan hartzekoak dira, Santiagoren mitoa aztertzerakoan.

Asturiasko Alfontso II.aren eta Nafarroako Antso Nagusiaren bitarteko 200 urteetan, Santiagoren debozioa eta pelegrinoen hastapenak, poliki–poliki, indar-tzen joan ziren.

Hala eta guztiz, lehenengo Asturiasko erregeen kezka eta geroagoko Leon-goena berdina zen: Duero ibaiaren ibarretako biztanlerik eza, eta mairuen indarra.

Dena den, nafar argi eta adoretu batek konponduko zigun gako zail eta astun hau. Jakina, Konpostela izango zen gakoaren maratila.

#### 4. SAN ADRIANDIK LEHEN ERROMESAK?

San Adrianen betidanik izan dela bidea edo pasabide bat uka ezina da, noski. Geroago aipatuko dugu hau. Hemen galdetu nahi nukeena zera da: San Adriango Haitzuloari itxirik zeukan atzeko aldeko irteera noiz zabaldu zitzaion? (Arrazoi geologikoen eta historikoen kobaren atzea noizbait ireki zutela baieztatu dute).

Bere barrenetik pasatu eta Zegamara nahiz Arabara jaisten den galtzada noizkoa da?

Galdera honen erantzun zehatza zaila denez, nolabaiteko gauza asko esan dira bide zahar honetaz eta haitzulo ederraz.

Inork ezin dezake gaurkoz edo, behar bada, geroago ere zehatz eta ziur gai honetan epai zuzen eta dokumentatua eman.

Datu idatzirik ez dago inon.

Hala eta guztiz, nere hipotesia ematera noa.

---

<sup>2</sup> SANDERS, H. (edit.), *Beati in Apocalypsin libri duodecim* (Roma, 1930) 116 orr.

Guztiok dakigun gauza da, Nafarroako Antso III.a Nagusiaren aurretik, Santiagoko bideek nolabaiteko egoera zaila zeukatela.

Santiagoko bide jakinik ez zegoenez, erromatarren bide eta galtzadetatik iritsi ohi ziren pelegriñoak Konpostelara.

Euskal Herrian, Sakanatik edo San Adriango bortutik, Arabara zihoan galtzadan zehar egiten zuten beren bidea pelegriñoek eta gero «Via Asturica»tik itsasaldera jo, eta azkenean, nolabait, Konpostelara iritsi.



Galtzada berriko argazkia.

Antso Nagusiak 1004. urtean Iruñeko erregetza aulkia lortu zuen. Monje katalan batek errege hau «Rex Ibericus» izenaz ederki asko izendatu zuen, eta arrazoirik handienaz gainera, izan ere, 1018tik 1025era, Sobrarbe eta Ribagorza erantsi baitzizkion bere erresumari, eta denbora gutxira Aragoako konterriko lurrak.

1027an, Gaztelako Gartzia kondea Arabako Belatarrek erahil zutenean, konterri hau ere Antso Nagusiaren eskuetara pasa zen, Gaztelako kondearen koinatua izaki.

1030ean, Bartzelonako Ramon Berenger III.a kondea eta Leongo Bermudo III.a erregea basailajea eskaintzen hasi zitzaizkion. Antso Gilermo Gaskoniako kondeak ere berea urte berean eskaini zion.

Hitz batean, Espainiako kristau erresuma guztiak, eta Frantziako hegoaldea ere, bere agindupean hartu zituen errege handi honek.

1002an, Almantzor hiltzean, Cordobako kalifatoak bere indar politikorik gehienak galdu zituen.

Kristau erresumarik gehienak, garai honetan, Almantzorren urte astunetako zigorrez erabat ahuldurik, bururik jaso ezinik zeuden.

Nafarroak, aldiz, Kalifatoarekin oso harreman onak eduki zituen 200 urte luzeetan eta Tuteran eta Zaragozako Beni-Kasi sendiarekin ere bai. Abderraman III.ak ama Nafarroako erregearen alaba zuen eta Almantzorren ama, berriz, erregina honen gorteko neskatxa napar bat zen.

Beni-Kasitarrekin ere Nafarroako erregeek izan zituzten beti nolabaiteko odol-loturak.

Antso Nagusiaren garaian Nafarroak indar guztiak oso-osorik zeuzkan eta edozeini aurpegi emateko gauza zen.

Kalifatoaren depresio ekonomikoaz indartu zen gehienbat Antso, erregeetan handiena.

1031an, 52 zatitan hautsi zen moroen Kalifatoa, Hixem III.a hiltzean, eta «taifa erresumak» sortu zirén. 52 erregekek, batek bestea irentsi nahian, laster sortu zuten beren artean atertu ezin izango zen burruka.

Mairuen Jauntxo hauek, bizi ahal izateko, Antso Nagusiaren babespea bilatu zuten, naparrari «pariak» zergak ordainduz.

Garai haietan, A. Ubietok dioenez, ikusgarritzko ziztuan ugaritu zen urtea kristau erregeen eskuetan. «La abundancia del oro entre los cristianos fue tan grande, que se cotizó muy bajo con respecto a la plata».<sup>3</sup>

Antso Nagusia izan zen, Espainiako erregeen artean, harreman diplomatikoak aurrena ofizialki Erromarekin hasi zituen agintaria, mairuak Espainiaren jabe egin zirenez geroztik.

Antso hil zenean, bere seme Naiarako Gartzia Erroman zela ere badakigu. Zalantzarik gabe diplomazi arazoetan ibiliko zela uste dute kondairagileek.

Clunyn erreformatu berria zen beneditarren ordena Leire eta bere erresumetako beste monjeteetan sartu zuen Antxok, Elizaren berritze zabal bati hasiera emanez.

Clunyn sorturiko erromanikoa monje hauekin sartu zen nafar lurretan eta Santiagoko bidean.

XI. eta XII. gizaldietan, Antso Nagusiak eta ondorengoek, mairuen eskueetatik jasotzen zituzten «pariei» esker, Nafarroan, Araban eta Duero ibaiaren ibarretan erromanikoa loretu zuten, inoiz gizonak sortu duen arterik ederrena.

Nafarroako erregeetan handiena izan zen Antxok, politikan eta ondasunetan hain jantzia zegoenez, ekintza garai bat hartu zuen bere gain.

Lan honetan, San Adriango bidea da nire kezka, bere haria da bilatu nahi nukeena.

Laster ekingo diot gai ilun honi.

#### 4.1. Bide baten beharra

Antso handia eta azkarra genuen aldi berean.

Bere erresuman eta Europan garaiko giroak sumatu zituen, hain zuzen. Feudalismoari alboan burgesia hazigaitz bat ere sortzen hasi zitzaiola konturatu zen, burgesia honek merkataritzarako bide egoki eta berriak behar zituela ere bai. Geroagoko gizaldietan errazago garatuko zen giza mota berri hau. Oroit Santiago bideko merkatariak. Iparraldeko kristau erresumen eta hegoaldeko mairuen artean inor bizi ez zen lurralde zabal eta luzeak zeuden, esan dugunez.

Kristau erregeen aspaldiko ametsa zen, 800. urtetik gutxi gora behera, lur hauetan, kanpotik erakarrirako biztanleen bidez, hiriak egitea.

Mairuek Errioxa eta Tuterako lautadei eta Aragoako Ebroren ibarrei bakarrik eman baitzieten garrantzia iparraldeko lurretan.

<sup>3</sup> UBIETO, A. cta beste batzuk, *Introducción a la Historia de España* (Barcelona, 1970) 131 orr.



Biztanleen eskasia ugaritzeko ametsek gordin zirauten kristau erregeen kas-koetan.

Antso Gaskoniako bere konterrian soberan zegoen jendearen edo biztanleen beharra zeukala konturatu zen Nafarroako nahiz Gaztelako erresumetan.

Kristau lurretan baino askoz ere ugariagoak baitziren gizakiak eta biztanleak mairuen eskualdeetan.

Bera ez zenean, bere erresumak erraz irentsiko zituzten mairuek, hain indartsuak izaki. Zer egin?

Arrazoi hauei begira sortu zitzaion, nonbait, buruan Santiagoko bidea, interes ezberdinei erantzungo zien tresna ordainezina.

Santiagoko bidearen funtsezko zergatia ekonomikoa izan zen, hau da, Duero ibaiaren ibarrak jendez hornitzea.

Hitz batean, Gaztelan eta Nafarroan biztanleak ugaritzea.

Pelegrinoen sinismenak bigarren tokia du, gauza guztiak eta, batez ere, bere hastapenak aztertzen badira.

Antsok, Santiagora joan—etorrian zebiltzan pelegrinoen bitartez, Gaskonian eta beste zenbait puntutan ondo jakinarazi zuen Nafarroan eta Gaztelan luberrien jabe egitea zeinen erraza zen.

Inmigrazio bat hasi zigun horrela errege handiak, berrehun bat urtean hain ezaguna izango zena.

Iragan gizaldian Ameriketako Mendebalean bezala, Europa deneko abentureroen bizitoki gertatu ziren Gaztela eta Nafarroako eskualdeak urte hauetan.

Antsoren eta bere semeen denboran, Santiagoko bideko hiriak eta herriak kanpoko jendez hornitu ziren. Antsoren biloben eta ondorengo denboran, Dueroen ibar guztia gaskoi, frantses edo alemanez populatu zen.

Erromesek eta merkatariak ere, bide honi esker, hasi zuten Sartaldea aldatu eta berrituko zuen bidaiaria luze eta ernaritu.

Olerkariak, gotzainak, erregeak, txiroek eta aberatsek, merkatari, santu eta alprojek, bide hau beren izerdiz bustiko zuten aurrerantz.

## 4.2. Nola egin zen bideetan famatuena den hau?

Erromatarren bideak oinarritzat hartu eta lortu zuen Antsok ekintza hau gainditzea. Erdi Aroan bide berririk ez zuen inork egin, erromatarren bideetan egin dira orain 200 urte arte peregrinazioak, merkataritza edo gudaketetako ibilaldiak.

### *Silosko Kodizea*

1110ean Silosko Codex Silensis deritzon eskuizkribu bat idatzi zuen ezezaguna zaigun fraileraren batek.

Kodize hau dela eta dakigu Antso Nagusia izan zela Santiagoko bidea sortu zuen errege jatorra.

Hara zer dioen Silosko kodizeak:

«Antso Nagusiak Nafarroatik Araban zehar mairuei ihesi zihoan bidea beste lur batzuetatik Naiarako gaztelura atera zuen. Burgostik Oviedora zihoan bide hau gero eta, azkenik, Konpostelara.»<sup>4</sup>

---

<sup>4</sup> *Historia Silense* (Edit. Santos Coco) (Madrid, 1921) 63 orr.

Silosko kodizearen ondoren idatzi ziren eskuizkribuek Siloskoak zioen gauza bera zioten: «Caminum Sancti Jakobi» eta «Genealogiae Najerensae» kodizeek, alegia.

Ehun urte geroago Jimenez de Radak dioenez, Antsok Orreagako erromatar bidea, mairuen beldurrez Arabatik zihoana, Naiaran zehar, Bribieskara eta Amaia-ra zuzendu zuen eta Carriongo inguruetatik Leona eta Astorgara.<sup>5</sup>

Nolanahi ere, Santiagoko bidearen hastapenek ilun diraute.

Garbi dakiguna zera da: Antso Nagusiak sortu zuela munduko biderik sonatuena.

Antsoren ondorengo erregeek bidea aldatu egin zuten, jakina.

### 4.3. Gipuzkoako bideak

Galdera garrantzitsu bat orain.

Antsok eratu ote zizkigun Gipuzkoako Santiagoko bideak?

Antsok egin al zuen San Adriango galtzada, bertan dagoen haitzuloaren atzeko aldea zabalduz?

Gipuzkoa, garai haietan eta geroago ere, nafar erresuma zela ahaztea ez da komeni.

Dirudienez, Antsok zabaldu zuen haitzuloa eta San Adrianen hain ezaguna zaigun galtzada ere bere garaikoa dela esan daiteke inongo zalantza handirik gabe.

Hara zergatia: 1964ko udan, Gasteizko Iradier taldeak, San Adriango haitzuloko bazter eta txoko guztiak aztertu ondoren, altxor berezi bat aurkitu zuen. Haitzuloak, Arabarantz goazela, ezkerreko aldean dauzkan zuloen ertz eta ziriztuetan 142 txanpon aurkitu zituzten.

Ondorengo egunetan, ikerketa berrietan beste zenbait gauza ere aurkitu ziren.

Aurkitutako zergauza guztiak beste orri batean zehatzago ikusi ahal izango ditugu.

Hemen zenbait txanpon aztertu nahi nituzke.

Jakin behar dugun gauza zera da: txanpona zuloetxo eta ertz horietan uzteko ohitura arrazoi erlijiosoan datzala. Gaur ere, oraindik, San Adrianen eta Santi Espiritun bidaztiek dirua uzteko ohitura ez dute galdu. Bideko Santutegietan dirua uzteko usarioa erromatarrek sartua dirudi. Erromako jendeak, bidaia luze bat hasterakoan, bideetako jainkoei opariak eskeintzen zizkien.

Bidean zehar ere, milarioak bezala, arulak ipintzen zituzten, intzentsua erreteko zuloetxo berezi eta apropos batekin.

Bideko aldaretxo hauetan erre ohi zuten intzentsua, bidaian jainkoen laguntza izan zezaten.

Herria kristautu zenean eta ermitak egin zirenean, bidaztiak, aldiz, argitarako dirua uzten hasi ziren santutegietan.

Ohitura honek gaur arte iraun du.

Esan dugunez, 142 txanpon aurkitu ziren San Adriango haitzuloko zuloetan.

Txanpon hauetako 12, Antso Nagusiaren bilobenak dira.

Txanpon bat, Gaztelako Alfontso VI.arena (1073–1109).

---

<sup>5</sup> JIMÉNEZ DE RADA, R., *Historia de los Hechos de España* (Madrid, 1989) V, 25, 218 orr.

Txanpon bat, Aragoako Antso Ramirezena (1063–1094).

10 txanpon, Nafarroako Antsorenak. (Peñalengoarenak) (1054-1076).

Agertu ziren txanponik gehienak Nafarroako Antsorenak ziren.

Ez da inolaz ere harritzekoa, aro maitagarri haietan Gipuzkoako diruak Nafarroako erregereanak baitziren.

Gipuzkoarrek izan behar zuten, noski, gehienbat bide honetan bidazti ze-biltzanak.

Nafarroako Antso, Gartziaren semea, Antso III.aren biloba, aitona hil eta 19 urtera iritsi zen Iruñeko errege izatera.

Peñalengo Antso honen hamar txanpon San Adrianen aurkitu badira, harri-garria al da Antso Nagusiak San Adriango haitzuloa ireki zuela esatea?

Orreagako bidea Konpostelaraino zabaldu zuen Antso Nagusiak ez ote zuen San Adriango bidea egin?

Dokumentu idatzirik ez dagoela?

Bere biloben txanponek, zalantzarik gabe, Antso III.a aitortzen dute bide honen egile handi eta bakartzat.

Gainera, Antsoren heriotzarekin, hasia zen Iruñeko erresuma gainbeheran. Bestalde, Antsoren semeek anaiarteko gudetan igaro zuten bizitza eta ez ziren erregerik egokienak San Adriango bide ederra zabaltzeko.

Askok ez badakite ere, Paris, Orleans, Tours, Potiers, Bordele eta Baionatik, Gipuzkoa, Araba eta Gaztelara zetorren bidea genuen San Adriango bidea. Paristik, Bordeletik edo Belgikatik Gaztelara nahiz Konpostelara zihoan bidea Orreagatik egin edo Irundik egin ez baitzen berdin: San Adriandik bide hau askoz ere motzagoa zen. Gure antzinako arbasoek, nahiz aldapatsua izan, bide motza na-hiago zuten beti.

Madrildik Europarako diplomazia guztia, Gatzagako bidea egin zuten arte (1780), San Adriandik zihoan. Europako eta Madrilgo gorteen harreman denak ere San Adriandik egin ziren.

Bide hau erregebiderik garrantzitsuena izan da gizaldi luzeetan zehar. Orreagakoa baino garrantzi handiagokoa zenbait gauzatan.

Gaur fosil hutsa da, ordea.

Antsok zabaldu al zigun lehen aldiz San Adriango bidea?

Haitzuloaren barrukoa bai. Lehenago edo betidanik egon da, ordea, bide bat urkila honetan. Ikusi haitzuloaren gaineko eskilarak, euriak eta elurrak ondo mihizkatuak. Handik zen Antsoren aurreko pasabidea.

#### **4.4. Antsoren bidea baino lehen nondik zebiltzan erromesak?**

Erromatarrek Bordeletik Iruñerako bidea egin zuten, Orreagan zehar. Ar-madaren garraioa eta beste zenbait zamalda bertatik pasatu zirela ez dago esan beharrik. «Saltus Vasconum» deitu zioten pasabide honi Erromako idazleek.

409an Galian uztak murriztak izan zirela eta bandaloak, sueboak eta alanoak Orreagatik etorri ziren Espainiara ogi bila.

Zenbat aldiz zeharkatu ote zuten euskaldunek Orreagako bidea frankoen eta godoen aurkako gudateetan.

778an Orreagan garaitu zuten Karloman euskaldunek.

Antsok Orreagako bidean pelegrinoentzat etxe bat egin baino lehen erro-mesak Orreagatik etortzen al ziren?

Antso Nagusia Iruñeko errege egin aurretik Konpostelan ezagutzen ditugun pelegriñoak hara zein ziren:

Gotescalco Akitaniako Puy hiriko gotzaina zen. 950. urtean etorri zen Konpostelara eta 951an berriz etxeratu. Nondik etorri eta joan zen ez dakigu.

Montserrateko Cesareo Montserrateko Santa Ceciliako Abadea zen eta Konpostelan 959an izan zen. Pirineorik ez zuen zeharkatu.

Vermandois Reimsko gotzain feudal eta xeble bat zen. 961ean izan zen Konpostelan. Nondik bi bider Pirineoa zeharkatu zuen ez dakigu.

XI. gizaldian ezagutzen diren pelegriñoak, Antso Nagusia hil eta geroago bidaia egin zutenak dira.

Gudagizonak eta armadak ibiltzeko egokia zen Orreagako bidea, pelegriño gizarajoentzat ez omen zen egokia, oso luzea eta basatia izanik.

Pelegriñoek bertan ez zuten jateko edo lo egiteko aterperik, eta bidea luzea zen, Antso Nagusiak Orreagako pelegriñoen etxea egin zuen arte.

Orreaga izena lehen aldiz Santiagoko bidean 1135 inguruan azaltzen da, «Liber Sancti Jakobi» deritzon kodizean.

Espainiar idazleen ustez, lehenengo Santiagoko pelegriñoak Orreagatik Arabara zetozen, zalantzarik gabe. Beste biderik ez dute ikusi, Somport izan ezean, XIII. gizaldian Irundik Gipuzkoa osoa zeharkatuz beste bide bat egin zuten arte.

Irun 5000 biztanleko hiri bat genuen Erromatarren Aroan.

Hiri hori biderik gabea ote zen?

Erromatean, eta geroago ere, Irundik eta Orreagatik jendea zebilen. Esan al liteke Irungo bidea XIII. mendean zabaldu zela?

Nahikoa ausardi ez ote?

Georges Cirot idazle frantses bat konturatu da, eta oraindik aspaldi ez, 1934an, Antso Nagusiak Orreagako aterpea egin aurretik, bide hau ez zela pelegriñoentzako bidea: «mais par la voie tout indiquée qu'était l'Alava, c'est—à—dire aussi le Guipuzcoa et per Irun.»<sup>6</sup>

Cirot jaunak dioena ere egia da, 30 edo 40 kilometroko bidea zegoen garai haietan Orreagan pertsona bizirik ikusi gabe egin behar zena. Multzo handian zetozen pelegriñoentzat gaitzerdi, baina pertsona gutxik zeharkatu ezin zezaketen bidea zen berez.

Antsoren aurretik Gipuzkoan bideak baziren. Bide hauen inguruetan bizi ziren gipuzkoarrak oso banaturik artzantzan.

Bestalde, berriz:

- a) XIII. gizaldirarte inor ez zebilen lekuan, San Adrianen, Antsok zergatik zabaldu zuen haitzuloa eta zertarako egin zuen galtzada berria?
- b) Silosko fraileak dioenez, pelegriñoak itsas aldeko bidetik Arabara desbideratzen ziren, barbaroen beldurrez.

Itsas aldeko bidea bazegoen beraz eta Irundik zihoana X. gizaldian Gipuzkoan zehar.

Barbaroen beldurrez dio fraileak. Normandiarrez mintzo dela dirudi esaldiak. IX. eta X. gizaldietan gizon hauek zigor astuna ziren Kantaurin. Bide hau pe-

---

<sup>6</sup> CIROT, G., *Per devia Alavae*, Bulletin Hispanique 36 (1934) 88–93 orr.

*Idem*, *Le chemin de Compostelle, d'après Madoz et Morales*, Bulletin Hispanique 38 (1936) 537 orr.

legrinoek utzi egin bazuten ere, San Adriangotik ekin zioten berriari, dirudienez. Nondik bestela itsasaldeko bidea utzi eta Araban sartu San Adriandik ez bazen.

Zalantzarik gabe esan genezake Santiagoko lehen pelegrianoak San Adriango urkilatik pasatu zirela, Orreagatik bezala.

Antso Nagusiak Europako bide berezia izateko berritu zuen Orreaga, bortuan ospitale jator bat eginez, pelegrianoek bertan jan eta lo egin zezaten. Pelegrianoak egun batean egin ezinekoa zen Orreagako bidea. Ez zen bide atsegina.

Pelegrianoek gehiena zebilen bidea, San Adriangoa, garrantzi eta arreta handikoa zelako eta jende asko zebilen lekua izaki, berritu zigun Antso Nagusiak.

Silosko kodizeak dioenez, Santxok ospitalea egin zuenetik erromesak Orreagatik zetozen edo Pirineoetako mendietatik.

Eta aurretik?

Inork ez daki gauza garbirik.

Orreaga, Somport eta Irun ziren, ordea, bide jakinak.

San Adriango galtzada Antso Nagusiak egin bada, nondik zihoazen 1000. urtearen aurretik Konpostelarako erromesak?

Gero ikusiko dugunez, San Adrianen badago oraindik Antso baino lehenagoko bide bat; hau zen noski erromesen bidea.

Nola ez da aurkitu haitzuloan Antsoaren bilobenak baino txanpon zaharragorik?

Haitzuloan biderik ez zegoelako. Bidaztiak urkilan zehar pasa ohi ziren haitzuloan sartzeko astirik eta gogorik gabe. Haitzuloari bideak eman zion misterio zaharra.

Txanpon kopuruak eta urteak iritzi hau baieztatu dute.

Norbaitzuk diotenez, Nafarroako bideak gaztelarrentzat itxirik zeudelako hasi omen zen jendea San Adriandik ibiltzen XIII. gizaldian.

Horiek ez al dira konturatu, Nafarroak Espainiarekin bat egin eta gero ere, Gaztelako gortearen diplomaziaren bidea San Adrian izan dela, Gatzagako bidea zabaldu zuten arte? 1780an hasi zen egoera berria.

San Adriango haitzuloan bada sakralitate berezi bat: gaur ere oraindik gure artzain eta ehiztariak, San Adrian zeharkatu behar badute, ez pentsa haitzuloan barrena igo edo jaitsiko direnik. Leizarrateko orkilako eskaileretatik egiten dute joan etorri hau. Haitzuloa gaur ere jende honek Jaungoikoarekin elkartzeko edo meza entzuteko bakarrik erabili ohi du. Ganadua biltzera edo ehizera joatea eta beste mila gauza profano, haitzuloan sartu gabe egiten dira, gainetik pasatuaz.

Haitzuloari errespeto handiz begira ohi dio gure menditarrak.

### *Zegamako herriaren oroitzak zahar bat*

«San Adriango kueba aspaldi zaldu mentzuen. Plomo urte botatze' mentzien aitzei gañea, ta gero ur otza plomo beroi. Bain da berriz operazio hau eiñez, poliki poliki, lénengo arkaitze pitzau ta gero zulau ein mentzuen».<sup>7</sup>

Nola nahi ere, San Adriani «Peña horadada» deitu izan zaio gizaldietan.

---

<sup>7</sup> D. Inazio Gorrotxategiri aspaldi entzuna.

#### 4.5. Gaztela eta Gipuzkoaren elkartzea: 1200 urtea

Gipuzkoa 1200. urtean Gaztelarekin bat egin zen. Arrazoiak ekonomikoak izan zirela begien bistako gauza da.

Gaztelako Alfontso VIII.a 1176an Akitaniako Leonorrekin ezkondu zen Sorian.

Leonoren aita Enrike II.agandik, ezkontza honen saritzat, Gaztelako artile sonatuak Ingalterran saltzea lortu zuen Alfontso, eta emaztearen dotetzat, Akitaniako Dukerria.

Gaztela, emaztearen ezkontza sari zen Akitaniaz batu nahi izan zigun errege zuhur honek, eta hori Gipuzkoan zehar bakarrik lortu zezakeen.

Gipuzkoarren gehiengoa, garai haietan, artzantzatik bizi zen.

Gipuzkoarrak ondo eta laster konturatu ziren, Gaztelarekin elkartuz gero, beren artileak Ingalterran saltzeko aukera zetorkiela.

Arrazoi hauek ikusita, esan genezake, zalantzarik gabe, Gipuzkoa Gaztelarekin bere gogoz batu zela.

Gaztelako artileei Gasteizen biltegia ipini zitzaizen eta Urduña, Gatzaga eta San Adrianen zehar, Gaztelako artileak eta ardoa euskal portuetara zeramatzaten zamaltzainek, eta gure itsasgizonen itsasuntzietan zihoazen, berriz, Ingalterrakoko eta Flandesko merkatuetara.

San Adriango txanponetan ugarienak, Urraka, Alfontso VI.aren alabaren garaioak dira, 53 txanpon. Haitzulora Gaztelatik jende asko zetorren seinale da. Txanpon kopurua benetan harrigarria da.

Gaztelako Alfontso VIII.arenak 12 txanpon dira eta Alfontso X.arenak 30.

Bi Alfontsoen txanpon kopurua erraz ulertzen da. Gaztelako artilearen eta ardoaren garraioa puri-puritan zegoen garai hauetan eta garraiolarien sinismen-opariak ditugu txanponak, noski.

Gaztela eta Frantziaren arteko harremanak bide baten bitartez finkatzeko aukerarik onena zen 1200a, Gipuzkoa Nafarroako erresumatik irten eta Gaztelarekin batu zen urtea.

Hara zergatik «Frantses bidea» deitu izan zaion bide honi gizaldietan, izan ere, Gaztelako bide hau baitzen, Frantziara zihoazen bideetan bakarra.

Zenbait zamaltzain, itzai eta itsasgizonek aurkitu ote zuten lana ustegabeko garraio hauetan?

Alfontso VIII.aren helburu bat, Gipuzkoa bereganatzean, gure itsasgizonak eta Kantauriko itsasuntziak bere mende hartzea zen, zalantzik gabe. Ordurako euskal itsasgizona munduko onenetakoa baitzen.

Nola nahi ere, San Adriango bideak nortasun berria hartu zuen gertakizun hauek zirela eta. (Adibidetzat, txanpon kopurua)

Gaztelako erregeek bide honi garrantzia eta babes franko eman zizkioten.

Alfontso X.ak, bide hau babesteko, 1256an Aguraini, Segurari, Villafrankari (lehen Ordizia) eta Tolosari, «Villa» titulua eman zien, eta harresiz herriak ingura zituzaten eskubidea.<sup>8</sup>

Tolosa, Erdi Aroko eta geroagoko mapetan, Toloseta izenez idatzi ohi zuten, Frantziako Tolosarekin inork nahas ez zezan.

---

<sup>8</sup> PORTILA, M., *Una Ruta Europea por Alava a Compostela* (Vitoria, 1991) 32 orr.

Antsok eginiko bide hau, San Adriandik igaro ondoren, Iturzabaldik Gesalbizkarrera (Iruetxeta) zetorren, Gesalbizkarretik Idiakaitzera jaisten zen eta Oria ibaiaren alboan, Andoainera jotzen zuen, eta azkenik Urnietatik Hernanira.

Iturzabaldik Egurtzera eta gero Amianora zetorren bidea bigarren mailako bezala utzi zen. Bide hau geroago ikusiko dugu, Erromateko kondairan.

Iturzabalen, ordea, San Adriango bidea bikoiztu egiten zen. Beste bide hau ere, artzainen, erromesen eta merkatariena izaki, Mandabiden zehar, Brinkola, Legazpi eta Mandubiako lurretatik, Zelatun, Zarate eta azkenik Hernanira zetorren. Hemen Oria ibaiaren alboan zetorren San Adriango beste bidearekin elkartzen zen, gaur egun RENFEko geltokia dagoen inguruan. Bide hau oso zaharra da.

Gipuzkoan hiriak Oriaren ibarrean egin zirenean, lehengo arreta eta garrantzia galdu egin zituen bide honek.

Hemanin elkarturiko bideak Astigarragako Santiago mendia pasa eta Oiarzundik Irunera zihoazen.

#### 4.6. San Adriani buruzko testurik zaharrenak

- 1) Arsio, Baionako Gotzainaren dokumentu sonatuan agertzen da San Adrian lehenengo aldiz, Baionako Elizbarrutiaren muga bezala.

Dokumentua 980 urtekoa balitz bezala dago idatzita. Askoren iritzian, geroagokotzat jotzen da.<sup>9</sup>

- 2) Iruñeko katedralean aurkitzen den dokumentu batean, Antso Nagusiaren aroan, 1007an egin dela dio diplomak; Iruñeko Elizbarrutiaren muga ere San Adrianen ipintzen da.

Diploma hau ere geroagokoa dela diote kondairagileek.<sup>10</sup>

- 3) Nafarroako Antso Indartsuak, Gaztelako Alfontso VIII. arekin Guadalaran 1207an eginiko itunean, hitzaren fidagarri bezala, elkarri hiruna gaztelu eman zizkieten. Antso nafarrak San Adriangoa, besteen artean, eskaini zion Gaztelako erregeari.<sup>11</sup>

## 5. ERROMATARREN BIDEAK GIPUZKOAN

### 5.1. Urrats zaharrak

Erromatar geografoen testuetatik ezin dezakegu gauza handirik atera garai haietan Gipuzkoa zeharkatzen zuten bideez.

Iruñetik Oarsorako bide batez mintzo zitzaigun Erromako geografo Estrabon.<sup>12</sup>

---

<sup>9</sup> MARTÍNEZ, G., *Guipúzcoa en los Albores de la Historia* (San Sebastián, 1966) 168 orr.

<sup>10</sup> *Idem, op. cit.* 170 orr.

<sup>11</sup> GARIBAY, E., *Los XL libros del Compendio...* (Amberes, 1571) II alea, XII Liburua, 732 orr.

<sup>12</sup> ESTRABÓN, *Geographica*. III.4. 10 orr.

## Ravennako idazle eta geografo anonimoa


«Por fin, un geógrafo anónimo griego redactará en Rávena, a mediados del S. VII, otro tratado de Geografía que debe inspirarse en un mapa del siglo III que reproducía las cartas del “Orbis Pictus” (mapa) de Agripa. Aquí se dibuja –con numerosas incorrecciones de transcripción– la vía Tarragona–Oiasson, aquella que citaba Estrabón.

Parte de Tarracona y por el Oceani, Nobas, Cesaraugusta (Zaragoza), Segia, (Ejea de los Caballeros), Terracha, Caria (Santacara), Pompelon (Pamplona) y Alantune (Atondo) llega a Ossaron (el Oiasson)»<sup>13</sup>

Erromako geografoek ez zuten behintzat beste biderik aipatu gure Gipuzkoan.

Bide honetaz aparte, beste bide asko zeuden Gipuzkoan Erromatarren garaietan, batez ere, aipatzera noan hiru hauek ere bazeudela esan daiteke, noski.

Erromate Aroko bideetan oinarritu zirela dirudi Espainian, zalantzarik gabe, eta Gipuzkoan ere berdin, pelegriño zaharren lehen pausoak.



Gipuzkoako bide zaharren mapa. (L.M. Zalduak egina)

Pelegrinoen bideak ere hiru baitziren Erdi Aroko urte ilunetan Gipuzkoa alderik alde zeharkatzen zutenak.

Hiru bide hauek Galiatik Hispaniarako muga, Irunen, bide bat bakarra ziren. Hemen hirukoizten zen Gipuzkoako lurak kurritu ahal izateko. Hara nola:

Bat, Irundik, Donostiatik, itsas bazterrari jarraika, Bizkaira zihoan.

<sup>13</sup> BARANDIARÁN, I., *Guipúzcoa en la Edad Antigua*, (San Sebastián, 1976) 31 orr.



Bestea, Irundik gaurko Oiartzuna zetorren; oroit Arditurriko meatzeek Erromatarrentzat zuten garrantzia. Oiartzundik bide bera, Astigarragako Bentetatik gora, Santiago menditik Ergobiara jaisten zen, Hernanin sartzeko. Hernanin, gaurko trenbideko geltoki inguruan bikoizten zen bide hau, ezker eskubi bikoiztu ere. Ezkerrekoa, Oria ibaiari jarraituz, Zegamara iristean, Iturzabalera igotzen zen.

Oria Ibarreko Bidea deituko diogu bide honi.

Eskubikoa Lasartera zihoan, Zubieta, Zarate, Iturriotz, Zelatun eta azkenik Mandubiara (Mandabide) zetorren, Eizagatik, Brinkolan zehar, Zegaman sartzen zen. Hemen Aizkorriren gerria kurrutuz (Mandabide) Iturzabalen elkartzen zen Oria ibarretik zetorren bidearekin. Gipuzkoa osoa kurrutu eta gero bi bideak bat eginik, San Adriango haitzulutik, Araban sartzen ziren.

Mandubiako Bidea deituko diogu bide honi.

Itsasaldeko bidea utz dezagun alde batera, oraingoz.

Bi bide hauek, kondairan, erromesen bide bezala ezagutzen dira, baina erromesen arrastoak baino zaharragoak aurkitzea ez zaigu hain zaila gertatuko.

Bideen zahartasuna erromatar eta zelden toponimietan finkatzen da gehienbat eta bideko toponimiak aztertuko ditut, eta bide hauen inguruetaoak, jakina.

## 5.2. Noiztik ote bidea San Adrianen?

Orografia hau eta gaurko abere motak sortu zirenetik, esan liteke, San Adrianen bazela pasabidea. Eginotik Arri Urdiñera dagoen bortu edo urkila bakarra dugu bera eta gainera urte guztian ur ederra dauka, gailurrean bertan.

Gure bide zaharrak gizonok ez, abereek urratu zituzten lehen aldiz, eta Jaungoikoak daki noiz. Harri Aroan, nolana ere, eta gizona sortu aurreko urteetan, behar bada.

Erromatarren aroan Sandratin pasabide bat ba ote zen galdetzeak umekeria dirudi. Atzokoak ditugu erromatarrek, zeltak, iberoak eta beste jende asko.

Neanderthal gizakiak Gipuzkoan duela 60.000 urte bizitu zirela badakigu, premusturiense aroan, hain zuzen.

Ikusi 1964an D. Jose Migel Barandiaranek Arrasateko Leize Txikin aurkitu zuen besondoa, erabat Neanderthal gizakiarena.<sup>14</sup>

San Adriandik lehen gizona ez zen Erdi Aroan pasa.

Erromatarren aroan, eta askoz lehenago ere, urkilak eta bide hauek zabalik zeuden eta haietatik ibili behar Gipuzkoatik Arabara joan nahi zutenek.

Lehenengo gizona San Adrian gainera noiz pasa zen Jaungoikoak daki bakarrik; orain hogeitaka mila urte, noski.

## 5.3. Toponimiak

Askotan ahaztu den gauza zera da: Gipuzkoa, erromatarren aroan, nekazalgotz sendo baten jabe zela. Garai haietako «fundus» edo «villen» izenak Gipuzkoa osoan oso ugari daude. Hor daude nahi dituenak aztertu. Caro Baroja eta Mitxelena irakurri bitza gaiaren jabe izatera iritsi nahi duenak.

---

<sup>14</sup> *Idem, Excavaciones en Aitzorrotz*, 1968, Munibe XXII (1970). Fas. 3/4 40 orr.

Gipuzkoako herri gehienetan, gaur bertan ere, aurki genezake «fundus» haien toponimiaren bat. Gure nekazalgoa Aro honen hiru edo lau lehenengo gizaldietan indartsua zen, beraz.

Adibideak:

Ataun, Lazkano, Atano, Otaño, Gellano, Amiano, Berasa, Murgia, Cerain, Andoain, Baliarrain, Orendain, Beasain eta beste asko.<sup>15</sup>

Erromako agintea beherantz hastean, barbaro bizargorriak Inperioari iparraldetik bultzaka hasi zitzaizkion. Urte gutxitan Inperioaren aginteari sekulako hutsuneak azaldu zitzaizkion. Nekazari armatuak jaiki ziren, aurrena Akitanian eta geroago Pirineoaren bi alderdietan, hil edo biziko burrukari ekinez.

«Bagauda» izenez ezagutzen da kondairan matxinada hau.

Euskalerrian sekulako eragina eduki zuen mugimendua izan genuen.

Aro honetako bizitzak ez zuen oinarririk, segurantzarik: nolnahi gal zitezkeen bizitza edo ondasunak.

Bagauden berri handirik ez daukagu. Gosete gogor eta krisi luze batek milaka pertsonentzat biziezin latza ekarri zutela agian, eta zer galdurik ez zeukaten gehienek lapurretari ekin ziotela.

Jende honek, goseak bereak dituen larritasunez eta amorruez, Ebrotik Garona ibairainoko lurak deuseztu zituen.

Noiz hasi zen bagauden iraultza? Noiz bukatu zen? Inperioaren azken urteetako izan zela dirudi. Urte batzuetako izurritea izan zen, nolnahi ere.

Barbaroen etorreraz ere, Sartaldeak aldakuntzarik nabarmenenak ezagutu zituen. Germaniar herri hauek su eta gar sartu ziren Inperioko lurretan eta aurrean aurkitu zuten dena hautsi eta txikitu ondoren, Sartaldeko jendeek ahal zuten erara bizitzen ikasi behar izan zuten.

Barbaroen triskantzak urte gehiegi iraun zuen gauzak ondo ibili ahal izateko. Sartalderik gehienari nekazaritza ahaztu zitzaion urte beltz, ilun eta luze haietan.

San Benitoren ordenako monjeek erakutsi zioten Europari nekazaritza, urte neketsu haietan erabat ahaztu zitzaion ogibidea.

Hau dela eta, San Benito dugu Europako Zaindari, eta gainera gehiago, Europa berriaren sortzailetzat ere ikusi ohi da santu hau kondairan.

Gipuzkoak, hain zuzen, XII edo XIII. gizaldietan berrikasi zuen nekazaritza eta Bizkaian ere gauzek ez zuten aldakuntza eta ezberdintasun handirik izan.

Kontuan zera hartu behar da: Nahiz Erdi Aro ilunean nekazaritzarik ez ezagutu, Erromaren mendeko zela edo zelten morrontzapean zegoela, Gipuzkoak nekazaritza ezagutzen zuela.

Toponimietatik eta arkeologiatik hau erraz frogatu daitekeen gauza da. Ikusi dugunez, Inperioarekin galdu zen Gipuzkoan lurra lantzeko trebezia. Gipuzkoako nekazaritzaren hasiera oraingoz utzi dezagun, geroago jorratu ahal izango baitugu gai hau.

Goazen berriro erromateko «fundusak» edo baserriak Oria ibaiaren inguruetan ikustera.

Erromatarrek Erroma sortu baino askoz lehenago, Oria ibaiaren ibarretan jendea bazebilen, eta jendea dabilen lekuan bide bat badago, noski. Bide honen ertzean erromatarren «fundusak» bazeudela ikusiko dugu orain.

Zerk narama bi bide hauek erromatarren garaikoak edo lehenagokoak izan litezkeela esatera?

---

<sup>15</sup> BARANDIARÁN, I., *Guipúzcoa en la Edad Antigua*, (San Sebastián, 1976) 109 orr.

- 1) Urbia, Aizkorri, Altzania edo Saadarko mendietan udan biltzen ziren artzainak (Trikuharriak hor daude lekuko) oinik ere busti gabe, erreka bakarrik gurutzatu gabe, itsas aldeko lur epeletara iritsiko baziren, hau zuten bidea, Mandubiakoa.

Artzainen bide zahar guztiak bezala, Gipuzkoaren bizkar hezur osoa kurrutzen zuen bide honek, eta mendi gaineretik mendi gainera zihoan, Goierri gorenetik Hernani, Urnieta, Donostia, Usurbil eta itsas inguruetako lurralde bigunetara.

- 2) Bide hauetako toponimiak edo lekuizenak aztertuko ditut.

#### a) Toponimia aztertuz

Hernanitik Goierri gorenerako bidean, Oriaren ibarrean, zenbait lekuizen badaude kontuan hartu behar ditugunak.

Ikus dezagun toponimia hauei buruz zenbait autorek diotena:

«Interés más concreto tiene el examen de aquellos nombres de lugar que aún pueden conservarse en Guipúzcoa como reliquia, o testimonios, de un origen latino. Julio Caro Baroja ha ofrecido la hipótesis de que buen número de los nombres de lugar del País acabados en -ain, -in, -ano, -ana, -oño, -oña, -ango, -iz, -ez, -oz aludirían a fundi o complejos de posesiones rurales de época romana, cuya denominación se hiciera por el nombre de su dueño acabado, adjetivamente, con el subfijo -anus, -ana, -anum.»<sup>16</sup>

«En cuanto a los nombres que reflejan topónimos en -ain podemos citar entre otros muchos los siguientes:

Ascain = Askanius.

Barbarin = Barbarus. Barbarianus.

Luquín = Lucius. Lucianus. (C hizkiak latinez, k-ren soinua zeukan).

Idocin = Idacius. Indacianus.

En Navarra hay muchos más casos.

En Guipúzcoa se dan estos cinco casos en -ain: Cerain, Andoain, Baliarrain, Beasain, Orendain. En Alava tres (Urabain, Munain y Gojain).»<sup>17</sup>

Gipuzkoako bost izenen esanahia:

«Baliarrain = Valerianus izenaren emaitza.

Orendain = Aurelianus izenaren emaitza. (Au) romantzean (o) hizki bihurtzen da. Euskaraz ere bai. Aureus = Oria, adb.

Andoain = Antonianus izenaren emaitza.

Beasain = Bexaza edo Beraxanum izenaren emaitza.

Zerain = Egia esan, ez dakit latinezko zein izenetatik letorkeen.»<sup>18</sup>

Bide honen inguruan, latinez «villa» zerizten nekazaleak aurkitzen ditugu, beraz, Andoaindik hasi eta Zerain eta Zegamaraino. «Villa» hauek nagusiaren izena zeramaten, -anus en bukatzen zena; eta -ain bihurturik aurkitzen da gaur egun izen hori bera gehiengan.

<sup>16</sup> BARANDIARÁN, I., *op. cit.* 108 orr.

<sup>17</sup> CARO BAROJA, J., *Materiales para una historia de la lengua vasca en relación con la latina*, (Salamanca, 1945) 83-84 orr.

<sup>18</sup> MUJICA, L.M., *Euskal toponimiazko materialeak*, (Donostia, 1988) VI. alca 27, 9 orr.

«Villa» hauek bide baten ondoan zeuden, noski.

Toponimia hauen esanahia hau besterik ez da: Gipuzkoak bazuela alderik alde zeharkatzen zuen bide erromatar bat, Oria ibaiaren ibarrean, hain zuzen.

## Mandubiako Bidea

Bide honetaz mintzatu aurretik, gogoeta batzuk:

«Los romanos durante su época de dominio en la península aprovecharon las rutas de comunicación existentes en el país con anterioridad a la conquista y que remontaban a periodos prehistóricos.»<sup>19</sup>

Lehen bideak erromatarrek asmatuak direnik ez beza inork uste, ez sinetsi. Askotan, kondaira irakurri eta antzeko ondorioak atera litezke.

Hernanitik Zelatun eta Izagan zehar Iturzabala datorren bideak ere, Mandubiako bideak alegia, baditu toponimia esankorrek.

### b) Toponimiak aztertuz

Otto Joannsen irakaslearen «Geschichte des Eisens» liburuko zita bat erdaraz:

«Del sánscrito Ayas, con el sentido de deslumbrante, proceden quizá todas las denominaciones indogérmicas para el hierro (eisen, eisarn, iron, jarn, hierro, ferrum, fer) y para el mineral (erz, eren y chern)...

Recordemos asimismo que a la herramienta típica vasca, y más vieja empleada hasta nuestros días, se la denomina “laya”.

Delbrück estima también que la raíz “aya” o “ais” fue un nombre vivo en las lenguas que precedieron, para él desconocidas, a las que más tarde sirvieron como base (el sánscrito y otras) para la formación de las actuales indoeuropeas, con la acepción de mineral o metal, incluyendo al cobre y al bronce.»<sup>20</sup>

Zeltek, hau da, Indoeuropearrek arakatu zituzten lehenengo aldiz Euskal Herriko meatzeak.

«Aia» hitz hau edo, hobeki esan, izen hau Oiartzundik, Zelatun eta Mandubian zehar, San Adriana dihoan bidean sarri aurkitzen dugu eta gertakizun honek zerbait esan nahi du:

1) Aiako haitzak. Arditurriko meategien gainean aurkitzen dira. Erromatarrek ondo ezaguna zuten bertako burdina eta beruna.

Esan beharrekoa da, Erromatarrek zelten meatzeak erabili zituztela burnia edo beruna ateratzeko.

Zeltak Arditurrin 800 bat urte K. a. bizitzen hasi ziren.

Lekuko, Oiartzundik Leizaran bitarteko harrespil txikiak.

2) Aiako herria Iturriotzik zihoan bide alboan dago. Bertan oso meatze zulo zaharrak ageri dira, erromatar garaikoak eta zaharragoak.

<sup>19</sup> VIGIL, M., *Edad Antigua*, (Madrid, 1978) 314 orr.

<sup>20</sup> LABORDE, M., *Euskaldunak 2.-Ferrerías*, (San Sebastián, 1979) 299 orr.

Ataungo Aian ere antzinako meazuloak oraindik oso agerian daude. Aiala Araban eta Aiabarrena Logroñon meazlekuen izenak omen dira.

3) Araia, Urola jaiotzen den mendia, Mutiloa eta Legazpiren artean dago, eta erromatarrek oso ezaguna zuten meategitik gertu, Aztiriatik Brinkolarako kaminoaren gainean.

Troi baserriko zaharrek esan zidatenez, erromatarrek gerrako presoak ekartzeko omen zituzten bertara lanera.

Oraindik «Erromatarren zubia» deitzen dioten leku bat ere erakutsi zidaten.

Troi baserriaren izena, Laborde jaunaren iritzian, erromatar hitza litzateke; Troia izena azken «a» galduta. Laborde jaunaren iritzia ez da txantxetan hartzekoa.

4) Araia deritzon herrian sartzen da bide hau, San Adrian gainetik. Bertako meatzeak antzinatik dira ezagunak, zalantzarik gabe erromatarren aurreko aroetatik.

5) Zeraingo meatz-lurretan badago leku-izen bat oso polita: «Barbaris» auzoa. Meatzetan lanean ari ziren zeltei erromatarrek ematen zieten izena omen da Barbari. Meatzean lana beti zeltek eurek egiten zuten, mendeko zeuzkaten euskaldunek burniaren sekretuak ikas ez zituzten. Aipaturiko Laborderen lanean azaltzen da iritzi hau.

Mandubiako bidetik oso gertu dago Barbaris.<sup>21</sup>

Gipuzkoa alderik alde, Oria ibaian zehar nahiz Mandubiako bidetik, zeharkatzen duten bide hauek ez dirudite atzo goizeko kontuak.

Lehenengo bideak (Oriaren ibarrekoak) erromatarren toponimiaz estalitako lurra kurrutzen du; badirudi Gipuzkoako aberelur eta jaio berria zen nekazaritza lurra batzen zituela.

Bigarrenak, aldiz, (Mandubiako bideak) zelten toponimiaz horniturik, burniaren bidea dirudi, Gipuzkoako bizkar hezurrean zehar, burni lekuak batzen zituen bidea.

Zeltek, gehienbat, artzain bideetako meatzeak aztertu zituzten, dirudienez, zenbait meatzeri zelta izenak emanez.

Erromatarrek, berriz, meatzeak ahaztu gabe, ibarretan sortu zituzten beren «fundus» edo nekazal lurra.

Beste ohar bat ere edonori datorkio burura.

Intxaur kastroa Aldabatik eta Mandubiako bidetik gertu, hor dago, mila arazo historiko arkeologoei ikerketa berri bakoitzean eskainiaz. Zelten arrastoak dauzka urratsik zaharretan, toponimia eta arkeologia nahasiaz, zorionez.

Mandubiako bidetik gertu zelten beste kastro bat ere aurkitu da Murumendiren hegaletan. Arazoa oraindik ikerketa fasean dago, baina zelten urratsak aurkitu dira hemen ere.

Ez ote dira gauza gehiegi elkarrekin loturik?

Bi bide hauek, geroago pelegriñoek kurritu bazituzten ere, nork eta noiz zapaldu ote zituen lehen aldiz?

Bide batek ez ote zituen elkartuko zelten meatzeak eta bideak?

---

<sup>21</sup> Talde lana, *Ferrerías en Legazpia* (San Sebastian, 1980) 22 orr.

#### 5.4. San Adrianen erromatar biderik ba al zen?

San Adriango urkilatik pasatu ziren, noski, erromatarrak.

Jende hau nondik ez zen pasatu?

Gelditu al da euren galtzadaren arrastorik?

Ni baietzean nago.

San Adriango haitzuloa zabaltzea eta bertako galtzada Antso Nagusiaren lanak balira, noizkoa litzateke San Adriango galtzada zaharra?



Galtzada zaharreko argazkia.

San Adriango haitzuloaren gainean oraindik ikus litezke, haitzuloa zabaldu aurretik zegoen pasabidean, euriak eta haizeak jan dituen eskilara batzuk. Eskilara hauek galtzada zaharrarekin batzen dira haitzaren atzean. Ikusi nahi dituenak han dauzka.

San Adrianen badago galtzada zahar bat, artzaiek eta ehiztariek bakarrik ezagutzen dutena.

Harrizko sugea bezala dihoa, pago eta txara artean, bortu gainaren bila. Udazkenean pagoen orbel horiz jazten da.

Nolanahi ere, galtzada zahar hau han datza, Antso errege Handiak Erdi Aroan bide berria egin geroztik, apal, isilik eta izkutuan, pitxi denak bezala.

Iragana baieztuz, mila sekretu daramatza golkoan, Goiko Portura igo ezinik, pagoen zuztarretan galtzen denean.

Sandrati zaharraren antzinateko testigu bakarra, idazten ez zekiten gizon abeslarien laguna, milioika oinkadak suntsitu ez duten bidea, kristautasunaren lehen abisua giputz zaharrei zuzendu zien galtzada ederra. Badugu haren kronika egiteko ordua.

Galtzada maitagarri honek Aizkorriren bi aldeetako barduliarren batura, eta mila ipuin, amets, erdikondaira ikusi eta entzun zituen.

Euskadi zaharreko monumentu guztietan ederrena da San Adrian xarmagarriko harrizko suge isila.

Ez du batek jakinduria handirik behar San Adrianen zehar pasabide bat betidanik bazela konturatzeko.

Arabak eta Gipuzkoako Goierrik beste inondik ez baitzuten loturarik nahiz gudate nahiz harreman politikoetarako.

Milaka aldiz elkartu behar izan ziren barduliarrek Erdi Aroan, era guztietako premietarako, batez ere, gudarako.



Haitzuloaren gaineko eskilarak.

Euskal antropologo eta kondairagilerik prestuenetako batek hara nola dakusan Euskal Herria frankoekin eta bisigodoekin jasandako borroketan:

«Para explicarse una resistencia, como la reflejada en los cronicones, a las monarquías germánicas de los siglos VI al VIII, en un territorio tan pequeño como el vasco, no hay más remedio que pensar: 1) en una densidad de población muy grande: 2) en una dispersión también muy grande: 3) en una red nutrida de caminos y sendas propia para maniobrar con gran movilidad y preparar las incursiones y retiradas, desorientando al enemigo.»<sup>22</sup>

<sup>22</sup> CARO BAROJA, J., *Los Vascos*, (Madrid, 1986) 63 orr.

Nafarroako Antso Nagusiak San Adrianen eginiko lanketen aurretik bazen San Adrianen galtzada, erromatarren garaikoa edo, behar bada, lehenagokoa. Erromatar galtzaden trazarik ez duenez, zeltek eginiko bideren bat ere izan liteke. Urkilan dauden harrizko eskilarak ere zeltek eginak izan litezke. Jende hauek burdinazko tresnak erromatarrek bezain ongi egiten zituzten.

San Adriango mendarteko eskilarek eta galtzada zaharrak daukaten gauzarik bereziena zera da: nolabait esateko, bi bide hauek Haitzuloaren atzean baturik daudela.

Eskilarek eta galtzadak elkar bilatzen dute, edo bata bestearen luzapena dira.

Eskilarak haitzuloa zabaldu haurrekoak badira, galtzadak ere ala izan behar, nahi edo nahi ez.

Galtzada zaharraren gauzarik nabarmenenak bere kurbak dira, kurbak baino gehiago erabateko laukiak direnez. Nola eta zergatik egin zituzten hain gauza harrigarriak?

Behar bada, harginak trebeak ez zirelako?

Hau dela eta, Erromate aurreko bidea ote den gogartu ohi dut sarritan.

Izan ere, bide honetatik oso gertu daude zelten toponimiak.

Bat erabat ezjakina ez bada, bide honek ematen ditu mila buruhaste.

## 5.5. Arrazoiak erromateko galtzadaren alde

1) San Adriango pasabidea Antso Nagusiak zulatu bazuen, (hau uka ezin nekoa dirudien gauza da), noizkoa da leku berdintsuan aurkitzen den galtzada, gure artzaiek oraindik «galtzada zaharra» deritzotena?

2) Aipatu dut lehen, Gipuzkoa, Erromateko azken urteetan, nekazaritzatik artzantzara nola itzuli zen, bagauden eta bizar gorridun barbaroen eraginez.

Artzai kulturaren ez da harririk landu, ez Kristoren aurretik, ez Kristoren ondoren. Gure egunetan ere ez dakite oraindik artzainek harria lantzen. Harri, brontze eta burni arotako monumentu megalitikoak ez zituzten harri landuz egin.

Gipuzkoan lehen dokumentu idatzia Antso Nagusiaren garaikoa dugu. Erdi Aro ilunean, gure etsaiek guri buruz esana ezagutzen dugu ozta-ozta.

Erromatetik 1000. urtera ez genuen, ez harginik, ez idazlerik, ez eta inolako espresio artistikorik, abestiak edo ahozko kantu eta literatura izan ezik.

Non daude Erdi Aro ilunean eginiko harrizko lan bitxiak, Leinzko bi sarkofago kenduz gero?

3) Gipuzkoan, Erdi Aro ilunean, ez zekiten gure artzainek harria lantzen. Beren egoitzak zurezkoak ziren. Ikusi, XVI. gizaldian oraindik, italiar bidazti batek bere egunkarian gure lurrari buruz zioena:

*«E circa Toloseta sino a S.Giovani di Lux le case tutte di tavole di Rovere di che hanno selve spese e grandi, alte con finestrine e Gelosie, che se nel resto havessero la proportione delle navi parebbono tali.»<sup>23</sup>*

4) Gipuzkoan, herririk gehienetan, Harretxe izeneko baserriak ezagunak zaizkigu. Harrizko etxea (egurrezkoen artean) gauza bitxia zen, eta hortik zetorkion deitura hori.

<sup>23</sup> TELLECHEA, I., *El Amable Venturino*, B.R.S.V.A.P. XI (1955) n° 2, 175, 191 orr.



5) «Es posible que en la Edad Antigua (Erdi Aro ilunaz ari da) los habitantes de los territorios recónditos de que hablamos en las últimas páginas del anterior capítulo se hallaran todavía sometidos en parte a un régimen gentilicio bastante arcaico, que ha podido influir en algunos rasgos de la vida rural posterior.»<sup>24</sup>

Gipuzkoan gizarte jentilizioa, dirudienez, artzain aro guztiko erakunde izan dugu. Ahaide Nagusien dorre-etxeak gotikoarekin hasi ziren, hau da, nekazaritzarekin. Feudalismoaren egiturak, Gipuzkoan, garai honetakoak direla esan behar, erromaniko garaiko azterrenik ez da behintzat ikusten jauregirik zaharrenetan ere.

Feudalismoa, Europako Sartaldean, lurraren jabetzarekin lotzen zen.

Gure Gipuzkoan ere nekazaritzarekin sartu zen feudalismoaren kultura. Artzain aroan ez zen ezagutzen lurraren jabetasunik.

Nekazaritzarekin hasi ziren lehen harri landuak.

Gipuzkoan harri landua, orohar, aro gotikokoa da.

OHARRA:

Alfontso VIII.ari gipuzkoarrek 1200ean eman zizkieten gazteluak: Auza-gaztelu, Ataungo gaztelua, Elosukoa, Donostiakoa, Hondarribikoa, Haitzorrozkua eta Aranoko gaztelua, Nafarroako erregeek Gaztelaren aurka eginak ziren, Antso Nagusia hil eta gero.

6) Codex Calistinusko zita bat ere aipa genezake gai honi buruz. Aymeric Picaud zela dirudi idazlearen izena. 1160an osatu eta argitaratu zen liburu sonatu hau. Nik dakidanez, kontestu jatorrik ez zaio egin oraindik idazlan honi. Esku artean daramadan gaiarekin badu liburuaren ikuspuntu batek zer ikusirik.

Testu honek 1160ko urtea baino zertxobait lehen idatzia dirudi. Hizkuntza garratzean mintzo zen autorea, Erdi Aroko idazle gehienak bezala:

«Vine luego, cerca de Port de Cize, el territorio de los Vascos, con la ciudad de Bayona en la costa, hacia el Norte. Es ésta una región de lengua bárbara, poblada de bosques, montañosa, falta de pan y de vino y de todo género de alimentos excepto el alivio que representan las manzanas, la sidra y la leche.»<sup>25</sup>

Gure lurrean ez dakusagu nekazari arrastorik oraindik. Ogia ez ezaguna zitzaigun, ardoa zer esanik ez. Esneaz eta sagarrez mintzo zitzaigun frantses kaskarina.

7) Noiz ikasi zuten nekazaritza gure arbasoek?

Gipuzkoako lehen «villa» Donostia dugu. Nafarroako Antso Jakintsuak 1180 inguruan eman zizkion titulu hau eta komeni zitzaizkion foruak.

1180an hasi ziren gipuzkoar batzuk lehen aldiz hirian bizitzen, Erromate Aroaz gero. Urte hau arte ez zen ez herririk, ez hiririk, eta jendea oso banaturik bizi zen gure lurrean, artzantzan.

Santiagoko bidetik sortu zen inmigrazioak Donostia inguruetan sartu zuen lehen nekazaritza, gaskoiek hain zuzen.

Hara zer dioen Manuel Lekuonak:

«Lo que a nuestro propósito ocurre con ocasión del fuero, es que San Sebastián, se pobló de Gascones. Ahora bien, coincidencia, en la toponimia agrícola circundante a San Sebastián, hay cierta proporción muy notable de nombres de corte gascón, como el conocidísimo de Ayete, que es un Fayette, y Miramon, que es un


<sup>24</sup> CARO BAROJA, J., *op. cit.* 62 orr.

<sup>25</sup> AYMERIC, P., *Codex Calixtinus*, (Sahagún, 1989) 33 orr.

Miramont, y Martutene, que es la finca de un Martut, y Polloe, que es un Pollone, y Chofre, que es un Jofre, y Castillum y Martillum, etc, etc.

Toponimia urbana del tipo de Sansut, Martinbulet, Embeltrán, Engomez, Tineo, Masondo, Arzak.

La misma tinción se registra, y quizás más intensificada, en Pasajes. Son típicos pasaitarras apellidos como Puy, Laboa, Trecet, Basqueseau, Estellart, lo mismo que Topónimos gascones como Mompas, Labursa, Trencher...»<sup>26</sup>



Galtzada zaharreko argazkia.

Donostian, 1800 urte inguruan galdu zen gaskoia. Napoleonen gudatean Donostia erre zutenean, udaletxeko artxiboak ere erabat galdu ziren. Artxibo honetan herriko paper asko gaskoiz idatziak omen zeuden. Gure Donostian hiru hizkuntza mintzatzen ziren XVIII. gizaldiaren azkenetan oraindik: euskara, gaskoia eta gaztelera. Iruñean ere berdin. Iruñean gaskoia XVIII. mendearen azkenetan galdu zen eta euskara XIX. gizaldiaren bukaeran.

Lizarraga jenerala nafar euskalki ederrean mintzo ohi zen, eta Iruñean jaio zen 1820an.

Gipuzkoan Donostian beste inon ez da ageri gaskoien inmigrazioarik, nahiz Billabona izena gaskoia izan.

---

<sup>26</sup> LEKUONA, M., *Idazlan Guztiak. 6. Kondaira*, (Donostia, 1983) 169, 450-451 orr.

8) Erdi Aro ilunean euskaldunak mendi soiletan babesten al ziren frankoen edo bisigodoen aurka? Eta nolako egoitzak zituzten?

Zalantzarik gabe, egurrezkoak ziren gure arbasoen bizitokiak eta gazteluak.

Hara nola kontatu zigun Jimenez de Radak Wamba erregeak euskaldunen aurka egin zuen gudate batean gertatua:

«... en Vasconia a través del valle del Pirineo que se llama Somport, y luego de saquearla durante algunos días y prender fuego a los campos, también derruyeron con combates y maquinas de guerra sus castillos, en cuya estructura abundaba más la madera que la piedra.»<sup>27</sup>

Nafar kardinala euskaldunetz mintzo zitzaigun, ez gipuzkoarrez; hala eta guztiz, harrizko gaztelurik Euskalerrian zegoenik ez dirudi aro haietan.

9) Gaur hain ezagunak zaizkigun estela harriak, Gipuzkoako lehenengoetakoak XII eta XIII. gizaldietakoak ditugu. Erdi Aro ilunekorik ez dago bakarrik ere.<sup>28</sup>

Askok diotenez, 1000. urte inguruan sartu omen zen kristautasuna Gipuzkoan, aurretikako kristau dokumenturik ez omen da ezagutzen eta. Ez dokumentu kristaurik eta ez ezkristaurik ez dago Gipuzkoan garai hauetan: Erromako geografoen eta XI. mendera bitartean lur honetan ez dago giza arrastorik.

Kristautasunik hamaikagarren gizaldira arte hemen ez zela izan esatea eta Gipuzkoan inor ez zela bizitu Erdi Aroko bostehun urtetan esatea berdin da.



Jabier Arakama Xabier Azurmendi galtzada zaharra erakusten.

Erdi Aro ilunean harrizko ezer ez zen egin Gipuzkoan. Harria ez da artzainek landu izan duten zerbait.

Galdera berbera behin eta berriz: Noiz egina da San Adriango harrizko galtzada?

<sup>27</sup> JIMÉNEZ DE RADA, R., *Historia de los Hechos de España*, (Madrid, 1989) 123 orr.

<sup>28</sup> AGUIRRE, A., *Estelas Discoidales de Gipuzkoa* (Donostia, 1991).

Harrizko galtzada (bigarrena, noski) noiz egin zen San Adrianen, Erromate eta Antso Nagusiaren bitarteko denboretan Gipuzkoako jendeak hargintzan ez bazekien?

Erdi Aro ilunean Gipuzkoan harririk landu ez bazen, noiz egina da galtzada hau?

## 5.6. Erromatarren toponimiak Zegaman

### *Beraxa toponimia*

Zegamako herrian, San Adriango bidea erditik pasatzen zitzaien lurralde estu baten izena zen Beraxa. Izen hau gizon baten latinezko izena zen. Nagusiaren izena ematen zitzaien bere lurralari.

Latinoen aroan Beraxa izenetik sortu ziren zenbait hitz:

Beraxa.	Berasanum.	Berasoain. (Nafarroan)
Beraxa.	Berasanum.	Berasain. (Nafarroan)
Beraxa.	Berasanum.	Beasain. (Gipuzkoan) <sup>29</sup>

Esan dugun bezala, Beraxa izena, nagusiarena ematen zitzaien etxeari eta lurraldeari ere. Gerora Berasategi izenez deitu bazitzaion ere.

Berasategi Dorretxea 1842ko urtean «La Papelera de Zegama» deritzon fabrika jasotzeko desegin zuten. Berasategi dorrekoburnizko ate ederra, dorrea bota zutenean, nolanahi ere, jaso egin zuten. Gaur San Telmoko Museoa dago, «Puerta procedente de Cegama» irakurgaia alboan daukalarik. Olanan auzoan dagoen Berasategi desegin zuten dorre-etxeko saletxe bat zen, eta etxeko ganaduak eta morroiak bizitzen ziren bertan. Geroago egin zen saletxe honetan baserria.

Lopez Isastik 1625ean Berasategitarak Zegamako Ahaide Nagusien artean aipatzen ditu.<sup>30</sup>

### *Amiano toponimia*

Honelako toponimiaz mintzatzean, Caro Barojak badaki gauza zehatzik esaten ere:

«TOPONIMIAS TERMINADAS EN (ANO) EN VIZCAYA Y ALAVA.

- Abadiano de Abatius = Abatianum.
- Abinzano de Abantius = Abintianum.
- Aguiriano de Eggius = Eggirianum.
- Arbigano de Erbigius = Erbigianum.
- Arriano de Arrius = Arrianum.
- Garitanus de Garitius = Garitanum.
- Gellanus de Coelius = Coelianum. (Aretxabaletako auzo bat)
- Perretano de Perretus (natural de Perres Siria) = Perretanum.
- Legutianus de Legutius = Legutianum.»<sup>31</sup>

<sup>29</sup> CARO BAROJA, J., *Materiales para una historia de...* (Salamanca, 1945) 69–70 orr.

<sup>30</sup> ISASTI, LOPE, *Compendio Historial de Guipúzcoa*, (Bilbao, 1972) 113 orr.

<sup>31</sup> CARO BAROJA, J., *op. cit.* 85–86 orr.

Anus edo Ano atzizkian bukatzen diren toponimorik gehienak latinetik datoz. «Fundus» edo nekazal etxeari, lehen esan bezala, jabearen izena, adjetibo edo izenlagun bihurturik, ematen zitzaion.

Gauza hauek kontuan izanik, ikus dezagun Zegamako Amiano toponimia:

San Adriandik Oriaren ibarrera Iturzabaldik, Egurtzetik behera jaisten zen bidearen ondoan, Zegaman badaukagu toponimia bat erabat erromatarra. Toponimia hau lau baserriren izenak ditugu gaur: Amiano goena, Amiano barrena, Amiano erdikoa eta Amiano Arakamaenea. Esan beharrik ez dago etxe hauen izena Amianus = Amiano dela.

«Anus» atzizkian bukatzen diren latinezko hitzek erdaraz hartzen duten forma aipatu dut. Baina arazo honetan –anus– –anon– bukatzen zaigu, latinezko forma guztiak gordez.

Latinezko izen hau euskaldun abizen dugu gainera. Lopez Isastik, 1625ean, Amiano Zegamako Ahaide Nagusietako sendi bat zela zioen.<sup>32</sup>

Zalantzarik gabe, lau baserri hauetakoren bat, «fundus» edo «villa» erromatar izan zen noizbait.

Non ote zegoen Erromateko Amiano?

Nire ustez, Amiano Arakamaenean. Beste Amiano etxeek Amiano Arakamaenearen goian, behean edo erdian eraiki dira, beti erdiko erreferentzia gordez. San Pedroko hilobiko harritik ere etxe hau dago gertuen.

Hitzaren aldaketa: AMIUS            AMIANUM            AMIANO

Caro Barojaren begiez euskararen kondaira ikustea nahikoa da toponimia hauek ulertzeko. Gaur oraindik Amiano deitzen diogun baserriaren izena latinezko gizon izen batetik dator, beraz.

Jabearen izena adjetibo neutroan ipiniz eman zitzaien lur eta etxeari euren izena.

Caro Barojak ez zuen bere adibideen artean «Amiano» sartu, ezezaguna zeritzolako, nonbait.

Gehiago esan genezake oraindik.

Toponimia honen alboan, arkeologiak ere badaki hizketan:

Lau Amiano etxeen erdian, aspaldiko San Pedroren ermita zahar batean, ikusi nahi dituenak han dauzka latinezko hitz idatziak nabarmen asko ageri dituen harri bat.

Harri honek hilobi baten estalkia izan zela dirudi.

Hara zer dioen irakurgaiak: LARICI  
US—OM  
N—F  
AN XXXX  
H 'I

Laricius— (—) omn (filius) an/orum XXXX hic jacet.

Hilarriko hizkien irakurketa zientifikoa da bigarren idazkia.

Euskaraz: «Larizio urliaren semea, berrogei urtekoa, hemen datza».

San Pedroko elizatxoan, eskabazio antzeko zerbait egitean, lan itxurazkorik ez du Arantzadik bertan egin oraindik. Erromatar idazki bat aurkitu den tokiak merezi zuen hainbeste. Bi gizakiren hezurak aurkitu dituzte. Noizkoak ote?

<sup>32</sup> ISASTI, Lope, *op. cit.* 113 orr.

Ez dirudite aspaldikoak.

Hilerriko harriaren idazkia Jesukristoz gerozkoa da, hain zuzen, 200 bat urte geroagokoa ote den dirudi.<sup>33</sup>

Arabako garai berdintsuetako hilarrien idazkiekin erabateko antza dute hizki hauek. Horrek ez luke inolaz adierazi nahi harria Arabatik ekarria denik. Arabako hargin batek landu zezakeen zegamar Larizioren hilarria.

Larizio, aspaldiko zegamar hau nor ote genuen?

Euskaldun mutil asko Erromako legioetan mertzenario ibili ohi ziren.

«Poco después se dice que Mario tenía como guardia personal un cuerpo de esclavos “Barduaioi” que traería el año 114 de Hispania.»

«Ya en el imperio hay grupos de vascos que militan, en calidad de tropas auxiliares, en el ejército romano: que dan noticias, por ejemplo de una “Cohors I fida Vardulorum civium Romanorum equitata milliaria” que permanece acuartelada en Escocia, en el mismo peligroso limes durante ciento cincuenta años.»<sup>34</sup>

Erromako legionario euskaldun horietakoren bat ote genuen aspaldiko zegamar hau? Armadan lizentziatu eta gero, legionario gehienak bezala, fundus bat erosi eta azken urteak lasaiago igaro asmoz, gure Goialdean bizitzen jarri ote zen?

Nolanahi ere, ez zuen urte luzeetako atsedetik izan.

Erromako legionarioek berrogei urterekin lizentziatzen ziren; gure Larizio berrogei urterekin hil zen.

Jaungoikoaren bihotzean atsedetik dezala Lariziok, kondairan ezagutzen dugun lehenengo zegamarrak.

Hilobiko estalkia Amiano inguruetan oso ugaria den hargorri mota batekin egin zen, Joxe Alustizak esan zidanez.

San Pedroko ermitaren ondotik zihoan Santiagoko bide zaharra.

Denok dakigunez, Santiagoko bideak erromatarrenak edo antzinagokoak ziren, eraberriturik.

### *Perretano*

San Adriango galtzada Araiaara jaisten den leku berean, Zegaman Amiano bezala, Perretano deitzen zaion baserria dago.

Perretano eta Amiano, biak hitz latinoak dira. Ano atzizkian bukatzen diren izenen artean, ikusi dugu bere esanahia.

Datu hau ere kontuan hartzekoa da bide honen kondaira egitean.

Gipuzkoako bideei buruz zenbait iritzi dogmatiko ez ote dira aldatu beharko?

Ni baietzean nago.

San Adriango galtzada zaharra ez da San Adrianen bukatzen.

San Adriandik Fraileen Bolalekura, Antsoren garaiko bide berria lehenengo zaharraren gainean egin zuten.

Iturzabalen bide berriari Gesalbizkarrerako (Iruetxeta) joera eman zioten eta Eurgtzera zihoan Erromatekoa bertan utzi, bigarren mailako bide bezala.

<sup>33</sup> ECHEVARRÍA, A.I., *La inscripción funeraria de época romana de la ermita de S. Pedro de Zegama*, Munibe 40 (1988) 165–169 orr.

<sup>34</sup> BARANDIARÁN, I., *op. cit.* 17, 19 orr.

Iturzabaldik Egurtzerako biderik gehiena oraindik ikusteko moduan dago; bi kilometroko luzera izango du gutxienez.

Zegaman hainbeste aldiz entzun izan dugun «Erregeren zaldiaren perra zuloa» bide honetan dago.

Galtzada erromatarrean San Adriangoaren jarraipenetik gora joan ohi zen gure hartzaroan, eta geroago ere, San Kiriko egunez San Adriana zihoan erromeria.

Egurtzetik, Amianogoenetik Amianobarrenera jaisten zen bide hau eta erre-karen alboan joaten zen Andoaina. Andoaindik, Urnietatik Hernanira eta Astigarragako Santiago menditik, Oiartzunen zehar, Irunen sartzen zen bide hau.



- A ..... Galtzada berrina.
- B ..... Galtzada zaharra harrak konduta.
- C ..... Galtzada ziharra harriz erlatia.
- D ..... Iturrua.
- E ..... Hilobia.

San Adriango bi galtzaden mapa. (L.M. Zalduak egina)

Galtzada apal honi inork ez dio garrantzirik eman.

Eskabadoreak hondatu dizkio zatirik berezienak.

Inor gauza hauetaz kargu egiten ez bada, akabo Erromateko gure bitxi bat!





## **BIGARREN ZATIA** **TENPLARIOAK ZEGAMAN ETA SAN ADRIAN ERDI AROAN** **ETA ARO MODERNOAN**

### **6. TENPLARIOAK SANTI ESPIRITUN**

Zegaman  
Herria eta harriak,  
Oraindik,  
Tenplarioez  
Mintzatzen dira.

#### **6.1. Ordenaren sorrera**

Tenplarioen Ordena Jerusalemenean sortu zen lehendabiziko gurutzadan, 1118an. Panisko Hugok, Saint Omerko Godofredok eta Bouillongo Godofredoren zazpi zaldunek osatu zuten Ordena honen lehen erroa.

Balduino II.a erregeak zaldun hauei Salomonen Jauretxe ohian zegoen egoitza bat eman zien bizitokitatzat; hortik datorkio Tenplario deitura Ordenari.

1128an, Panisko Hugok eta bost zaldunek Troyesko Kontzilioan aurkeztu zuten Ordenaren araudia, Elizako Gurasoek ontzat har zezaten, eta onartu ere, onartu zuten, noski.

Aro haietako Ordenarik gehienek bezala, zistertarren araudian finkatu zuten Tenplarioek ere berea.

Dakiguna zera da: 1128an Panisko Hugo Ingalaterran, Frantzian eta Espainiako erresumetan ibili zela tenplariogaien bila. Hegoalde eta Iparraldeko Euskadin ere aldi honetan izan zen eta asmo berdinarekin.

Panisko Hugo Euskadiko lurretara etorri zenean, Euskadi eta Aragoako errege, Alfontso Santxez, «Batallador» zeritzana, zen.

Aragoako Alfontsoak, azken-gogo edo testamentuan, bere erresumak, Aragoa eta Euskadi, tenplarioei utzi zizkien. Alfontso hiltzean, Aragoa eta Euskal Herriko jaun feudalek erregearen azken gogo ez zuten ontzat hartu.

Tenplarioen mendeko lurralde bat izan zitekeen gurea.

#### **6.2. Tenplarioen araudia**

Tenplarioak lau eratakoak ziren, karguei begiratuz gero:

Zaldunak: Gudateetarako beti prest zeuden gizonak.

Ezkutariak: Zaldunen laguntzaileak.

Apaizak: Ordenaren espiritualitateari eta herriarenari ere begiratzen zioten apaizak.

Anaia legoak: Ordena guztietan bezala, lanik arruntenak egiten zituzten.

Ordena honen helmuga hauxe zen: «Non nobis, Domine, non nobis, sed nomini tuo da gloriam».



**Fraileen bolalekua.**

Mahometarrei Palestinako lurretan benetako izua eta bildurra sartu zieten; «hil edo garaitu» baitzen euren legea.

Gurutzadek irauin zuten bitartean, Jesusen lurraldeak zaindu zituzten, arabeei, turkoei edo Saladino berberari hortzak erakutsiz eta hezurretarainoko ikara sarraraziz.

1289 eta 1291 bitartean, Gurutzadetakoez Palestinako lurralde guztiak galtean, Tenplarioek Europarantz jo zuten eta behin betiko bertan finkatu ziren.

XIV. gizaldiaren hasieran Europako erromes bideak, hau da, Europako bide guztiak, beren kontrolpean zeuzkaten, Frantziako bankurik gehienak ere bai.

Arrazoi hauek zirela eta, gorrotorik beltzenak piztu ziren Ordena honen aurka.

Diruak eta agintek sortu ohi dituzten inbidia eta gorrotoak.

Frantziako Felipe «Ederra» zeritzanak prestatu zuen Tenplarioen hondamendia. Floriango Eskuinen gezur testigutzak oinarritzat hartu eta epaiketa gogorrenak prestatzen hasi ziren erregearen akolitoak zaldun harrigarrian aurka.

1311an Klemente Aita Santuak Vienako Kontziliaora dei egin zien Elizako Gurasoei. Bi gauza erabaki nahi zituen. Gurutzada berri bat eta Tenplarioen auzia.

Gizon bulartsu hauen aurka gezurrik beltzenak isuririk zeuden. Euren armei esker, sarri burua makurtu behar izan zuten sarrazenoek kristauen aurrean. Europak Palestinan eraiki zuen oinarririk gabeko inperioa eurek zaindu behar izan zuten hainbeste etsairen aurka. Tenplarioen kondairak kondaira baino gehiago epopeia dirudi. Askotan, euren ekintzek asmatuak dirudite. Zoritxarrean aberastu ziren.



Erregearen zaldiaren perra zuloa.

Lortu zuten ospeak, euren ondasunek, izen onak eta, batez ere, aberastasunek, zenbait borondate txar esnatu zituzten euren aurka.

Inoiz ezagutu diren azpikeria eta trikimailu guztiek beren soka gogorrez lotua zeukaten Ordena.

Hasierako sanotasun eta txirotasuna ere galdu zituztela?

Araudia betetzen zerbait zabartu zirela?

Ez noa ukatzera, bizitza, lainoak bezala, aldatzen baitihoa.

Tenplarioek halakorik ez zuten merezi.

Aita Santuak Vienako Kontzilioan desegin zuen ordena.

Tenplarioen ondasunetatik zatirik handiena Frantziako erregearen eskuetara joan zen, beste ondasun asko Aita Santuaren kutxetara eta Rodasko zaldunen poltsetara.

Ondasunak kendu zitzaizkienetik, gezurbeltzik zikinenak jaurti zizkieten gainera eta erasorik beltzenen azpian geratu zen zaldunen izen ona.

Nork ez du entzun Jacques Molayren azken zirraratsua?

Surtan erretzen zegoela, kateaz loturiko eskuak jasoz, ulueginez, Aita Santu eta erregearen ordezkarietara hau esan zien ke artetik:

Jaungoikoaren epaiketara dei egiten diet erregeari eta Aita Santuari, ea nor garen errugabe!

Aita Santua berrogei egunetara hil zen.

Errege Felipe, berriz, urtebete baino lehen.

Tenplarioei egin zitzaien epaiketa giza-kondairako beltzunerik ilunenetariko bat dugu, ezpairik gabe.

Espainian ere, zaldun leial haiek bazuten ondasunik franko Gaztelako eta Aragoako erresumetan. Nafarroa bulartsuan, ohorearen eta nobleziaren lurrean ere oso maiteak ziren.

Kantauriko lurralde ederretako jendeek beren amorrua eta hasarrea azaldu zituzten, Erromaren eta Frantziaren epaiketak zirela eta.

Espainian bizi ziren zaldunek, asko izaki, Frantzian eta Italian beren anaiei jaurti zitzaizkien gezurbeltzei eta beren gainera zetozen torturei ezpataz erantzutea erabaki zuten.

Euskaldunek Tenplarioen alde hartu zituzten armak: Bizkaiko Jaun Lopez Harotar Diego beretarren buruzagitza hartzeko gertu zegoen; Tenplarioen aldekoa ez ezik Tenplarioetako zela ere baziolen.

Gertakizun hauen aurrean sakonki arduratu zen Erroma.<sup>1</sup>

Beltzuntzeko bizkondeak ez zigun eman datu hauen iturririk.

Espainian tenplarioei begirune eta maitasun handia zien herriak. Hemengo tenplarioen etorkizuna ez zen Europarik gehienekoena bezain iluna izan.

Klemente V.ak buldak bidali zizkien Toledoko eta Konpostelako Lehen-gotzainei, Gaztela eta Leongo tenplarioak errudun ziren ala ez ikus zezaten.

Salamankako Kontzilioak, 1313ko urriaren 21ean Gaztelako, Leongo eta Portugalgo tenplarioak errugabetzat jo zituen.

Gutuna sinatu zuten Eliz-gizonen izenak jarraian: D. Rodrigo, Santiagoko Lehen-gotzaina eta D. Joaõ, Lisboako Lehen-gotzaina, D. Vasco, La Guardiako Gotzaina, D. Gonzalo, Zamorako Gotzaina, D. Pedro, Avilako Gotzaina, D. Domingo, Plasentziako Gotzaina, Rodrigo, Mondoñedoko Gotzaina, D. Alontso, Astorgako Gotzaina, D. Juan, Tuyko Gotzaina eta D. Jose, Lugoko Gotzaina.

Toledoko eta Sevillako Lehen-gotzainak ez ziren Kontzilioan izan.<sup>2</sup>

Tarragonako Kontzilioko Elizgurasoek ere beren Elizbarrutietako tenplarioei ez zieten errurik aurkitu eta ez zitzaient inolako zigorrik eman.

Juan XXII.ak, tenplarioen auzia betiko konpondu nahirik, Espainiako erresumetako erregeei elkartu eta gauza konpontzeko eskatu zien. Portugalgo Dionisio I.ak, Gaztelako Alfonsso IX.ak eta Aragoako Jaime I.ak sakabanaturik zebiltzan tenplario ugari elkartu eta Aragoako erresuman Ordena berri bat sortu zuten denen artean, Montesako Santa Mariaren Ordena.

1318 urtea zen, hain zuzen.<sup>3</sup>

<sup>1</sup> BELZUNZE, CH., *La Histoire des Basques* (Bayona, 1847) 40 orr.

<sup>2</sup> SORALUZE, P.M., *La inclita orden del Temple en Guipúzcoa*, Euskal Erria XLIV (1891) 41 orr.

<sup>3</sup> SORALUZE, P.M., *op. cit.*, 44 orr.

### 6.3. Tenplarioak Gipuzkoan

Bartzelonako Ramon Berengerrek, bere aitaren omenez, 1142an Tenplarioei egin zien lur-lagatze batean lau zaldun tenplario euskaldunen izenak azaltzen zaizkigu:

Fray Pedro de Arzak. (Donostiarra izan behar zuela dirudi).

Fray Hugo de Leniz. (Gatzagakoa izango zen, noski).

Fray Benengario de Egin. (Arabako herri bat da Egin).

Fray Arnaldo de Zarras. «Cuyusdam partis Hispaniae» dio idazkiak. Ez ziren, noski, hauek bakarrik izango Euskal Herriko Tenplarioak.<sup>4</sup>

Gipuzkoako Tenplarioen kondaira, nolana ere, tradizioz bakarrik ezagutzen dugu; esango dut geroago zergatia.

Donostiako Urumea ibaiaren alboan, Santa Katalinako zubiaren parean gaurko «Avenida» hasten den lekuan, zeukaten tenplarioek eliza eta egoitza.

Eliza Santa Katalinaren babespean zegoen eta gaurko zubiari izena eliza horrek eman zion.

Tenplarioen ordena desegin zutenean, Donostiako ondasunak Txipreko zaldun Ospitalarioen eskuetara pasa ziren.

Jarraian, tradizioak tenplarioenak zirela esaten dituen elizak aipatuko ditut. Tenplarioen bizitokiak izan al ziren? Ala tenplarioen Patronatuak?

Zenbait elizek patronatuak bakarrik izan zirela dirudite.

Zarautz. Tenplarioak bertan bizi izan zirela dirudi. Hauek desagertzean, elizako patronatua Ladrón Belaz I.aren eskuetara pasa zen. Ladrón Belaz I.a Oñati eta Gebarako 13. jauna zen.

Aizarnako Santa Engrazia ermita izan zen, batzuen ustez, tenplarioena; Santa Maria parrokia, besteentzat. Gauza jakinik ez dakigu herri honetako tenplarioei buruz.

Azpeitia. Tenplarioak desagertzean, Ladrón Belaz I.a egin zen bertako patronatuaren jabe.

Azkoitia. Tenplarioak desagertzean, Balda etxea egin zen bertako patronatuaren jabe.

Bergarako Santa Marina parrokia. Tenplarioak desagertzean, Elizako patronatua, hemen ere, Ladrón Belaz I.aren eskuetara pasa zen.

Uzarragako (Antzuola zaharra) elizako patronatuaz Ladrón Belaz I.a jabetu zen tenplarioak desagertzean.

Elgoibarko Olasoko San Bartolomen, gaur hilerria dagoen lekuan, zegoen tenplarioen egoitza. Elizaren patronatuaren jabe Erregea egin zen.

Tolosako San Joan de Arremaleko elizaren patronatua tenplarioen eskuetatik Txipreko zaldun Ospitalarioek lortu zuten, Donostiako Santa Katalinako patronatua bezalaxe.

Arriarango elizako tenplarioen patronatua Arriarango Ahaide Nagusien etxera pasa zen. Arriaran zuten abizena Ahaide Nagusiek ere.<sup>5</sup>

Aipatu ditudan bederatzitzi tenplarioen egoitzetatik lau Ladrón Belaz I.aren eskuetara pasa ziren Gipuzkoan. Gertakizun honek ez al du zerbait esan nahi, eta zerbait oso berezia?

<sup>4</sup> BERECIARTUA, J.M., «Los Templarios en Guipúzcoa», *Vida Vasca* XXXIII (1956) 104 orr.

<sup>5</sup> SORALUCE, P.M., *op. cit.*, 13-14 orr.

Ladrón Belaz I.a Oñati eta Gebarako jauna zen aipatzera goazenurteetan, Oñatiko konde titulua Enrique IV.ak 1469an eman baitzion Iñigo Belez, Gebara eta Oñatiko jaun famatuari.

1311 urtean Vienako Kontzilioak tenplarioen aurka eman zituen dekretuak Espainiako erresumetan ez ziren onartu. Gotzainen eta erregeen iritzian, Espainiako tenplarioak Europako tenplarioen hoben eta gaiztakerietatik jare baitzeuden. Hala eta guztiz, Espainiako tenplarioak ere Aita Santuak desegindako ordenan bizi ziren eta jaun feudal harraparien begiak euren ondasunei begira zeuden aspalditik.

Hori dela eta, 1339ko martxoaren lauan, Alfontso XI.ak tenplarioen ondasunak Txipreko Zaldun Ospitalarioei eman zizkien agirian, erregearen ondoren, gotzain eta handizki guztien aurretik, Ladrón Belaz II.ak sinatu zuen diploma.<sup>6</sup>

Ikusi dugunez, tenplarioen ondasun guztiak ez ziren Txipreko Zaldunentzat izan. Tenplarioen hondakinak jan zituen jauntxo harraparien nagusia Oñati eta Gebarako jauna izan zen.

Tenplarioen etsai guztiek bezala, ez zuen hondakinak jateko asti gehiegirik izan; lapurreta 1339an egin eta 1342an hil zen ekintzaz eta izenez Ladrón deitura hain egoki zetorkion gizona.



Tenplarioen eliza Santi Espiritun.

Gipuzkoan tenplarioen daturik ez dela agiri?

Ladrón Belaz II.ak ondo baino hobeto gordeko zituen tenplarioen agiri, datu eta paperak kutxatilararen batean. Bere harrapakinen testigu eta lekukoak izkutatzea komeni baitzitzaion.

Arriarandarrek, Baldatarrek eta beste jauntxo harrapari askok ere, erraz erre zitzaketan tenplarioen agiriak, beren ekintza beltzak ahaz zitezen.

---

<sup>6</sup> BERECIARTUA, *op. cit.*, 104 orr.



«Y a propósito del tema templario y Salvatierra, la violenta disolución de la Orden Templaria en el siglo XIV, trajo entre nosotros la creación de ciertos feudos y patronatos de familias poderosas del País a base de las prebendas de la extinguida Orden, tal como el Patronato de los Condes de Oñate sobre las Parroquias de Azpeitia y de Uzárrega, y de los Arriarán sobre el Salbatore de Beasain, etc. etc. Patronatos todos ellos concedidos a las referidas poderosas familias por el Rey.»<sup>7</sup>

«E dió el rey a D. Alfonso Ferrandez Coronel a Capilla, un castillo muy fuerte e de buena renta, que fuera de la Orden del Templo.»<sup>8</sup>

#### 6.4. Tenplarioak Zegaman

Gaur Sancti Spiritus deritzan tokian izan zuten egoitza Zegamako tenplarioek. Euren albisteak ere tradizioz dakizkigu. Gipuzkoako tenplarioen tradiziorik bikainena, ikusiko dugunez, Zegamakoa izango da. Euren eliza han dago oraindik, Gipuzkoako tenplarion eliza bakarra.

Zegamako tenplarioen tradizioa Pedro Maria Soraluzek D. Jose Migel Etxeberriari jaso zion 1891n, eta «Euskal-Erria» aldizkarian argitaratu zuen.



Nolakoa zen tenplario bat.

Jose Migel jaun hau, Zegamako alkate ohia, Aldundian diputatu izana, D. Jesus Etxeberria kalonge sonatuaren anaia eta Saseta gure abertzale eta Eusko Gudarien buruzagiaren osaba zen.

<sup>7</sup> LEKUONA, M., *Idazlan guztiak 2 Etnografía* (Donostia, 1978) 280 orr.

<sup>8</sup> LÓPEZ DE AYALA, P., *Crónicas* (Barcelona, 1991) 53 orr.

Hara nolakoa den tradizio hau:

«Zegamako S. Bartolomeren eliza eta Sancti Spiritusko ermita Tenplarioenak ziren.

Aizkorriren sortaldean dagoen Gesalbizkar edo Iruetxetako Edurretako Andre Mariren ermita ere Tenplarioena zen. Tenplarioak desagertzean, Orreagako kalongeen eskuetan daude ermita eta lurrak, artaldeak eta larreak.

Zegamako tenplarioek Legazpi eta beste zenbait puntutan burniolak eta burnimihiak zeuzkaten.»<sup>9</sup>

## 6.5. Tenplarioen izan txarra Zegamako beste tradizio batzuetan

Zegamako herrian tenplarioak egon zireneko arrastoak ahozko literaturan bilatuko ditugu, eta nahikoa ugari. Euren etsaientzat ez zen inolaz aski izan, nonbait, heriotza, sua eta burnia tenplarioak zigortzeko.

Bazter guztietan hiltzaile, lapur eta gizon gaiztoen sona zabaldu zitzairen eta izen garbia kendu.

Gezurra badirudi ere, Zegaman, tenplarioen prozesutik 690 urtera, orduan ezarri zitzairen famak irauten du oraindik.

Has gaitezen frogak ikusten.



Tomasa Agirre.

Nire ama zenari tarteka–tarteka edo esaldika jaso nizkion jarraian Sancti Spiritusko fraileei buruz doazen iritziak:

---

<sup>9</sup> SORALUCE, P.M., *op. cit.*, 19 or.



(Herriak «tenplario» hitzaren ordeez, «fraileak» hitza erabili ohi du gehiengan).  
«Zegaman eta batez ere Goialdean jaio ginenok sarri entzun izan dugu Sancti Spirituko fraileen berri.

Zenbait aldiz zaharrei edo artzaiei entzun izan genizkien fraile gudari haien judaskeriak.

Diruagatik edozein hiltzeko gai zirela, pelegrianoi lapurretarik beltzenak egiten zizkietela, maltzurak eta gaiztoak zirela, horrelako kontu franko entzun dugu hartzaroan eta geroago ere.

Zorionean izkutatu omen ziren noizbait gure mendietatik.

Hain gizon maltzurak ez zirela benetako fraileak ere esan ohi zuten gure zaharrek (fraileen maltzurkeriaz mintzatzeaz lotsatuta bezala), fraile baino gehiago fraile-militar zirela, eta abar, zenbat aldiz entzun ote ditugu horrelako kontuak!»<sup>10</sup>

## 6.6. San Adriango lapurra

«San Adriandi barrena mandazai bat mentzijôn mandoa urrez kargauta zola. Atzetai norbaitek seitzen tziola konturau zan mandazaie, baño aurrea seitu zon. Alakon baten, Opakua gañea allau zanen, seitzen tzetorkionak “alto” bota zion mandazaiei ta diruk eskau.

Mandazaiek txoakilloa mandoi kendu, lapurre jo burun da ill ein mentzon.

Lapurre Santi Espituko frallea izatea suertau zan.

Orduti galdu mentzan Santi Espituko konbentue.»<sup>11</sup>

## 6.7. Santi Espirituko frailea

«Aratz azpiñ, oaiñ arrik daren bezela, lenao mia eo burni pusketak mentzeren. (“Minas al cielo abierto”, erdaraz).

Beñ ola-gizon bat ai mentzan burnie biltzen.

Santi Espituko pralle 'atek ori ikus tzoneen, aballan arrie jarri ta tiau, jo burun da seko utzi mentzon gizona.

Pralle ok etzuen errukik pobrekiñ.

Santi Espituko prallek gizon txarrak mentzien»<sup>12</sup>

Nortzuk ote genituen hain fraile gaizto, lapur, hiltzaile eta bihotz gogorrekoak?

Askotan herriaren oroitza da artxibo guztietan onena eta fidagarriena.

Azken ipuin honek euskal metalurgiaren eta Zegamako tenplarioen kondairaren bihotza darama barrenean. Maratila hori argitu nahi nuke.

Haizeola edo Mendiola izenez ezagutzen dira oraindik gure herrian, uraren laguntzarik gabe, burnia, giza indar soilez, urtzeko eta gauzatzeko erabili ohi ziren olak.

Hartzaroan ezagutu genituen karobien antzik bazuten.

Ardi larruz eginikako hauspoz sutegia berotu eta burnia giza-eskuz eraginiko mailuz moldatu eta maneatu ohi zuten.

<sup>10</sup> Tomasa Agirrek 1980an kontatua.

<sup>11</sup> Doroteo Otaegik 1990-5-7an kontatua.

<sup>12</sup> Asumendi Bernardinori umetan entzuna.



**Doroteo Otaegi.**



**Bernardino Azurmendi.**

Urik behar ez zuten ola hauek mendietan egoten ziren, haizeak ondo jotzen zuen lekuetan.

Geroago zeharrolak sortu ziren. Ola hauetan uraren indarrez eta laguntzaz mugitu ohi ziren mailua (gabia), nahiz hauspoa.

Legazpin, tenplarioek olak zeuzkaten herrian, zeharrolak 1290 aurretik bazirela esan genezake.

«Concretando, podemos afirmar que antes del 1335 existían ferrerías en el valle y que, retrocediendo en el tiempo, posiblemente en 1290 había ya algunas de estas instalaciones coexistiendo con las de monte, como nos parece indicar el primer documento. La coexistencia de ambos tipos parece evidente considerando que el paso del monte al valle debió ser paulatino al comprobar, poco a poco, las ventajas que ofrecía la aplicación de esta nueva técnica.»<sup>13</sup>

Legazpin 1290 aurretik zeharrolak bazeuden. Urte honetan, Antso IV.ak Segurako herriari emandako «Fuero de las Ferrerías» zeritzan dokumentu batean «las ferrerías que son masuqueras que se aproximen por seguridad más a Segura» dio.<sup>14</sup>

Dokumentuaren kontestutik «masukerak» edo «mendiolak» ez zirenek Legazpin jarrai zezatela dioela esan behar.

Urte hau baino lehenago baziren, beraz, zeharrolak Urola ibarrean, konkretuki Legazpin.

Kapital itxurazko bat behar zen ola hauek egiteko. Jose Migel Etxeberriaren esanetan, Zegamako tenplarioak Legazpiko olen nagusiak izateak hara zer adie-

<sup>13</sup> Talde lana, *Ferrerías en Legazpia* (San Sebastián, 1980) 65 orr.

<sup>14</sup> *Fuero de los ferrones* (Santxo IV.ak emana), Segurako Artxiboan.

razten digun: Tenplarioak, kapitalhandien jabe zirenez, mendiola zaharrei teknika berriak eransteko behar zen diruaren jabe ere bazirela.

Zeharrolen nagusiek ezinikusia eta gorrotoa zuten mendiolan lan egiten zutenen aurka.

Ipuin honetan Santi Espirituko Tenplarioak zeharrolen jabe eta jende pobreen eta mendiolen aurkako ez al dira azaltzen?

Aratz azpian meatza biltzen zebilen ola-gizonak haizeoletako langilea dirudi. Pertsona arrunta, hitz batean.

Ipuin hau asmatu zuenak, klase-burruka bat ez al digu kontatu nahi izan?

Legazpiko ola-jabeak (Etxeberriaren tradizioan) Aratz azpiko ola-gizon arrunta iltzen du (Azurmendiren tradizioan).

Zegamako bi tradizioek burniarekin lotzen dituzte tenplarioen ekintzak.

Bi tradizioak elkarturik, atzoko egunkarian bezain garbi irakur dezakegu tenplarioen kontra egin zen propaganda txarra.

Tenplarioak jende apalaren etsaiak zirela esaten digu gaur ere Zegamako tradizioak.

Zegamako Santi Espiritun tenplarioak egon zirela frogatzeko ez al dira arrazoi hauek pergaminorik onenak bezain onak?

### *Agorrolak eta zeharrolak Gipuzkoan*

Denboraz, zeharrolak nagusitu ziren Gipuzkoa osoan.

Luis Miguel Díez de Salazarrek bere «Ferrerías en Guipúzcoa» liburuan 201 olaren zerrenda ematen digu. Azterketak XV. eta XVI. gizaldietako zerrenda izan nahi du. Ola hauetako batzuk mendiolak direla garbi ikusten da, baina gehienak zeharrolak izango ziren.<sup>15</sup>

XVIII. gizaldian, Gipuzkoan olen egoera Tellechea Idigorasen «Anclas de Hernani» liburuan eskaintzen zaigu.

Olen kopurua erabat murrizten da, 59 ola dira denera gure Gipuzkoan daudenak, Tellecheak dioenez.<sup>16</sup>

Jesukristo jaio baino seiehun edo zazpiehun urte aurretik, zeltek lehenengo mendiolak jaso zituzten gure mendietan. XVI. gizaldirako eta lehenago ere nahiz gure errekaondo guztiak zeharrolez estaliak egon, XVIII. gizaldiaren bukaeran oraindik bakarren bat ikusten zen.

«Los procedimientos primitivos para la fabricación de este artículo parece que consistieron en calcinar la vena a campo libre y sin hoyos, empleando el carbón vegetal y leña. También se fundía el mineral en hoyos u hornos de cal y canto, activando la combustión con el sople de los hombres por medio de los tubos cilíndricos y sacudiendo el aire con movimientos de vaivén. Es probable que los hornos de calcinación se hiciesen en troncos de árboles, recubiertos de arcilla y ladrillo o piedra, pues al finalizar el siglo XVIII, las juntas de la Provincia ordenaban a los ferrones de Cegama que fabricasen hornos para la calcinación de vena en lugar de fundirla con troncos de árboles cortados por el pie.»<sup>17</sup>

<sup>15</sup> DÍEZ DE SALAZAR, *Ferrerías en Guipúzcoa* (San Sebastián, 1983) 342–347 orr.

<sup>16</sup> TELLECHEA, J.I., *Anclas de Hernani* (San Sebastián, 1977) 174 orr.

<sup>17</sup> MUGICA, S., *Geografía del País Vasco Navarro, Guipúzcoa* (Barcelona) 288 orr.

## 7. TENPLARIOEN GURUTZEA

Kondaira txingarrez estali  
zuten goizetik gauera.  
Oraindik horra nabari  
euren sua,  
egun sentiaren arrosa argian.

Zer misterio  
ote zuten kolkoan  
burdinazko gizon haiek!  
euren aroaren  
enetako arotz  
izateko?

Tenplarioek hamabi era desberdinetako gurutzeak zeuzkaten.  
Euren ikurrin, debozio eta simismenaren oinarritzat erabili ohi zituzten gurutze hauek gehienak.  
Nik orain eta hemen euren gurutze bat dela eta hitz egingo dut.

### 7.1. Jerusalemgo Patriarken Gurutzea

Konstantino Handiak Magenzioren aurkako gudatea Milvio zubiaren inguruan, Vatikanotik gertu, gurutze santuaren laguntzaz irabazi zuela esan ohi da.  
Nola nahi ere, 313. urtean kristautasuna Inperioaren erlijio ofizial bihurtu zen.

Konstantinoren ama Elena 326an joan zen Palestinara, Jesus hil eta piztu zen lekuen arrastoak aztertzerako.

Berandu zebilen Elena.

Erregina Palestinara iristerako, erromatarrek bi erasoalditan xehatua zeuzkaten Jerusalem, Jesus hil eta gero.

Titok lehenengo aldiz 75. urtean kiskali zuen Hiria.

Titoren gudatean Jerusalem erre bakarrik egin zuten, eta judutarrak morroi bezala saldu. Hiria han gelditu zen, nahiz Jauretzea erre eta harresiak puskatu.

Hiri santuak 135ean berriz burua jaso zuen Erromaren aurka.

Titoren lekuan, oraingoan, erromatarren buruzagi Adriano zen, Trajanoren anaia, Sevillako semea. Gizatzarkeriarik handienakerakutsi zituen gizon honek judutarrekin eta Hiri santuarekin.

Bazter guztiak hautsi, txikitu, erre eta desegin ostean, Golgota mendia zoruraino desegin zuen eta bertako lurraz Jesusen Hilobia eta Hiri osoa bost metro inguruko lur piloaren azpian estali zituen.

Golgota eta Jesusen Hilobia zeuden tokian Jupiterren eta Venusen jauretzeak jaso zituen.

Jerusaleni «Colonia Aelia» izena ipini zion.


Andaluzak Bibliaren arrasto guztiak kendu nahi izan zizkion hiru erlijioek Hiri Santutzat daukagun Jerusalem ederrari. Alferrrik ordea, Jesusen urratsak nola garbitu Adrianok.

Elenak, diotenez, 76 urte zeuzkan Palestinarako bidea hartu zuenean; ez zuen zeregin erraza bere gain hartu.

Sortaldeko kristauen arteko ahozko aipamen zaharrek diotenez, Elenari Sozomeño izeneko judutar zahar batek erakutsi omen zion Jesusen gurutzea non zegoen. Venusen jauretxearen azpian, hain zuzen.

Gurutzearen zati batzuk aurkitu zituzten, ustez. Garbi ikusi zuten Jesusen gurutzea zela, ukitu hutsez hiltzorian zegoen gaiso bat sendatu baitzuten zati haiek.

Jesusen gurutzearen zatiak, denera, bost ziren eta Elenak gurutzearen irudi berezi bat egin zuen:



Jerusalengo patriarken gurutzea.

Elenak gurutze hau Jerusalem Patriarkari eman omen zion, Jesusen Piztuaren Elizan (Elenak jasoan) gorde zezan.<sup>18</sup>

Beste gurutze zati bat Erromara eraman omen zuen.

Jerusalengo «Lignum Crucis» honek kondaira oso luzea dauka eta oraingoz uztera noa eta goazen Gurutzadetara.

Lehenengo Gurutzadaren ondoren, Bouillongo Godofredok Hiri Santua 1099an hartu zuenean, Roberto Jerusalem Patriarkak lau besoko gurutze hau pektoraltzat hartu zuen.

Bouillongo Godofredok, Lorenako Dukeak, Jerusalem errege zenez, gurutze hau bere ikurrinean ezarri zuen. Lorenako zaldunek gaur oraindik, gurutze hau daramate euren ikurrinean.

Lorenako zaldunen gurutzea sarritan Tenplarioak ere erabili izan dute, ikusiko dugunez.

Tenplarioek gurutze hau bera hartu zuten ordenako erlikiontzi bezala, 1118 urtean, «lignum crucis» gordetzeko. Jerusalem eta Erroman zeuden gurutze zatiak erlikiarik preziatuenak ziren garai haietan eta Europa guztira zabaldu ziren.

Tenplarioen erlikiontziak lau besoko gurutzeak ohi ziren ia beti.

Lau besoko gurutze hau tenplarioek beste zenbait ekintzetarako ere erabili ohi zuten. Adibidez, gutunak edo beste zenbait dokumentu sinatzeko edo etxe bat tenplarioena zen ezaugarri bezala eta beste mila arazotarako.

Gehienetan, gurutze hauek erlikiontzi ziren.

Ikus ditzagun batzuk.

<sup>18</sup> ATIENZA, J., *La mística solar de los Templarios* (Madrid, 1983) 28 orr.

## 7.2. Carabacako Gurutzea

Federiko II.a umezurtz geratzean tenplarioekin hazi eta eurek hezi zuten. Geroago, ordea, Palestinako Gurutzadan tenplarioak bortxatzearen, Ejiptoko sultanarekin harremanean hasi zen.

Tenplarioek, aldiz, Ejiptoren etsai zen Damaskoko sultanarekin zeukaten eginik ituna.

Federikok tenplarioei ziri hau sartu zien, eta gero gerokoak.

1228an Federikori Jerusalemgo errege koroa jantzi zion Hiri santuko Patriarkak.

Herrian zera zabaldu zen, Patriarkari gurutzea mirariz ezkutatu zitzaioela, Federiko II.ari errege koroa bidegabekeriaz eman ziolako.



Carabacako gurutzea.

Urteak ez zeuden geldi.

1244an Carabaca herria eta bere gaztelua Aragoako eta Kataluniako gudariek mairuei kendu zizkieten.

Urte berean, Carabacako gaztelua erregeak tenplarioei eman zien.

Carabacan Jerusalemetik tenplarioek Patriarkari ezkutatu eta bertara ekarritako gurutzea azaldu zen: Carabacako gurutze entzuna.

Herriak gurutze honen azaltzea mirari handien artean kontatuohi du.<sup>19</sup>

<sup>19</sup> *Idem, op. cit.*, 29-30 orr.

### 7.3. Bagako Gurutzea

Bartzelonako probintzian fronteratik gertu dagoen herria da Baga.

Bartzelonako zaldun batzuek ekarri zuten gurutze hau, XVIII. gizaldiko eskuizkribu batek dioenez.

1099an ekarri zuten eta Jerusalemgo Patriarkak eman zien gurutzea, «*lignum crucis*» bat barruan zuela.



Bagako gurutzea.

Baga inguruan tenplarioen egoitza asko zeuden.

Beste iturri batzuek diotenez, Vic hiriko gotzain Arnulfok ekarri omen zuen Konstantinoplatik «*lignum crucis*» hau.

Gauza jakinik ez dakigun arren, Tenplarioen gurutze bat Bagan badago.<sup>20</sup>

### 7.4. Segoviako Gurutzea

1224an Honorio II.a Aita Santuak Segoviako tenplarioei bidali omen zien gurutze hau.

XIII. mendeko bitxi eder bat da.

Geroagoko urteetan itxura aldatu zaio, apainketak estilo berri eta era askotan eginez.

Gurutze honi buruz Segovian ipuin asko kontatzen ziren garai batean.<sup>21</sup>

<sup>20</sup> ALARCÓN, R., *A la sombra de los Templarios* (Madrid, 1994) 277–278 orr.

<sup>21</sup> *Idem*, *op. cit.*, 279–282 orr.



Segoviako gurutzea.

### 7.5. Astorgako Gurutzea

1178an Ponferradako gaztelua tenplarioek Fernando II.aren eskutik hartu zuten. Ponferradako tenplario batek Gurutzada batean Palestinan zebilela, «lignum crucis» bat gorde zuen erropa artean, gudate latz hartan lagun ziezaion.

Preso harrapatu zuten. Ezer gorderik zeukan begiratzean, gurutzea tamainoz txikitu eta ez zioten aurkitu.

Tenplarioa esklabuen ferian saldu zuten eta zazpi urtean egon zen Alejandrian morroi lanik astunenak eginez.

Gau batean, txabolako katean loturik, loak menderatu zuen.

Goizean Ponferradan esnatu zen, kateaz beterik eta gurutze santua berekin zuela.

Adiskide guztiek harriturik ikusi zuten miraria.

Ponferradan egon zen gurutzea Astorgara eraman arte.<sup>22</sup>

### 7.6. Murugarrengo Gurutzea

Gurutze honi buruz kontatu ohi da ipuin bat:

Behin zaldun gazte bulartsu bat neskatxa eder batekin maitemindurik bizi zen.

Gutxien uste zen une batean, mairuak sartu herrian eta neskatxa hau eta beste zenbait pertsona eraman zituzten gatibu.

Zaldun gazteak sekulako nahigabea hartu zuen.

Mairuak jadanik urrun, urrea eskatzen zuten neskatxaren truk.

Zaldunak urrea bildu ezin eta Murugarrengo gurutzea harrapatu eta mairuei gurutzearen truk neskatxa kendu zien.

---

<sup>22</sup> *Idem, op. cit.*, 282–283 orr.



Ezkontzera Murugarrengo elizara joan ziren. Apaizak gurutzea muin egiteko mutilari eman zionean, honek ezin eman izan zion laztanik. Hiru bider gauza bera gertatu zitzaion.

Mirari honen aurrean, mutila damutu eta bere hobena aitortu eta gero, praile gudarien jantzia hartu zuen eta neskatxa mojataegi batean sartu zen.

Gurutze hau aspaldian Lizarran dago.<sup>23</sup>

### 7.7. Eunateko Gurutzea

Nafarroa zaharrean Iruñe eta Lizarraren artean dagoen eliza tenplario bat da Eunate.

Elizaren zorua oktagonala da. Zortzi pareta dauzka, beraz, elizak, eta atea ugari.

Diotenez, ehun ate horietatik omen datorkio izena.

Zortzi paretadunak edo oktagonalak dira tenplarioen eliza asko. Tenplarioak 1118an sortu ziren Jerusalem. Salomonen Jauretze ohiaren gainean jarri ziren bizitzen. Omarrek IX. gizaldian egin zuen mezkitaeren ondoan. Omarren mezkita ere oktagonala da, eta arabeen mezkita oktogonal bakarra. Mezkita honetan hartu zuten zalantzarik gabe tenplarioek beren elizen eredia.

Eunateko elizaren pareta batean zizelez landutako gurutze patriarkal txiki bat ikusi daiteke.<sup>24</sup>

### 7.8. Aberingo Gurutzea

Eunatetik hamabost bat kilometrora dago Aberin. Bertako elizan, ate nagusiaren inguruko arkuaren koloma batean dago Patriarken gurutze bat. Hau ere zizelez landua dago eta Eunatekoaren oso antzekoa da.<sup>25</sup>

### 7.9. Zegamako Santi Espirituko Gurutzea

Zegaman, Aizkorriren hegoaldean eta Aratz mendiaren aurrez aurrez, badago tenplarioen eliza txiki bat.

Elizatxo honetan, sarrerako atea eskubialdean, urbedeinkatu ontziaren gainean, edozeinek ikusteko lekuan, han dago gurutze patriarkal bat. Gurutzea harrian landuta dago eta, itxuraz, tenplarioek beren etxeari ezarri zioten ikurra da.

Gurutze hau, berez, Lorenako zaldunen gurutze bat da, esan dut arestian Tenplarioek Lorenako zaldunen gurutzea ibiltzen zaleak zirela eta ohituak zeudela.

Gure hiru probintzietan daukagun tenplarioen eliza bakarra bera da. Zaindu dezagun Zegamak bakarrik gorde ahal izan duen bitxi eder hau.

Bertan erromesek eta tenplarioek otoitz egiten zuten.

Hemen indartu zen artzain zaharren sinismena.

Gipuzkoako erromaniko bakarra ere bertan daukagu.

---

<sup>23</sup> *Idem, op. cit.*, 282–283 orr.

<sup>24</sup> *Idem, op. cit.*, 275 orr.

<sup>25</sup> *Idem, op. cit.*, 273 orr.



Astorgako gurutzea.



Murugarrenko gurutzea.



Eunateko gurutzea.



Aberingo gurutzea.



Santi Espirituko gurutzeta.

## 8. ERDI AROKO BERRIAK ZEGAMAN

### 8.1. Ladrón de Zegama

Tenplarioak Gipuzkoan desagertzean, Ladrón Belaz I.ak gure Probintziako ondasunik gehienak nola irentsi zituen ikusi dugu.

Zegamatik fraile hauek desagertzean, Ladrón de Zegama izeneko sendi bat azaldu zitzaigun herrian. Badakigu Oñatiko jaunaren seme edo sendikoren bat zela Ladrón hau. Aitamarrengo jauregia egin eta bizitzen bertan jarri zen. Lau-rehun urtean herriarekin auzian ibili eta gero, Agurainera joan zen bizitzera.

Gaur bere ondorengoak Valencian eta Zamoran bizi dira.

Ladrón de Zegamaren jatorriari buruzko eskuizkribu bat Zaragozako hiriko «Archivo Historico Provincialean» dago. Artxiboa antolatu gabe dagoenez, ez dut ikusterik lortu, nahiz 1994ko ekainaren 15ean neronek artxiboa ikustatu.

Ladrónen paperen falta honek gaur ez dauka konponketarik.

Ladrón de Zegamaren helburua tenplarioek Zegaman zituzten lur eta ondasunen jabe egitea izan zen, baina herriak ez zion utzi bere asmoak lortzen.

Aitamarrengo jauregia nola egin zuten herria ez da oraindik ahaztu:

«Etxe au eingo zuen lekun arizti 'at bota mentzuen da garbi unan jaso zuen nunbait jauregie. Etxeko kapirio ta egur lan guztie, bertan botatako aritz egurrez ein mentzuen».<sup>26</sup>

Sendi honetaz geroago mintzatuko gara. Gure herrian auzi ugari sortu ziren eurak zirela eta.

## 8.2. Berri jakingarriak

Alfontso X.a Jakintsuak 1256. urtean Segura gaur dagoen lekuan jasotzea agindu zuen. Parrokia eta herria, lehen, San Andres auzoan zeuden, itxuraz. Harresiz inguraturiko «Villa Segura» gogor eta sendo bat egon zedin eman zuen agindu hau.<sup>27</sup>

Zertarako egin zuten herri berri hau?

Gero aipatuko dugun Nafarroako «Frontera de Malechores» famatuari Gipuzkoak aurpegi eman ahal zieziaion egina dirudi.

1384an Zegama, Zerain, Idiazabal, Ormaiztegi, Mutiloa eta Legazpi Segurarekin elkartu ziren.

Gaztelako errege zen Joan I.ak elkartzeko honen baimena 1387an eman, eta Enrike III.ak 1393an baimena berritu zuen.

Dokumentu honetan azaltzen dira lehenengo aldiz Goierriko herritxo hauen izenak.

Erregearen gutunak zioenez: «e que por quanto esa dicha villa está en frontera de Navarra en comarca do hay muchos ladrones e malechores que facen muchas fuerzas e robos e muertes de homes, e otros muchos maleficios».<sup>28</sup>

Erdi Aroan, 1200ean Gipuzkoa Nafarroako Erresumatik irten zen bere borondatez. Bukaerarik gabeko burrukak, lapurretak eta elkar hiltzeak hasi ziren, besterik gabe, nafarren eta gipuzkoarren artean luzaroko urteetarako. Burunda, Sakana eta Gipuzkoaren mugetan zeuden zenbait herriri «gaizkileen muga» zerritson eta lapur nafarrak muga horretatik Gipuzkoan sartzen ziren lapurretarik eta hilketarik handienak egitera.

Gaizkileen mugako leku gotortuak Gorritiko gaztelua eta Etxarri Aranazkoa ziren.

Nafar lapur talde armatuei Segurak, inguruko herrietako jendea deitu eta elkartuz, hortzak erakusten zizkien.<sup>29</sup>

Beotibarko gudatea giro honetan sortu zela dirudi.

## 8.3. Partzoneria

Gaur Gipuzkoako eta Arabako Partzoneria diren lurraldeak orain seiehun urte Gaztelako erregearen ondasunak ziren. Lur hauek Enrike III.ak Hernan Perez de Ayalari eman zizkion zenbait mesederen saritzat.

<sup>26</sup> Zabaletatar Nikolasi 1994–9–6an jaso.

<sup>27</sup> GOROSABEL, P., *Diccionario histórico geográfico de Guipúzcoa*, (Bibao, 1972) 495 orr.

<sup>28</sup> *Idem, op. cit.*, 495 orr.

<sup>29</sup> CAMPIÓN, A., *Gacetillas de la Historia de Navarra en RIEV*, 5 (1911) 198, 494 orr.

Trastamaratarren koroa Gaztelan finkatu zutenen artean, Ayala sendia ez zen motelena izan.

Enrike III.ak Hernan Perez Ayalari lur hauek 1401eko martxoaren hogeita hamarrean eman zizkion.

Hernan Perez Ayala Pero Lopez de Ayala, kronista, poeta eta Gaztelako bost erregeren kantzeleriaren semea zen.

Hernan Perez de Ayalak, berriz, Segurako herriari saldu zion erregearen dohain hau, Aragoako 500 florinen eta balio handiko bi oihal zatiren truk.

Tratu hau Seguran sinatu zen, 1401eko ekainaren hogeita bian.

1430eko azaroaren hamaseian, San Adriango haitzuloan, antxume larru batean eta putre luma batez idatzi omen zituzten, gure zaharrek diotenez, Gipuzkoako herriek eta Arabako Asperrena, Agurain eta San Milanek Partzoneriako araudiak.

Aizkorriko artzainen bizitzan ate berri bat zabaldu zen egun eder hartan San Adrianen.

Gipuzkoako herriekin berdin Arabakoak nola egin ziren eta zergatik? Ez dakigun gauza da.

Perez de Ayala, beste titulu askoren artean, Aguraingo kondea zen eta Ayalako jauna.

Daitekeena da, Salbatierrako kondea zenez, bere mendekoei lur hauek dohain edo beste kobrantzaren baten bitartez ematea.

Litekeena da kondearen eta arabarren artean usuario zahar batzuen loturak egotea ere. Ezer zehatzik ez dakigu.<sup>30</sup>

Partzoneria hitza gaskoia da: «Partxon» «zattia» da gaskoiz. Beste hitz asko bezala, gaskoitik euskarara sartu zen Erdi Aroan.

#### 8.4. San Bartolomeren Kofradia

Ni haurra nintzela, Zegaman, San Bartolome hirugarrenez, meza ematen zuen erretoreak San Bartolomeren elizan eta sermoiaren hasieran urtean zehar hil ziren kofradiakoen zerrenda irakurri ohi zuen.

Gero, kofradian urte hartan partaide egin zirenen izenak.

Komunio handia urte hartan egina zuten neska–mutiko guztiak sartzen ziren kofradian.

Hamar xentimo ordaintzen genuen urteko gastuetarako.

Diru hori urtean zehar hil ziren kofradiakoentzat meza emateko izaten zen.

Meza ondoren hamaiketakoa egin ohi genuen Konpiterian.

Gaur oraindik San Bartolomeren meza ematen da; kofradia zaharra hil zen, olerki osin gehienak agortu diren bezala.

Nondik eta nola sortu zen Zegaman San Bartolomeren kofradia?

Gutxi gora behera 1476 inguruan agertu zen erakunde hau.

Hara nola jaio zen:

Endrike IV.a 1474an hiltzean, arreba Isabellek jarraitu zion Gaztelako errege–aulkian. Aragoako Fernandoren emaztea zen emakume hau ordurako.

---

<sup>30</sup> URZAINQUI, A., *Comunidad de Montes en Guipúzcoa: Las Parzonerías* (San Sebastián, 1990) 30 orr.

Aro honetan Espainiako lurretan nekazariak eta artzainak ezin jasaneko bitzitza zeramaten, lapurrez eta hiltzailez josia baitzegoen erresuma osoa.

Errege Katolikoek, egoera larri honi irtenbidea eman asmoz, «La Santa Hermandad» deitu zioten erakunde sortu zuten.

1476an egindako erakunde hau 2000 gizonez zegoen osatua.

Ehun mutilek zaldun bat zeramaten buru.

Lapurretari eta gaiztakeriari atzerakada handia eman zion erakunde honek.<sup>31</sup>

## 8.5. Euskal Herriko lehen polizia

Gaztelan adina lapur edo gehiago zeuden garai hartan gure Euskal Herrian. Ganboatarrak eta Oinaztarrak gudaketan bezain trebeak baikenituen lapurretan.

Gudateek eta beste zenbait arrazoik Euskal Herria lapurrez eta gaizkilez estalirik zeukaten.

Errege Katolikoek Gipuzkoako Korregidoreari Gaztelako erakunde edo herztaintza berdina egin zezala agindu zioten.

Gure lurralde foralean hara «Santa Hermandad» nola sortu zen.

Herri bakoitzean berrogei gizon aitonensemek talde armatu bat osatzen zuten. Hauek izango ziren herriko lurretan zebiltzan lapurrak harrapatu eta lepoa moztuko zietenak.

Gipuzkoan elkarte hauei «kofradia» izena eman zitzaizen.

Kofradiak santuren baten babespean jarri ziren.

Zegaman, bertako zaindaria San Bartolome zenez, San Bartolomeren kofradia deitu zitzaion.<sup>32</sup>

Kofradia, ermandade ekintzak utzi zituenean, debozioko erakunde soil gelditu zen.

Nik horrela ezagutu nuen haurtzaroan kofradia hau eta bertan partaide izan nintzen kofradia kendu zuten arte.

Kofradia hau dela eta hara zer dioen Pascual Madozek:

«... y tiene una cofradía del mismo título dedicada alapóstol, en la que sólo se matriculan los de linaje esclarecido, según real provisión del consejo de Castilla de 13 de julio de 1594.»<sup>33</sup>

## 8.6. Segurako judutarrak erbesterantz

1492: Urte honetan Espainian lau gauza garrantzitsu gertatu ziren:

1) Urtarrilaren 2an Granada hertsitu zuten Errege Katolikoek eta urte berean, 1492an, martxoaren 31n, beren mende hartu zuten hiria, Espainiako mairuen azken erresuma desagenez.

2) Urriaren 12an, Kristobal Kolonek Amerika aurkitu zuen eta bertako jabe egin zen Errege Katolikoek izenean.

<sup>31</sup> PÉREZ-BUSTAMANTE, C., *Compendio de Historia de España* (Madrid, 1952) 204 orr.

<sup>32</sup> *Libro de la Cofradía de San Bartolomé* (anterior al a.1500) Donostiako Gotzaitetikiko Artxiboan.

<sup>33</sup> MADOZ, P., *Diccionario Geográfico Estadístico Histórico. Guipúzcoa*. (San Sebastián, 1991) 37 orr.

3) Antonio Martinez de Calos, Nebrijako semeak lehenengo erdal gramatika argitaratu zuen.

4) Gertakizun guztietan beltzena:

1492ko martxoaren 4an Errege Katolikoek agindu bat eman zuten, handik lau hilabetera Espainiako judutar guztiek Espainia utzi behar zutela adieraziz.

35.000tik 40.000ra familia judutarrek utzi zuten ehundaka urtetan bititu ziren lurra eta erbesteko ogi mikatzaren bila ahal zuten laterrietara irten ziren.

Herri judutarrak jasan dituen zigorretan gogorrenetakoa izan omen zen hau.

Aro haietan, Zegama eta Segura herri bera zirenez, Seguran gertatu ziren judutarren gora-beherak aipatu nahi nituzke.

Gipuzkoa ez zen judutar asko bizi zen tokia.

XV. gizaldian Seguran judu talde bat eta Arrasaten beste bat zeuden, Gasteizko aljamarekin elkartzen zirenak.

XIV. gizaldian ere bazebiltzan judutarren batzuk Gipuzkoan; Gaztelan eta Galizian bezala, Gipuzkoara ere, zergak kobratzera etorri ohi ziren.

Mose Aben Arias gure lurretan Elizaren zergak biltzen ibili zen; Gipuzkoan honen ordezkoa Mose de Paredes zen.

Gipuzkoarrek foruen babesarekin erantzun ohi zieten zergak eta diru-laguntzak biltzera zetozen judutarrei.<sup>34</sup>

1398an Samuel Aben Arroio erregearen zergak biltzen ibili zen Gipuzkoan.

1463an lanbide berbera Jako Gaoni eman zitzaion: judutar hau gasteiztarra zen. Zergak biltzera Tolosan sartu eta laster Tolosako herriak, erabat hasarreturik, foruen aurkako ekintza zela hura eta Gaon, besterik gabe, hil egin zuen.

Erregea, gertatua ikusirik, hasarretu zen eta Tolosa zigortzeko asmoa hartu zuen.

Domenjon de Andia, politikoa berdingabeak, Gipuzkoako Errege izena ematen ziotenak, egin ahal izan zituen Tolosa eta erregearen arteko bakeak.<sup>35</sup>

1457an Gipuzkoan ordenantza gogorak eman ziren judutarren aurka eta Hernando del Pulgar judutarrak Mendoza kardenalaribidegabekeria hauen berri eman zion, baina dena alferrik.<sup>36</sup>

1450, 1453, 1464, 1479 eta 1485 urteetan Segurako judutar jendeak Gasteizko aljamarekin elkartuta zeuden diru arazo askotan.

1492an, Espainiako beste judutarrak bezala, bidali zituzten Segurako herritik ere judutarrak, pobrezia eta zoritxarra beste laguntzarik gabe.

Gipuzkoan, Arrasaten ere bazeuden hamar bat familia judutar; aipaturiko urtean erbesteari ekin behar izan zioten haiek ere.

Euskaldun judutarrak beren lurrari oso loturik zeuden eta Errege Katolikoek Gaztela eta Aragoako erresumetatik bota zituztenean, euskaldunak Nafarroara joan ziren bizitzera, Euskal Herria inolaz utzi ezinik.<sup>37</sup>

1498. urtean, Errege Katolikoek beharturik, Nafarroatik ere judutarrak erbestera egin zituzten Joan de Albret eta Katalina errege-erreginek.

Euskaldun juduek, Euskal Herria utzi ezin eta, Nafarroatik bidali zituztenean, Baionara jo zuten eta bizitzen Saint Espritko Aljaman hasi ziren. Lehendik ere

<sup>34</sup> CANTERA, E., *Los judíos de la Diócesis de Calahorra en la baja Edad Media* (Logroño, 1987) 155-156 orr.

<sup>35</sup> LABAYEN, A.M., *Domenjon Andia* (Bilbao, 1983) 299 orr.

<sup>36</sup> CANTERA, E., *op. cit.*, 156 orr.

<sup>37</sup> SAN SEBASTIÁN, K., *DEIA*.-Cuadernos de Historia. Complemento. 7-VII-1993.

Saint Espritzen bazen judutarren Aljama eta, gainera, Nafarroako erregeen mendean zegoen lurra zen Baionako hau ere.

Segurako gure anaia juduek ere Baionara joko zuten, noski, euskaldun guztiek bezala.

Harritzekoa badirudi ere, judutar haien artean, askok eta askok abizen euskaldunak hartu zituzten.

Hara adibide batzuk:

Iribas, Arana, Mendizabal, Maeztu, Zurarte, Gabiria, Basurto, Zúñiga, Salcedo, Gomez de Landáburu, Diaz de Mendoza, Garcia de Guevara, Vitoria, Tolosa, Vergara.

Bostehun urtean Euskal Herrian bizi eta beren lurrak uztea gogorra izan zen benetan Abrahamen seme gizarajo haientzat.

Baionan juduak, Frantziako erregeak bizitu ziren bitartean, ghettoan eta orbaindurik bizitu ziren urteetan. Frantziako Iraultzak beste gizaki guztiakin berdindu zituen juduak.

Iraultzak gizon denak berdinak zirela zioen.

Errepublikak askatasun betea ekarri zien Frantziako eta Baionako Saint-Spriteko judutarrei.

Baionako judutarrek, merkatariek zirenez, oso harreman onak eduki zituzten Hegoaldeko euskaldun merkatariekin.<sup>38</sup>

Euskal Herrian jaio zen judutarrik ospetsuenetako bat Benjamin Tuterakoa genuen zalantzarik gabe. 1156an bere herritik irten eta mundua korritzen hasi zen.

Ibilaldien egunkari zoragarri bat idatzi zigun. (Gaur egunkari hau euskaraz, erdaraz eta hebraieraz idatzirik argitaratuta dauka Nafarroako Gobernuak.)

Judutar ospetsu hau Tuteran eta Jerusalemene berari eskainirik dauzkan bi kalek aipatzen dute.

Tuteran jaio zen beste judutar ospetsu bat ere. Behar bada serfardien arteko gizonik handiena. Yehuda Ha-Leví, Gaztelako lehen olerkaria, Espainian ez da oso ezaguna, bere olerki-lana aurkitu berria baita.

Idazle jator hau ezagutu nahi duenak hor dauzka «Antología Poética» liburuan bere olerkirik onenak. Rosa Castillok 1983an argitaratu zuen liburu hau, Altalena editorialean.

Bere jaiotza 1075 inguruan izan zela uste da eta Tuteran.

Gaztelaniaz ezagutzen diren olerkirik zaharrenak bereak dira.

Hebraieraz ere idatzi zigun baina «jarchak» beti gaztelaniaz idazten zituen. Andaluziako lurretan bizitu zen urte askoan.

Bihotz handiko gizona zen.

## 8.7. Segurako judutarren oroitzak

Segurako herriak hiru kale dauzka, Euskalerriko «villa» guztiek bezala.

Erdiko kaleari «judu-kale» deitzen zaio oraindik; judutarrak, dirudienez, bertan bizitu ziren.

---

<sup>38</sup> *Ibidem.*



Aste Santuko prozesioa Seguran oraindik berria da. Lardizabal jaun aberatsak, itxuraz, eman zion ohitura honi hasiera XVIII. gizaldian, santuak eta jantziak berak erosit.

Prozesio hau «judu-kaletik» pasatzen da. Seguran judutarrik ez zegoela sortu zen ohitura hau.

Korpus eguneko prozesioa Erdi Arotik egin ohi da (judatarrek herrian zeuden garaietatik). Prozesio hau oraindik «judu-kalera» ez da iristen.<sup>39</sup>

Ikus Euskal Herriko ohitura zaharren indarra!

Euskaldun judutarrek, euren artean Segurakoak, Euskal Herria utzi nahi ez eta Baionan kokatu ziren, esan dudana bezala.

Baionako Aljaman jaio zen René Casin, 1887ko maiatzaren 10ean.

Nork daki Segurako judutarren ondorengoren bat ez zen?

Gizon hau izan zen gizaldi honetako dokumenturik garrantzitsu eta famatuena idazten partaide izan zena: ONUren «Giza eskubideen adierazpen unibertsala».

Nobel saria eman zitzaion 1968ko urtean.<sup>40</sup>

## 9. LADRÓN DE ZEGAMAREN POLITIKA

Ladrón de Zegama ia lauhun urtean ibili zen tenplarioen Zegamako hondakinak irentsi nahirik. Ez zuen nahi zuenik lortu azkenean, Zegamako herriak gogor egin baitzion.

Ladrón de Zegamak Santi Espiritun, Gesalibarren (Iruetxeta) eta herriko parrokiarekin eduki zituen harremanak ikusi ahal izango ditugu jarraian eta era berean ermiten kondairak egin ahal izango ditut.

### 9.1. Sancti Spiritus Ospitaleko fraileak Zegaman

Sancti Spiritus Ospitaleko fraileek bete zuten, zalantzarik gabe, Zegamako ermita honetan tenplarioek utzi zuten hutsunea.

Santi Espiritu gaur oraindik ermita honi Zegaman ematen zaion izena da. Ermitan egondako fraileek eman zioten izena, noski.

Sancti Spiritusko Ordena hau Montpellierko Guyk sortu eta eratu zuen Montpellierko hirian 1198an.

Tenplarioena baino 80 urte geroago sortua da, beraz.

Inozentzio III.ak fraile gudari hauen araudia Elizaren babespean hartu zuen eta nahiz Ordena sortu zen Montpellier hiria Ordenaren sortetxe izaten jarraitu, Erromako Santa Maria de Saxian ipini zion ohorezko sortetxea Ordena berriari.

Ordena hau ere, tenplarioena bezala, «erlijioso-militarra» zen.

Bere eginkizunetan nagusia Santiagoko bideak zaindu eta gurutzadetan parte hartzea zen.

Sixto IV.ak, 1467an, gudari alderdia kendu zion frailedi honi eta erlijio-soentzat soilki utzi zuen Ordena.<sup>41</sup>

<sup>39</sup> Iñaki Arantzadi, (Segurako apaizari) jaso. 1995–1–19an.

<sup>40</sup> SAN SEBASTIÁN, K., *op. cit.*

<sup>41</sup> MIGNE, P.L., 217. *Liber tercius*. cap. III. 108 orr.

Badirudi, urte honen inguruan utzi zutela fraile hauek Santi Espiritus.  
Zergatik?



Santi Espiritu.

Behar bada, zaldun gudariak, Ordenak euren beharrik ez eta, beste frailediren batean egoitza aurkitu zutelako?

Erlijosok bakarrik Santi Espirituko etxea eta ondasunak ezin zaindu zituztelako?

Hauek dirudite arrazoiak.

Urteetan Santi Espiritu bertan inor bizi ez zela egon zen.

Nola nahi ere, 1503an etxeak eta ospitalea eraiki ez, berritu egin zituzten.

## 9.2. 1503. Julio II.aren Bulda Santi Espiritun

Bulda hau 1503ko otsailean sinatu zuen Julio II.ak.

Bertako gairik garrantzitsuenak aipatuko ditut hemen.

Ez dut nahi lan hau gehiegi luzatzerik.

1) «Gure seme kuttun Martin Astigarretak ospitalea eta beste zenbait egoitza eraikitzeko eskatu didan baimena oso pozik ematen diot.»

2) «Baimen hau aintzat hartu dute nere seme Benitok, Erromako Saxiako Santi Espirituko nagusiak, eta ordena bereko Magerrek, hain zuzen, Martinek Seguran egin zizkion mesedeak gogoan edukiaz.»

3) «Ospitale hori eraikitzean, Erromako Saxiako Santi Espiritusko Ordenaren atalki izan dadila.»

4) «Etxegintzako lanak bukatzean, Martin Astigarreta izan dadila etxe horren administratzaile, Saxiako Benito eta Magerren gutunak dioen bezala.»

Santi Espirituko obrei buruz Julio II.ak Iruñeko gotzainari bidali zion buldaren txosten bat eman dut hemen.

#### 9.4. 1546: Erromako Bulda Berria Santi Espiritun

«Erromako Saxiako Sancti Spiritus ospitaletik, Kristogan hain kuttuna zaigun Migel Ladrón de Zegama, Iruñeko Elizbarrutiko apaizari ematen dizkiogu, Espiritu Santuaren alaitasunez, leku haietako prioretza, ospitalea, inguruak eta bazter haiek espirituan eta munduko ondasunetan beti aurrera egiten ikusi nahi baititugu.

Joan de Ygohara zure aurreko priorearen kontrako aitzaki asko iritsi ziren Saxiako Sancti Spiritus ospitalera.

Erromako Santi Spiritusko agintariek, priore hura leku horretarako egiten zen gizona ez zela ikusirik, kargua kendu egin zioten.

Zu priore on eta zuzena izatea nahi dugu, birtutez eta meritu ederrez jantzirik baitzaude.

Gure ospitaleari urtean behin urrezko dukat bat ordaindu behar diozu, hain zuzen Pentekoste egunean.

Bi urtetan diru hori ordainduko ez bazenu, prioretza galdu egingo zenuke.

Lurreko fruituez baliaturik, ospitaleko obrak egin eta ea dena hobetzen duzun.

Aurka egiten dizuten guztien aurka gure babesa daukazu.

Erroman, 1546an, otsailaren 26an.

Hector Bituri»<sup>45</sup>

Iruñeko Gotzaitegiko Artxihoan dagoen gutunaren laburpen euskeratua da hau.

Migel Ladrónek, bere ustez, prioretza biderik onenetik harturik zeukan. Segurako herriak, ordea, Santi Espiritun lana egin zuela ospitalea berritzen eta bertako patronotza inork eman gabe bere gain hartu zuen.

Segurako herriak Juan Aranburu aukeratu zuen Santi Espirituko priore. Aranburu jauna bere izendapenarekin joan zen Ladrón de Zegamarengana, Santi Espiritura.

Biak hasarratu egin ziren, itxuraz, eta Ladrón de Zegamak Segurako Juan Aranbururi ezpata sartu eta ia hilean utzi zuen.

Nola nahi ere, Segurako apaiza egun gutxi barru hil zen. 1548an gertatu zen eztabaida tamalgarri hau.

#### 9.5. Migel Ladrón de Zegamak Iruñean auzia

1548an eraman zuten Migel Ladrón de Zegama Iruñeko Gotzain jaunaren auzitegira.

On Juan Aranbururen arreba Grazia Aranburuk eraman zuen, hain zuzen. Bere fiskala Joan de Villaba batxilerra izan zen. Auzia nahikoa luzatu zen.

Zegamako ganboatar apaizak erruak hildakoaren gain bota nahi izan zituen: Juan Aranburu hasi zitzaiola armaz erasoka eta medikuen erruz hil zela apaiza, behar bezala zaindu ere etzutela egin, zauria, berez, ez zela hiltzekoa. Mila aitzaki erabili zituen auzian bere burua zigorretik ateratzeko.

Dena alferrik, ordea.

Apaiz hau Zegamako jauregiko semea zen, (Aitamarrangoa).

Ahaztu behar ez dugun gauza zera da: Zegama garai haietan eta geroago ere, Segurako Udalaren zati bat zela.

<sup>45</sup> C/78, n.º 9, Iruñeko Gotzaitegiko Artxihoan.

Epai gogorra eman zion epaileak.

Migelen ekintzan epaileak erailketa bat eta bi sakrilegio aurkitu zituen. Apaiz bat hiltzea sakrilegioa da berez, eta elizan hiltzea ere beste sakrilegio bat.

### *Epai zigorra*

«Auziko lekukoei entzun eta gero, Migel Ladrón de Zegama erruduntzat jotzen dut.

- 1) Elizako irabaziak kentzen dizkiot.
- 2) Apaiz kargu guztiak utzi behar ditu.
- 3) Hamar urteko giltzapea Navardun gazteluan bete beharko du.
- 4) 150 dukat zahar Aranburu jaunaren testamentuko nahiak behar bezala bete daitezen ordainduko ditu.
- 5) 12 dukat hildakoaren alde erresponsoak eta meza santuak ateratzeko eman ditzala.

Meneses Lizentziatua. Bikario Orokorra»<sup>46</sup>

## **9.6. Santi Espirituko Patronoa nor zen auzia**

Zegama eta Seguraren arteko auzi hau konpondu zedin Karlos I.ak eman zuen ordena bat dago Segurako Udaletxeko Agiritegian.

Auzi honetan epaile Lazkanoko Felipe izan zen.

Auzi hau dena Segurako Santa Maria Magdalenaren ermitan egin zuten.

Alde batetik, Segurako Udala eta bestetik, Martin Ladrón de Zegama eta bere seme Juan Ladrón de Zegama izan ziren auzia sortu zutenak Santi Espirituko Patronoa zein zen erabakitzeko.

Lekukoei galdera mordoa egin zitzaien.

Galderak: 1) Ea Segurako Udalak Santi Espirituko etxea zaintzen zuen. 2) Ea bertako prioreak betidanik Segurako Udalak aukeratu izan dituen. 3) Ea badakiten Migel Ladrónek Erromatik lortu zituen buldak Erregearen Kontseiluak ez zituela onartu.

19 lekuko azaltzen dira paperetan: Pedro Alusasti, 90 urteko harginak dioenez, berak hargin bezala lan egin zuen Santi Espiritun, orain 42 urte gutxi gora behera. Juan Gurutzeta, 37 urtekoak dioenez, Santi Espirituko ermita eta ospitalea egiteko, egur garraioan ibili zen Segurako Udalaren aginduz.

Martin Agirrek, 57 urte beterik zeuzkan idiazabaldarrak gauza bitxi hau dio auzian testigu bezala:

Migel Ladrónek zer egin zuen San Sebastiango ermita eta Errotaberri artean:

Ladrón de Zegama apaiza zaldi ganean zetorren lasterka, ezpata gerrian zuela. Segurako merino Juan Aldaolaren bi preso, Grazian Tafallakoa eta Landetako Domingo askatu zituen.

Gero Segurako alkatearengana joan zen. Honen aginduz zetozen loturik presoak, eta zer egin zuen esan zion, eta berriz bere morroirik edo sendikorik lotzen bazuen, berak lotzaileak preso hartuko zituela. Erregea bera ere ez zuela nagusizat aitortzen, ezta Gotzaina ere, bere gainetik Erromako Sancti Espiritusko Komendadorea zegoela bakarrik.

---

<sup>46</sup> Segurako Udal Artxiboan, E-4-IV-1.24.

## *Epaileen iritzia*

1) Beti bezala, Martin Ladrón de Zegama eta Segurako herria bakean bizi zitezela. Elkarki dena barka ziezaiotela.

2) Ladrón de Zegama eta bere seme Juani ez ziezaiela inork konturik eskatu Santi Espiritun gertatu zen heriotzeaz.

3) Martin Ladrón de Zegamak utzi zitzala Seguran bere anaia Migeli Erromatik bidalitako buldak, Santi Espirituko patrono bakarra Segurako Udala zela eta.

4) Segurak Ladrón de Zegamarekin zuen auzia bukatutzat ematen zela betiko.

5) Ladrón de Zegamak hiru urtean ordaindu zitzala 96 dukat Don Juan Aranbururen sendiak bizibidea izan zezan.

Magdalenako ermitan egin zen epaiketa hau 1550eko urriaren 16an, Segurako herrian<sup>47</sup>

Juan Aranbururen heriotza zela eta, Santi Espirituko ermitan meza ematea galerazirik gelditu zen. Aldareari erlikien harria kendu zitzaion eta otoitz leku soil utzi zuten elizatxoan.

Guk ere horrela ezagutu dugu tenplarioen eliza.

Epaiketa honetan Segurako testiguen, Pedro Alusasti, 90 urteko harginak eta Juan Gurruzeta, 37 urtekoak ez zuten egia esan. «Orain 42 urte inguru» dio lehenengoak Santi Espirituko hargintza lanetan jardun zuela.

1503an, Martin Astigarretak egin zituen Santi Espirituko lanak, Probintziaren laguntzaz.

1516an Debako Biltzar Nagusietan ez zuen Segurako laguntzarik aipatu ere; gainera, Santi Espiritu Probintziaren esku utzi zuen. Debako Biltzar Nagusietan Segurako ordezkariak ez zuen ezer esan.

1516an Santi Espirituko ospitalea erreta zegoen, ospital hori egin al zuen Segurak? Hala dirudi.

Juan Gurruzeta 1503an jaio gabe zegoen. 1516an 3 urteko umea zen.

Segurako parrokoa izango zen, aurrerantzean, Santi Espirituko priorea. (Gaur ere oraindik hala da).

Urte honetatik aurrera herriak aukeraturiko priorearen izena Erromara bidaliko zuten, hemen onartua izan zedin.

1551n German Estensoro, Segurako erretorearentzat eskatu zion Segurako Udalak Julio III.a Aita Santuari Santi Espirituko Prioretza.<sup>48</sup>

German Estensoro hau Portugalgo Isabel, Carlos V.aren emaztearen predikari izana, Segurako semea genuen.<sup>49</sup>

## **9.7. Santiagoko Bidearen gainbehera**

Lutero. Erromerien aurkakoa genuen. Leon X.ari idatzi zion gutunean galdetzen zion: «Zer esaten didazu Erromara, Jerusalem edo Konpostelara egiten diren erromeriez?» Gutun hau indulgentziei buruz zen. Lutero indulgentziak eta erromeriak sinismenetik kanpoan utzi zituen.

<sup>47</sup> Segurako Udal Artxiboan, E-4-III,I.

<sup>48</sup> LASA BAZTERRICA, M., Eraskina, LEKUONA, M., *Idazlan Guztiak, 5 Kondaira*, 379 orr.

<sup>49</sup> MUGICA, S., *Geografía del País Vasco-Navarro. Guipúzcoa* (Barcelona) 880 orr.

XVI. gizaldian fraile arrunt xeblebre bat Tomas Kempis izan genuen. «Kristoren Antz-bidea», asko irakurri izan den liburua, oso latin eskasean eta Teologia eskasagoan idatzi zigan fraile aleman honek. Peregrinazioei buruz honela zioen: «Qui multo peregrinatur raro santificatur.»

Erasmus. Kristau katolikoen artean ere egon ziren mende honetan erromerian aurkako pentsalariak. Denen artean garrantzi handikoa Erasmus izan genuen. «Peregrinatio Religionis ergo» liburuan gogor astindu eta zentzugabetzat jo zituen erromeriak.

### *Espainiako sainetea*

Antonio Perez Madrilen jaio zen 1534an eta Parisen hil zen 1611n. Felipe II.aren lehen idazkari eta konfidantzako gizona izatera iritsi zen. Erregeak bezain kontzientzia zikina zeukan.

Espainiako gizonik ahaltsuena izan zen Felipe II.aren ondoan. Bere maltzurkeriak ezkutatzeko Eskobedo, D. Joan de Austria zenaren idazkaria hil zuen 1579an.

Hemendik hasi zen gizon honen gainbehera.

Aragoara erbestetu zuen erregeak.

Aragoatik Flandesera bidali zituen Felipe II.aren armadako ezkuturik garrantzitsuenak. Zeinekin bidaliko eta Santiagoko erromes jantzian Espainia zeharkatu zuten zelatari batzuekin, hain zuzen!

Felipe II.ak, gertatu zenaz jabetzean, Espainiako sarrera eragozten zuen pragmatika bat zabaldu zuen bere estatu guzietara, 1590ko ekainaren 13an argitaratua.

Erromesek ezin zezaketen erromes arroparik eta kapelarik jantzi. Jaioterriko Gotzainen eta agintari zibilen agiria behar zuten Espainian sartzeko.

Ordena hauek zirela eta, erabat murriztu zen pelegrinoen kopurua.

Ehundaka urteetako Santiagoko bidea horrela indargetu zen.

Urte ilun hau 1590a izan zen.

Ordutik aurrera Santi Espirituko pelegrinoen babestokia eta ospitalea txirotegi soil bihurtu zen.

1590. Iruñean 1590ean argitaratu zen sinodal batean, 162. orrian ikus dezakegunez, XVI. gizaldiaren azkenetan Santi Espiritun «Comendadoras de Santi Espiritus» izeneko mojak bizitu ziren.<sup>50</sup>

Sancti Espiritusko fraileak Santi Espiritun 1467 arte egon ziren froga bat dugu, noski, gertakizun hau.

1623. Pedro Bereziartua, Segurako parroko eta lizentziatuaren izena aurkeztu zion Segurako Udalak Urbano VIII.ari jatorriz Santa Maria de Saxiakoa izan zitekeen Santi Espirituko prioretzarako.<sup>51</sup>

1624. urtean edo inguruan, Oliverio de la Trau y de la Terrade izeneko Montpelliierko fraileak, Santa Maria de Saxiak Italian eta Sizilian bakarrik zeukala eskubidea eta, paper gezurrezko batzuen bitartez, Italiatik kanpo zeuden lurraldeetako komentuen jurisdikzioa berak zeukala baieztu nahi izan zuen.

<sup>50</sup> *Diccionario Geografico Histórico de la Real Academia de Historia*. I alea. 208 orr.

<sup>51</sup> LASA BAZTERRICA, M., *op. cit.*, 380 orr.

Santi Espirituko priore, beste gezurrezko paper batzuen bitartez, Gabriel Gonzalez de Apaolaza izendatu zuen.

Agintariek, paperak gezurrezkoak zirela konturatzean, Oliverio espetxean sartu zuten.

Horrela bukatu zen festa hau.<sup>52</sup>



Santi Espiritura jendea, haurrak asto gainean dituztela.

Santi Espirituko fraileen etxeak erroak, inongo zalantzarik gabe, Montpellierren zeuzkan, dokumentu honetan ageri denez.

Bertako azkeneko fraileak, beraz, ordena honetakoak ziren.

1625. Santi Espirituko prioretzak, Zegamako Udal-lurrean egon arren, Segurako herria du bere patrono. Segurako herriak dauka bertako priorea aukeratzeko eskubidea.<sup>53</sup> Urte horretako Udalaren agiri batetik jasoa.

1638. Santi Espirituko ospitalean Valeratar Joan Martin deitzen zela esan zuen soldadu bat hil zen. Etebar herrikoa zen, Alarcon bailarakoa, Mantxako lurretan. D. Joan Arellano kapitanaren konpainiakoak. Sakramentuak hartuta hil zen.<sup>54</sup>

Santi Espirituko ospitalea noiz itxi zuten jakitea ezinezkoa izan zait.

Fraileen bolalekuak. Santi Espiritutik nahikoa gertu bi zelai daude. Bat Txaparrri aldera dago eta San Kiriko egunez San Adriango ermitara meza entzutera zihoan jendeak bertan gosaltzen zuen.

Hau zen fraileen bolaleku bat.

Beste bolalekua Aldaolan zegoen eta oso zabala eta ederra zen.

Bolaleku hau gaur pinudi da.

<sup>52</sup> AROCENA, F., *Hidalguía*, (Madrid, 1956 n.º 18) 667-672 orr.

<sup>53</sup> 1625 urteko Segurako Udalaren agiri bat.

<sup>54</sup> Zegamako Parrokiako Artxiboan. 2.º Difuntos, n.º 84.

Gizaldi honen hasieran, oraindik, artzainek bolatan egin ohi zuten zelai hauetan.

Gaur iraganaren oroitza bat dira.

Santi Espirituko elizara umeak hizketan ikastera eramaten zituzten gurasoek astasaskietan gure haurtzaroan.

Umeei laster ematen omen zien dohain hori Gurutze Santuak.

Gurutze honi jaiera handia dio herriak.

Arte aldetik ez dauka balorerik.

### *Muñoko Donatok Santi Espirituko eliza berritzen du*

1954ko ekainean Roberto Aierbek hasi zituen tenplarioen elizatzoko konponketak Santi Espiritun.



**Donato Arrieta, Santi Espirituko artzain bertsolaria.**

Teilatua eta beste zenbait gauza berriak egin behar izan zitzaizkion elizari. Elizako gastu denak bihotz nobleko artzain jator Donato Arrizabalagak ordaindu zituen bere poltsikotik.

Euskal Herriko artzairik maitagarriena zen Donato, bertsolari fina eta gizon atsegina. Frantses Txikiak Zegaman honen gaztearoan kantatu zituen bertsokak buruz errepikatu ohi zituen. Gure errota xaharrean neguko gau luzeetan kontrabandoan zakua ehiozten aritzen zenean erakutsi zidan bertsotan.

Elkar ikusten genuenean bertsotan agurtzen ginen, bere begiak urrutira begira zeuden beti.

Artzain maitagarri hura gaur non ote dabil kantari?

1995ean Bixente Larreak, Fermin Larreak eta Jose Domingo Ariztimuñok ordainduta berritu da eliza hori.



Gipuzkoako tenplarioen eliza bakarra eta monumentu ikusgarri hau sendi batzuek beren diruz zutik gorde dute. Eskerrak jende leial eta jator honi, mila aldiz eskerrak!

1995eko ekainaren 11n Xabier Azurmendik eman zuen meza santua tenplarioen elizan, D. Juan Aranburen eriotza zela eta galerazirik zegoen ohitura hau-tsiaz.

### 9.8. Gesalbizkarko (Iruetxetako) ermita

Gaur Gesalbizkarren dagoen ermita gizaldi honen hasierakoa da. Zaharra desegin eta berria bidearen ondoan egin zen.



Gesalbizkarko ermita.

Zegamako tradizio zaharrak hara zer dioen Gesalbizkar edo Iruetxetako ermitari buruz:

«En la vertiente NE. del célebre e histórico peñasal de Aizkorri existían y existen aún las casas de Gesalbizkar o Iruetxeta y la ermita de Santa María de las Nieves, que pertenecieron a los Templarios, pasando luego a los canónigos de Roncesvalles con terrenos, rebaños y pastos vecinos. Hoy lo son de la casa marquesal de San Millan, o sea de los descendientes del Almirante Oquendo.»<sup>55</sup>

Ikus Gorosabelek zer dioen:

«...y Nuestra Señora de las Nieves. Esta última fue en lo antiguo hospedería de peregrinos, que iban en romería a Santiago, y volvían de allí, fundada por la

<sup>55</sup> SORALUCE, P.M., *Euskal-Erria* (1891) 19 orr.

casa solar de Aitamarren, quienes dieron para el efecto una casa con algunas camas.»<sup>56</sup>

Soraluzek eta Gorosabelek diotena Zegamako tradizioetik jaso zuten; herrian gauza hauek galdetu ondoren, jaso zuten erantzuna idatzi zuten leialtasunik handienaz.

Gorosabelek dioen gauza bera, hara nola dioen Zegamako Goialdeko ipuin zahar batek:

### 9.9. Iruetxetako Ama Birjina nola agertu zen

«Iruxtan naiz gaur iru etxe eon, garai artan bakarra mentzan.

Iruxtak Gesalbizkar mentzon izena ta etxe ontako artetxea Ellorren mentzan.

Atxamarren zârreko morroia ta neskamea jarri mentzien ezkondata lénengo aldiz Iruxtan. Gizona naparra mentzan, andrea oñatiarra. Bizimoduik etâ ezin, da partiera amoroso 'at ein da bakoitzek bê aldeti jo bearko zuela pentsau zuen.



Jexux Mazkiaran eta emaztea.

Kaltzada makurren partitu mentzien, bat Oñatia ta bestea Naparroa.

---

<sup>56</sup> GOROSABEL, P., *Diccionario Histórico Geográfico de Guipúzcoa* (Bilbao, 1972) 116 orr.

Abiau beziñ azkar, andrei damutu ein mentzikon da gizonai ola otsein mentzion:

– Ni damutu nauk.

Ura bazijola gizonak.

– Ez al det etor nai? –kontestau mentzion andrek. Onek ekarko au, otsein mentzion, gonak jasoz.

Aizkenen juntau mentzien baño familik ez mentzuen izan.

Gau baten ikaragarritzko elurrek ein mentziton.

Gizonak arbolen gañen, atariñ, Ama Birjiñea ziola ames ein mentzon. Andrei amesa kontau zionen, erokerik utzi ta lo eiteko kontestau mentzion.

Goizen beitu zuenen, Ama Birjiñea an mentzion atariko aritzen gañen, ekurrez estalita.

Orreati “Elurretako Ama Birjiñea” mendauke izena Iruxtako Ama Birjiñek.

Iruxtan garai artan, etxen aurreko paretea izugarritzko aritz bat mentzan. Aritz ortan zâlduta zion atea ta ateti gurdie kargauta errez pasatze mentzan».<sup>57</sup>

Nolanahi ere, lehen tradizioan tenplarioen urratsak eta bigarreanean Ladrón de Zegamaren ermitaren jabe izan nahia garbi azaltzen zaizkigu. Bi iturriek dirudite egiazkoak.

## 9.10. Orreagako paperak

Tenplarioen eskuetatik Orreagako komentuaren mendera pasa ziren Gesalbizkarko (Iruetxeta) ermita, etxea, ospitalea, larreak, sagastiak eta abar, Soraluzek dioenez.

Goazen orain Orreagako artxibora:

Gesalbizkarri buruzko lehen datu idatziak 1494ko itun batean aurkitzen ditugu:

1494. Orreagako priorea zen Juan Eguesek eta Segurako herriak, Atarrabian, uztailaren 12an sinatu zuten ituna. Bi aldeen bitartekoa Juan Lopiz de Agirre izan zen, segurarra.

Aragoako erresumako 4 urrezko florinen truk eliza, etxea, lurrak, sagastiak, gaztainadiak eta bestelako zuhaitzak Segurako herriaren eskuetan gelditu ziren.

Ituna Atarrabian sinatu zen.

Juan de Lesakak eta Andres de Ruedasek Orreagaren ordeztatu zuten eta Seguraren izenean, Juan Lopiz de Agirrek.

1505. Gesalbizkarko eskubideen jabe Beltran Okariz zen. Zegamako seme, izatez.

Honek ere urtean Aragoako 4 florin ordaindu beharko zuen errenta.

1530. Maria Perez de Okariz alabak jarraitu zion aitari Gesalbizkarko eskubideetan. Honen senar Pedro Garzia de Albisuk urte honetan Orreagarekin ituna berritu zuen.

Pedro Garzia de Albisu ere zegamarra zen.

1538. Maria Perez de Okariz hiltzean, Pedro Garziak atzeratutako errentak ordaindu eta, Juan Garzia de Albisu Perez de Okarizen semearen ordezkari bezala, Gesalbizkarko eskubideak hartzen ditu, semea oraindik umea baitzen.

Ituna 1538ko martxoaren 31n sinatu zuten.

---

<sup>57</sup> Mazkieran Jexuxi 1981–6–9an jaso.

Aragoako urrezko bost florinetan finkatu zen pagua.

Florin batean gehitu zitzaion urteko errenta.

Pedro Garzia de Albisuk, semearen ordezkari zenez, sinatu zuen ituna eta Bernardo Hualde de Bakedanok Orreagako Priorearen eta Kabildoaren lekuko bezala.

Testiguak Juan de Leach eta Santxo de Roncevalles izan ziren, Iruñeko biztanleak.



**Iruetxetako Andre Mari.**

1590. Urte honetan Santiagoko bidea itxi zen. Pelegrinoen etxea txirotegi bihurtu zen.

Pelegrinoen babestoki izatea galdu zuen Gesalbizkarrek.

1667. 1538tik 1667ko urtera arte ez dago Gesalbizkarko berririk Orreagan.

Urte honetan, ordea, dirudienez, Ignacio Huarte Aztamarren zen Gesalbizkarko maizterra.

Gesalbizkarko ospitalea 1667rako eroria zegoen; maizterrak, hala ere, bearsuren batzuk hartzen zituen etxean.

Orreagak Ignazio Huarte auzitara deitu zuen ituna bete ez zuelako.

Urteetan Huarte Aztamarren auzitan ibili zen Orreagarekin.

1683. Aztamarrendar bat Plazaola batekin ezkontzean, gure Gesalbizkarko eskubideak Plazaolatarretara doaz.

Urte honetan, Andres Plazaola Aztamarreni Orreagatik kontuak garbitzera deitu zitzaion.

1713. Uztailaren 27an, Ignacio Antonio Plazaola hil eta gero, honen emazte Maria Josefa de Plazaola Huarte de Aztamarrenek jaso zituen senarraren Gesalbizkarko eskubideak.

1743. Maria Josefa de Plazaola hiltzean, berriz, honen seme Lukas Antonio gelditu zen oinordeko.

1713–1743rako errentak zor zizkion Plazaola sendiak Orreagari.

Auzitan zegoen arazoa.

Lukas Antonio Plazaolak zor denak Orreagari ordaindu eta behartsuei jana eta ohea emateko kargua ere hartu zuen.

Itun berri hau 1743ko azaroaren 29an Orreagan sinatu zen.

1819. Urte honetan, Konbentzioko gudatea eta Frantsesteko iskanbilak bukatu ondoren, 1743an Lukas Plazaolak sinaturiko itunaren berri eman zezatela eskatu zien Orreagak Lukasen ondorengoei.

Urte honetan Gesalbizkarko eskubideen jabea Andres Poncel, San Millango markesa zen, Lukas Plazaolaren odolekoa.

Granadara, markesa han bizi baitzen, zenbait mezu bidaliak zizkieten Orreagatik, Gesalbizkarko kontuak garbi zitzala eskatuz.

Markesa hila zen iadanik.

1825. Andres Poncelen alabari egoeraren berri eman zioten Orreagakoek.

Markesak ituna berritu eta aitak monjetxeari utzi zizkion zor denak ordaindu zituen 1825ean.

1841. Mendizabal ministroak desamortizazioaren legea eman zuen urte honetan. Gesalbizkarko ondasunak Orreagako Monjetxearen eskuetatik Estatuarenetara pasa ziren.

Desamortizazio ostean, San Millango markesak Gesalbizkarko ondasunak Estatuari erosi zizkion.<sup>58</sup>

Gaur etxe bakoitza bizilagun ezberdinena da.

Ladrón de Zegamak Gesalbizkarren jabe izateko zuen asmoa adierazten digu Gorosabelen zitak. Ospitalea eta ohe batzuk pelegrinoentzat ipini zituen Ladrónek Gesalbizkarren, tenplarioek utzi zituzten lurretan. Esan dut Ladrónen nahia tenplarioen ondasunak bere egitea zela.

Dirudienez, 1494ko urtearen aurretik Ladrón izan zen ondasun hauen maizter. XV. mendearen bigarren zatian, ordea, Zegamako jauna gaizki zebilen diruz. Ahalmen guztiak eliza berria egin eta eliza honetako patronotza lortzen jarri zituen. Gastu hauek zirela eta, Gesalbizkar eta Santi Espirituko eskubideak galdu zituen.

Santi Espirituko patronotza Segurako herriak kendu zion; Gesalbizkarko eskubideak, berriz, Juan Lopiz de Agirrek, Segurako herriaren izenean.

1494an Juan Lopiz de Agirrek, Segurako herriaren izenean, Atarrabian Orreagarekin sinaturiko itunean, sinatzaileek norbaiten beldur diren itxura azaltzen dute. Norbait indartsua eta itunaren aurka egin lezakeneenen bat badagoela dirudi inguruan.

Lerro tartean nabari daiteeken pertsonaia Ladrón de Zegama dela esango nuke.

---

<sup>58</sup> MUTILOA POZA, J.M., *Roncesvalles en Guipúzcoa*. III alea (San Sebastián, 1976) 94-119 orr.

Gesalbizkar izena gure urteetan Iruetxeta bihurtu da, bertan hiru baserri jaso zirenetik, noski.

Andre Mariren irudi zoragarri bat dago bertan. Erromaniko aro ederrekoa. Aurpegiaren bi aldeetan ile horidun bi txirikorda ezkutatzen zaizkio bizkarraren atzean.

Aurpegia erabat du ederra. Aulki batean eseritako Erregina dugu gure Andre Mari.

Berriro diot, irudi honek ezohizko ederra du beregan.

Jesus haurra bi belaunen gainean eserita dago.

Eskubiko eskuan lore bat dauka.

Irudi hauek Limoges edo Rhin eskoletako tailerretan egin eta Sartalde guztian zabaltzen ziren. «Las Edades del Hombre» deritzen Gaztela eta Leongo erakusketetan garbi dakusku eskola hauek Erdi Aroan izan zuten eragina eta eskola hauetatik zenbat irudi eder sartu zen aipaturiko lurretara.

San Adriango bidean zehar, Iruetxetako Andre Mariren antzeko zenbat irudi pasa ote ziren Araban edo Gaztelako lurretan saltzeko? Jaungoikoak jakin!

Andre Mari hau Aizkorriko Gurutzea baino zertxobait zaharragoa da eta eskola berean egina. San Adriango Ama Birjina ere, beste biok bezala, Limoges edo Rhingo tailerretan landu zuten, noski.

1994an Ama Birjina Iruetxetatik elizara jaitsi dute.

Gesalbizkar zaharra goibelago dakusat.

Zegaman, Goialdean, eguraldi txarra edo ekaizteren bat zenean, serorak Andre Mari kanpora atera eta harri baten gainean ipini ohi zuen. Ekaiztea ixtantean ezkutatzen omen zen.

Herriaren ohitura bat zen hau, animismo hutsa.

## 9.11. Zegamako eliza berria

1460 inguruan, Ladrón de Zegamak bere lurretan eliza berria eraikitzea erabaki zuen. Eliza berriaren patronotza eskuratzea zen bere hirugarren ametsa. Zegamako parrokia zaharra XI. gizaldikoa, erromaniko arokoa, aspaldi egina eta tenplarioena zen eta bertan patrono izatea ezinezkoa zitzaion. Kargu hau nahi bazuen, berak egin behar zuen eliza berria, hau baitzen patrono izateko baldintza nagusia.

Hara herriak eliza berriaren eraikitzea nola gogoratzen duen tradizioz, ahoz aho, orain arteraino:

«Zeamako eliza berrie eiten asi zienen, xexioa sortu mentzan.

Atxamarren zârreko nausik, Andutzako elizea atzea utzi ta berrie ein nai izan tzon bê terrenon. Erriko maiorazkok ori etzuen ametitzen.

Atxamarrengo nausik maixterak zeuzken da ok nausiñ alde ta maiorazkoan kontra jarri zien.

Xexio guztian gañeti Atxamarren zârreko nausik elizea eitea erabaki zon.

Arrie Animapiztiti, Antximuñoti, Izarrâ ekartzen tzuen da emendi Atxamarrengo lurretâ.

Atxamarrengo lurren asi zien elizea eiten, baño Atxamarrenen eunez eiten tzan obrea, gaez norbeitek arrastau ta materialak gaur elizea don lekua eamaten tzituen gurdiz.

Gau baten da besten, eunez eindako lanak lekuz aldatzen tziela ikusta, beiñ andra 'at jarri mentzan leio zuloti milagroa ikus naita.

San Martin mentzizon gurdiñ arrik tzitula kantari:

“Aida txuri,  
Aida gorri,  
Leiozuloti beida don orri  
Etâ daioan begie.”

Akullukin begie etâ mentzion andrei.

San Martiñen milagroa ikusi ta elizea oaiñ don lekun ein mentzuen». <sup>59</sup>

Martin Ladrón de Zegamak parrokiako zaindari berriari bere santuaren izena ipini zion, San Martin.

1495. Urte honetan Zegamako herriak, auzi luze baten ondoren, Ladrón de Zegamari egin berri zuten Elizako patronotza kendu zion.

Datuek diotenez, bidegabekeriaz lortua zen patronotza.

Auzia Valladoliden zuritu zen.

Zegamako Udaletxean bazegoen idazki bat, paretatik zintzilik, irakurgai honekin:

«En el año 1620 fue eximida está vila de Cegama de la de Segura, y en 1495 de Martín Ladrón de Cegama.

Y a los patronos que tuvieron  
antes de que fuese villa,  
les quitaron de la silla  
que malamente adquirieron.»

Horrela hautsi zen Ladrón de Zegamaren hirugarren ametsa.

## 10. SAN ADRIAN LAU MENDE LUZETAN

### 10.1. Mendetako mila gora-behera

1451. urtean segurarrak eta aguraindarrak San Adrian eta inguruetakoa lapurrei buruz erabakiak hartzera bildu ziren. <sup>60</sup>

1475. urtean San Adriango haitzuloaren barnean gaztelu bat zegoela daku-sagu. Gaztelu honen alkaide Segurako herriari Partzoneria saldu zion Aiala sendikoa zen (Perez de Ayala).

Urte berean Lazkanotarrek kendu zioten Aiala sendiari gazteluaren alkaidetza. <sup>61</sup>

Tradizioak dioenez, Gaztelako Enrike IV.a Ganboatarren eta Oñaztarren auziak konpontzera San Adriandik etorri omen zen Gipuzkoara. <sup>62</sup>

Errege honek Gipuzkoako Ermandadeak deiturik, gure lurretara etorri eta 1457an Ahaide Nagusien dorre-etxeak moztu zituen, pertsonentzat eta gauduentzat soilki beharrezkoak ziren lekuak errespetatuz.

<sup>59</sup> Joxe Alustizari 1989–8–8an jasoa.

IVO ANDRIC, Nobel saria 1961ean jaso zuen idazle bosniarraren *Un puente sobre el rio Drina* nobelan sineskeria berdina azaltzen da III. atalean. Europako sineskeria dugu hau beraz. Euskal Herriko Eliza askori buruz ere kontatu izan ohi da ipuin berdina. Ikus, Barandiaran, J.M. (Bilbao, 1973) 165–187 orr.

<sup>60</sup> Segurako Udal Artxiboa, A-4-1-1.

<sup>61</sup> *D. Garzia de Ayala eta Juan Lopez de Lazkanoren arteko auzia*, Simancasko Artxiboan, 1475-II, folio 195.

<sup>62</sup> PORTILLA, M., *Una Ruta Europea por Alava a Compostela* (Vitoria, 1991) 39 orr.



Zigor hau nahiz Oñazarrei, nahiz Ganboatarrei, berdin ezarri zitzaien.  
Ladrón de Zegama ganboatarra zen eta honi ere urte berean jauregiko etxe-bizitza utzi zioten soilki. Ahaide Nagusien judaskerietan ez baitzen azkena izango gure Ladrón.



Joxe Alistiza.



San Adriango haitzuloa.



Gaztelako Isabel erregina ere, tradizioak dioenez, Galarretan lo egin eta San Adriango bidetik sartu omen zen Gipuzkoan. Gertakizun honen noizkorrik ez dakigu.<sup>63</sup>

1502an San Adriango haitzuloan Lazkanotar Felipe bataiatu zuten.

Aita eta ama pontekoak Gaztelako Joana Eroa eta Felipe Ederra izan zituen umeak eta printzearen izena ipini zioten.

Joana eta Felipe Flandestik Gaztelara zetozen eta Lazkanoko sendia bidera irten zitzairen.

Felipe de Lazkano ume hau izan zen 1542an Donibane Lohizune erre zuena, Gipuzkoako tertzioen buru eta gidari baitzen.<sup>64</sup>

Gaztelako Joana Eroa zeritzana 1496an Augsburgoko Feliperekin ezkondu zen Bruselan. 1497an Errege Katolikoan semerik zaharrena, D. Joan hil zen. Joana eta Felipe, beraz, Flandestik Gaztelara zetozen erresumaren zuzendaritza hartzera.

Bataio honekin Lazkanoko jaunak Aiala sendiari kendu zion gazteluaren alkaidetza bere eskuetan finkatu nahi izan zueladirudi.

1520an, Komuneroen gudate bizian, San Adriango gazteluaren jabe berriro ere Aialatarak zeuden; itxuraz, Lazkanotarren menpetik berreskuratu berri zuten agintaritza eztabaidatu hau.

D. Pedro Lopez de Aialak gipuzkoarrei San Adriandik dei egin zien komuneroekin batu zitezen eta Haitzuloko gaztelua eskaini errealisten aurka babestzat.<sup>65</sup>

Gipuzkoar asko komuneroen bandokoak izan arren, Probintziak Aialari muzin egin zion. Gipuzkoarrak komuneroen bandotik ateratzeko ahaleginak egiten saiatu zena Iñigo de Loiola izan zen, denbora asko baino lehen San Ignazio izango zena.

Iñigoren ekintzarik mamitsuenak Hernanin gauzatu ziren.

Naiarako dukearen zerbitzari zen Iñigo.

Komuneroen gudatea bukatzean, Karlos enperadoreak San Adriango gazteluko alkaidetza D. Diego Martinez de Alavari eman zion.

1536. urtean San Adriango alkaide Juan Hurtado de Luko zen. Zeraingo Juan Lopez Hazarreta lagun zuela, Biltzar Nagusiak Zestoan egiten zihardutela, aurkeztu zuen agiriaren laburpen bat hau izan zen: Gipuzkoar batek ere ez zeukala eskubiderik San Adriandik ezer Gipuzkoartzeko zergarik ordaindu gabe.<sup>66</sup>

Gure foruen aurkako agindu bat zen, noski. Ardoa eta jana ezer ordaindu gabe ekarri zitekeen Gipuzkoara, foruek ziotenez.

1539. Karlos V.a Gipuzkoara etorri zen, bere emazte Isabel hil zen urtean, hain zuzen.

«Salió Carlos V de Vitoria para Guipúzcoa el 26 de Noviembre, y al llegar a San Adrián, donde le esperaban los Diputados designados al efecto, le arengó el bachiller Estensoro, quien le presentó dos varas de justicia, la una ordinaria y la otra de la Ermandad, y dos llaves doradas en nombre de todas las Villas y lugares de la Provincia. El Emperador se abstuvo de tomarlas, diciendo:

<sup>63</sup> *Ibidem.*

<sup>64</sup> LIZASO, D., *Nobiliario de los Palacios, Casas Solariegas y Linajes nobles de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa* (San Sebastián, 1901) 31 orr.

<sup>65</sup> Aguraingo Udal Artxiboan. 14. folioa.

<sup>66</sup> Segurako Udal Artxiboan, SE, n.º 2-S III, L 3.

“Las varas y llaves están en muy buen lugar; yo terné en memoria de hacer lo que a la Provincia conviene”. Con tanto, el Monarca les dió a besar la mano a los que esperaban, y prosiguió su camino, para llegar antes de la noche a Tolosa.»<sup>67</sup>

Hamar mila mutil gipuzkoarrek ere irten zioten San Adrianera, denak beltzez jantzirik, erregina zenaren doluminez.

Karlos enperadore sonatuak eta burugogor paregabeak, Sandratiko zuloan sartzerakoan, makurtu omen zuen buru harroa lehenengo eta azkeneko aldiz bere bizitzan, Zegamako zaharrek diotenez.



San Adriango ermita.

1565. Isabel de Valois, Felipe II.aren emaztea, pasa zen San Adriango bidetik Baionara.

Biltzar Nagusien agindu bat erregina nola zaindu: «Pues, de hecho, las Juntas ordenaron al alcalde de Segura, “porque la reina no podría bajar del Puerto de San Adrián en ‘litera’, sino en ‘silla de manos’, mantuviese el cuidado de elegir cuatro personas que fuesen menester, para que a S. M. bajasen en hombros...”»

Baionan egun luzeetan egon zen bere ama Katalina de Medici eta Frantziako errege zen bere anaiarekin.

---

<sup>67</sup> ECHEGARAY, C., *Monografía histórica de Villafranca de Guipúzcoa* (Irún, 1908) 282–283 orr.

Estatu bien arteko gorabeherak jorratuko zituzten, noski.

Gipuzkoako herriek sekulako festak egin zizkioten erreginari.

Berrero ere San Adriandik zehar sartu zen Gaztelara, Segurako eliza ederrean meza entzun ondoren.<sup>68</sup>

1570. Goiko portuan konpondu zuen urkamendi bat zela eta, Zegamako arotz Juan Idiakaitzi berea ordaindu zitzaion.<sup>69</sup>

Oharra: Goiko Portuari arabarrek gaur ere «la horka» deitzen diote, bertan lapurrentzat urkabe bat baitzegoen.

1592. Felipe II.ak bere erresumako gazteluen berri jakin nahi eta San Adrian-go ikus zezaten Juan Velez, Miguel de Luyado eta Juan Martinez de Uriarte harginak bidali zituen.

Hara hargin haiek erregeari bidali zioten informea:

«... Digo que la dicha fortaleza y puerto de San Adrian ques en esta provincia de alava esta en la frontera del reyno de Navarra y provincia de guipuzcoa un paso mas abajo de lo alto del dicho puerto ancia el lebante la qual es passo de una peña fortissima agujereada que tiene ciento y ochenta y dos pies de largo y quarenta de ancho con sus puertas la una a la banda de Poniente como se entra desta dcha. provincia de alava y la otra a la del lebante adonde se haze una pared que ocupa todo lo ancho de la dicha cueba excepto la dicha puerta de canteria muy buena y con algunas bentanas que dan luz a la cassa questa edificada dentro de la dcha. cueba y assimismo ay una hermita con un altar adonde se dize missa y una caballeriza en el hueco de la dicha cueba fuera de la dcha. cassa y a la parte de lebante como se sale de la dcha. cueba esta una pared arruynada que servia para defender la subida del dcho. passo, y a un lado de la dcha. cueba como se entra por la puerta del poniente se alza un poco la dcha. peña a donde se sube por una escalera encima della donde ay otras dos cuebas muy grandes y la dicha peña que se alza sale fuera de la puerta de la dcha. cueba diez pies y se haze una plazuela encima della de treynta pies de ancho y tiene de alto desde la entrada beyinte y quatro pies a la que llaman el omenage el qual mira al dcho. reyno de navarra y provincia de guipuzcoa y tenia por lo que parece por las ruynas del una pared alrededor con sus almenas que ban a dar dentro de la dcha. cueba hasta la dcha. puerta y entrada de poniente toda la qual dcha. pared esta arruynada y cayda y assimismo tiene nescessidad de recalzarse la pared de la dcha. cassa y de hazerse dos puertas muy buenas y barreadas de fierro para las dchas. dos entradas y las jambas de canteria de piedras muy crescidas que las acompañen para seguridad de los que avitan dentro del dcho. passo por ser tan passagero y tener lejos lejos lugares poblados, y assimismo que se cierre un camino questa fuera del dcho. passo a la banda del norte que aunque con dificultad se passa por el estara mas segura la dcha. fortaleza y no podran passar de noche por el cavallos y otras cossas bedadas destes reinos al de francia todo el qual dcho. reparo y edificio para hacerse como conbiene costara mil quinientos ducados...»<sup>70</sup>

1596. Domingo Kortaberriak Areriako herrien biltzarrean berri hau jaso zuen:

San Adriango alkaideak eta taberna zaintzen duen bere emazteak garia edo garagarra edo edozein leka-gauza marabedi bat kobratzen dutela astakarga ba-koitzeko.


Emazteak sagarrak edo gaztainak eskupean dakarzkionari ezer ere kobratu gabe uzten omen dio.

<sup>65</sup> LASA, Fr.I., *Tejiendo Historia* (San Sebastián, 1977) 33 orr.

<sup>69</sup> Segurako Udal Artxiboan, D-4-1-1.

<sup>70</sup> GARCÍA, E., *Argitaratu gabeko tesina*, 85 orr.

Seguran ere kobrantza legegabe hauek egiten dira.  
 Foruen aurkako jokabidea denez, bidegabekeria hau laster moztu da. Jateko  
 gauzak San Adrianen ez baitira kobratzen.<sup>71</sup>



San Adriango gazteluaren planoak. Felipe II.aren arkitektoek eginak.

1615. Valladolideko Kantzelaritzan Zegamak, Zerainek, Mutiloak eta Idiazabalek Segurako Udala auzitara eraman zuten eta herri hauetako bakoitzak Udala propioa eskatu zuten. Zegamak 85.615 erreal ordaindu zion epaimahaiari herri izateko eskubidea.

Auziak auzi, Felipe III.ak herri hauei bakoitzak bere Udala edukitzeko eskubidea eman zien. Urte berean, Zegamak lehenengo udaltzaingoak sortu zituen.<sup>72</sup>  
 Ahozko tradizioa:

«Léningo Zeamako alkatei makillea Burgosti ekar mentzikon.  
 Makilla orren billa Aiztimuñoko motil bat biali mentzuen Burgosa.  
 Segurarrak ori jakin tzuenen, San Adriana igo mentzien motillei makillea  
 kendu asmotan.  
 Zeamarrak ordea au jakin tzuenen, Bitoria biali zien berrie Aiztimuñokoi.

<sup>71</sup> Segurako Udala Artxiboan, E-2-III-3.

<sup>72</sup> IPARRAGUIRRE, I., *Cinco Villas Del Alto Goyeri* (San Sebastián, 1975) 17 orr.

Onek abisoa artu ta Altsasuti, Urtsoandi barrena etorri ta makillea Zeaman entreau mentzon.

Segurarrak aua bete ortzekiñ utzi zitun Aiztимуñok.»<sup>73</sup>



Don Inazio Gorrotxategi.

## 10.2. Zegamako elizaren lehenengo luzatzea

1683. Martin Ladrón de Zegamak XV. gizaldiaren bigarren zatian Zegaman egin zuen elizaxoa oso txikia izaki, herriko jendearentzat ez zegoen bertan behar adina lekurik.

1683an elizaren luzapenerako lanak hasi ziren eta hogeit hamar oin luzatu zen Jaunaren etxea, kristau denek behar zuten lekua aurkitu ahal zezaten elizkizunetan.

Gainera eliza osoari paretak jaso zitzaizkion, presbiterioa eta hilobiak egin eta iparraldeko atean (gero itxi egin zuten), leku egoki batean, gaur hego aldeko atean dagoen San Martinen irudia ipini zuten. Irudi hau egiteko harria Arabako Entzia menditik ekarri omen zuten.

Korua ere aldi honetan egin zen.

Arkitektoa Lukas de Lonja izan zen, Mendaroko semea.

Planoak Urretxuko Joan Iriarterenak ziren.

Lan denek zazpi urte iraun zuten.

Zorrak ordaindu asmoz, Zegamako jendea elizako eta udaletxeko agintariek elkartu zen. Hara hartu zituzten erabakiak:

- 1) 150 egunean gizon bakoitzak lan egitea.
- 2) Sendi bakoitzak ordaindu behar zuen dirua eta eman behar zuen egurra.
- 3) Kontratistak nahi zuen harrobitik harria atera zezakeen.
- 4) Herriak lanerako behar ziren gauzak elizaraino eramango zituen eta hitza eman eta bete zuen.

---

<sup>3</sup> D. Inazio Gorrotxategiri aspaldi entzuna.

### 10.3. Zegamako elizaren bigarren luzatzea

1726. Berriz ere Zegamako jendeari herriko eliza txikiegia iruditu zitzaion. 1726ko abuztuaren 10ean Iruñeko Gotzaiari eliza handitzeko baimena eskatu zioten.

Gotzaiaren baiezkoa luzatu bazen ere, 1734ko abenduaren 20an iritsi zen Zegamako agintarietara.

1735ean, Oiartzungo Sebastian Lekuonak eliza berriaren planoak aurkeztu zituen. Oiartzungo Jose Zuazabar eta Azpeitiko Inazio Ibero arkitektoak baimena laster eman zioten Lekuonaren aurkezpenari.

Lan osoaren kontratatatza Zegamako seme zen Jose Zumetak eta harginen maisu Martin Karrera beasaindarrak hartu zuten.

Egin ziren lanak:

1) Elizako gurutzadura.

2) Sakristia.

3) Presbiterio berria.

4) Hegoaldeko ate handiaren gainera San Martin ekarri zuten, lehen iparraldean itxi zuten atearen gainean zegoen irudi hau.

Herriak, 1683ko lanetan bezala, dirua eta abar ordainduko zituen hitza eman zuen.

1747ko martxoaren 4an Inazio Iberok eta Migel Salazarrek Martin Karrerak eta Jose Zumetak eginikako lanak ikusi eta ontzat eman zituzten.

Lanak 11 urte iraun zuten. Hargin lanak 69.554 errealekoak ziren denera.

Elizako dorrearen gaina, Obalosen ardurapean, 1781ean egin zuten.<sup>74</sup>

### *Biltzar Nagusiak*

1737ko Biltzar Nagusietan, Elgoibarren, San Adriango bidea berritzeko erabakia hartu zen. San Adrianen kotxeak igaroko ziren bidea behar zen eta lan neketsu haietan 4000 peso gastatu zituzten; lanik gehiena alferrikakoa izan zen.

### 10.4. Gatzagako bide berria. Caracasko Elkartearen ondorioa

1728ko urtean Caracasko Elkarteak sortu zen Gipuzkoan. Bere sortzaileetan gizonik argiena Felipe Agirre izan zen. Kapitala, berriz, Gipuzkoako dirudun jende guztiak ipini zuen Elkarte aipagarrian.

Inoiz ez bezalako diru multzoak ezagutu zituen jendeak gure artean Caracasko Elkarteak zela eta. %200 interesetan irabazitako garaiak izan zituzten bertako kapitalistek.

Dirutza hauen ondorio batzuk:

1) Gipuzkoako zenbait eliza bukatzea, batez ere dorreak.

2) Basoak garbituta baserri berriak egitea.

<sup>74</sup> Oñatiko Protokoloetan: (4222, f.18) (4223, f.68) (1541, f.46) (1543, f.26) (1544, f.31) (1562, f.146)

3) Zalburdientzat Gatzagan bide eroso bat irekitzea, diru berriaren eraginez, Gipuzkoatik errazago irten ahal izateko.

Ordurarte Gipuzkoatik oinez edo zaldiz bakarrik irten baitzitekeen.

1752ko urtean Franzisko de Ibero azpeitiar eta Manuel Martin de Karrera beasaindar arkitektoei bidegintzarako bi proiektu eskatu zitzaaien, bat San Adriandik Beasainera eta bestea Gatzagako gainetik, hau ere Beasainera.

Bi proiektuak aztertu eta gero, 1754an Gatzagakoa aukeratu zuten Biltzar Nagusiek.

Gatzagatik Irunerako bidea 1780an zabaldu zen. 15.000.000 erreal kostatu zen.

Seguraren eta Zegamaren ahaleginak eta eskabideak ez zituzten inon entzun.

Gipuzkoako bide nagusiena Gatzagakoa izango zen handik aurrera. San Adriango bide zahar eta neketsua mandazain, ikazkin eta artzaintzat soilki geratuko zen.

Zegamako eta Segurako herriak ordutik hilik gelditu ziren eta bizitzaren indar denak galdurik.<sup>75</sup>

1799. Partzoneriako herriek, nahiz Gipuzkoakoek, nahiz Arabakoek, galera gogorak jasan zituzten Gatzagatik Beasainerako bide berriaren eraginaz. Hau dela eta, Partzoneriak Frantzisko Etxanobe maisuari eman zion enkargua, bide honen berritze zehatza egin zezan. Etxanobe jaunak proiektua egin eta Seguran, Partzoneriaren hiriburuan, aurkeztu zuen apirilaren 20an, 1799ko urtean.

Proiektu hau aurrera atera zen arrastorik ez dut aurkitu ez Aldundian eta ez Partzonerian.<sup>76</sup>

Oharra: Antzeko proiektu gehiago ere jarraian ikusiko ditugu, amets huts izatetik pasatu ez zirenak:

1801ean Araba eta Gipuzkoako Partzoneriaren ordezkariak bildu ziren. Abenduaren 28a zen eta Jose Migel eta Antonio Lardizabal jaunei, Gipuzkoaren ordezkari eta Manuel Bustamante eta Jose Antonio Uriarte jaunei, arabarren partetik, ahalmen eta eskubide guztiak eman zitzaizkien Gaztelako Kontseilu Gorenaren aurrean, San Adrianen bide berritze baterako baimena lor zezaten: «De manera que sea permanente, cómodo y transitable para todo género de carruajes y caballerías, a semejanza de los demás caminos públicos y “Reales Postas”». Jaun hauen ahaleginak ez ziren loratu.<sup>77</sup>

1802. «Montehermosoko Markesarena den San Adriango ermita zulatutako haitzean egina, parrokiatik legoa batera dago»<sup>78</sup>

1802. «En la parte más encumbrada, al sur y a una legua de distancia de la villa de Cegama se halla el puerto, en lo antiguo fortaleza de San Adrián, y la famosa Peña Horadada, punto que sirve de mojón entre las mencionadas provincias, y a donde se sube de una y otra parte por una cuesta áspera de una legua de camino: se llamó así por estar horadada naturalmente en el espacio de unas 70 varas de largo, y como 10 de ancho: en su extremo a la banda de sur está horadada artificialmente en 30 pasos de longitud y 15 de latitud, que es lo suficiente para penetrar lo grueso del peñasco, dexar el ámbito necesario al camino, y la precisa altura para pasar carruages y personas a caballo sin tocar en la bóveda. En el

<sup>75</sup> LASA, Fr.I., *op. cit.*, 244 orr.

<sup>76</sup> GARCÍA, E., *Argitaratu gabeko tesina*, 71–77 orr.

<sup>77</sup> LASA, Fr.I., *op. cit.*, 245 orr.

<sup>78</sup> *Diccionario Geográfico Histórico de la Real Academia de Historia*, I. alea, 206 orr.

cóncabo inferior que mira al norte y a la villa de Cegama existe una casa llamada venta de San Adrián, y una pequeña ermita con la efigie de este santo: por medio de cuyos edificios pasaba no hace mucho tiempo el Camino Real de Postas a Francia, y hoy solo se frecuenta por arrieros y tragineros para Guipúzcoa, Navarra y Alava.»<sup>79</sup>

Haitzuloaren ikuspegi osoa ez da egia. San Adriandik sekula ez zen diligentziarik edo karrorik pasa. Ikus, bestela, Isabel de Valoisen jaitsiera San Adriandik (Atal honetan bertan) edo 1633ko San Adriango bidazti anonimoak zioena.

## 10.5. Kijotada harrigarri bat, San Adrian galdu ez dadin

Gipuzkoan lehen aldiz erreka bat kanalizatzeko asmoa ez dakigu ziur 1596an izan zen ala ez. Badirudi urte horretan Fratin eta Tiburzio Spanoki injinieruen proiektu bat izan zela Oria ibaia Oriotik Tolosara kanalizatzeko.

Mutrikun 1750ean eta Tolosan 1751n, Biltzar Nagusiek arduradun batzuk izendatu zituzten Gipuzkoako erreketan itsasuntziak ahal zen barruena sartzeko era bila zezaten.

Era berean, bi itsaso, Kantauri eta Mediterraneoen elkartzearen azterketak hastea ere erabaki zen.

1803. urtean Partzoneriako herriak elkaturik eta, beren izenean, Astigarragar Jose jauna dakusagu gogor asko lan honetan.

Gatzagako bideak Segura, Zegama eta Arabako beste zenbait herri bizirik gabe utzi zituen.

Astigarraga jauna Segurako semea zela dirudi.

Hara bere karguak: Karlos III.aren Zalduna, Itsasoko Gudu Komandantea eta Indiako harremanetako epaile Gipuzkoan. Godoy printze ahaltsuaren laguna zen, gainera. (Ez ziren kargu gutxi).

Bideen eta Posten Zuzendari zen Agustin Betancourt jaunak Gipuzkoako Biltzar Nagusien Diputatu Nagusiari idatzi bat bidali zion, 1803ko abuztuaren 8an izenpetua.

Idatzi honek zioenez, Astigarraga komandantearen berriak iritsi zitzaizkion Godoy printzeari.

Printzearen ustez, San Adriango bidea Gatzagakoa baino hiru legoa motzagoa zen. Gatzagako bideak bi aldatz haundi zeuzkan, bat Gatzagakoa eta Deskargakoa bestea. Jauntxo batzuen influentziaz lortu zen bide hau Gatzagatik egitea.

Erregearen Haziendarentzat San Adriango bidea merkeagoa zen, izan ere, Partzoneriako 35 herriak gerturik zeuden San Adriango bidea beren diruz eta lanez berritu eta gaurkutzeko.

Erregearen Armadari gaitzik franko sortu zitzaizkion San Adriango bidea ahazteagatik, untzioletarako egur garraioak galera haundiak izan baitzituen.

Azkenik, printzeak zioenez, Arabako, Nafarroako eta Gaztelako nekazari-tzak eta merkataritzak ere murrizketarik latzenak jasan zituzten urte haietan, San Adriango bidetik baitzetozen aipaturiko ondasunak.

Nahikoa arrazoi ziren hauek, noski, Espainian, Franco jenerala baino aginte haundiagoz garai haietan horniturik zegoen printze ahaltsu baten ahotan.

---

<sup>79</sup> *Diccionario Geográfico Histórico de la Real Academia de Historia*, II. alea, 294 orr.



Bideen eta Posten Zuzendari Orokor zen Pedro Ceballos jaunak, erregearen ordena baten bidez, Gipuzkoa eta Arabari bide berriaren zehaztasunak eskatu zizkien.

Ministerioak, 1804ko apirilaren zazpian, bide zaharra berritzeko agindua eman zuen.

Uztailean bildu ziren Biltzar Nagusiak eta erregearen ordena ontzat hartzea erabaki zuten. Arabako Biltzarrek ere berdin egin zuten.

Luis Astigarraga jaunak dioenez, 1804ko irailean, Karlos Lemaurre injenierua eta bere koinatu Fernando María de Izquierdo Seguran zeuden, bere etxean.

Denbora gutxi barru Zegamaratu ziren eta hamabost egunean San Adriango mendiak korritu zituzten hirurek, sarri askotan Irimo iskribaua ere berekin zutela.

Mariano Jose Artzaren etxean afaldu eta gaua pasa ohi zuten.

Ikerlanak bukatzean, Izquierdo eta Lemaurre Donostiara joan ziren eta planoak behar bezala injenieruek 1805erako prestatu zituzten.

Bide berriaren planoak bost eratakoa izan zitekeen:

- a) San Adriango haitzulotik, Espiritu Santutik zehar, Iurreko olara.
- b) Atabarretetik, Aldaolan zehar, Segurara.
- c) Apotatik Zegamara.
- d) Etxegarretetik Idiazabalera.
- e) Otzaurteko bortutik Zegamara; Seguratik Iurrera.

Otzaurteko bidea zen, Lemaurren ustez, biderik egokiena. Milioi bat inguru erreal kostako zen. Sakanarekin ere lotura zeukan. Andiako haritzak saltzeko ere aukera bakarra bera zen.

## 10.6. Kantauri eta Mediterraneo elkartu

Lemaurre Jaunak, bideen planoaren ondoren, bi itsasoak elkartuko zituzten planoak eskaini zizkigun.

Oria ibaia eta Ebro elkartzea pentsatu zuen, Arakil erreka bitartekotzat hartuz.

Hona nola:

Zorioneko kanal hau Nafarroa aldetik honela joango zen:

Otzaurtetik, Urdalur errekatik, Altsasura. Hemendik, Arakil errekatik, Artalara eta hemendik Argara. Argatik Ebrora.

Gipuzkoako aldetik, berriz, Iturbegietatik (sic) edo Altzaniako errekastotik kanala, Ori aibaira aterako zuen Lemaurre jaunak. Ibai hau Andoain arte birmoldatu eta Leizaurko urak jaso eta Urumeara bideratuko zuten.

Urumeako urak bere egin ondoren, kanalak Pasaiako portura irten zezakeen, edo Urumean zehar Donostiara.

Ondoren, Lemaurre injenieruak kanalaren ondorio onak aipatzen dizkigu, sobera:

- 1) Kantauritik Mediterraneoko bidea moztea.
- 2) Aragoa, Nafarroa, Errioxa eta Gaztelako etekinak Pasaiako portura erakartzea.
- 3) Gipuzkoako untzioleri zurgintzarako egurra kairatzea.
- 4) Eugi eta Orbaizetako armen garraioa erraztea.

Lemaurre jaunaren iritzian, bere asmakizunik garrantzitsuena Otzaurteko bortutik bi itsasoen lotura aurkitzea izan zen.

Joakin Ignazio Zunzunegi izan zen 1807an proiektu hauek denak argitaratu zituen. Urte honetako urriaren 18an, Dupont eta Moncey, Napoleonen jeneralak milaka mutilekin sartu ziren Espainiara, bost urte iraungo zuen gudatea hasiz.

San Adriango proiektu denak bertan behera erori ziren.

## 10.7. Aurrera doa kijotada

Handik urteetara, 1829an, Jose Maria Vallejo, Zunzunegi eta Astigarragaren idaztiak ezagutu eta gero, Segurara etorri zen Robresko kondearekin, Luis Astigarragarekin, hitz egitera.

Garai hartan Seguran bizi zen Don Jose Rezusta, itsas armadako ofiziala, oso gizon jakintsu eta atsegina.

Laurek, mendiz mendi ibili ondoren, Otzaurterekin topo egin zuten, izadiaren ikusleku eder hartan. Bi itsasoak puntu hartatik batu zitezkeela iduritu zitzaizkien, Lemour injinieruari bezala.

Hala zioen, pozaren pozez, Don Jose Mariano Vallejok:

«Al convencerme yo materialmente de la facilidad, prontitud y economía con que por mi sistema se podría establecer por el paraje 14 (punto de Otzaurte) la unión de ambos mares, prorrumpí lleno de gozo: “¡Feliz hallazgo!”. Y le rogue al Conde de Robres que en una haya cercana pusiese la siguiente inscripción: “¡FELIZ HALLAZGO! VALLEJO, ROBRES, REZUSTA. JUNIO 19 DE 1829.”»

Urte gutxi barru, 1833an, Zumalakarregi ospetsuak amets eder honi ere azken puntua ipini zion, zazpi urte iraungo zuen lehen karlista gudatearekin.

Ametsik xarmentenak eta hauskorrenak esna egiten ditugunak!

Kanal eta Bide berri hauei buruzko bibliografia.<sup>80</sup>

## 10.8. Napoleon

Fontainebleauko itunean Napoleonek eta Espainiako gobernuak erabaki gogor bat hartu zuten: Espainiak Napoleonen armadari bideak zabalik utziko zituzkiola, Portugalen egin behar zuen gudatean.

Itun hau 1807ko urriaren 27an izenpetu zen.

Ituna izenpetu baino lehen, armada frantsesa, Bidasoa ibaia pasa eta Euzkalerrri osora zabaldu zen, Dupont eta Moncey jeneralak buru zituela. (1807ko urriaren 18an.)

Napoleonen jeneralek denbora gutxian Espainia guztia eta Portugal menderatu zituzten. Espainiako herriak zapaltzaileen aurka gudate beltz bat hasi zuen, bost urte iraungo zuen gudatea.

---

<sup>80</sup> Joakin Ignazio Zunzunegiren foiletoa. Jose Antonio Urdianoren inprimategian, 1807an, Donostian argitaratua. LANTELLAS, F., «*Caminos Reales y Canales de Navegación y Riego en España* (Santiago, 1815). MUGICA, S., *Geografía del País Vasco-Navarro. Guipúzcoa*. 67–70 orr. YRIZAR, J., *El camino de San Adrián y los dos mares*, B.R.S.A.P. 1947. III. 515–523 orr. AREILZA, J.M., *El canal de los dos mares*, B.R.S.V.A.P. 1945, I, 326–329 orr.

San Adriango asmoak eta proiektu berriak gudate honek eten zituen aldi baterako.

Gudate honetan Zegaman gertaturiko berririk bitxienak:

1) 1811ko ekainaren 30ean, Gaspar Jauregi komandanteak Zegaman bildu zituen Gipuzkoako alkateak. Biltzar honetan erabaki zen herri bakoitzak zer ordaindu Napoleonen aurkako gerrilariei.

Alkateei Gaspar Jauregik ordena zorrotzak eman zizkien gai honi buruz.

Zegaman eratu zen Napoleonen aurkako batailoi bat eta apaiz etxea eritegi bihurtu zuten.

Frantsesen mendekua 1812ko maiatzaren 24an udaletxea erretzea izan zen.<sup>81</sup>

2) 1812ko otsailaren 11n Zegamako herrian ezarri zuen egoitza Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gabriel Mendizabalen ardurapean eta frantsesen oniritziak. Otsailetik apirilera iraun zuen Foru Aldundi honek. Frantsesentzat hornigaiak nola bildu zen bere egitekoa.<sup>82</sup>

## 10.9. Santos Ladrón de Zegama

Iruñeko gazteluan Santos Ladrón de Zegama afusilatu zuten 1833ko urriaren 14an.

Santos, Zegamako jauna eta Salbatierrako kondea, Irunberriko herrian jaio zen 1784an. Espoz eta Minarekin frantsesetan Napoleon handiaren aurka gudan jardun zuen.

1823an, absolutistekin, konstituzioaren aurkako gudateari hasiera eman zion. Nafarroa zaharrean urte honetan lehen altxatu zen erregezalea bera izan genuen.

Gudatea bukatzean, Zegamako jaunak bularra jeneralen ikurrez estalia zeukan.

1833an, Fernando VII.a hiltzean, mariskal zen.

Valladolidetik irten eta Triciora (Errioxara) iristean, berak egin zuen lehen aldiz oihu hau: «Gora Karlos Bostgarrena.»

Karlisten lehenengo guda hasi zuen Santosek egun hartan.

Lehenengo erasoan Manuel Lorezoren mutilek garaitu zuten Los Arkosen.

Ohorea ez beste guztia galdu zuen.<sup>83</sup>

1835. Ekainaren 24an, Zegaman, Zumalakarregitar Tomas handia hil zen. Karlisten jeneralik onena eta Espainiako edestian azaldu denik onenatariko bat zen.

Euskal Herriko heroietan handienetakoa genuen. Haren izena ez du inork behar bezala goraiatu oraindik.

Azken hitz hauek esanez hil zen: «Andrea eta bi alaba dauzkat, ohorea besterik ez diet uzten.»

1836ko urriaren 3an Klaudio Otaegi olerkari prestua jaio zen Zegaman. Gaztetatik Hondarribiko maixu eta Bonaparte Printzearen laguntzaile eta ezkontanaia izan zen. Bere garaiko olerki sariketarik gehienak irabazi zituen.

Benetako gizon maitagarri hau 1890ean Hondarribian hil zen.

---

<sup>81</sup> LASA, Fr.I., *Jauregui el Guerrillero* (Bilbao, 1973) 93–94 orr.

<sup>82</sup> *Ibidem*, *op. cit.*, 94 orr.

<sup>83</sup> *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, XXII. alea, 421 orr.

## 10.10. Kamio berria

Kondairak erreka indartsu baten abiaduran korritu ohi du bere bidea, giza ametsak atzera utziz.

1854tik 1855era bide berri eta egoki bat egin zuten Ihartzatik Zegamako Idiakaitz auzora. Bide berriak eta San Adriango zaharrak bertan topo egin zuten.

Bi bide hauen elkar topatzea benetan sinbolo bat izan zen. Ez ordea luzarorako.

1863tik 1864ra, Idiakaiztik gora, Otzaurten zehar, bide hau Etxegarateko bide nagusiarekin lotu zen.<sup>84</sup>

San Adrian ederreko bidea, pelegrino zaharrek hainbeste aldiz korritu eta hainbeste izerdiz bigundu zigutena, fosil bihurtu zen eta hala dirau.

Bizitzaren legeak horrela izanik, ez da harritzeko gauza bide denetan maiagarrien horri gertatua. Zahartzaroaren gainbeherak ez du inoiz mugarik ezagutu.

San Adriango bidea Otzaurtetik pasako zen aurrerantzean, nahiz kamiotik nahiz trenbidetik. Egia esan, San Adriandik bi pausora. Bortu zaharraren gainera betiko isiltasuna erori zen aspaldi.

1862. Idiazabalgo alkatea, noiztik ez dakigula, Zegama eta Segurako kale nagusietan zehar pasa ohi da, makila zutik duela, Santi Espiritu egunetik hiru egunera, San Adriandik eliza nagusira egin ohi den prozesioan.<sup>85</sup>

## 10.11. Trenbidea. San Adrianen azkena

1852ko maiatzaren 19an Madrilgo Gobernuak Espainiako iparraldeko trenbidea egiteko erabakia hartu zuen.

Laster hasi ziren auzi eta gorabeherak, herri denek beren lurretan nahi baitzuten modernitatearen bitxi zoragarri hau.

Arraozikoa zen bezala, Gipuzkoak eraman zuen txapela ordea, Espainia eta Frantziaren arteko lekurik egokienean zegoelako.

1855ean Gipuzkoak, Hernaniko Biltzar Nagusietan elkartuta, proiektu berriarentzat inguruko probintzien aldean zeuzkan abantailak aurkeztu zizkion Bur-nibideen Elkarteari.

1856an, Elgoibarren, Biltzar Nagusiak pozkarioz gainezka bildu ziren, Madrilgo Gorteek iparraldeko trenbideak Gipuzkoa zeharkatuko zuela erabaki baitzuten. Gorteek ziotenez, gainera, gure probintziaren sarreran Nafarroara, Aragoara eta Kataluniarako bidea ere irekiko zen.

Gipuzkoaren ametsik handiena, funtsean, ez zen Madrilekin eta Parisekin elkartuko zuen bidea; hainbeste amets eta lan eginak zituzten bi itsasoak elkartu nahirik! Amets hau egiaztatzea zen arazoetan funtzeskoena gipuzkoarrentzat.

Biltzar Nagusiak berak ere uste honetakoak ziren 1856an.

1857ko irailaren 29an Fermin Lasalak eta Luis Mariategik itun bat sinatu zuten Parisen Crédito Mobiliario Español elkartearekin. Gipuzkoaren hitza 25.000.000 erreal Elkarteari ordaintzea zen; Elkarteak lau urteren buruan Irundik Ordiziarako trenbidea zabaldu eta bukatu egin behar zuen.

<sup>84</sup> MUGICA, S., *Geografía del País Vasco-Navarro. Guipúzcoa*, 509 orr.

<sup>85</sup> GOROSABEL, P., *Diccionario de Guipúzcoa* (Bilbao, 1972) 233 orr.

Fermin Lasala izan zen Gipuzkoan lanik gehiena egin zuen gizona trenbideari buruz.

1858ko ekainaren 22an Tolosatik eta Donostiatik hasiera eman zitzaien trenbideko lanei.

1862an Madrildik Altsasurako lan denak ia bukatuak zeuden.

Bitartean, Gipuzkoako lan neketsu eta zailek Letourner injinieruaren ardurapean jarraitzen zuten.

Beasain eta Donostia arteko trenbide zatia 1863ko irailaren 1ean zabaldu zen. Donostiatik Irunerakoa 1863ko urriaren 18an.

Lanbiderik zailena Altsasu eta Beasainen artean zetzan; batez ere, Brinkolatik Otzaurtera. Hamahiru tunel zulatu ziren Zegamako lurretan.<sup>86</sup>

## 10.12. Tunel handia nola egin zuten

«Con sus 2.957 m. de longitud, el túnel de Oazurza (Tunel-Handi) es el más largo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Su construcción fue concertada en 1860 con tres contratistas locales distintos pero sólo al que correspondió el tramo central ejecutó su parte, gracias a los pozos verticales, mientras que los otros dos no iniciaron las obras. Se daba así la paradoja que en el interior del monte existía un kilómetro de túnel sin entrada ni salida. Sólo cuando Norte contrató en 1863 con Gouin et Cie la finalización de la línea, pudo concluirse la obra en Junio del año 1864. Como peculiaridad reseñar que en el centro del mismo existe un nicho donde el personal de vías y obras contaba con una sala de estar y cocina...en pleno corazón de Aizkorri».<sup>87</sup>

Geroago, Zegama aldetik eta Brinkola ingurutik hasi ziren gure tunela zabalitzen, erdiko zuloaren bila.

1864ko abuztuaren 15ean Madrildik Iruneko bidea lehenengo aldiz korritu zuen trenak.

Inaugurazioko jaiak Donostian ospatu ziren egun berean.

Francisco de Asis, Isabel II.aren senarra bertan zen. Geltokia eta ibilgailu denak bedeinkatu eta gero, «Te Deum»a abestu zuten Santa Mariako elizan. Don Bizente Manterolak, Gasteizko majistralak eta urte gutxi barru Carlos VII.aren kontseilari izango zenak, hitzaldi zoragarri batez ongi etorria egin zion trenari. Manterola hau Donostiako semea zen, Gasteizko Kalonje majistrala, «Semenario Católico Vasco-Navarro» astekariaren sortzailea, Madrilgo gortean diputatu zelarik, Castelarren pareko hizlari trebea izana zen.

Karlisten pentsalaririk onena izango zen, behar bada.

Francisco de Asisek bidaia Parisera ino jarraitu eta Napoleon III.a eta Eujenia Montijorekin elkarrizketak ukan zituen.

Trenbideari errei bakarra ipini zitzaion.

1872–1876ko karlisten gudatean erasoak jasan zituen.

Trenbidearen bigarren erreia 1902an ipini zuten Donostia eta Pasaiaren artean. Beasaindik Altsasura 1909an, eta Gipuzkoa osoan, berriz, 1911n osatu zuten bigarren erraiz trenbidea.

<sup>86</sup> LASA, Fr.I., *Tejiendo Historia* (Sebastián, 1977) 130–133 orr.

<sup>87</sup> *Patrimonio Ferroviario de Euzkadi*.—Eusko Jaurlaritz (1990) 35 orr.

Trenak eletrizitatez erabiltzeko lanak 1929an hasi ziren eta 1932an pasa zen gure trenbidean kerik gabeko lehen ibilgailua.<sup>88</sup>

Zegamako herrian apeaderoa 1945ean egin zuten; bertako aterpea Zegamako Udalaren diruz ordaindu zuten. Tranbia denak gelditzen ziren bertan.

Tunel Handirako kamioa, 1940tik 1945era, gudatea galdu zuten gudari atxilotuek egin behar izan zuten. Abereei baino tratu gogor eta astunagoa eman zitzairen gizarajoei. Zegamako etxeoandre bihotz zabalek ematen zizkieten ogi zati eta babarrunei esker bizirik irten ziren. Haurtzaroan ni gauza hauek denak ikusia naiz eta gaur lotsa eta errukia sentitzen ditut oraindik gauza hauek denak oroitzean.<sup>89</sup>

### 10.13. Herriari entzunak

Zegamako Tunel Handiko errekaetoaren ingurutik, gurdibideari jarraituz, kilometro batera gutxi gora behera, trenbidea egiten ari zirela hil ziren langileen hilobia aurkitzen da. Hesi batek inguratzen duen zelaitxo bat da. Bertan ehortzi omen zituzten Tunel Handin eta inguruetakoko tuneletan ezbeharrez hil ziren langile dohakabeak. Langile haietako bat ez omen zen kristaua, botila ardoa eta moneta bat alboan zituela ehortzi omen zuten gizarajoa.



Zeferino Alkain.

Zegaman trenbideko langileentzat egin zen hilobi bakarra ez omen da hau. Beste hilobi batzuk ere ba omen daude trenbidetik gertu, langileak milaka baitziren.

Lurtunela Tunel Handi pasa eta lehenengo tunela da.

Tunel honetan, lubizi bat zela eta, zortzi langile hil omen ziren.

---

<sup>88</sup> LASA, Fr.I., op. cit. 132 orr.

<sup>89</sup> Haurtzaroko oroitzak.

Zegaman esan ohi denez, Tunel Handi bi aldeetatik zabaldu omen zuten batera; planoak gaizki gauzatu eta bi bideek elkar bilatuko ez zuten ustean, injenieruak bere burua ito egin omen zuela askotan entzun izan dugu.

Herriak hala dio, baina hau ez da egia, ikusi dugunez.

Labean erretako buztina kare biziak nahastuz egiten zuten kare-orrea, tulleletako harriak elkarrekin lotzeko.

Labe hauek Oazurtza gainean aspaldi desegin omen ziren.

Langile asko eta asko arrotzak ziren; italiarrak, batez ere, ugari etorri omen ziren.

Eskusoinua lehenengo aldiz Zegaman italiar hauen bileretan entzun omen zen; harrez gerozkoa omen da gure plazetan zorioneko infernuko hauspoaren doinu melankolikoa. Neskatxa askok tabakoa pipan erretzen ere arrotz hauekin ikasi omen zuten. Zenbait emakumek ez omen zuten tenore hartan hartutako «bizioa» uzterik izan. Latsanen eta beste zenbait baserritan emakume zaharrek, 1920an, pipa ilindiz piztu eta, gizonak bezalaxe su ondoan kea zeriela, hankak berotzen omen zituzten.

Segurako Zurbano, trenbidea egiteko hotsak zabaldu zirenean, zaldi zuriaren gainean joan omen zen Madrilera eta Seguratik trenbidea pasatzea galarazi omen zuen.

Oñatitik markatu omen zuten trenbidea egiteko lurra, baina bertako jauntxoren batek asmoa galarazi egin omen zuen.

Oharra: Bazitekeen Zurbanok Seguratik trena pasatzerik nahi ez izatea eta Madrilera joatea ere bai. Geroago ere, Patrizio Etxeberriari lima fabrika egiten ez zion utzi Zurbanok Seguran eta Idiazabalen egin behar izan zuen tailerra.

Ez Segurako eta ez Oñatiko jauntxoek ez zuten inoiz erabaki trenbidearen proiektua. Trenbidearen trazatua Madrilan egin zen eta trazatua gaurkoa bera zen.

Ormaiztegiko zubiaren egitamua Eiffel jaunarena dela dio herriak. Ez da egia.

Ormaiztegiko zubiaren egitamua Lavaley jaunaren burutik irtena da.

Buska Isusiren aitona Italiako Piamonteko semea omen zen. Baina Zumarragan, trenbideko lanetan ziharduela, baserriko neskatxa batekin maitemindu eta bikoteak ezkontzea pentsatu omen zuen. Zumarragako apaizek ez omen zuten ezkontza onartu, senargaia arrotza zelako.

Zegamako parrokiaren ezkondu omen zen bikotea eta Txanberonen (trenbide alboko etxe batean) kantina ipini eta horrela bizitzen hasi omen ziren.

Trenbidea bukatzean, Zumarragan ardangela ipini zuten. Santa Kruz apaiza, bere mutilekin, sarri sartzen omen zen bertan.

Buska abizeneko italiar honek ezkerreko belarrarian belarritako handi bat omen zeraman.

Hemengo trenbideko lanak bukatu zirenean, langileak Suezko kanala egitera eraman omen zituzten. Egipton lan hau hasi berria zen.

Trenbideko lanak egiten ari zirenetan, langile asko ezkondu omen zuden. 50 bat haur jaio ziren lan denek iraun zuten denboran.

Herriko neskatxa bakarra erdi zen Zegaman neskatilatxo batez.

Zegamako Parrokiako Artxiboan irakurritako kontuak.

Sendi hauek bizitzeko Oazurtzan etxeak egin ziren. Gaur ere, oraindik, han daude etxeak hutsik, urteetan artzaien bizitoki izan badira ere.

Zegaman trena lehenengo aldiz pasa zenean, jende asko bildu omen zen Txarakorta inguruan; trena nolakoa zen ikusi nahi nonbait denek. Iturburuko

aitona trena ikustean ondoeza egin eta lurrera erori omen zen, trena ezin zitekeela parte onekoa izan eta.

Etxera gurdian eraman omen zuten gizarajoa.

Zegamako parroko berrogei urtean egon zen Don Andresen aitak mandoetan eramaten omen zuen urrea langileei jornalak ordaintzeko.

Trenbideko gastuak urretan ordaintzeko tratuak egin omen ziren.

Joan Muño: Trenbidean herriko jendeak ere lana egiten omen zuen. Hauetako bat Joan Muño omen zen. Gizon hau aparta zela diote. Bi listerori ematen omen zien izena, hilean bi jornal kobratuz.

Listeroa kapataza izaten zen; langile denak bertan zeuden jakiteko hauen zerrenda irakurtzen zuen.<sup>90</sup>

#### 10.14. Ermita zaharra berrituz

1893. San Adriango ermita berritu zen.

Lan luze eta neketsu honen berri hara nola ematen digun garai haietan Zegaman zegoen parrokoak:

«En la cueva de San Adrián, villa de Cegama, Provincia de Guipúzcoa, Diócesis de Vitoria, a 16 de Junio de 1893, siendo Romano Pontífice el sapientísimo León XIII, ocupando la Sede Episcopal de Vitoria el Excmo. e Ilmo. Sr.D. Ramón Fernandez de Piérola, siendo Párroco de Cegama Don Alfonso María de Zabala y Alcalde de la misma D. Francisco de Alústiza tuvo lugar la solemne bendición e inauguración de la nueva ermita de San Adrián edificada de nuevo y en el lado opuesto (unos dos metros más adentro) al que ocupaba la anterior con los bienes de los feligreses de Cegama, de Idiazabal y de otros pueblos, por los contratistas Antonio María Aróstegui y José Lorenzo Larrea y el carpintero José Ignacio Zabaleta, habiendo sido ejecutado el altar por D.Balbino Tellería.

A las seis de la mañana procedió el Párroco D. Alfonso María de Zabala a la bendición, según lo precisa el Ritual Romano, celebrando a continuación una misa rezada a la que asistieron numerosos fieles.

A las diez de la mañana se cantó Misa solemne que celebró el Presbítero D. José Antonio Larrea y subdiaconó Don Nicolás Zabaleta, Párroco de Aldaba, asistió en Corporación el Ayuntamiento de esta villa.

La capilla de Cegama cantó una misa de D. Felipe Gorriti, acompañado con el armonio el organista de Beasain D. Joan José Tellería.

Predicó un sermón alusivo al acto el Presbítero Doctor Don Jesús María Valentín Echeverría, hijo de este pueblo.

El concurso fue numerosísimo reinando durante todo el día el mayor orden.

La charanga de Cegama ejecutó varias piezas después de la misa solemne y por la tarde.

Y para que conste en todo tiempo este hecho celebrado con santo regocijo por numerosos fieles que a él asistieron, levantamos esta acta en el lugar mismo de la erección.»<sup>91</sup>

Hamalau sinadurak baiezten dute idatzia.

San Kiriko eta Andre Mariren erretaula zaharra kentzean, behe partean hizki batzuk agertu ziren, nahikoa kostata irakurtzeko modukoak.

---

<sup>90</sup> Felix Alkaini 1974-7-9an jasoak.

<sup>91</sup> Donostiako Gotzaitzegiko Artxiboa. San Adriango paperak.



Gertatua orduan Zegaman zegoen parrokoaren hitzetan:

«Al demoler la antigua ermita nada se ha encontrado que pueda llamar la atención; sólo al sacar el antiguo retablo donde se veneraba el santo y una anti-  
quísima imagen de la Virgen María, se han visto con sorpresa algunas letras en el  
zócalo o basamento; estaban completamente borrosas y poco caladas, pero a fuerza  
de limpiarlas con agua nos ha parecido leer lo siguiente; “Esta obra hizo min.  
stensoro año de Jesucristo m. y D. XX(1520)” También adjunto diseño para que  
lo aprecie esa docta Comisión. Se ha imitado en lo posible la letra.»<sup>92</sup>

1918. San Adriango mikelete etxea erre zen.

1954. San Adriango elizaxoa berriztatu eta berriro apaindu zuten, hirurogei  
urte aurrez egin zen antzeratsu. Bertako berrien laburpen bat, irakurleak ezagutu  
dezan:

«Lanak Roberto Aierbek, herriko semeak, zuzendu zituen.

Langileak herriko semeak ziren.

1954ko ekainaren 16an bedeinkatu zen elizaxoa, Zegamako apaizak ziren  
bertan, Zegamako parrokiaren zati bat denez Sandrati.

Andres Oiarbide Berastegi, herriko erretorea eta bertako semea zena, 87 ur-  
terekin, bertara igo zen.

Otzaurtetik Beundera D. Eugenio Aseginolazak eskaini zion berebilean joan  
zen.



Don Andres Oiarbide.

Beundetik San Adriana, Ugarteko D. Migel Anton Mujikak eraman zion zaldi  
indartsu baten gainean igo zen goraino.

Ermitarainoko aldapa erretoreak oinez igo zuen; jendearen txaloak ez ziren  
nolanahikoak. “Viva San Adrian” deituz igo zen D. Andres ermitara.

Herria bildu zenean, goizeko hamaiketan, erretoreak eman zuen meza. Me-  
zatan jendetzaren artean herriko bost apaiz zeuden.

<sup>92</sup> ECHEVERRÍA, A., *Comisión de Monumentos de Guipúzcoa*. IV Euskal-Erria (1893) 533 orr.

Meza denboran errosarioa D. Jose Andres Gorrotxategik erreztatu zuen. Apaiz honek Zegamako San Martin parrokian zeukan kargua.

Meza ondoren, Santi Espiritu alboan dagoen Ramon Zabaletaren txabolara joan ginen apaizok, udal-gizonak eta ermitako langileak.

Bazkari ikusgarria gertatu ziguten, egunari zegokiona.

Sukaldariak Ramon Zabaletaren emaztea, alaba eta Maria Mujika izan ziren.

Geroak oroitu ditzan idatzi dira gauza hauek.

D. Andres Oiarbide.

D. Zakarias Oiarbide.»<sup>93</sup>

## 10.15. Bukaera

Nik dakidanez, olerki hauek lehenengoz J. B. Daranatz, Baionako kalonje jatorrak argitara zituen, «Curiosites du Pais Basque» bi liburuki ederretan, 1927ko urtean. Bestalde, sarritan aurkituko dituzu olerki hauek pelegrinoen eta San Adriango gaiak azaltzean:

«Quand nous fûmes á la montagne  
Saint Adrien:  
Au coeur me vint une pensée  
De mes parents;  
Et quand ce vint au départir  
De cette ville,  
Sans dire adieu á nos amis.  
Fimes a notre guise;  
Nous prions la Vierge Marie, son fils Jesus...  
Entre Peuple et Victoire  
Fûmes joyeux  
De voir sortir des montagnes  
Si grand odeur,  
De voir le romarin fleurir,  
Thim et lavande,  
Rendimes grâce á Jesus-Christ,  
Lui chantâmes louanges:  
Nous prions la Vierge Marie, son fils Jesus...  
Mais nous fûmes bien entonés  
Quand nos fûmes a Saint-Marie;  
Lá tous mes compagnons et moi  
Dimes adieu a la France joli,  
En pleurant nous nous mimes a dire:  
Adieu les nobles fleures de lys:  
En Espagne nous fait suivre:  
C'est un étrange pays.  
Nous avons cheminé longtemps  
Dans les mongnes de Vizcaye,  
Cheminant toujours rudement  
Par les pays en droit voie,  
Jusqu'au Mont saint Adrien;  
Prions Jesus-Crist par sa grâce

---

<sup>93</sup> Donostiako Gotzaitegiko Artxiboa. San Adriango paperak.

Que nous puissions voir face á face  
La Vierge et Saint Jacques le grand.

Nous fûmes grandement joyeux,  
Entre Peuple et Victoire  
De voir fleurir le Cicador,  
Et égrener la lavande  
Et tant de Romarin qui branche  
D'ouí sortoit si gran odeur,  
Nous chantâmes tous ensemble  
Pour en louer le Créater:  
Prions Jesus-Christ par sa grace  
Que nous puissions voir face a face  
La Vierge et Sain Jaques le grand...

Quand nous fûmes á la montagne  
    Saint-Adrien,  
Un rest de vin de Champagne  
    Nous fit du bien;  
Nous avions souffert la chaleur  
    Dans le voyage;  
Nous fortifiâmes notre coer  
    Pour ce péleginage.

Prés de la ville de Victoire  
    Ah! quel bonheur  
De rappeler dans ma memoroire  
    La bonne odeur  
Que nous donnait le romarin  
    Et la lavande;  
Depois le soir jusqu'au matin  
    Nous chantâmes louange.

Quand nous fûmes a la montée  
San Adrien est appelée  
Il y a un hôpital fort plaisant  
Ou les pélerins qui y passent  
Ont pain et vin pour leur argent.

Entre Peuple et Victoire  
Il me souvient de ma mère,  
Et aussi de mes parents,  
A Die je les recommande,  
Et á Saint-Jacques le grand.»

Kantu eder hauek zenbat aldiz abestu ote zituzten gure pelegirino zaharrek  
San Adriango tabernan, ardoa edan eta ogi zati beltza jan ondoren!

Zenbat oroitzta, sentimentu eta maitasun! Zenbat otoitz eta amets eder ikusi  
ote ditu San Adriango Haitzulo zaharrak!

San Adrianek, haitzuloaren begi ilunetik, badirudi bidezaharrari so dagiola,  
zorritz eta sinismenez jantzitako erromesik ageri ote den begira.



## HIRUGARREN ZATIA SAN ADRIAN KRISTAU IKUSPEGITIK

### 11. SAN ADRIAN GIPUZKOAKO ELIZETAN ZAHARRENA. BERTAKO SANTORALA

#### 11.1. Santa Trinitastik San Adrian

Gipuzkoaren eta Arabaren arteko bortu ederra eta bere haitzuloa aspalditik San Adrian izenez ezagutzen baditugu ere, ez da hori, noski, beren izen jatorra.

San Adrian edo Santatri eta Sandrati, artzain zaharrek deitu ohi zioten bezala, antzinako ermitaren izenetik datorren laburpena da.

Izen zaharra «Santa Trinitas» zen. (D. J. M. Barandiaran eta D. M. Le-kuonaren iritzian).



1565ean San Adriani egin zitzaion irudia.

«Llorente, en sus “Noticias Históricas”, recoge datos que señalan la extensión del obispado de Bayona en la Alta Edad Media por tierras guipuzcoanas hasta “Sanctam Trianam”, lugar que identifica con la ermita y el monte de San Adrián. Prescindiendo de las polémicas y las críticas suscitadas sobre el documento que fija este límite, el hagiotopónimo trinitario “Sanctam Trianam”, abonaría la tesis del P. Villasante que cree que el nombre del túnel y el puerto –San Adrián–, aplicado a estos lugares en el medioevo avanzado, sería una alteración de una advocación trinitaria muy anterior; pudo ser, en su origen, según el prestigioso filólogo “Sancta Trinitate”, que las gentes vascongadas convertirían en “Sandrati” o “Santa Tria.”»

Nosotros hemos encontrado alteraciones similares en lugares como Audícana, donde hubo una ermita de San Adrián en un paraje llamado aún hoy “Santa Tria”; algo semejante sucede en Contrasta, en cuyos términos documentamos en 1556 una ermita de San Adrián y donde existe un labrantío llamado “San Tetria”; análoga transformación parece haber tenido lugar en la ermita de San Adrián de Añúa con términos próximos, en Elburgo e Hijona, llamados “Santetriaosteia” y “Santetriaorra”. No deja de ser significativa, por último, la ubicación de estos nombres y estas alteraciones en lugares no lejanos al puerto de San Adrián, así como la antigua costumbre de los pueblos cercanos a éste, de subir en romería al monte precisamente en la fiesta de la Trinidad.»<sup>1</sup>

Portilla anderearen testuak asko balio du gai honetan, gure Sandratin bezala, Arabako zenbait herritan, Sancta Trinitas izenalehenengo San Adrian eta gero Santa Tri, San Tetria edo Santetriaosteia bihurtzen baita.

Ni, hemen, San Adriango eliza zahararen izena Sancta Trinitas zela esateko dauden arrazoiak bila noa, hain zuzen.

1) Euskalerrri zaharrean bazen esaera bat: «Trinidad batetik hiru Trinitate ikusten dira.»

«En efecto, entre los pastores de Aizkorri–Aralar, existe el dicho de que del alto de la Trinidad de Ituren en la zona del Bidasoa de Navarra se divisan otras dos Trinitades –dos santuarios trinitarios–: el Trínitate –así “Trínitate”– de sobre Irurzun, y la Trinidad de nuestro Aizkorri, advocación que sin duda se refiere a nuestra cueva–túnel, que en efecto, según dichos pastores, más bien que “San Adrian”, es “Santatri” o, según una variante por metatesis, “Sandrati”».<sup>2</sup>

Haitzuloko baseliza zahar edo lehendabizikoari, ezpairik gabe, Sancta Trinitas, Hirutasun Santuaren izena, eman zitzaion. Denboraren denboraz, Sancta Trinitas Santatrin moztu du herriak, azken hizkiak janez.

Lehenengo baseliza Sancta Trinitas izenekoa zen frogia eder bat zera da: Trinitate egunez, Santatritik gertu, Santi Espiritun erromeria egiten zela urtero, arabarrak, nafarrak eta gipuzkoarrak bertan biltzen zirelarik.

Ume txikiak astasasketan ekartzen zituzten Zegamatik, hizketan ikasteko doaia santuari eskatzera.

Zazpi edo zortzi trikitilari ere han izan ohi ziren, alboka joleak ere bai, erromeria bikaina egiten zuten gazteek.

Erromeria hau Santatritik Espiritu Santuko zelaira aldatu zuten artzain zaharrek, noski, erromeriarako lekuaren egokitasuna kontuan ondo hartu eta gero.

2) Azkue jaunak, «Cancionero Popular Vasco» deritzan kantu bilduman jasotako zelten literatura ederrean oinarria duen kantu batek hara zer dioen:

<sup>1</sup> PORTILLA, M., *Una Ruta Europea por Alava a Compostela* (Vitoria, 1991) 35 orr.

<sup>2</sup> LEKUONA, M., *Idazlan guztiak. 2 Eusko Etnografia* (Donostia, 1978) 277 orr.

- Martintxo, esaik bat.
- Gure Jauna bera da bat...
- Martintxo, esaik bi.
- Erromako altareak bi...
- Martintxo, esaik iru.
- Iru Trinidadak iru...»<sup>3</sup>

Kantu hau oso zaharra da, beraz; Euskal Herrian artzain kultura genueneko. D. Manuel Lekuonaren iritzian, hiru Trinidadak badute aipatu berri ditugun hiru ermitekin zer ikusirik.

Aspaldiko kantu hau zelten tradizio bete-betean egina dago; ezda noski atzoko kontua.

Martintxok, berez, «Hiru Trinidadak hiru» esan beharrean, «hiru pertsonak hiru» esan behar zukeen, baina Hirutasuneko hiru Pertsona abstraktuak aipatzea baino errazago egiten zitzaion hiru ermita konkretuak aipatzea.

Ardien ondotik hiru ermitak ikusi ohi zituen artzainaren zentzu panteistarekin, aro haietan ermitak Hirutasunaren hiru pertsonak baino gertuago zeuden.

Zelten harian eginikako abesti zahar honi, kristau usaina baino gehiago, arioen panteismoa dario.

## 11.2. Baionako Arsio Gotzainaren karta

3) Arsio, Baionako Gotzainaren izenean idatzi zen karta hau, hain zuzen, 980ko urtean, kartak berak dioenez. Gaurko kritikoek, ordea, Arsio baino georogokoa dela diote.

Baionako Elizbarrutiaren mugak markatzen ditu.

Nolanahi ere, oso zaharra da eta karta honetan inoiz Baionako Elizbarrutiakoak izan ez ziren lurak ere aitatzen dira, Oria ibaiaren ibarra, adibidez.

Karta zaharraren esaldi bat aipatuko dut.

Testuko hitzak:

«Terra quae dicitur Ernania, et Sanctum Sebastianum de Pusico, usque ad Sanctam Mariam ad Arosth et usque ad Sanctam Trianam».<sup>4</sup>

«Ermani deritzon lurraldea eta Pusikoko Donostia, Araozko Santa Maria eta Sanctam Trianam arte.»

Esaldi honetako izenak gaur ere oraindik darabiltzagunak dira; Ernania = Hernani.

Sanctum Sebastianum = Donostia. Pusiko, inork ez daki zer leku den edo zer esan nahi duen.

Sanctam Mariam ad Arosth = Araozko Santa Maria.

Sactam Trianam = San Adrian.

Karta hau noizkoa den nahiz ziur ez jakin, garbi erakusten diguna hau da: Sanctam Trianam eta Sancta Trinitas hitz berdinak direla, hori bai, hizki batzuk galduta.

<sup>3</sup> AZKUE, R.M., *Cancionero Popular Vasco* (Bilbao, 1968) 918 orr.

<sup>4</sup> MARTÍNEZ, G., *Guipúzcoa en los Albóres de su Historia* (San Sebastián, 1975) 165 orr.

### 11.3. Antso Nagusiaren Karta

4) Denbora gutxi barru, Sanctam Trianam izena San Adrian bihurtzen zaigu. Hara nola: 1007an, Iruñeko Gotzaitegiko mugak aipatzen dituen diploma batek, Gotzaitegiaren muga bat San Adrianen ipintzen du. Antso Nagusiarena balitz bezala egin zuten karta hau ere kritikoek ez dute benetakotzat hartzen.<sup>5</sup>

Arsioren Karta gezurrezkoari naparrek eman zioten erantzun faltsua dela diote.

Nolanahi ere, nere asmoetarako ederki datoz bi Karta hauek.

Garbi dakusagu, euren bitartez, Sancta Trinitas, Sanctam Trianam eta San Adrianen arteko lotura eta eboluzioa.

Ekarritako frogek garbi adierazten dute, noski, Gipuzkoako Goierriko edo, beharbada, Gipuzkoa osoko lehen eliza Sancta Trinitas izeneko zela eta Sandratiko haitzuloan egin zutela orainurte asko gure artzain zaharrek. Milagarren urte inguruan, Sancta Trinitas izena Sanctam Trianam eta San Adrian bihurturik bazegoen, ermita noizkoa ote zen?

### 11.4. Arnald von Harff

5) Aleman ospetsu honek 1499an San Adriandik pasa zenean, egunkari bat idatzi zuen. Testu alemanean «van Galarreta zo Trianport» dio. Galarretatik Trianportura. Agiri honen aurrean, badirudi Erdi Aroaren azkenetan, mapetan behintzat, San Adriani Santatrian edo Santan Trianam deitzen zitzaiola artean.<sup>6</sup>

Azkenean, haitzuloa San Adrian izenarekin gelditu bazen ere, izenaren jatorria beste nonbait aurkitu behar da.

### 11.5. San Kiriko eta Santa Julita

Erromako geografoek diotenez, barduliarren leinua gaurko Gipuzkoako Oiarzun errekaraino, Nafarroako Sakanan eta Burundan eta Araban Trebinoraino zabaldua zegoen.

Trebiño = Latinez, Irumugeta esan nahi duen hitza da.

Bertan hiru leinu euskaldunek zuten muga erromatarren garaian eta hortik datorkio Trebiño izena. Karistiarrek, autrigoiak eta barduliarrak han banatzen ziren.

Barduliarren artean badago pareta handi, luze eta zabal bat, Aizkorri mendi-soka, Araztik Aizkorri, Aloña eta Elgearainokoa.

Aizkorri ederrak, gaurko antz geo-fisikoak hartu zituenetik, bazeuzkan, ordea, han hemen, zenbait bortu, mendiaren alde bateko eta besteko barduliarrak eta jendeak elkartzen zituztenak; bat, Sandratikoa, hain zuzen ere.

Bortu zoragarri hau lurralde karstikoetan hain ezaguna den dolina bat dugu, hau da, lurrak bere euri-urak edaten dituen inbutu antzeko lur karehaitzua.

<sup>5</sup> *Idem, op. cit.*, 170 orr.

<sup>6</sup> SANTOYO, J.C., *Viajeros por Alava* (Vitoria, 1972) 25 orr.



Bortuaren gorenean ur freskorik ere badago, Ezkatzeko iturrian, abere nahiz gizaki nekatuentzat.

Gure aurreko jendea, orain aipatzera noan urteetan, artzain bizitzan edo kulturan bizi zen oraindik.

Artzainarentzat mendiak ez ziren, noski, hesiak.<sup>7</sup>

Hegal bateko eta besteko artzainek mendian topo egin ohi zuten eta aro luzeetan mendian bizi ohi ziren. Mendietan zituzten hilerriak (dolmen, cromlech) eta santutegirik maiteenak eta berezienak ere bai.

Mendiko bortuetan elkartu ohi ziren gure artzain zaharrak, giputz iparrekoak nahiz Araba aldekoak.

Barduliarrek Aratz, Aizkorri eta Elgea mendietan hesi gogor bat eduki arren, batasuna gordez ikusi ditugu kondairan.

1920. urtean, hara zer dioen Serapio Mugikak:

«En la cumbre del monte Aizkorri hay una ermita de la Santa Cruz, pequeña, muy antigua, y en la que no se había celebrado misa hasta el día 3 de Octubre de 1896. En ella se venera una imagen de cobre cosida a una plancha de cobre también, y todo ello unido a una madera incorruptible que no se averigua de qué clase es. Es muy visitada esta ermita en otoño, después de la recolección de las cosechas, y sobre todo la víspera del domingo de Rosario: entonces acude a Aizkorri inmenso gentío de la Barranca y Burunda de Navarra, de la parte oriental de Alava y de la alta Guipúzcoa.»<sup>8</sup>

«En otoño, sobre todo cuando se hace la recolección de la cosecha, es muy visitada esta ermita, y principalmente en víspera del Domingo del Rosario acude un gentío inmenso de la Barranca y Burunda de Navarra, la parte de Alava y el pueblo goyerriano de Guipúzcoa, y después de visitar la Santa Cruz bajan a Aránzazu.»<sup>9</sup>

D. Alfontso Maria Zabala Etxeberria, aipatu dudan zatiaren idazlea, Ezkion jaio zen, ama zegamarra zuen, D. Jesus Etxeberria kalonjearen lehengusu zen eta Saseta eusko gudarien buruzagiaren osaba.

Bere garaiko euskal idazleetan onenetariko bat izana genuen.

Iragan zen gizaldiaren azkenetakoa da idatzi dudan testu bat eta gizaldi honen hasierakoa, berriz, bestea.

Serapio Mugikaren egunetan, 1920an, Arabazelai guztiko jendeak, Sakana eta Burundakoak eta Gipuzkoan, Ordiziaz goitik bizi zirenek, oinez eta egun batean, Aizkorrira joan-etorria egiten bazuten, nola ez orain mila edo bi mila urteko barduliarrek berdin egin?

Aro haietan gizaldi honen hasieran baino askoz ugariagoak izan behar barduliarren lotura erlijiosoak, politikoak edo gudarakoak.

Lotura erlijiosoek gure egunak arte iraun dute:

Aizkorri dugu beraz hegoaldeko barduliar denen Santutegia. Ernio, aldiz, iparraldekoena.

Aizkorrin ez dira gipuzkoarrak bakarrik biltzen, «Barranca y Burunda» diote bi kronistek eta Arabako zelaiune osoko jendea ere bai, hau da, itsas aldeko barduliarrek ez beste leinu gutzia.

<sup>7</sup> LEKUONA, M., *op. cit.*, 239 orr.

<sup>8</sup> MUGICA, S., *Geografía del País Vasco-Navarro. Guipúzcoa* (Barcelona) 836 orr.

<sup>9</sup> ZABALA, A.M., *Comisión de monumentos de Guipúzcoa*, Euskal-Erria (1893) 346 orr.

Karistiarrek beren santutegi zaharra Urkiolan izango zuten, itxura guztiak hala ematen dizkigu «Mariren» antropologiak.

Batez ere, Urkiolan, elizaren aurrean dagoen harri handia ikusi eta gero, Urkiolako erlijiotasun zaharrak harri hau du oinarri.

Meteoritoak, zerutik datozenez, Jaungoikotzat ikusi ohi zituzten antzinako herriek.

Meteorito baten antza du harri honek ere. Harri hauek gurtzeko ohitura zuten antzinako jendeek. Urkiolakoa da adibide bat.

Gaur oraindik harri honi itzuli bat ematen diote senargaia aurkitu nahi duten neskatek. Mariri antzutasunaren aurka egiten zitzaion errito bat da hau, zalan-tzarik gabe.

Mekari arabiarren hiri santua izatea bertan gorde ohi duten harri beltz batetik datorkio.

«...oharrarazi nahi genukeena; idoloen gurtzaileak, harriak ohoretu, zuziak piztu...betiko galtzera doazela, deabruaren adiskide izaki».<sup>10</sup>

Nahiz iparraldeko, nahiz hegoaldeko karistiarrek ere hemen elkartuko ziren, gaur oraindik San Antonio egunez biltzen diren bezala.

Gizaldi honen hasieran barduliarrentzat edo karistiarrentzat sagaratuak ziren oraindik mendiak; milaka urtetan mendietan egin izan zituzten beren erlijio biltzarrek.



**Manuela Zabaleta.**

Barduliarren gizaldi honetako ohiturak ikusiz, hain zaila ote zen antzina Trebiñoko fedea Goierrira edo Sakanara zabaltzea?

Partzoneria ere ez al da iparreko eta hegoaldeko barduliarren elkarte bat, larreak, ura eta egurra hobeki gozatu ahal izateko?

Ez ahaztu, erakunde honen lehen ageria Sandratin idatzi zela, 1421ean.

---

<sup>10</sup> VIVES, J., *Concilios Visigóticos e Hispano-Romanos* (Barcelona-Madrid 1963) 398 orr.

Artzainen benetako hesia erreka zen, ez mendia. Ez zekiten harrizko zubirik egiten.

Egurrezkoak ziren beren etxe eta baselizak.

Zur biz eginikako beren zubiek (zur biak) erreka txikietarako bakarrik balio zuten.

Ez zekiten harria lantzen.

Horra zergatik ibaiak hesi eta muga bihurtzen zitzaizkien artzain haiei, mendiak, ordea, ez.

Arabak eta Gipuzkoak betidanik harremanak izan dituzte San Adriandik Goierrira, Urbiatik Harri Urdinera, Araoztik Oñatira, eta azkenik, Arlabango gainetik Deba ibarrera.

Sandratiko ermitako santuei buruz artzain zaharrek zituzten iritziak doaz jarraian, nik umetan Mielmuño (Muñoko Migel) eta Santi Espirituko Erramuni entzun nizkienak eta entzun nizkien bezala.

Manuela Zabaletak, gaur Zegaman bizi den Erramunen alabak ere, gauza berdinak kontatu dizkit aurten urriaren 3an. (1994)

Aizkorriko artzai zaharrek Sandrati baselizan zeuden santuei hara zer izen ematen zieten:

Aldarearen erdian, aizkora bat eskuetan daukan santua San Kiriko omen da. Santu hau gaztetan Sandratiko mendietan ikazkintzan ibilia omen zen.

Aldarearen eskubian dagoen Andre Mari eder gotikoa, berriz, Santa Julita omen dugu, San Kirikoren ama. Ama Birjina honi Sagrarioko Andre Mari deitzen zaio Zegaman. Zergatik? Ez dakit.

Zegaman San Adriango santuari herri osoak San Kiriko deitzen dio, nahiz eta Santa Julitarik gaur ia inork ez oroitu.

San Adriango santuak, hasiera batean, San Kiriko eta Santa Julita zirela baiezteko hara frogarik zuzenena: Zegamako herriak urtero ekainaren 16an ospatu ohi du San Adrian eguna. Egutegian egun hori San Kiriko eta Santa Julitaren eguna da.

San Kiriko aizkora eskuetan zuela landu zuen artistari Aizkorriko artzainen kultura ondo ezaguna zitzaion. Kiriko, alegia, ikazkina izan zela Sandratiko mendietan.

Nik Garzia Berasategik egina dela esango nuke Kirikoren irudi hau. Gregorio Hernandezen tailerretan, Valladoliden gauzatu zuen artista zegamar honek jaioterriko elizako erretaula ederra ere.

Garzia Berasategik, herritarren enkarguz, egina dela dirudi ikazkin santuaren irudiak.

Berasategiren beste irudi askoren antzik franko ere badu santu honek.

San Kirikoren eta Santa Julitaren debozioa nondik eta nola sartu zen gure bortu ederrean? Agian, aipatu dugun bardularren batasunetik?

## 11.6. Araba eta Errioxako ermitarien kobak

Arabaren eta Errioxan, zenbait lekutan, ermitariak hondar harrizko mendietan elizak, bizitzeko etxeak eta beren hilerrriak zulatu zituzten. Egoitza sail haiei Araba edo Errioxako Kobak deitzen zaie.

Biasteriko bodega bat ikusi duenak uler lezake erraz koba hauen jatorria.

Biasterik herri azpi guztia zulatua dauka. Zulo hauetan beren ardoak gorde ohi dituzte eta etxearen azpian, lau edo bost metrora, daude «cuevas» deitzen dieten zuloak eta hiru edo lau metroko eskilaretatik jaisten da jendea bodega hauetara.

Biasterik, Arabako herri askok bezala, hareharrizko zorua dauka eta zoru klase honetan zuloak eta kobak aitzur edo pikatxoiz erraz asko egiten dira.

Ermitarien kobak harri berdinean eta era berdinean egin ziren eta aspaldia-gokoak ditugu, noski.

Araba eta Errioxako lehen kristau urratsak ditugu elizatzxo, etxe eta koba horiek eta ermitarien debozioak ere bai.

### *Lau zatitan bana genitzake ermitarien koba hauek:*

a) Errioxakoak:

- Done Miliaga Kukula.
- Albelda.
- Bigera.

Hiru herrixka xarmant hauetan aurki genitzake Errioxako kobarik gehienak.

b) Trebiñokoak:

- Laño, (herria).
- Santorkaria, (mendia).
- Dotor.
- Faido, (herria). San Julianen Koba.
- Markinez. Trebiñotik gertu.
- Albaina, (herria).

c) Gorbeakoak:

- Pinedo, (herria).
- Korro, (herria).
- Tobillas, (herria).

d) Kantabriakoak:

- San Roman, (koba). Bernedo eta Kanpezuko Santa Kruz bitartean dago.
- San Tirso, (koba). Kantabriako mendian.
- Lagran. Berezko koba batean Santa Julitaren irudia ikus zitekeen, bere seme Kiriko besoetan zuela. Ermitaren arrastorik gaur ez dago.

Ermita honetara Lagrango eliztarrak apaiza buru zutela etorri ohi ziren antzina errogatibak egitera.<sup>11</sup>

«En una cueva natural de la cordillera de Cantabria, en término de Lagrán, existe una imagen labrada en piedra, que representa a Santa Julita con su hijo San Quirico en el regazo. Llámánla la cuevade San Kiliz (Quirico). Cuentan que en cierta ocasión un riojano lanzó esta imagen fuera de la cueva. Al instante empezó a descargar una furiosa tempestad, y no cesó de llover hasta que el pueblo de Lagrán restituyó la imagen a su antiguo abrigo.»<sup>12</sup>

<sup>11</sup> LATXAGA, *Arkaitzetako Bisigotiko Baselizak Araban* (Bilbao, 1976) 106–107 orr.

<sup>12</sup> BARANDIARAN, J.M., *Obras Completas, II. alea* (Bilbao, 1972) 40 orr.

D. Manuel Lekuonaren iritzian kristautasuna Gipuzkoan Arabatik sartu zen. Hara bere hitzak:

«Si a estas circunstancias se añade el dato tan elocuente de que las Cuevas naturales están enriquecidas con la Advocación de un Santo, el “puente” que se desea entre las Cuevas artificiales de Laño, por ejemplo, y las naturales que decimos de Aizkorri, es un puente perfectamente obvio, dandonos por consecuencia que ha habido Vida Eremetica en la Alta Edad Media, de los siglos VI, VII, no sólo en Alava, sino también en Guipúzcoa y Vizcaya, donde radican las Cuevas que hemos citado, de Sandrati (Cegama) Sandailia (Araoz) Santi Mamin (Cortézubi) Zipirio (Tolosa) además de San Valerio (Mondragón), todas ellas Cuevas Naturales de no poco renombre y devoción.»<sup>13</sup>



Santa Julita.



San Kiriko.

Ea Lekuonak arrazoi duen!

«...el “puente” que se desea entre las Cuevas artificiales de Laño, por ejemplo, y las naturales que decimos de Aizkorri...»

Lekuonak zioen «zubia» ez zegoen Laño eta Aizkorriren erdian.

Zubi hau, Laño eta Gipuzkoako koben artean ez, Aizkorri eta Lagranen artean bilatu behar da, han baitago.

Jarrai dezagun aurrera.

<sup>13</sup> LEKUONA, M., *Idazlan guztiak. 7. Kondaira*, (Donostia, 1978) 409 orr.

## 11.7. Araba eta Gipuzkoako Santoralaren harremanak

On Manuel Lekuonak zuzen-zuzenean begiztatu zuen, bere denboran, euskal sinismenaren egiazko zuztarra Arabako eta Errioxako kobetan zetzala.

1. zubia:

Lagrandik Aizkorriara.

Esan dut hareharian zuloak eta egoitzak zeinen erraz egiten ziren hareharriz hornitutako lurretan. Gipuzkoa edo Bizkaia eder eta zaharretako mendiek, goietan bakarrik karaitzez estaliak zeudenez, ez zuten aukera handirik ermitariek egoitza berdintsuak egin ahal izateko.

Hala eta guztiz, gure mendi ederretan, izadiak sortutako atergabeko urjario iraunkorrek, harkaitzik gogorrenak zulatuz, haitzuloak sortu zituzten, gure ermitari zaharrek gordeleku izan zezaten.

On Manuelen iritzian, San Adrian Zegaman, Sandaili Oñatin, San Balerio Arrasaten, Zipirio Tolosa ondoan, Santimamiñe Kortezubin, Arabatik etorri ziren ermitariak izango ziren. Herriek santu titulua eman zieten ermitariei.

Kobak ermitari zaharren izena hartu zuten, beraz, Lekuonaren iritzian.<sup>14</sup>

Gure oiartzuar maisua historiaz ondo zebilen, santoralarekin irrist egin zigun, ordea.

San Adriango, San Eliasko eta Santimamiñeko haitzuloak bakarrik hartuko ditut kontuan lan honetan, hiru koba hauei buruz baitaukat santorala argi eta garbi.

San Adriango santuak San Kiriko eta Santa Julita direla ikusi dugula uste dut.

Debozio hauek Lagrango berezko koba batean aurkitzen ditugu, San Kiriko izenez lehenagoko paper zaharretan, geroago San Kiliz deituraz.

Amaren besoetan datza haurtxoa, eta garai batean errogatibak eginez zihokien jendea kobara euri eske.

Latxaga jaunaren iritzian, koba honek garrantzi haundia izan zuen antzinako arabarren kristautzean.

Geroago Lagranen sortu zen herriko parrokiak ere Santa Julita eta San Kiriko dauzka patroitzat.

Arabako herri askotara zabaldu zen San Kiriko eta Santa Julitaren debozioa. Arabara bakarrik ez, ikusiko dugunez.

Santu hauen debozioa aro bisigotikokoa dugu.

Santa Julita eta San Kiriko, Arabatik Gipuzkoarako bidean, gure artzain zaharren debozioak genituen, eta beren elizatzoa koba baten barruan (Sandratin) gordetzen da oraindik, Lagranen bezalaxe.

Garai batean euria beraiei eskatzen zitzaien:

«Por este motivo no pudieron hacer el año pasado su inmemorial rogativa en este pueblo y el de Idiazabal, por más que les dolía fuera la causa el mal estado del Santuario. A esto es debido el proyecto de una nueva ermita más capaz y más segura de respeto».<sup>15</sup>

Hara Zegamako herriak zer uste duen:

<sup>14</sup> LEKUONA, M., *Idazlan guztiak. 2 Eusko Etnografia* (Donostia, 1978) 293-298 orr.

<sup>15</sup> ZABALA, A.M., *op. cit.*, 531 orr.

«Eurie laixter eiteko, San Kirikoi arpegie garbitzea da ona.  
Santue uretan sartzea obe oaindio.

Bein sekulako leortea zion uda guztin da Iñaxio Atxukarrok San Kiriko Ez-  
kâtzeke iturriko potzun sartu zon. Sekulako eurik ein tzitun.

Zeaman eurik eite eztonen San Kirikoi arpegie garbitu bear zakola esaten  
da.»<sup>16</sup>



Frantzisko Azurmendi.

Lagrango herrian bezala, Zegaman ere euriaren ardura zeukan santua genuen San Kiriko.

San Adriango koba ederrera Lagrango ermitariren bat noizbait bizitzera etorri zitzaigun, noski. Santa Julita eta San Kirikoren debozioak ekarri zituen beren kobatik eta santu hauek eguraldiari buruz zuten birtutea ere bai.

Zegamako basoetan ikazkin ibili omen zen San Kiriko, (Lagrango lehen ermitaria), ala zioten behintzat artzai zaharrek. Ogibiderik egokiena ermitari barentzat garai haietan eta leku hartan ikazkintza zen.

Santuaren debozioa ekarri zuten ermitariekin identifikatu dute, nonbait, artzain zaharrek San Kiriko. Gertakizun hau urteetan zehar gertatu zen, nonbait.

Don Manuel Lekuona ere hutsegite berdinean erori zen.

## 11.8. Oñatiko San Elias

2. zubia:

Lagran eta Aizkorriren arteko beste zubi bat badago eta ez Laño eta Aizkorriren artekoa, Lekuonak uste bezala.

---

<sup>16</sup> Azurmendi Frantziskori 1981–6–9an jaso.

San Elias edo Sandailia, herriak dioen bezala, Araoztik Oñatirako bidean, Urrejolakoa haitzetan dagoen haitzulo bat dugu.

«Sandailia» izena lehenengo aldiz, nik dakidanez, Dr. Puerto Hernanik, XVI. mendean erabili zuen, San Eliasen ordez. Oñatiko Unibertsitateko irakasle zen eta Oñatiko berriak ondo zekizkien gizona, gainera.

Ermitako santua emakume bat da eta ez San Elias gizonezkoa.

«Sanda» hitza zalantzik gabe «santa» hitzetik dator.

Sandailia hitzak Santa Iuli edo Iulia esan nahi du.

Julia edo Julita esaten oso berandu hasi ginen euskaldunok: j-rik ez zuten ez euskarak eta ez latinak.

«J», lehenengo aldiz, Espainiara arabiarrek ekarri zuten eta arabiarrek erdal fonetikari erantsi zioten soinu berri hau lehen aldian eta geroago euskaldunari.

Santa hau ere, Lagrango haitzulotik, ermitariak Arabako bidean eta Gipuzkoako sarrerara ekarri zuten debozio bat dugu.

Araotzen diotenez, Sandailia Araban Narbajako semea zen.

Kristau ona zelako herritik bizilagunek harrika bota zuten.

Araotz ondoko koban jarri zen bizitzen.

Garbi dago, koba honetara ere, ermitari zaharrek Lagrango debozioa ekarri zutela.

Sandailiarekin San Kirikorekin bezala gertatzen da. Artzainen elkarreak Sandailia izenarekin lehenengo ermitariak identifikatzen ditu.

«Sandrati, Sandaili y San Julián eran hermanos. Cierta vez debieron enfadarse y acordaron separarse e ir a sitios de donde no se pudieran ver más. Así partieron a los lugares en que hoy se encuentran las tres ermitas. (Según relación de una anciana de 80 años, comunicada por C. Arriarán.)»<sup>17</sup>

Ipuin zoragarri honek zer adierazi nahi ote du? Ermitarien arteko hasarreraren bat? Beharbada bai.

Bi erromesak Lagrandik etorriak zirela? Behar bada bai.

Sandailiren ipuin politean San Julian ere azaltzen zaigu, Sandaili eta Sandratiren anaia bezala. Santu hau ere Arabako ermitarien debozio bat zen. Trebiñoko Faido herrian azaltzen da santu honen izena eta handik banatu zen, nonbait, Oñatira ermitarien debozio bezala. Zalduondoko ermita zaharrean debozio berbera azaltzen zaigu.

## 11.9. Kortezubiko Santimamiñe

3. zubia:

Burgosko probintzian, Ebroren ibarrean, Obarenes mendian ere badaude Arabako eta Errioxako kobetatik gertu ermitariak bizi izan ziren haitzuloak.

Batek, hain zuzen, San Mames dauka debozioa.<sup>18</sup>

Bizkaian San Mames eta Santimamiñe santu bera dela dirudi.

«Hagiografoek San Mames diotela, baina herriak San Mamin».<sup>19</sup>

<sup>17</sup> IRIGOIEN, TXO., *Ermitas e Iglesias de Guipúzcoa*, Eusko-Folklore (1934) 28 orr.

<sup>18</sup> MONREAL JIMENO, L.A., *Eremitorios Rupestres Alto Medievales* (Bilbao, 1989) 83 orr.

<sup>19</sup> LEKUONA, M., *op. cit.*, 293 orr.



Bizkaira ere inguru berdinetik zabaldu zen fedea, ermitarien bidez, gainera. Gure ermitari zaharrek Arabatik Gipuzkoara eta Bizkaira noiz zabaldu ote zuten lehen aldiz Kristoren fedea?

Ez dakigu urtea, baina Arabako eta Ebroren ibarretako ermitariak izan zirela sinismen horren mandatariak garbi ikusi dugu.

Arrasateko San Balerioren eta Tolosako Zipirioren deboziorik ez dut oraindik Ebro inguruetakoa kobetan aurkitu.

Saiakera sakonago baten ondoren aurkitu litezkeen uste osoan nago.

Gure oiartzuar maisuak begiak argiak zeuzkala ezin ukatu.

Zein garaitakoak dira Arabako koba sonatuak?

Agustin Azkarateren ustez, 500. eta 600. urteetakoak lehenengo zuloak, beste batzuk bisigotikoaren bukaerakoak eta erromaniko aurrekoak, nolana ere.<sup>20</sup>

Erromaniko aurrea ez zen egun edo urte batzuetako aroa izan.

Azkarate jaunak gai honetan zer dioen badakiela esan liteke.

Ni bere iritziarekin gelditzen naiz.

Gipuzkoara noiz etorri ziren ermitari haiek?

Galdera honi erantzutea ez da erraza, arkeologiak izanen du arazo honen erantzun zehatzagoa, baina oker haundirik gabe esan genezake Errioxa eta Arabako koben garai berdintsukoak izatea gureak ere ez litzatekeela harritzekoa.

VI. edo VII. gizaldietakoak? Hala dirudite, ondo pentsatuz gero eta ukatzeak baditu arriskuak.

Barduliarren leinua Trebiñoraino iristen zenez, Arabako ermitariak Sandratirako edo Sandailirako edo Santimamiñerako bidaia egun erdian erraz egin zezaketen. Ermitarientzat edo edozeinentzat erraza zen Lagrandik Sandailira etorri ahal izatea.

Joan den mendearen bukaeran eta honen hasieran barduliarrek erlijio arazoetarako Aizkorri elkartzen baziren, zergatik ez orain mila edo bi mila urte?

Sancta Trinitas (Sandrati) elizatzkoa antzinakoa da, nahitaez.

Arsioren Karta 980. urte ingurukoa dela esan liteke. Urte honetarako Sanctam Trinitas Sancta Trianam bihurtzen da. Antso Nagusiaren Karta 1007. ingurukoa izan liteke.

Ondo pentsatuz gero, Santa Trinitastik San Adrian izena sortzen zenbat gizaldi behar ote zituen herriak?

Aldaketa hauek, herriaren ahoan, ez dira gauetik goizera egiten.

Gauza bitxi bat: Arsioren kartak Sancta Maria de Arosth edo Araotz eta Sanctam Trianam bakarrik aitatzen ditu Gipuzkoan, Ernania eta Santum Sebastianum de Pusiko kendurik.

Nik aipaturiko santutegiak aipatzen ditu Baionako Arsio gotzainak ere, biok bat gatoz. Horrek ere zerbait esan nahiko luke.

Beste galdera bat ere sortzen da hemen:

Sancta Trinitas izeneko elizatzkoa nortzuk egin zuten?

San Kiriko eta Santa Julitaren debozioak noizkoak dira?

Bi debozioek ermitariak ekarriak dirudite.

Lehenengo debozioa, Sancta Trinitas, lehen aldiko ermitariak, inongo zalantzik gabe, ekarria dirudi. Bigarrena, San Kiriko eta Santa Julitarena, geroago,

---

<sup>20</sup> AZKARATE, A., *Arqueología Cristiana* (Vitoria-Gasteiz, 1988) 490 orr.

Lagrango ermitariak, agian. Sancta Trinitas izeneko ermitak, Portillaren zitan, ugari ikusiak ditugu inguru berean Araban.

Sandratiren aldaketa filologiko berdinak dauzkate eta zuztarrak ere berdinak edukiko dituzte, noski.

Azkenik, nortzuk izan genituen historian Santa Julita eta San Kiriko?

Martirologio Geronimianoak dioenez, ama-emeak ziren, Asian eta behar bada Antiokian jaiok, beste laurehun kristaurekin martirioa jasan zuten 194. urtean. Dioklezianoren aroan, Kiriko, erahil zutenean, oso umea zen. Amaren aurrean hil zuten. Ondoren ama. Antiokian eman zuten bizitza sinismenagatik.

## LAUGARREN ZATIA IDATZITAKO ETA AHOZKO LITERATURA SAN ADRIANEN

### 12. SAN ADRIANGO BIDAZTIAK

San Adrian ederretik zenbat mila pertsona pasa ziren inork ere ez daki, Jaungoikoak bakar-bakarrik. Milioika pertsona horien artean, batzuek, egunkari ederretan, ikusi zutena kontatu ziguten. Ikusi eta ezagutu zuten gure Euskal Herriaren zehaztasunik franko eman ziguten. Nik, liburu honetan, San Adriani buruz kontatu eta idatzi zituztenak jaso ditut, euskarara laburturik.

#### 12.1. Pedro Padilla el Cartujano. 1490

«Así comenzamos a subir a la sierra,  
muy nublada con pena y con afán,  
como quien sube por San Adrián  
partiendo de noche de su Salvatierra.  
Al puerto de San Adrián horadado  
me asemejaba la tal abertura:  
en partes estrecha su concavadura,  
y tal que llevaba mi cuerpo de lado.»

Juan de Padillak (El Cartujanok) idatzi zituen olerki hauek eta olerki bildumari «Los doce triunfos de los doce apóstoles» zeritzan.

1521ean Sevillan argitaratu zuen olerki liburua. 1498an kartujo sartu zen Santa Maria de las Cuevasen.

#### 12.2. Herman Kunig von Vach. 1495

«Santiagoko bidea» deritzon liburu bat idatzi zigun fraile aleman honek. Lehenengo, ordea, berak korritu zuen bide dena eta zer idazten zuen jakiteko arrazoirik franko bazeukan.

Santiagoko bidea Orreagatik Iruñean zehar egin zuen eta Burgos hiritik Konpostelara.

Etixerakoan Burgosen, Nafarroara zihoan bidea utzirik, Gasteizera etorri zen eta gero «Porten berge»ra.

«Porten berge» Sanadriango bortua da bere hitzetan.

«Las Peregrinaciones a Santiago de Compostela», I. liburukian, 221 orrialdean datoz gorabehera hauek.

Luis Vazquez de Parga, José María Lacarra eta Juan Uriák idatzi zituzten liburuki hauek. 1993an Nafarroako Gobernuak argitaratu zituen bostgarren aldiz.

### 12.3. Arnald von Harff. 1499

«Mirandatik Arganzongo Lapuebla herrixkara, bi legoa.

Lapueblatik Gasteizera, hiru legoa. Hiri eder honetan diru espainola Frantziako dirutan aldatzen da.

Gasteiztik Heredia herrixkara, hiru legoa.

Hiru legoa Herediatik Galarretara. Herrixka honetan hasten da Porturako bidea.

Galarretatik San Adriana legoa bateko bidea, guztia aldapan gora. Mendiaren gainean ermita bat dago eta haitzean zulatu zuten zulo bat. Pasabidearen zaintzaileak bertan bizi dira. Hemen bukatzen da Espainia eta bere hizkuntza eta euskaldunen lurra eta hizkuntza hasten dira bertan: Andreek eta gizonek ere jazkerak aldatzen dituzte, legoa neurria ere ezberdina da.»

Arnald von Harffek idatzitako hitzak, Arabatik San Adriango bidean zihoala.

Von Harffek hara zer ibilaldi egin zuen: Venezia, Al Kairo, Meka, Konstantinopla, Turin, Sinai, Saba, Madagaskar eta Etiopia. Bere lurretara baino lehen Santiagora joan zen eta etxera bidean zetorrela San Adriango gainetik pasa zen.

### 12.4. Felipe eta Joana Gaztelako Printzeak. 1502

«Astelheanean Printzeak (Felipe Ederrak) lau legoa egin eta Seguran gaua pasa zuen. Lagunak hona bera baino lehen iritsi ziren. Herri hau San Adrianen oinetan dago. Mendi zail eta arriskutsu honek gainak beti elurrez estalirik dauzka. Gailurrean Santiagora joateko nahitaz pasa behar den tunela dauka. Santu honen omenez tunelean kapera bat dago, benetako pelegrinoen bidea den seinaleztat. Jende askoren beharrik ez legoke pasabide hau gordetzeko, lekua oso berezia, babes eta giltza da gaskoien aurka.

Lurralde hauetako emakumeak ederrak dira egiaz eta kofiaren ordez hogeit hamar kanako oihalez estaltzen dute burua.

Neskatxek ilea motza daramate, ezinezkoa zaie ezkondu arte burua estaltzea. Emakume ospetsuei bakarrik zaie zilegi burua azafradun oihalez estaltzea.

Asteartean, urtarrilaren hasieran, gainditu zuten aipaturiko mendia eta gaua Agurainen egin zuten, mendiaren beste hegalean, Seguratik lau legoatara.»

Idatzi dudan zati hau, Antoine de Lalaing, Montignyko jaunaren egunkaritik jasorik dago: «Voyage de Philippe le Beau en Espagne en 1501». Euskalerrira iritsi zirenerako 1502a zen.

Felipe eta Joana printzeekin San Adrian zeharkatu zuten beste zenbait kontseilariren izenak:

- Astorgako Gotzain zen Diego de Villaescusa.
- Bezancongo Lehengotzaina.
- Cambrayko Gotzaina.
- On Fadrique de Trebes, Palatinoko kondea.

- On Enrique, Nasauko kondea.
- Brusselako bizkondea.
- Ganteko bizkondea.
- Lelabango bizkondeak.
- Nafarroako kondestablearen alaba, Aragoako Maria.

Bidaia honetan hogeitaz urteko gazte bat zihoan, urteak geroago Palatinatuko hauteslea izanen zen Federiko II.a. Konde honen biografoak hara zer dioen:

«...Gero oso goian dagoen San Adrian mendira igo ziren, antzinako Espainiako jendeek zulatu zuten tunelera edo eta izadiak berak zabaldu bide portura. Haitzulo honetatik iristen da gailurrera. Lainoak bere azpian ikusten ditu batek goi honetatik. Mendi honetatik jaistean...Galarreta aurkitzen da...»

Federiko II.ak bide bera egin zuen 1526 eta 1538an.

## 12.5. Navagiero. 1528

«...Hilaren 22an Alegría iritsi ginen, Gasteiztik bi legoatar; beste bira Agurain dago. Agurain, dagoen lekurako, oso lurralde ederra da: lehen Aguraingo kondearena zen herria, baina hau ordea komuneroa izaki eta Zesarren etsaia zelako, kargua kendu zitzaion.

Aguraindik Nafarroako mugara bi legoa eta erdi inguru egongo dira; Iruñera, berri, hamabi, oso bide egokian.

Agurainen baratziak eta porruak jateko ohitura dago: bertan eguna pasa eta hogeita bostean Pirineoa zeharkatu genuen, igoera eta jaitsiera zailak dauzkan San Adriango portutik. Harriz eta egurrez bidea txukundu nahi izan dute, hobe zuten zegoen bezala utzi izan balute. Bidea artez eta ezki inguraturik dago. Mota guztietako belarrak ikus daitezke bertan.

Mendiaren gailurreraino ez dago zertan igorik, alderik alde tunel batetik dauka pasabidea, zulo honek balezta tiro baten luzeera edukiko du. Haitzuloan iturri eder bat dago, tantaka haitz artera. Haitzean eginiko katilu batean jasotzen da ura. Udan bentari gizonezko batek kasu egiten dio. San Adrianen bertan ermita bat ere badago eta mendiak, nire iritziz, Santu honen izena hartzen du... Haitzuloak irteera Gipuzkoara dauka».

«Il Viaggio fatto in Spagna, et in Francia, dal magnifico M. Andrea Navagiero, su oratore dell' illustrissimo senato veneto, alla Cesarea Maestá di Carlo V. Con la descriptione particolare delli luochi, el costumi delli popoli di quelle Provincie» deritzan liburutik hartua dago zati hau. Liburua 1563an argitaratu zuten Venezian.

Andrea Navagiero Bartzelonara 1525eko apirilaren 6an iritsi zen, Veneziako enbaxadore bezala. Urte bereko maiatzean, 20, 21, 22, 23an Araba zeharkatu eta Frantzia sartu zen. Blois hirian hilzen 1529ko maiatzaren zortzian, Frantzisko I.aren enbaxadore izan eta gero.

Arabatik pasa zenean, Burgosko Poza gaztelutik zetorren, han ukan baitzuen bahiturik Karlos V.ak.

## 12.6. Garcilaso de la Vega eta Albako Dukea. 1532

«1532 urteko neguan, Araba alderik alde pasa, San Adrian igo eta Gipuzkoa aldera jeisten asi ziran bi zaldun. Aizkorri mendia etzan gozoa egongo urte garai ortan. Aietako batek onela idatziko zuen gero:

Los montes Pirineos, que se estima  
de abajo que la cima está en el cielo,  
y desde arriba el suelo en el infierno,  
en medio del invierno atravesaba.  
La nieve blanqueaba, y las corrientes  
por debajo de puentes cristalinas  
y por heladas minas van calladas.  
El aire las cargadas ramas mueve,  
que el peso de la nieve las desgaja.

Zein ziran bi zaldun aiek? Bata, Fernando de Toledo, Albako Dukea; bestea aren lagun miña zan Garcilaso de la Vega olerkari ospetsua.

Zerk ekarri zituan Gaztelatik onera negu gorrian? Alemaniako enperadorea eta Espainiako erregea zan Karlos V-ren deiak: Viena turkoen mende erori zorian zegoala, eta guda-gizon guziak iri ori aien atzaparretatik libratrera lenbailen etorri zitezela.

Bi zaldun aiek otsailaren 3-an Tolosan ziran. Baña emen ustegabekoa gertatu zitzairen: Gipuzkoako agintariak Garcilaso preso artu.

Zergatik ote?

Illabete batzuk leenago, onen illoba bat, Garcilaso de la Vega izenekoa bera ere, erregiñaren dama batekin ezkondua zelako. Baiña onen baimenik gabe eta osaba olerkariak lekuko egiten zuala.

Erregiñaren asarrea! Bere senarrak ezkontza ori balio gabekotzat jotzea lortu zuan. Andregaiia komentu batean sartu zuten. Senargaiak Portugala iges egin. Onen osaba esan degunez kartzelaratu...»

Antonio Zabala jaunak, El Diario Vasco egunkarian argitara zuen artikulutik hartua. 1995eko abenduaren hamarrean.

## 12.7. Federiko II.a. 1538

«... Gabon bezperan, Pirineoetako zirrizkuak nolabait pasa eta gero, Bizkaiko herrixka txiroak atzera utzita, Segurara iritsi ginen, San Adrian mendi handiaren oinetara. Printzeak bertan, kristau on bat denez, Eguberri jaiak ospatu nahi izan zituen, nahiz eta nekazariak, zetorren elurraren beldurrez, mendi goren hura azkar zeharkatzeko eskatu, elurra mara-mara ari baitzuen. Hurrengo egunean bideari goiz ekin genion mendirantz, diruz zenbait langileren morrontzak ere erosiak genituen, elurrez estalitako bideak zabal ziezazkiguten. Haizearen indarrez zetorren elurrak-begiak itsutzen zizkigun. Gidariak, eguraldia ikusirik, Espainia guztia arriskuan egonda ere, aurrera egiterik ez zegoela zioten. Berriz Segurara jo behar izan genuen. Era guztietako farreak eta isekak egin ostean, bizkaitar maltzur haiek herrian sartzen ere ez ziguten utzi nahi, balkoietatik elur pelota gogorak jaurtitzen zizkiguten.

Ez zegoen dena jasan beste biderik. Ez zegoen alkaterik ere ausardia hura zigortzeko. Badute bai alkate bat, errespetua zor diotena, bere aginteak, ordea, lotsagaldu haientzat ez du ezeren itzalik. Hurrengo goizean, arrenka eta eskupekoak banatuz, gizon multzo bat lortu genuen bidean laguntzeko, beren artean alkatea zetorren gidari, eta bidea zabaltzeko hitza eman ziguten.

Haitzulotik gertu, ia mendi gailurrean, haizebildu bat gaineratu zitzaigun eta hutsagatik ez gintuen zaldi eta guzti elurretan ehortzi, inon ez genuen babesik. Jende doilor hark, berriz, ihesari eman zion, denok bertan hilgo ginela hots eginez. Nire zaldi indartsuari esker jarraitu nuen eta bere buztanetik zintzilik haitzulora jo nuen nolabait. Hemen gizon asko zeuden mendiaren beste aldetik gure bila etorriak. Erreguz eta sariak aginduz, eskatu nien printzearen eta bere emaztearen bila joan zitezela, elurretan galduta ikusi baintuen lehenxeago. Nire eskabideak alferrika-

koak izan ziren. Honetan, beste alkate bat azaldu zitzaigun (Arabakoa), ezpataz tuneletik jaurti eta atea itxi zion jende honi. Ez zeukaten bertan izoztu edo bidaztien bila irten beste biderik.

Printzea eta emaztea neke handiz elurretatik atera eta haitzulora eraman zituztenean, ardo pixka bat beste jatekorik ez zuten aurkitu. Haitzuloren atzeko atea elurrak itxiko ote zigun beldur ginen eta, irten ezinik bidaia moztean, gosez edo egarriz hil ginela pentsatuko ote zuten kezka genuen. Honetan, Galarretako nekazari bat iritsi zitzaigun eta mendiaren beste aldean, esan zigun, nahiz basotsua izan, ez zebilela haizerik eta igoeran hainbeste nekatu gintuzten haizebilduetatik jare ikusiko genuela geure burua.

Kontuan hartu genuen esana, tuneletik irten ginenean elurra oso lodia zegoen, baina nekazariak esana egia zela ikusi genuen. Hain zuzen, tunelaz beste aldetik, zuhaitzez itxitako basoan, haizeak ezin zezakeen korritu bere gisara. Estadio bateko bidea zegoen tuneletik oraindik gailurrera. Printzeak ezin zuen lortu gaina. Momentuz, printzea elurretan utzi nuen, zuhaitz adar bat basotik hartu eta alde bat eskaini nion eta horrela eraman nuen arnasestuka nire atzetik. Mendi gailurraren gaineratik han urrun galtzen ziren Espainiako sakanak eta elurrak berdintzen zituen mendiak. Mendi hura jaisteak beldurra ematen zuen, aldapatsua zen, eskailera bat bezala ebakia. Gaitzen erremedio bezala, printzeak adarra hanka artean hartu eta zaldi gainean zihoan planta eginez, umee bezala, aldapan behera ekin zion. Bere emaztea bi serbitzarik zeramaten, askotan erortzen zen, elurretan galduz, jendearen farre eta algarek printzea alaitzea lortu zuten. Mendiaren hegaleraino arrastaka iritsi eta gero, elur ugariagorekin topo egin genuen, bidea lau samarra eta neketsua zen, aldapaz eta mendartez josia. Oraindik mila alemaniar bat falta zitzaigun ibiltzeko. Aurreko egunean bortua igaro eta Galarretara iritsitako morroietatik ezzetorkigun inor ere bidera. Mendiko tunelean zamak eramateko gauza ez eta atzeraturik gelditu ziren zaldia ere ez ziren ageri. Printzea arras lehertuta, lurrean etzan zen, gehiago ezin zuela eta. Honetan, nekazari bat azaldu zen nire zaldia eskutik zuela, tunelean aspertu eta itxoiten nekaturik, ihes egin zuen, nonbait. Printzeak zeruko erregali bezala hartu zuen zaldia eta gainera igo zen. Une beretsuan iritsi zen nire morroia eta bere zaldia printzesari eskaini nion. Guk eta emakume sail batek jarrai genien, oinak larruzko polainaz estalirik geneuzkan. Seguratik Galarretara hiru mila alemaniar daude. Galarretara ilunarekin iritsi ginen, erabat lehertuta, zenbait neskakak eta gutako askok, surtara inguratzean, hildakoak ziruditen eta su ondoan lurrera erori ziren. Nik, jendea suspertu nahian, fruta ura ematen nien, ohitura dut beti, nirekin litxarrerria hauek eramatekoa, arrisku frankotatik atera naute.

Tunelaren barruan Juan Lanjio gelditu zen morroi batzuekin, elurretan galdu ziren zaldi eta zamariak tunelera ekarri nahian.

Ondo nekien nik tuneleko jendeak zer janik ez zeukala, diru mordo ederra eman nien sei nekazari arabarrei, pitxar batzuk ardo eta hogeitaki tunelekoei eraman ziezazkieten. Zin eragin nien ezer jan edo edan gabe elikadura tunelera eraman zezaten. Hitzaren jabe izan zitezen, edan ahal zuten ardo guztia eman nien eta zintzurreraino ogiz ase nituen. Gainera, Juan Lanjiori paper bat bidali nion zer jan—edan zeramazkieten esanez, ase ezineko gizaki maltzur haiek iruzur egin ez ziezaioten. Baina jende maltzur haiek ohoreaz eta hitzez ahaztu ziren, tunelera bi pitxar ardo eta sei ogi iritsi ziren eta tunelean zeudenak zatitxo batzuk hartu zituzten, ardotik, berriz, trago bana edan ahal izan zuten. Hurrengo goizean denok elkartu ginen, guk huntzihondatzetik jare diren senideak kaian hartzen dituzten bezala besarkatu genituen lagunak. Alferririk aritu nintzen jende maltzur hari asto beltzarenak eta bi esaten. Egun hartan zerbait ezatsegina ere gertatu zen. Alkateari bideko laguntzak edo serbitzuak zenbat ziren galdetu nion, ezer ez, ez zuela ezer behar erantzun zidan, bera printzea bezain noble zela. Printzeak, esker onaren ageritzat, hogeitaki koroa balio zituen eratzun bat emaztearentzat eman zionean, ezetz, bere emazteak ez zuela eratzunik erabiltzen esan zien. Printzeak eskerrak eman eta behar

zituenerako bere serbitzuak eskaini zizkionean eta, gainera, egin zizkion mesedeak Kaiserraren (Karlos I.aren) aurrean aipatuko zituela agindu zionean, alkatea kexatzen hasi zen eta printzea, bere iritzian, eskuzabalagokoa izatea uste zuela, hain serbitzu handiak huskeria harekin ordaintzea uste bazuen, eta ez dakit zenbat mehatxu egin zizkigun. Printzeak dena entzun zuen eta haserre jarri zen, ezer eskatu nahi ez eta eraztuna hartu nahi izan ez zuena orain kexu baitzen aldaketa berriaren aurrean, ezer eman ez zitzaiolako: orduan hirurogeita hamar koroa eman ziezaiotela agindu zuen. Alkateak dirua bereganatu bezain laster, zeukana eskaini nahi zigun, mila agur txoro eta mila musu eskuetan eman zizkigun eta ez zen eskerrak ematen aspertzen. «Ez diat hi bezalako zirriborro baten koipekerien beharrik», esan zion printzeak, «Kaiserraren aurrean ez dizkiat ahaztuko hire eta hire herri Seguraren isekak. Orain bide txarrez irabaziak lepotik ordain ditzaan ahalegin denak egingo zituat». Beste gizon gehiagok ere Segurako alkateari ekin zioten, honek bere burua zuritu nahi eta diruak atzera itzultzeko papera egiten ziharduen bitartean handik joan egin ginen.»

Euskaratu dudan zatia Hubertus Thomas Leodiusen «*Annalium de vita et rebus gestis Federici II Electoris Palatini libri XIV*» liburuki sakonetik harturik dago. Frankfurten argitaratu zen 1624an.

1502an Felipe Ederrarekin San Adriango bidetik pasa zen Federiko hau, hogeit urte bete gabeak zeuzkala. 1544an, berriz, anaia zaharrena hiltzean, tronuaren jabe egin zen, Federico II.a izenez.

Bost aldiz etorri zen Espainiara eta gehienetan San Adriango bortuan zehar. Azken aldiz 1548an izan zen. Itzulpen bat baino gehiago baditu liburu honek.

## 12.8. Braun eta Hogenbergius. 1567

«Alde honetatik Espainia oso estua da: Vaseusek zioenez, San Adriango menditik, Kantabria zeharkatzen ari zela Ozeano itsasoa (Kantauri) ez ezik, Mediterraneoko olatu xuriak ere ikusi omen zituen, oso urruti, begiek ikus lezaketen urrutien.

San Adriango mendian, Frantziara doan bidean, haitzulo bat dago bidaztiak alderik alde zeharkatzen dutena, Italian, Napolitik gertu dagoen Pausaliporen antzekoa. Hemen, Bizkaian, harrizko bide batek darama zuzenean bidaztia San Adrian mendiko haitzulora, Gasteiztik bost mila pausora dagoen Galarreta herrian hasten da bide hau. Malkar zailtan gora doan bidean, zaldiz joatea zaila izaki, uhaletik eraman behar dira hauek. Beste inondik ezin litezke zeharkatu mendi hauen gailur hurbilgaitz eta maldatsuak eta bertan luzaro diraute elur eta izotzek. Hemen egiaz-tatu liteke Germaniako olerkari batek zioena:

Elurrez zuriturik haren adatsa

Eta izotzez gogor haren bizar zakarra!

Mendi hauek zuri baitaude luzaro dirauten elurrez eta izotzez. Malkarren barrenean, haitzek eta haitzarte zailak bidaztia beti beldurtzen dute. Horrela, premiak eta bere seme den beharrak mendi hau hurbilerraz egitea lortu zuten, haitzulo hau sortuz; ez da oso zabala, gezi baten hegaldia du luzeran.

Espainia aldeko sarrera (Araba) iluna da eta poliki-poliki jaisten doa: erdi parean, ezkerrera hartzen du bideak eta izar batek bezala argi dago irteerako argi alaiak. Frantziara doan aldean dagoen paretan gauero itxi ohi duten ate bat dago. Haitzulo honen egokitasuna eta bide-moztea nabarmenak dira, mendi honi Pausalipo berria dei geniezaioke, nekeak eta alferibiliak kentzen baitzizkigu. Tunelean aterpe eskergarri bat dago eta poltsa ona dakarren pelegrinoarentzat janari ugariak ere bai. Nahiz dirurik ez eduki, zaldientzat beti dago pentsua. Otoitz egin nahi



duenak han dauka San Adrianen ermita; Santu honek ematen dio izena mendi osoari.

Poliki-poliki jaisten hasten da bidea milia bat inguruan, zorua harri landuz estalia dauka Via Apiak bezala.»

Georgius Braun eta Franciscus Hogenbergiusek idatzi zuten «Civitas orbis terrarum» liburutik hartuta dago zati hau. 1593an bost zatitan argitaratu zen liburu hau Kolonian.

## 12.9. Giovanni Bautista Venturino. 1572

«Hilaren 20an, igandez, Gasteiztik legoa erdira, 40 bat etxeko Elgorriaga herrixkarekin topo egin genuen, handik laster 18 etxeko Arkauterekin eta gero Ilarrazarekin, aurrekoek adina etxekoa. 42 herritxo inguru daude han eta hemen gipuzkoarrak, baina Gasteizen mendekoak.(sic)

... Arratsalderako Galarretara iritsi ginen, ehun etxeko herrixka da hau, Gasteiztik bost legoatara.

Hilaren 21ean, astelehenean, San Adriango mendi edo bortu zail eta harritsura igo ginen, legoa bateko bidean. Gailurrean, behe-raka hasi eta gero, nahitaez pasa beharreko haitzulo bat aurkitu genuen, estua eta gizon bat zaldiz ozta-ozta kabitzen dena, iluna eta beldurgarria. San Adrianen ermita bat dago bertan, santu honen izena darama mendiak. Frantziatik Espainiara zetorrela, santuak mirariz zulatu omen zuen lehen hurbilgaitz eta sarrezina zen harkaitza. Frantzian hil zen santua eta bertan ehortzi zuten, non ez dakit.

Alkaide bat eta bere sendia bizi den etxe koxkor bat ere badago bertan: pasabidea gordetzea du eginkizun, ondo kobratzen du. Mendiaren oinetan Zegama datza, 250 etxeko herria.(sic)

Euskaratu dudan zati hau, Vaticanoko Bibliotekan dagoen «Codes Barberin» aurkitzen da. Idazle iaioa izan zen Venturino, eta Aita Santuaren ordezkoren eta Alejandriako patriarkaren laguntzaile bat genuen. Jaun goren hauek Lisboako Sebastian erregearen ezteietan izan eta Gasteiztik, San Adrianen zehar, Frantziaratu ziren.

Tellechea Idigoras jaunak Venturinok Euskalerriaz idatzia, BRSVAPen argitaratu zuen 1955ean.

## 12.10. Vicente Espinel. 1574

«Mila aldiz bedeinkatuz utzi nuen Bizkaia, ahal nuen azkarren Gasteizera iritsi nahita. Gasteizen zaldun ospetsu bat aurkitu nuen, Felipe de Lazkano<sup>1</sup> izeneko zaldun batek etxera eramanik, behar nuen dena eman zidan; bideko nekeetatik atsedean hartu nuen. Dena ikusi nahirik, Nafarroarantz jo nuen.»

Zati hau Vicente Espinelen liburu batetik hartuta dago, hain zuzen, Marcos Obregonen bizitzatik. Madrilen argitaratu zen lehen aldiz, 1618an, liburu hau.

---

<sup>1</sup> Felipe de Lazkano hau zen 1502an San Adrianen bataiatu zuten umea. Bere aita eta ama pontekoak Absburgoko Felipe eta Joana Eroa izan ziren.

## 12.11. Diego Cuelbis. 1599

«Monte de Sant Adrian. Pirineoetako mendirik garaienetako bat da eta Espainia guztikoa ere bai. D. Juan Vasaensek hara zer kontazigun mendi hau dela eta:

“Dum per Cantabriam iter fáceret in monte D. Adriani Domino Fernando Colóné, harum rerum peritissimo commonstranti quod vidisset utrumque Mare, Oceanum et Mediterraneum”.

Bere igoera eta jaitsiera harrigarri eta miresgarrian hiru legoa onak dauzka, bide zabal eta harri losaz estalian pasoko zaldiek ez dute amiltzeko arriskurik. Mendiak San Adrianen izena darama, diotenez, santu hau bertan bizitu zen ermitari bizitza eginez. Lekurik gorenean bi ermita dauzka, Santi Espiriturena eta San Adrianena, eta tunelean eskaleak bidaztiei diru eske.

Frantziatik Konpostelako Santiagorengana doazen pelegriñoek bertan otoitz samurki dagite. San Adriango ermita dagoen lekuan, mendia berez edo giza eskuz zabaldua dago eta bi ate dauzkan pasabide bat dauka. Gudatean edo izurri denboran ate hauek itxi egin daitezke. Haitzuloaren barruan, ur bizia dario iturri otz eta eder bati, handik edaten du bertan bizi den jendeak. San Adrianen aldea ezkerreko aldean dago, pelegriñoen aterpea eskubikoan. Tunelaren luzera hogeit oinekkoa da, gutxi gora behera eta zabalera, berriz, hamabikoa. Neguan oso leku hotza da eta udan, beroa.»

Zati hau «Thesoro Choragrahico de las Espannas»en aurkitzen da; liburu hau Diego Cuelbisek idatzi zuen. Eskuidatzia Londresko Museoa dago eta Penintsulan zehar Diego Cuelbisek eta bere lagun Joel Korisek egindako bidaiak aipatzen ditu.

## 12.12. Senlisko Kofradi liburua. XVI. mendean

«Europar Konpostelan izandako pelegriño ohiek kofradiak sortzeko ohitura sortu zen. Hiri handi gehienetan sortu ziren kofradia hauek. Bat, Senlisen XVI. gizaldian egina oraindik han dago. Santiagoko bidearen gida bat dago bertan:

- Santa Maria de Irun.
- Arnani.
- Renteria.
- San Sebastian.
- Tolosetta.
- Alegria.
- Villafranca.
- Segura.
- Segama.

San Adrian mendia oso goian dago. Igoeran hiru legoa dauzka eta jaitsieran bi.

San Adriango haitzulotik dago pasabidea, mendia bezain goitik doa bide hau.

Bi jatetxe txiki eta bi ermita daude bertan; San Adrian eta San Antonio (sic). Bietan ardoa eta ogia salgai daude.

Oraindik mendira igo behar da berriz jaisteko.»

Arabako herriak ere aipatzen ditu.

«Las Peregrinaciones a Santiago de Compostela» III. liburukian 139. orrialdetik hartu dituzte zehaztasun hauek. Luis Vazquez, José M. Lacarra eta Juan Uriak eginiko lana.

### 12.13. Anonimoa. 1612

«Galarretatik irtetzean, San Adriango mendi luze eta garaiari ekiten zaio, batzuek bortua eta beste batzuek San Adrian deitzen diote, igoerak legoa bat inguru dauka. Bidea Espainiako neketsuen eta zailena da. Dirudenez, mairuen sarraskiak mendi hauetan amaitu ziren, kristauen garaiketek ere hemen hasiak dirudite. Mendi honetatik jaistean, haitz zulatuaz topo dagi batek; berezko haitzuloa da, ate bat dirudi; karaitzezko mendi bat beherantz zeharkatzen du bideak. Haitzuloak hogei pauso bide ditu luzean, hamar zabalean eta hamabost goieran. Sarrerak ate haundiz ixten dira. Barruan ermita bat eta bidaztientzat jantokia daude. Mendia, gainerakoan, haitz ikaragarri eta hurbilgaitz bat da. Haizpean harri biziaren gainean eginiko gaztelu bat dago, ehun gudarientzako lekua duena, horrela bidea eraso guztietatik jare dago. Atea zeharkatzean, Arabatik irten eta Gipuzkoan sartzen zara.

Alde guztietan euskara da hizkuntza.

San Adriandik oinez edo zaldiz bakarrik pasa daiteke bat, dilijentzien bidea Gasteiztik, Gatzagan zehar, Arrasate, Urretxutik Ihartzara datorrena da.»

Orri jabegabe hauek eskuidatzi luze baten zati dira. «Relation d'un voyage en Provence, Espagne, Portugal, Angleterre et Hollande» dute izena.

Espainiako bidaia 1923an argitaratu zen, Revue Hispaniquen, LIX. liburukian.

### 12.14. Anonimoa. 1617

«Bideari berriz ekin eta gero, eguerdirako mendi garai mailodun batera iritsi ginen, San Adrian mendia deritzonera. Gailurretik gertu txiroen aterpe txiki bat dago eta hauek bertan limosna eskatu ohi dute San Adrian Ermitariaren izenean. Hemendik gailurrera haitz bat bakarrik gelditzen da, haitz biluzi bat, Gaztelarako pasabidean, oso helbide zailekoa, bidaztiak eta zaldiak bertan banan-banan pasa litezke elkarren atzetik. Haitzuloaren barruan ur bizia darion iturri bat eta jantoki bat daude. Aldare batean Kristoren aurpegia ikus daiteke Beronikaren zapien. Haitza (haitzuloa) pasatzeko kandlekin eta zuziekin argi egin behar da, pixka bat gehiago igoz, gailur batetik Sartaldeko Ozeanoa ikusten da. Tunela pasatu eta aldatz bat igo behar da, horrela baitoa bidea. Han elurra aurkitu zuten gure alemanek. Zaldietatik jaitsi eta oinez korritu genuen menditik beherakoa, aurrean zeukaten lautadarantz. Iluntzean Galarreta deritzan herri batera iritsi ginen, San Adriandik hiru miliatara.

Idazlan hau jabegabea da. Martin Zeilerrek erabili zuen lan hau eta bere aldaketekin Nurembergen argitaratu zuen 1637an.

### 12.15. Francois Bassompier. 1621

«Igandean, otsailaren 28an, San Adrian menditik pasa nintzen, Galarretan bazkaldu nuen eta Gasteizen lo egin.»

Francois de Bassompierren oroitzapenak Parisen argitaratu ziren lau aletan. Jaiotzez Lorenakoa zen. Bere bizitza nobela batizan zen. Espainiako bidaian gure lurretik pasa zen.

## 12.16. Baltasar de Monconys. 1628

«Beste mendi askoren artean bat iragan behar duzu eta bere garaitasun eta berezitasunek zerbait esatera behartzen naute.

Mendi hau, San Adrian deritzana, Irundik Madrilerako biderik nagusienean dago. Bi legoa eta erdiko igoera eta beste hainbesteko jaitsiera dauzka. Harrizko bide batetik igotzen da bertara, mendiaren haitzak dira galtzadaren estalgarri. Zuhaitz handiz inguraturik dago. Miresgarriena zera da, mendiaren gailurrean zaudela uste duzunean, oraindik urrun zaudela eta haitza alderik alde pasa behar duzula, izadiak eta gizaeskuek berrehun pausoko luzeran zulatu duten tunel batean zehar. Zaldi gainean ezin daiteke bide hau egin. Badago han andre lodi batek bidazteiei edaten ematen dien etxetxo bat. Igoeran, aldeetan, konta ezin ahala haitzulo eta iturri ikus daitezke. Gaineko haitz handiak legoa laurdeneko goiera izango du gutxi gora behera, hurbilgaitz izanik, zulatu egin behar izan dute bertatik iragan ahal izateko. Leku arriskutsua da mendi hau, bertan gertatzen diren lapurretak eta heriotzak direla eta. Gu hemendik iragan baino hamabost egun lehenago flandestar bat hila aurkitua dute.

Mendi hau zeharkatu eta lehenengo hiria Gasteiz da.»

«Voyage d'Espagne fait l'année 1628»tik hartua da zati hau. Liburuaren idazlea Baltasar de Monconys izaki, 1666an argitaratu zuen Lyonen Horace Bois-santek, Baltasar hil eta gero.

Frantziako erregearen kontseilari nagusi izatera ere iritsi zen Monconys eta 1645ean, berriz, Espainian izan zen.

## 12.17. Frantzisko Bel. 1633

«Apirilaren 12an, Villa Franca eta Segura iraganez, Tolosatik bost legoatarra dagoen Segamara (sic) iritsi ginen, San Adrian mendiaren oinetan dagoen ostatu batean lo egin genuen.

Apirilaren 13an legoa batera dagoen mendi zakarrera igo ginen. Mendi garaiago batera ezin daiteke igo, haitza dorre bat bezain zuzena da eta ezagunak zaizkigun bi dorrerik garaienak baino askoz ere garaiagoa. Harkaitz hartara igo eta mendia hiri bateko atetik edo, hobeki esanda, etxe bateko atetik pasa behar da. Ate hartatik pasatzea, gizonei nahiz abereei, nahita nahiezkoa zaie Espainiara sartzekotan.

Harkaitz haundi haren azpiko tabernan gizon batek jateko edo edateko behar duena dago. Taberna erregearena da eta mandazaiei hainbesteko bat kobratzen die tabernariak haitzulotik irten edo sartzen den mando bakoitzagatik. Bide ezagun honetatik at badago beste bat oso neketsua, Arantzazura doana, hemen Frantzisko donearen komentu bat oso ederra dago; beste bide bat Loiolara doana da. San Adrianen freskatu bat hartu eta harkaitzaren beste aldera pasatu ginen, ehun bat oin izango dituen bidetik. Harkaitzaren gainetik iturri bati ura dario, zuzenean beheko katilu handi batera tantaka jausten dena haitzuloaren bobedatik edo teila-tutik.

Mendira igotzean, elurra zegoen bazterretan. Urrunetik zuhaitzek eta gainerako gauzek abenduan edo urtarrilean zeudela ziruditen. Beste atetik irten ginenean, ez zen elurra besterik ikusten. Atzeko atea elurpean zegoen eta goitik behera abiatu ginenean, ez zen biderik ageri inon: dena elurra zen, pauso batzuk ematean, elurretan sartu ginen belauetaraino eta askotan gorago.

Alde hartatik, bestetik baino altuagoa zen mendiaren barrena, lurra laua zen eta udako giroa zegoen. Gauerako Gasteizen ginen.»

Jose Maria Elizondo kaputxinoak argitaratu zuen RIEVen XIV. liburukian, 25 orritan lan hau osorik. Inoiz argitaratu gabeko lan hau Franzisko Bellek erdaraz idatzitako egunkari bat zen. Fraile ingeles honek ikasketak Valladoliden egin zituen, 1620an apaiz egin eta Dunkerkera joan zen itsasoz.

1633an berriro Espainiaratu zen, Toledon kapitulua baitzeukaten kaputxi-noek. Bidaia honetakoa da idazlan hau. Bere ordenak Eskozian eduki zuen lehen probintziala izan zen. 1643an Cromwellen eta Karlos I.aren gudatean bahitu eta urkatu egin zuten. San Adriango bidetik pasa den martiri bakarra hau dugu, dakigula.

### **12.18. Antoine de Brunel. 1655 (bere lana argitaratu zen urtea)**

«Donostiatik egun eta erdira San Adrian deritzan mendi handi batetik iragan ginen. Ez da tontor hau zakar eta egiaz ikaragarria, baina gauza berezi batez jabetu nintzen, harkaitz sokaren gainean mailo batzuk dauzkala eta haietatik pasatzea ezinezkoa dela. Badirudi izadiak han ipini zuela Bizkaia eta “Gaztela Zahararen” arteko bereizketa sendo eta gaindiezina. Nahitaezkoa izan da tunel bat minaz, mailuz eta zizelez zabaltzea, harkaitza zulatu egin baitute; tunel horretan zehar hogeita hamar edo berrogei pausoko bidea dauka bidaztiak haitzaren barruan. Tunela pasatu eta gero Gaztela Zaharreko lurretan sartzen da bat, lurra lauagoa izan arren ez da oso emankorra.»

Irakurgai hau, «Voyage d’Espagne cvrieux, historique et politique, fait l’année 1655»tik hartua dago eta Parisen argitaratu zuen Charles de Sercyk 1665ean. Idazlea Antoine de Brunel izan zen, Saint-Maurice-en-Trievesko jauna. Bere denboretako politikorik iaonetakoa izan zen. Dofinerrian jaio zen 1622an.

### **12.19. Francis Willughbyk. 1664**

«... Eta bi erreka, Baias eta Sadura, zeharkatu eta gaua Aramiñon egin genuen. (Bi legoara) Mirandan gari salmenta oso onak aurkitu genituen.

Azaroaren 11n Gasteizera jarraitu genuen. Ate baten gainean Wambaren irudi bat zegoen eta urrezko letretan idazki bat: «Haec est victoria qui vincit». Lau legoa. Gasteiz Arabako zati txiki baten hiri nagusia da.

Ezker aldera, San Adriangoa deritzan bide arrunta utzi genuen.»

Francis Willughbykek idatzitako «A Relation of a Voyage made through a great part of Spainen» azaltzen dira euskaratu ditudan zati hauek. Londresen argitaratu zen lan hau, 1673an.

Francis 1635ean Middleton herrian jaio zen, Warwik konterrian. Cambridgen irakasle izan zen. 1663an bere jaioterria utzi eta mundua ere gizonok ikusteko zegoela eta Europa korritu zuen. 1672an hil zen.

### **12.20. Jean Muret. 1666**

«Hiru eguneko bidea egin ondoren, mendi garai batera igo nintzen, Frantziatik hiru legoatarra, San Adriango bortua deritzanera.

Gailurrean, haitzulo batean sartu ginen, zure etxetik Zelestinoen komenturainoko luzerakoa gutxi gora behera. Leku ilun batean zehar irtetzen da zulo honetatik. Egia diotsut, jauna, inoiz ez dut hain gauza beldugarririk ikusi. Gorakoan, lainoak gure azpian ikusten genituen, baina beste aldean goian zeuden; behera hasi ginenean lehertu eta euri bihurturik gure gainera jausi ziren, galduko ginela uste genuen. Belaunetarainoko uretan zihozazen gure mandoak eta euria hiru legoako jaitsieran ez zuen atertu. Gero Gaztela Zaharrera sartu ginen eta han edan genuen Espainiako ardo sendoa eta bi edo hiru hiri ere ikusi ahal izan genituen, Gasteiz, Bribieska eta Burgos.»

Jean Muretek Madrilen 1666an idatzi zuen eskutitz baten zatia dugu euskaratu dudana. Idazlearen beste sei eskutitzekin Parisen argitaratu zen 1879an. Gutun hauek gaur Parisko «Liburutegi Nazionalen» jasoak daude.

### 12.21. Albert Jouvin. 1672

«San Adriango pasabidea Pirineo mendietan zulatu duten haitzulo bat da, haitz handien eta gorenen gainetik bidea nolabait ekiditeko. Atzeko aldean haitzuloak haitz haundi batek ixten duen haran bat dauka. Nahiz oso garaia izan pasabide hau, berrogeita hamar pauso luzeran ez ditu edukiko. Bobeda handi baten erara moztu eta zulatu dute, hiru bat toesa izango ditu garaian eta zortzi bat oin zabalean.

Sarrera etxe batek eta ate batek ixten diote, etxea jantoki edo ospizio bat, erabat haitzaren oinetan isolaturik dago eta barnean San Adrianen kapera bat eta zenbait haitzulo eta bazter ilun ere badauzka. Argia sarreratik eta irteeratik bakarrik sartzen baita han. Hemendik zerbait igo beharra dago oraindik San Adriango gailurrera iristeko, bide dena pagoek estaltzen dute.

Aro guztietan jendeak bide honi bildur dio, mendietan banaturik dabilzan lapurrek, bidaztiak ikustean, hauei ekiten baitiete. Arrazoi hau dela eta jende asko Arrasateko bidetik doa, lapur hauei ihesi. Mendiaren gailurrera iristean Urkamendia dago. Baso batean zehar jaisten den bideak errekatxo baten antza dauka, eskubira Galarreta dago, Arabako herria, Bizkaia barruan.

San Adriango menditik jaistean, probintzia txiki horretan, lautada bat dager, hamar edo hamabi legoakoa zabalean eta mendiz inguratua. Lurra gariak eta mahatsak estaltzen du eta konta ezin ahala herrixkek.»

Albert Jouvinen «De Le Voyageur d'Europa, où sont le Voyage d'Espagne et Portugal & le voyage des Pays-Bas»etik euskaratu dut zati hau. Denys Thierryk Parisen zortzi aletan argitaratu zuen lan hau 1672an.

### 12.22. Maria Katherine le Jumel de Baneville. 1679

«Donostiatik irten bezain laster, mendi gorenetara doazen bide latz eta neketsuetan sartu ginen, mendi hauetara arrastaka bakarrik igo liteke, eta San Adrian deritza. Harkaitz eta amildegia bakarrik daude bertan, maitale itxaropen gabe batek bizia galtzeko leku aproposak, hartarako beharrik izanez gero. Neurri gabeko pinuek inguratzen dituzte mendi gailurrak. Begiek dakusateneraino ez da inor bizi, nonahi kristala baino garbiagoko errekatxoak doaz.

San Adrianen gainean haitz ikusgarri goren batek badirudi bidea moztu nahi lukeela, Bizkaia eta Gaztela Zaharra bereiztuz.

Harkaitz zakar hau jarduera luze eta gogor batek zulatu du, bobeda baten antza emanez: bere barnean berrogei edo berrogeita hamar oineko ibilbidea dago,

bertan sartzen den argia ate haundiz ixten diren sarrera eta irteeratik dator. Bobedaren azpian dagoen jantokia neguko elurteek ixtera behartzen dute. San Adrianen ermita bat ere badago eta lapurren gordeleku egokiak izan litezkeen zenbait haitzulo ere bai; aurrez neurriak hartu gabe ibiltzeak baditu lapurrekin lanbideak.

Haitzuloa pasa eta gero, mendiaren gailurreraino jo genuen, Pirineoetako garaiena dela diote, pago-basoz estalia dago, ez dut hain bakartasun xarmantik inon ikusi, errekatxoak haran txikietan zehar doaz, ikusmirak begien ahulezia du bakarrik muga, itzalak eta isiltasuna dira bertako errege eta nonahitik oihartzunak erantzuten du sorginkeria handiz. Lehen igo genuen bortua jaisten hasi ginen.

Aldizka, urrun, lautada txiki lur arindunak ageri ziren.

Hondartoki eta haitz izugarriak.»

Euskarazko zati hau Marie Catherine le Jumel de Barneville, Aulnoyko kondesak idatzitako «Relation du Voyage d'Espagne»tik harturik dago. Hayan argitaratu zen hiru aletan liburu hau.

Kondesa hau argia eta azkarra bezain ederra eta xarmanta izan zen. Bere erretrato bat ikustea nahikoa da bere garaiko emakumeetan ederrena izan zela konturatzeko. Idazle iaioa zen eta gustorik finena zeukan. Ederra, atsegina eta bitxi lirain bat zen.

## 12.23. Juan Álvarez. 1707

«Hemen komeni dena lehen esana ez ahaztea da, Donostiatik San Adriango mendietara pasabidea dagoela, mendi hauek Gipuzkoa osoa zatikatzen dutela eta Arabaren zati bat Gaztela Zaharra arte. Mendi hauetan zenbat eta aurrerago sartu, nekezagoak eta zakarragoak dira zeharkatzen. Mendiak pinu oso garaiez estaliak daude. Begiz ikusten diren alderdietan ez da leku eremuak besterik ikusten eta ezerk ikutzen ez duen isiltasun sakona: kristala bezain garbiak, haitzartean datozen errekatxo eztiak marmarrak bakarrik entzuten dira. Seguratik bost legoatarra Segama deritzon itxura txarreko herri lardaska bat dago, alde honetatik Gipuzkoan azkena. Herri honetatik irten eta aldapa gogorreko mendi batera igo behar da, gailurrean sekulako haitz bat dauka. Badirudi izadiak haitz hau han ipintzeko gogoia izan duela, bidearen erdian hain zuzen, bidaztiak geldiaraziz eta Gaztelako bidea itxiz. Hori dela eta, tunel bat zabaldu behar izan zuten bertan, mailuen, minen eta zizelen indarrez, lan luze eta neketsuaren bitartez haitza alderik alde zulatuz: bobeda honen azpia berrogeitik berrogeita hamar oin luzeko bideak korritzen du. Bi aldeetako sarrerak atez itxirik daude, sarreretatik datorren argia besterik ezin da ikusi. Bobeda honen azpian jatetxe bat dago, udan bertan edari freskoak eta, batez ere, haitzari darion ur freskodun iturri bat daude: neguan etxea elurraren handiaz hutsik uzten dute. Jende txiroak limosna tunelean eskatzen du, San Adrianen izenean. Santu hau baso haietan ermitari bizitu zen gizon otoizgile bat zen, mendiari berak eman zion izena. Ermitatxo bat ere badago bertan santu honi eskainia; aldrean Beronikaren zapia Jesukristoren irudiarekin. Haitzuloak ugari daude bertan, askotan lapurren gordeleku egokiak, handik pasabidea arriskutsua da, zerekin defenditurik ez baduzu. Bobeda hau ez da oso zabala, gainera Espainia (Araba) aldeko sarrera iluna da eta erdi inguruan makur une bat dauka, erdi inguruan bi aldeak baino bajuagoa den lekura okertzen da zerbait bidea. Antzinakoa da oso, erromatarrek egina dela diote, litekeena da egia izatea. Haietako lana horrela egiten baitzuten, haitzak zulatuz, beste biderik ez zutenean. Hara gaur bi adierazgarri: Bat Pausilype mendian, Napoliko erresuman, bestea Pierre-Pertuis, Basileako elizbarrutiko mendietan. Haien haunditasunaren adinekoa da lan hau. Hemendik gertu bazegoen harri losaz ondo estalitako bide bat, gaur dena alferrik galduta dago, inork ez baitu

zaintzen. Bobeda honen irteeratik aurrerago dago mendiaren gailurra, Pirineoetako altuena dela diote. Pago lerdenez estalirik dago lurra. Europan aurki daitekeen basorik ederrena bera da. Mendi hauek denak konta ezin ahala errekatxodun haranek mozten dituzte. Araba aldeko lautada eta zelaietan begiek ahal duten lekuraino ikus dezateke. Ikusmena norberaren ezinak mugatzen du: begi onen jabeek Sortaldeko Ozeanoa (sic) ere ikus dezakete. Menditik jaistean hondar lurrak daude, muino idorrak, lautada txiki eta emankortasun gutxikoak, han, hemen sekulako harri puskak pasa behar genituen bidearen alboan. Mendi hauetan jende gutxi bizi da. Artzai txabolak edo herrixkaren bat besterik ez da ageri.»

Juan Alvarez de Colmenar idazleak 1707an argitaratu zuen Leiden hirian «Les delices de l'Espagne et du Portugal». Bost ale ziren denera. Pierre Vander izan zen argitaratzailea.

#### 12.24. Guillaume Manier. 1726

«San Adriango mendi hau munduko gorenetakoa da eta bi ordu gutxienez behar dira bere gailurra gainditzen. Bertako haitza zati bakarrekoa izanik, batek amets lezakeen gaztelurik haundiena baino haundiagoa da. Barruan tunel zulatu bat dauka eta San Adrianen tunela deritzo. Tunelean ermita bat eta taberna bat daude. Beheari so egitean hura amildegia! Zerbait gehiago igo eta baso batean sartzen gara. Jaitsieran, eskubialdera margo ezberdineko mendiak ikus daitezke, tapizik ederrenak oroitarazten dizkigutenak. Aretera (Galarreta) iritsi eta bertan gaua egin genuen.»

Zati hau Guillaume Manierren «Voyage d'Espagne, fait en 1726 et en 1727, par Manier de Noyon. Ecrit de sa main en 1736» lanetik jasota dago. 1890ean Montdidierren Bonnault d'Houet baroiak argitaratu zuen.

#### 12.25. Larramendi. 1754 (?)

«Leizarrate, o puerto de San Adrián, aguas vertientes hacia Guipúzcoa: es de jurisdicción de algunos lugares de Guipúzcoa, por esta parte, y de Alava por la otra. En lo alto está la Peña Horadada, muy nombrada en las historias, por donde se pasa de Alava a Guipúzcoa, y dentro está la ermita de San Adrián y la venta. Cuando llueve en la cumbre, las aguas se dividen, y unas van al Mediterráneo, bajando a Alava, y otras van al Océano por Guipúzcoa. Desde la cima de esta montaña dicen Mariana y otros que se ven ambos mares, Océano y Mediterraneo. Quise hacer por mí esta observación. Subí hasta lo más alto del camino, y viendo que faltaba mucho que trepar hasta los peñascos eminentes que hay en la cima, me desanimé, de cansado, y lo dejé. Hablando de este monte dice Murillo que hay en él una cueva o camino subterráneo por donde se pasa de Vizcaya a Navarra y de España a Francia. Explicación por cierto muy ridícula y falsa. Ese camino es la Peña Horadada, que a lo más tendrá sesenta u ochenta pasos desde el un boquerón al otro. No es subterráneo, sino sobretérreo y muy elevado de la tierra, entrepeñado u horadado en peña viva. Por él no se pasa de Vizcaya a Navarra, que es desatino; de una parte de Alava se pasa primero a Guipúzcoa y luego a Navarra. El guipuzcoano pasa de España a Francia, y no por el camino de San Adrián, que deja muy atrás; y en ese mal modo de hablar lo mismo se pasa por San Adrián de España a Flandes y Alemania que de España a Francia.»



Aita Larramendiren «Corografía de Guipúzcoa» liburuaren 50 orrian ageri da idazlan eder hau. Liburu zoragarri hau, nahiz Larramendik 1754 inguruan idatzi, Aita Fitak argitaratu zuen 1882an.

## 12.26. Alfontso M.<sup>a</sup> Zabala. 1893

Jarraian datorren artikulua hau Zegaman 1893an erretore zegoen D. Alfontso M.<sup>a</sup> Zabalak «Euskal-Erria» aldizkarian idatzi zuen.

Irakurlearentzat garrantzitsua iruditu zait eta hemen jarri dut:

### «COMISIÓN DE MONUMENTOS DE GUIPÚZCOA.

Habiendo tenido la alta honra de recibir de esa “Comisión Provincial de Monumentos Históricos y Artísticos” una atentísima comunicación, en la que se ruega facilite detalles circunstanciados acerca de los restos descubiertos al abrir la cimentación de la nueva ermita de San Adrián, así como noticia y croquis de la “estela crucífera” recogida a orillas de la antigua calzada, y colocada hoy en el frontis de dicha ermita; y todo cuanto pueda redundar para allegar un nuevo dato al estudio de la arqueología e historia bascongadas; debo manifestar mi incopecencia, no sólo en lo que puede referirse a esa clase de estudios, sino aun para contestar debidamente a una comunicación de este género. Pero me mueve a contestarle el ver al pie del citado documento la firma de un querido y antiguo amigo, como lo es el Sr. D. Antonio Arzac, y fiado en su afecto, espero que los ilustrados individuos de Comisión disimularán cuantas faltas observen en mi contestación, tanto en lo que se refiere al tecnicismo, como a la redacción.

Más que arruinada, convertida en establo se encontraba de pocos años acá la reducidísima ermita de San Adrián, pues una vez deshabitada la venta de dicho punto, y cerradas sus puertas, el ganado se cobijaba donde quiera encontrase apto paraje, por más que fuera lugar bendito, si no se tenía cuidado en cerrar las puertas, o estas con la injuria del tiempo habíanse desvencijado, y hallábanse lejos para que el párroco, a cuyo cargo estaba, pudiera desplegar su vijilancia.

Por este motivo no pudieron hacer el año pasado su inmemorial rogativa en este pueblo y el de Idiazabal, por más que les dolía fuera la causa el mal estado del Santuario. A esto es debido el proyecto de la nueva ermita más capaz y más segura de respeto.

Al comenzar las obras a principios del mes pasado, y al abrir los cimientos, cuando se suponía habíamos de dar con peña viva, nos sorprendió el encontrarnos con pedregal y tierra húmeda, y que ésta continuaba sin interrupción a fondo. Como por el desnivel del terreno tuvimos que ahondar más en la parte superior, a metro poco más o menos de haber profundizado se observó que los picachones daban sobre losa arenisca, y bastante hueca, y que las losas se dirigían de oriente a occidente: o desde la entrada superior a la inferior. Supusimos si podría ser un caño para el corrimiento de las aguas, pero pronto salimos de dudas encontrándonos con algunos huesos, lo cual nos hizo sospechar sería algún enterramiento. Como nuestro objeto era la cimentación, y las tierras y pedriscos desprendidos caían sobre aquella aparecida fosa, y por el respeto que siempre infunden tales restos, no se continuó la excavación, y allí mismo se colocaron las piedras sobre donde debía levantarse la línea de pared perteneciente a aquel punto.

Nada más de enterramientos.

Hacía mucho tiempo había llamado la atención a mi primo el Dr. D. Jesús de Echeverría, Presbítero Coadjutor de la iglesia del Sagrado Corazón de esa Ciudad, una cruz a orillas de una calzada que baja de Yarzabal, de la casería de Iruchea; me mostró en una de nuestras excursiones a Aitzgorri, haciéndome observar los calados de ambos lados...

Remito adjunto el diseño y ninguno mejor que los individuos de esa Comisión podrán formar idea de si la colocación de tal cruz en tal paraje podrá significar acaso el fallecimiento de algun caballero de alguna orden española, teniendo en cuenta que esa calzada era el antiguo paso de las Castillas para Francia, y que más de una vez habrían tenido lugar en aquellos puntos lances de guerra, o accidentes casuales o acaso criminales.

Tan enmohecida y tan mal tratada se hallaba dicha cruz, que al ver su color igual al de las piedras calizas de que está rodeado aquel lugar, hubiera dicho cualquiera se había trabajado en esa clase de piedra, y habían hecho desaparecer manos despiadadas varios detalles de los signos de ambas caras. Como no estaba tan toscamente labrada como otras similares que se encuentran con frecuencia en las orillas de los caminos de esta provincia, tenía siempre una idea fija: la de recogerla y ponerla, después de retocarla, en algún lugar en que pudiera conservarse. Mi deseo ha sido cumplidamente satisfecho con motivo de la nueva ermita de San Adrián; pensé colocarla en lo más alto de la obra, y habiendo ido con tal motivo a recojerla se vió que no era de piedra caliza, que el moho habíala dado aquel color, pues habiendo comenzado a calar los signos, observamos que era blanquecina piedra, muy blanda y arrancada sin duda de las canteras francesas de las que hoy tanto uso se hace para ángulos de vistosos edificios. Debe colegirse, pues, que la familia del personaje en cuya memoria se colocó tal cruz la trajera bien labrada del extranjero.

Al demoler la antigua ermita nada se ha encontrado que pueda llamar la atención; sólo al sacar el pequeño retablo donde se veneraba el santo y una anti-quísima imagen de la Virgen María, se han visto con sorpresa algunas letras en el zócalo o basamento; estaban completamente borrosas y poco caladas, pero a fuerza de limpiarlas con agua nos ha parecido leer lo siguiente: "Esta obra hizo min.stensoro año de Jesucristo m.y D.XX (1520)". También adjunto diseño para que lo aprecie esa docta Comisión. Se ha imitado en lo posible la letra.

Y aquí debía dar por terminada mi respuesta a la comunicación atentísima de la Comisión de Monumentos, pero voy a extenderme algo más, aun a título de molestar su atención y ser acaso impertinente.

... No ignorarán doctos individuos de la Comisión de Monumentos que existen varias cavernas en las vertientes de Aitzgorri; la más celebrada por su famosa Mari, y menos explorada es sin duda la de Akategi. Me ha solido referir un labriego que fue guía de algunos extranjeros que la visitaron en tiempo de las obras del ferrocarril, que aquí existen enormes huesos y otros objetos, y que las personas que él acompañó llevaron varios allí encontrados...

Cegama a 5 de Junio de 1893

Alfonso M<sup>a</sup> Zabala.

Sr. Individuos de la Comisión de Monumentos de Guipúzcoa».

### 13. SAN ADRIANI BURUZKO HERRI AIPAMENAK

Zegaman, nola edo hala, San Adriango zenbait kontakizunetan, Arazmendiko urak Araiako Iturriotzera doazen iritzia dauka herriak. San Adriango haitzuloaren barrenean, ezkerreko aldean, haitzulo txikiago bat, baina oso luzea, dago. Zulo honetan ur asko doa norabait. Zegaman ur hauek Araian agertzen direla uste da. Garai bateko mikeleteen emazteek haitzulo honetan egiten omen zuten lixiba. San Adriango haitzuloan bazen mikelesteak urteetan egon ziren etxe bat.

Herriaren oroitza zaharrak:

«San Adrianen, barruko kuebako uretan, aulkie nahastu mentzuen bein bertako iturriko urekiñ. Araiako Iturriotzen aulkie ta ure nâsi agertu ziela esaten due.»<sup>2</sup>

«San Adriango barruko kueban mikelete'aten alaba galdu mentzan beiñ lixibea eiten ai zala. Araiako Iturriotzen, eunetâ, emakumazko 'aten besoa azaldu mentzan. Beatzen zemarren eraztuneti konturau zan jendea San Adriango mikelete 'aten alabâna zala gorputz-puska ura.»<sup>3</sup>

«Beiñ San Adriango mikelete'aten andrea, Santiago goizên, lixibea eitea zijôn San Adriango barruko aitzuloa. Gizonak esa' mentzion:

– Gaur Santiago eune'en. Utzi zan lixibea biarko.

Andrek erantzun mentzion:

– Santiago esnâtzeako ingo diat lixibea.

Emakumea etzan geio irten aitzuloti.

Bê erropak Araiako Iturriotzen azaldu mentzien eunetâ.»<sup>4</sup>

### 13.1. San Adriango lapurrak

Ahozko tradizioak lapur ipuin franko utzi dizkigu San Adrian ederrarekin loturik. Atzo gertatuak bezala kontatu dizkidate Zegamako zaharrek.

Dirudienez, lapurrak Zegamako semeak ziren gehienez.

San Adriango bideetan, gizonaren bide guztietan bezala, milaka malko gori ixuri ziren antzinako urteetan.

Euskal Herriko leku zoragarri hartan bizi nahiak eta ezinak, sarri, borrokarik gogorrenak egin ohi zituzten.

Zegamako sukalde zaharretan jaso dizkiet gizon agurgarriei eta adiskide jatorrei ipuin hauek.

Guztiontzat gustokoa izatea nahi nuke herriaren mintzoa.<sup>5</sup>

### 13.2. Barriola (1)

«Barriola izeneko ikazkin bat San Adrianen bizitze mentzan bê koadrillêkiñ, batzutan ikazkintzan da besta 'atzutan lapurretan.

Ataungoa zala re esaten tzuen, Urtsongoa zala re bai.

Zeukenai kendu ta etzeukenai ematen tzeikiña mentzan.

Zeamako zaharrak gogon dauku oaindio aren izena.

Aren kontûk oañ 200 bat urtekôk izan leizke.»<sup>6</sup>

### 13.3. Barriola (2)

«Barriolak bê motillai ala aintze mentzien:

– Alakok eta alakok, alako lekutan utzi 'ezela dirue.

– Ezetz esaten badue, esan gañen gâla.

Bein pâtzen tzuenak pakên uzten tzitûn.»<sup>7</sup>

<sup>2</sup> Frantzisko Azurmendiri 1983–4–6an jaso.

<sup>3</sup> Frantzisko Berasategiri 1984–9–18an jaso.

<sup>4</sup> Karmen Otaegiri 1994–3–24an jaso.

<sup>5</sup> Jexux Mazkiarani 1975–9–9an jaso.

<sup>6</sup> Roman Otaegiri 1975–8–9an jaso.

<sup>7</sup> Roman Otaegiri 1990–5–7an jaso.

### 13.4. Barriola (3)

«Bein Barriolai motiko 'at etor mentzikon San Adrianâ, lapurre iza' nai zokela ta.

Barriolak iru ogi ekartzea biali zôn Zeamâ.

Motikoa ogi' pê 'tor tzikon, dirui' pê Zeaman ogik etzuela ematen da.

Urrêngo eunên motikôï Barriolak esa' mentzion:

– Goazeak Zeamâ, ogie ekar bear diau.

Erria allautakôn denda 'aten sartu zien. Dendarik ogik etziên eman, diruik etzeukên da.

Etxaolâ allau zienên, Barriolak iru ogi etâ zitûn kapusaiên azpiti, iñor akordau bê dendariri arrapau zionak.

Motikôï esa mentzion:

– Ikustêk iru ogi nola ekar dituân nik dirui' pê?

Ik lapurre izateko eztek balio ta jûn âi emendi, ikâs tzak beste ofizio 'at.»<sup>8</sup>

### 13.5. Barriola (4)

«Joan txiki Goienezk, Arabako Salbatierran tzeuken etxenausie ta eun batên autza zijôn errentea pâtzea. (Garai âtan Ladrón de Zegama Salbatierran bizi zan).

Eun jakiñe izaten tzan errentâk pâtzekoa.

Joan txiki Salbatierrâ errenta–durûkin nausîña zijôla, San Adriango tabernân sartu da jokûn errenta dirûk galdu zitûn.

Joan txikik nausîña jûn da esplikau mentzion pasaizo.

Nausie asarrâu mentzan da demandân asi mentzikon: Olakôik etzala ein bear, ori al tzan familliko guraso 'aten formalidadea ta beste milla konsideraziôn ondon, berâi errentea pâtzeko, nundi etâ behar tzôn dirue, galdetu mentzion.

Joan txikik beste amabost eun barru errentea pâku ziola aindu mentzion nausîri, ala beintzet, promes ori ein da Zeamâ etôr mentzan gue gizona.

Amabost eun barru, jokûn beiz ê dirue irâzi ta Joan txiki errentea pâtzea zijôn Sabatierrâ. San Adrian azpiko metaliturrîñ ure eraten ai zala, kaltzipurditf eldu ta airen jaso men tzôn Barriolak:

– A' 'men gue Joan txiki; Zer dâllek emen? Galdetu mentzion.

Errenta dirue nausîri eamatea zijôla. Aurrekôn nausîri eaman bearreko dirue jokûn galdu zôla ta...

Barriolak dirue eskau zion, Joan txikik poltxikoti etâ bê ontza–urrea ta eman beste erremedioik etzôn izan.

Barriolak gerrikôn gorde zôn Joan txikiñ ontzakoa.

Aratz gañea eaman tzôn, an tzion Barriolan koadrilla.

Batzûk armak garbitzen ai zien, besta 'atzuk lapikok egosten da irakiñ aldik lapikôn tapea jasotzen tzuenen, umeân atzaparrak ikus tzitun lapikôn egosten Joan txikik.<sup>9</sup>

Joan txiki ondo tratatzeko eskau zion koadrillei Barriolak.

Urrengo goizen Barriolak Joan txikiri esan tzion:

– Jûn ai Zeama aldea ta biden iñor ikusten bêk, esâiok emen ez tiala iñor ikusi.

– To, esanez, aurreko eunên kendu zion ontzakoa eman tzion da beste ontzako 'at gañea.

<sup>8</sup> Migel Urbizuri 1980–3–8an jaso.

<sup>9</sup> Zegaman umeen eskuak ijitoek lapikoan egoste zituztela sarri entzun ohi genuen haurtzaroan.

Joan txiki korrikan abiau zan Arazti kueba aldea ta laister billau zôn Zeamâ aldeti zetorren jendea, mandok kargauta zetotzen.

Ia iñor ikus tzôn galdetu zion Joan txikiri jende onek, erregen dirûkin zetotzen nunbait.

Joan txikik ezetz, etzôla iñor ikusi.

Mandazaiek kueba pasau bezîñ laister, tirôk asi mentzîen baño orduako Joan txiki urruti zan.»<sup>10</sup>



Roman Otaegi.



Jose Mari Zabaleta.

### 13.6. Barriola (5)

«Barriola San Adriango Portu gañên ibiltzen tzan ikazkintzan.

Gipuzkoati Arabâ zêllen jendek, San Adriango kueban tzion kantinan dirue jokatzete mentzon.

Jende asko errenta dirûk galdu ta errentak pau bê geatzen tzan.

Barriolak arbolatân izkutauta jartzen tzitûn gizonak, kaltzaden ingurûn.

Jendea zetorrenên, danba ta gañea salto eiten tzien.

Batzuai dirue kendu, etzeukenai eman da ola ibiltze mentzan.

Artzaiari ardîk o arkumak ê arrapatze tzien.

Bein, Asurmendi–Muñoko amona txikie jatekoa eiten ai zala, Barriola San Adriana zijon da andi pasatzea suertau zan.

Amona txikiik labeti etâ opea 'at ta pusketa 'at eskeñi zion Barriolai.

Ontan izketan asi zien.

– Amona, ze berri do?

<sup>10</sup> Joxe Mari Zabaletari 1975–8–4an jaso.

– Ze berri dôn esaten diezu? Jende guztie or dâlle, Barriola gora ta Barriola bêra, bati dirue kendu diola, besteie ardie arrapau diola, ô'tie emengo kontûk.

Amona txiki ori labên tzeren ogiai bueltea ematen asi zan, ogik oaindio alde 'at erreeta ta bestea oretan tzeukên.

– Nik, esan tzôn, gizon ori al banoke, ogi au bezelaxe labên sartuko noke.

– Zuri kalte aundik ein al dizu? Galdetu zion Barriolak.

– Nei ez baño beste askoi bai.

Ordûn Barriolak oretan labên tzion ogi 'at artu ta andrei gonak jaso ta ipurdiko erretenen ipin tzion. Ak garraxik!

– Urrengôn Barriolakati kontuz itz ein, Barriola ni naiz.

Ala izkuta mentzan gizona.

Bide asko zaitzen tzitun Barriolak, San Adrian, Zoazarreta, ta beste asko.

Zaldi gañên tzijonai arbolati lazoa botatze mentzion.

Ala urkatze mentzon jendea.»<sup>11</sup>

### 13.7. Barriola (6)

«Barriola izeneko ikazkiñ bat San Adrianen bizitzen tzan bê koadrillekiñ.

Lapurretan ê motille izan bear tzon.

Zeukenai kendu ta etzeukenai emate mentzion.

Ikazkintzea bukatzen tzônen, Arabâ jatxi ta an etxe 'aten apopillo eoten tzan.

Bein, ikazkiñe menditi jatxi zanên, ama-alabak nearrez tzeren.

– Zer dezue? Galdetu zien.

– Nausie etor tzaku erreeta billa ta diruik eztaukû.

– Zemait 'a dirue?

– Ainbeste.

Barriolak eman tzien diru ori. Nun da noiz nausiri pau bear tzien galdetu zien da gauen alako lekutan, kontestau zien. Barriola, ama-alabak nausîri erretea

pau bear tzien lekua, ô' paño lênao allau zan, txorizugarri 'at tzion bertan.

Barriolak txorizugarri trabukoa jarri zion eskutan, bera izkuta ein tzan.

Ama-alabak etor tzien da nausie re bai ta diru entregea asi zanen, baztar bateti oju ein tzôn Barriolak:

– Alto! Txorizugarrikin izketan ai balitz bezela, Moitzen bêk tiau.

Nausik, bildurrez lau gorriñ, Barriolai eman tzion dirûk.

Danak etxea bildu zienên, ama-alabak arrituta Barriolai ze gertau zan kontau mentzien».<sup>12</sup>

### 13.8. Barriola (7)

«Zeamako Artzak<sup>13</sup> Aixkoneta biali zôn bein Bitorira diru billa, garai artan gertuaneko bankue Bitorî' mentzan.

Aixkoneta au euzkikin etxeti irten da euzkikin etxea sartze mentzan, Bitorîti jûn etorrie ein da gero.

Arabako lanak ein da etxea zetorrela, San Adriango pason, Barriolan bildurrez, diru poltsea pago zulo 'aten gorde zôn.

<sup>11</sup> Jexux Mazkianani 1976–3–4an jaso.

<sup>12</sup> Jexux Mazkianani 1980–3–6an jaso.

<sup>13</sup> Artzatarrak Zegaman urte askoan bertako sendi bat izan ziren. Sendi honetakoren bat izaten zen sarritan herriko alkatea.

Ontan Barriolakin topo ein tzôn.  
 – Artzan enkargûn batekin ibîlko aiz? Galdetu zion.  
 – Ez motel, Arabâ jû' nauk txerri koxkor bat erostea, jokûn asi ta asi banauk asi, diru danak galdu zituat. Emen netorrek ez diru ta ez txerri.  
 – Bazekiat, esan tzion Barriolak, Artza nê kontra soldadûk bialtzeko dallêla, ba esaiok, nê koadrillekiñ jaixten banauk, eztola nei soldadûk bialtzen lanik izango. Besteî' pê izkutau mentzan ikazkiñe.  
 Aixkoneta, gorde zôn poltsea artu ta laixter mentzan Artzan etxên.  
 Artzak galdetu mentzion:  
 – Barriola ikusi al dek?  
 – Bai.  
 – Ordûn eztek diruik ekarko?  
 – Emen dirue, ta Aixkonetak poltsea mai gañea bota mentzion.  
 Eman mentzion Barriolan enkargue re, alegie, bê koadrillêkin etortzen bazan Zeamâ, etzola ari soldadûk bialtzen lanik izango.  
 Artzak esa mentzion Aixkonetai:  
 – Jungo al itzeke beiz San Adriana?  
 Aixkonetak baietz.  
 – Emaiok Barriolai milla erreal ôk eta esaiok ni enallêla ari soldadûk biali asmôtan.»  
 «Aizkenen beintzet, soldadûk etorri ta arrapau mentzuen Barriolan koadrillea. Bera laun batekin iges ein da gorde mentzan.  
 Barriolan laune, jan billa irten tzon baten, arrapau ein tzuen, da au beartuz Barriolan gordelekua soldadûk allau zien.  
 Bê launekiñ urkatuik izan behar tzuen gizajoa.  
 Zeukenai kendu ta etzeukenai ematen tzionan istorik ôla akâu mentzien.»<sup>14</sup>

### 13.9. Amiñagone

«Gau 'aten Amiñagoneko txakurre zaunkaka asi mentzan.  
 Atea zâldu zuenen, seme gaztêna, bê billa etor tzien bilaunekin jû' mentzan etxeti.  
 Urrengo eunen San Adriandi erregiñek pasau bear tzon.  
 Gau guztiñ, iru motillek erregiñei urrengo eunen bidea irtetzeko prantatzen aitu zien.  
 Santi Espirituti San Adriana dijon biden, trabukoa disparau ta erregiñei belarri 'at eaman mentzion tirok.  
 Laixter iru motil orik arrapau zituen, da, bat Artagosan, bestea Musasôn da irugarrena Murgi–zelaien urkau mentzituen.  
 Amiñagonekoa, Musasôkoa ta Mendaldekoa mentzien iru motil orik.  
 Arrazkio Zeamako Goialdên, txakurre zaunkaka asten danen, gaue bâ, atetik eztala zâldu bear esaten da.»<sup>15</sup>

### 13.10. Landaetako zazpi anaiak

«Landatan zazpi anaie bizi mentzien da zein baño zein indartsûgôk zazpirek. San Adriandi zetotzen mandazaiari, Landâta pareâ allatzen tzienên, bidea irtetze mentzien motil ôk itai bana eskutan tzituela.

<sup>14</sup> Joxe Alustizari 1980–7–7an jasoa.

<sup>15</sup> Frantzisko Azurmendiri 1980–4–8an jasoa.

Mandoai lazok moztu, zâgik o gari zakûk besazpîñ artu ta etxea eamate mentzituén.

Mandazai bat, Landatako anaiekin burutu ezin da Mandabideti asi zan karreton, karteroan bideti.

Mandazaiek ala esa mentzon bein benta 'aten:

– Txakur onekin nik etzeukiat Landatako zazpi anaian bildurrik.

Zazpi anaiek au aitu zuenen esa mentzuen:

– Pauko 'ik oaindio.

Zazpi anaietan gazteanak, bera naikoa zala, esa mentzon mandazaiei bildurre sartzeko.

Iturzâla irten mentzion beso 'at ondo trapuz estalita zôla.

Mandazaiek Landâta ikus zôn orduko, txakurre axau ta gañea bota zion.

Txakurrek aua zâldu zônen, Landatak trapuz estalitako eskue sartu zion auan.

Txakurre zotinka asi zanên, kotxilloz il zôn.

Landatak esa mentzion mandazaiei:

– Txakurren aizkena nai ezpêk, Landatako anaiekin kontu izan geo.»<sup>16</sup>

### 13.11. Elizako San Martin

«Zeamako elizan dôn San Martiñek morroiak lapurretâ bialtze mentziton San Adriana. Bera re lapurre ta gaiztoa mentzan.

Jendea nola nai iltze mentzôn dirukati, baño zeukenai kendu ta etzeukenai ematen ê bamentzekiñ.

Zeamako parrokoa oso laune mentzôn. Gauen askotan San Martiñ parrokôn etxea kafea artzea jûte mentzan.

Eun batên parrokoa triste mentzion.

San Martiñek zer tzôn ba, ta parrokôk eantzu' mentzion:

– Erri guztie pekatu gorrîñ dalle, eliztar danak inpernua jûngo zat ta neu nola salbauko naiz.

– Ori konponduko deu gizona, esan tzion San Martiñek, ta kafea artu ta San Adriâna jûn tzan.

Urrengo eunen, jaien, goizen goiz San Martiñ parrokôn etxen presentau zan.

Zartain baten ikatza tontorka jarri ta su eman tzion.

“Inpernuko sue”, eskau zazu zuk tarteka sermoian da ikusko 'ezu jendea nola konbertitzen dan.

San Martiñ zartañe eskutan tzôla elizako ganbarâ jûn da zulo 'aten ondôn jarri zan.

Jendea poliki poliki Elizâ etor tzanen abadek mezea asi zôn.

Sermoikôn ala zion garraxika:

– Erri ontako jendea, danok inpernua zoazte, pekatari aundi 'atzûk besteik etzâte. Jangoikoa, bota jende oni inpernuko sue, zion karraxika.

Parrokôk inpernuko sue, deabrûn kalderak eta beste milla gauza aitau ondôn, beiz ê beiz ê ala eite' mentzôn karraxi:

– Jangoikoa, bota jende oni inpernuko sue.

San Martiñek txingar danak bota zitûn zuloti.

Elizan jendea lau gorrîñ tzion.

Parrokôk beiz ê:

– Bota su geio jende gaizto oni.

San Martiñek ganbarati:

---

<sup>16</sup> Doroteo Otaegiri 1980–8–7an jasoa.



– Jaune, nê sùk gastau die.  
Jendea orduntxe lasaitu mentzan.»<sup>17</sup>

«Sa' Martiñek aizkeneko eunetan Jangoikokiñ ê pakêk ei'nai izan tzitun.  
Elizea aunditzeko dirue berak ema'mentzon.  
Zeukenai kendu ta etzeukenai eman, Elizako San Martiñek eite mentzon.  
Orreati Zeamako patroï ein zuen da, gero Elizako atalburun jarri zuen.  
Eliza dana ez mentzon eiñ, erdi pareti aureakoa bakarrik».

Ipuin subrealista honek tradizio asko elkartzen ditu.

- 1) Ladrón de Zegamak Martin zuen izena eta elizaren lehen zatia egin zuen.
- 2) Ladrón de Zegamak apaiz bat hil zuen Santi Espiritun. Hiltzaile sona hortik datorkio.
- 3) San Martin eta Ladrón de Zegama nahasten ditu.
- 4) Ipuinaren ardatza herri gehiagotan konta ohi dena da.

### 13.12. Euzkitzeko Joane

«Gue atte zanak Joane zôn izena, karlistan gerraten ibil tzan Euzkitzen<sup>18</sup> asistente. Ba mentzon beste laun bat ê Tolosa ingurukoa.

Gerra ondôn zeozer ein bear da Somorrostroko minatan tolosar onek eta bik lana eiñ mentzuen.

Txanpon batzûk irâzi zitunên, gue atte Euzkitzen jarri zan ezkondata.

Eun batên, Arabati zetorrela, San Adriango portûn lapur batek irten tzion bidea.

– Emaiêk dirûk, esa mentzion lapurrek... Kontxo, jarri aiemen, motel, i alako aiz, lapurrek gue atte ezautu zônen.

– Emen nêllek, gue attek, ezkondu nitzean da familie azitzen ai nauk nola o ala.

Lapurrek, Somorrostron lan eitek etzola mêzi ta Sandratîñ lapurretan tzellela, emen dirue minatan baño errezago irazten tzala ta olako kontûk.

Pañuelokara 'at ontzako urre etâ mentzôn poltsikoti.

– Ik ê artu zak zeozer esa mentzion.

Gue attek artu nai ez.

Ontzako 'at ema' mentzion da Urkiola<sup>19</sup> alden izkutau mentzan.

Laun aren berrik geio ez mentzôn jakiñ.

Amaika aldiz esan izan izan tzôn, ontzako arekintxe nola erosi zon lêngengo idi-  
parea.»

Gertakizun honetan garbi dagoena zera da: iragan mendearen azkenetan San Adrianen lapurrek bazirautela artean.

### 13.13. Ipuin idatziak. Erdaraz

Jadanik ikusiak ditugu Zegamako ahozko literaturan gorde diren zenbait lapur ipuin.

Herriaren oroitza, gauza guztiak bezala, mugatua denez, mendi bakarti eta eremu eder hauetan ziur nago ezagunak zaizkigunak baino lapur gehiago ibili zirela.

<sup>17</sup> Joxe Mari Arakamari 1975–8–4an jasoa.

<sup>18</sup> Euzkitze: Eguzkitze berriko mutil baten izena zen. Gaztelako trozoetan gaztetatik lanean ibilia, erdaraz eta idazten bazekien, karlisten gudatean ofizial egin zuten eta besteko (Eguzkitze zaharreko) mutil laguna bere laguntzail egin zuen, nobait.

<sup>19</sup> Urkiola: Portu gainetik eskubira dagoen mendi baten izena.

Lehen aldiz paperean ageri zaigun San Adriango lapurrei buruzko ageria 1450ekoa da.

Urte horretan, abenduaren 19an, Partzoneriako partaideak San Adriango haizuloan bildu ziren eta lapurren aurkako erabaki gogorrek hartu zituzten bertan.

Jarraian, historiak gorde dizkigun lau lapurreta. Gehiago ere egon litezke han hemenka artxiboetako hautsetan.

### *Sandailia*

«Solían acoger los Lacayos de todo el Bascuence a Oñate, a Sancho García de Garibay, y estos, en el puerto de San Adrián, pidieron a un arriero de Hernani, que se decía Juan Zaar, que les hiciese cortesía (=les diese para beber). Y como no les daba le quitaron de su dinero, y después se quejó al Corregidor y a toda la Provincia, los cuales enviaron al Merino maior con mucha gente a Oñate. Y algunos avisaron a Sancho García y sus lacayos, los cuales huyeron a la cueva de Santa Iliia, y allí los cercaron: y esta cueva tiene una puerta quasi media legua de distancia y por allí les proveían de todo lo necesario sus amigos con un criado que sellamaba Zalagarda, y se compuso entonces este cantar:

Ala Zalagarda  
Zalagarda mala  
Zalagarda gaisto  
Oñaztarra oondako.  
Ardao zuri, ardao Madrigalga.  
Ardao zuria Mendoza gana doa,  
Alabana Sandayli gogoa.  
Zalagarda Sandaylira doa.

Este Mendoza era Merino mayor; y el vino que para él iba, cogieron en el camino y se lo llevaron a los cercados de Santa Iliia. Toda la Hermandad los tuvo cercados algunos días, y al cabo, como no se querían rendir, ataparon la torre de torresnos de tocinos gordos y asaron, pensando que aquella manteca y grasa les abrasaran, pero bien seguros estaban. Al fin les dejaron, y entonces se compuso este cantar;

Sanda Iliac atrac ditu zizarrez  
Nola zizarrez da ala zendalez  
Hermandadea arcandoa negarrez  
Anso Garcia é gasteluori emunez  
Ec envinda estiquicha esan ez.  
Lascavarroen y esatako lastorra  
Lascavarro costatuan onela  
Gavaz ere urtunica obela  
Argi izarrok ditugula candela  
Ostatuan guera diro igu emenda.»

(Luis Michelena.—Textos Arcaicos Vascos— 92–93 or.)

### *Un correo real*

«El día 20 de Agosto de 1717, D. Lorenzo de Uribarri, Correo de S. M. había atravesado el Puerto de San Adrián y bajaba hacia Cegama. Venía de la Corte de

Madrid con la valija de S. M. y se dirigía para la ciudad de Bayona. Le salieron tres hombres: el uno con pistola y descubierta la cara; y los otros dos con escopetas y cubiertas las caras, el uno con un pañuelo de lienzo blanco, y el otro con pañuelo de color tabaco. Después que vio al primero, quiso apearse con ánimo de defenderse, pero uno de los enmascarados le descargó un golpe terrible que le echó en tierra. Le ataron manos y pies y le cubrieron la cabeza con la casaca que traía. Y le registraron calzones y toda la ropa y faldriqueras, y le quitaron 21 doblones de plata de todo género. Y después le ordenaron bajo graves amenazas que no se moviese durante una hora, y que, por si las moscas, guardó fielmente lo mandado. Y luego encontró ambas valijas en tierra, y la menor cortadas las correas, de donde llevaron una caja en que llevaba agua en ella para la Reina Viuda, de dicha ciudad de Bayona, y que reparó en el ínterin que estuvo echado, que luego que agarraron dicha caja, dijo uno de ellos a los otros, que marchasen porque allí estaba, lo que habían menester, hablando castellano cerrado.»

(AHPO. Azp. 1538, fol. 32)

### *El correo del obispo de Reims, embajador extraordinario*

«El día 6 de Enero de 1748, Francisco Muñoz, “Correo del Ilustrísimo y Rdmo. Sr. Obispo de Reims, Embajador Extraordinario del Reino de Francia” declaró a Francisco de Arza, Alcalde de Cegama, que habiendo llegado a media noche a Galarreta, donde se hallaba la última posta de Alava, procedente de la Corte de Madrid y para continuar a la Corte de Francia, tomó en este pueblo de compañía a dos hombres, a una con el postillón, todos armados, llamados Francisco Lopez de Guereñu, Miguel Sáez de Araoz y Francisco Martinez de Alegría y salieron hacia el Puerto de San Adrián; que antes de llegar a este punto, les salieron dos ladrones “metiendo entre ambos una bulla que parecían eran más de diez”; que uno de los ladrones con un palo iba a sacudir al postillón, y al mismo tiempo uno de los acompañantes, Francisco Martinez de Alegría, con toda rapidez le tomó el golpe con su escopeta, y en este tiempo el otro compañero le disparó, y “aunque prendió en la ‘casoleta’ (cebo), no penetró el fuego en el cañón”. Los tres abalanzaron sobre el agresor y pudieron quitarle el palo y después de haber luchado con él un buen rato, le mataron a palos y con los cañones y “culatas” de sus escopetas. Durante la refriega el otro ladrón agarró a las bridas del caballo del Correo y le tiró para abajo. Este “le disparó al mismo tiempo dos pistolas que llevaba; ninguna de ellas le prendió”. El segundo ladrón aprovechó la ineficacia de las pistolas del Correo para darle un garrotazo y envolverle con el manto, incapacitándole para toda defensa. Temiendo por la vida, le pidió con lágrimas que no le matase, pues ya le entregaría todo el dinero que tenía. Sacó dos bolsas que llevaba y se las dió, la una con 20 dobloncillos de a 20 reales y la otra con 12 escudos de plata de 20 reales. Declaró el Correo que después que le quitaron los dineros, que se alejó el ladrón, sin duda (añade), oyó algo de lo que decían en vascuence los hombres y el postillón sobre el primer ladrón muerto.»

(AHPO. 1545, fol. 1 y 15.)

### *El carnicero de Cegama*

«El día 5 de Diciembre de 1768, Martín de Ugarte, abastecedor de carne de Cegama, había salido de Galarreta por el camino Real de San Adrián con su caballo,

cargado de 8 arrobas de sebo y vestido, sin duda, con las mejores prendas que poseía. Antes de llegar a San Adrián vió a dos hombres, de unos 35 años, el uno alto, con una marca debajo del ojo izquierdo, y el otro regordete. A la pregunta, que gente tenemos? Ambos respondieron: “Gente de paz”. Pero apenas habían pronunciado sus palabras se abalanzaron sobre él. El uno le cogió el puño y le colocó sobre el pecho un puñal, con la amenaza de matarle, mientras que el otro sostenía el caballo. Temeroso el carnicero, entregó todo el dinero que llevaba, que eran 42 pesos, incluso “los cuartillos de calderilla”. Luego lo maniataron y vueltas las manos por la espalda bien ligadas, le desviaron del camino. En tanto que el uno le registraba las coas que llevaba, el otro le desnudó de los vestidos: de camisas de lienzo de Tarazona, con broches de plata valenciana, de paño de Chinchón, con botones de seda; zapatos con hebillas de plata con tres onzas de peso, etc., etc. Y al mismo tiempo el ladrón se vestía con todas las prendas que le arrebatava, colocándole a él los vestidos ajados que traía. Y luego le derribaron, vueltas las manos atadas y ligadas hacia atrás, y le ataron el pie izquierdo a las manos, tirándole con mucha fuerza, tapándole la cara con una capa. Y se despidieron amablemente con el saludo: “Agur paisano.” “Aqui le dejamos el caballo para que mañana pueda ir a casa. Pero el agredido no vio más el caballo”.»

(AHPO. Azp. 1550, fol. 119)

## ERANSKINAK

### 14. KRISTAUTASUNA NOIZ SARTU ZEN GURE HERRIAN?

#### Ezagunak zaizkigun dokumentuak

Ez dakit gaia zaila delako ala gure artean gibel–asmo asko egon direlako, arazo honi buruz gauza gehiegi esan dira; euskaldunen kristautzeari buruz aipatu ohi diren testu denak jarraian ematera noa, irakurleak bere iritzia izan dezan.

Erromako inperioa desegin zenetik XI. gizaldira dihoan aro luzean ez dira gehiegi aitatu kondairan gure herriaren bizitza edo ohiturak. Gure inguruan bizi zirenen eskutik datozkigu berri hauek, sarritan gure etsaien ahotik.

Aipamenak, denera, ez dira ugariak.

Frankoen eta godoen kronikak alde batera utziz, hona eginak zaizkigun aipamenik nagusienak:

1) Venancio Fortunato, Poitiersko Apezpikuaren hitzak 580. urtean: «Chilperico erregea euskaldunak gogor zigortzera bultzatzen du, Galiako lurak erre eta bertako jendeak hil ez ditzaten».<sup>1</sup>

Gure herriaren erlijiorik ez du aipatzen Gotzai honek.

2) Tourseko San Gregorio apezpikuaren hitzak 587 urtean: «Euskaldunak beren mendietatik jaitsiz, abaila bizian sartzen ziren erribeheretako lautadetara, mahastiak, soroak eta etxeak erre eta kiskaliz, ganaduak eta jendeak bahituz. Beste zenbait kexa ere eman zituen San Gregoriok euskaldunak zirela eta ez zirela.»<sup>2</sup>

Euskaldunen erlijiorik ez zuen aipatu.

3) Toledoko III. Kontzilioa 589 urtean: «Gotzaiek eta epaileek elkarturik, idoloak hautsi ditzatela, eta nagusiek debeka diezaietela morroiei idolatria.»<sup>3</sup>

4) Toledoko XII. Kontzilioa 681 urtean: «... ohar arazi nahi genukeena; idoloen gurtzaileak, harriak ohoretu, zuziak biztu, eta iturriak eta zuhaitzak adoratzen dituztenak, betiko galtzera doazela deabruen adiskide izaki.»<sup>4</sup>

5) Toledoko XVI. Kontzilioa 693 urtean: «Gezurak bultzaturik, sasijainkoen gurtzaile bihurtzen dira, harrien ohoratzaile, zuzien biztzaile, leku sagara-

---

<sup>1</sup> AZURMENDI, J., *Españolok eta Euskaldunak*, (Elkar, 1992) 91 orr.

<sup>2</sup> *Idem.*, *op. cit.*, 99 orr.

<sup>3</sup> VIVES, J., *Concilios Visigóticos e Hispano-Romanos*. (Barcelona Madrid) 129 orr.

<sup>4</sup> *Op. cit.*, 398–399 orr.

tuei, iturriei eta zuhaitzei gur egiten diete, enkantamenduak eta beste mila gauza egin ohi dituzte.»<sup>5</sup>

Iruñeko gotzain Liliolus, kondaian ezagutzen dugun lehen gotzain nafarra ere bertan zen. Kontzilio hauetan garbi dakusaguna zera da: 700. urtean Espainian bazeudela oraindik kristau ez ziren jendeak. Albiste hau oso berri garrantzitsua zaigu. Mundu guztiak Espainia erromatarren aroan kristautu zela uste baitu. Hori ez da egia eta gutxiago ere.

Garai haietan hegazti–aztitza eta paganismoaren zutarrak Europa denean oso zabaldurik zeuden. Espainian eta Euskadin berdin.

Kontzilio honetatik ez dago euskaldunen egoera erlijiosorik ezagutzerik.

6) San Amando. Nantes ondoko herrirka batean jaio zen 594ko maiatzaren 7an. Akitaniako kondeen semea zen. Etxetik ihes egin eta monastegi batera joan zen bizitzera. 34 urte zituela, Erromara joan etorri bat egin eta berriro beretarrenganatu zenean, Klotario erregearen gorteko gotzain aukeratu zuten. Danubio pasa eta eslaviarren lurretan sartu eta hauei kristautasunaren berri ematen jardun zuen luzaroan. Dagobertoren gortera joan zen berriro eslaviarren lurretatik. Euskaldunak oraindik kristauak ez zirela entzutean, hauei Berri Ona erakustera etorri omen zen.

«...Antzina Vacceia eta orain mundu guztiak Wasconia deritzon herri baten berri jakin zuen San Amandok. Hutsegite guztien mende, aztikeria eta gezur guztiei emanak, eta gainera bertako jendeek sasijainkoak gurtzen zituzten egiazko Jainkoaren lekuan. Herri hau, Pirineotako basoetan sakabanaturik bizi zen, oso leku zakar eta hurbilgaitzetan, eta gudarako abilak izateaz harro bizi ziren euren ustez, frankoen lurren jabe izatera ere sarri iristen baitziren. Jaungoikozko gizon San Amando, jende honen okerkuntzaz errukiturik, lanean hasi zen deabruaren mendetik atera eta egiazko Jainko hitzak eta osasunezko Berri Ona haiei erakutsi nahian. Entzuleetako batek irrifartsu zutitu eta harro–harro, farregarritzko hitzak esan zizkion Kristoren serbitzariari, erakusten ari zen Berri ona ezerezttat joz.

Une berean, deabruaren indarrak jota, bere eskuekin gizagaxoa bere burua zauritzen hasi zen eta denen aurrean beharturik aitortu zuen Jaungoikoaren morroiari egin zizkion irainengatik jaso zuela zigor hura eta oinaze gorrien artean hil zen.»<sup>6</sup>

Kritikoen artean jakintsuenek ez dute zati honen jatortasunik onartzen. Amandoren bizitza idatzi zuen frailea ez omen zen honen ikasle Baudemundo. Dirudenez, Amando ezagutu ere ez zuenetako bat zen, noski, idazle hau. E. Moreauk, Belgikako seme eta Amandoren biografia 1927an errebisatu zuenak hara zer dioen. «Que ciertamente no es la Vita Amandi a la que el historiador debe acudir para conocer con precisión el estado religioso de los pueblos que habitan las vertientes de los Pirineos en el siglo VIII.»<sup>7</sup>

Biografia hau Amando hil eta ehun bat urtera idatzia omen da.

Pirineoetan aipatzen duen giroa ez omen zen garai hartakoa.

Idazleak erabili zuen latina VIII. mendekoa omen da, Amando VII.ekoa izaki.

7) Tajon, Zaragozako apezpikuaren testua.

<sup>5</sup> *Op. cit.*, 448–450 orr.

<sup>6</sup> CRUSCII, L., *Vita Amandi Episcopi. I*, c. 20. *Monumenta Germaniae Historica. Scripturarum rerum Mervingarum*, V, 433–444.

<sup>7</sup> MAÑARICUA, A., *La Cristianización del País Vasco*, (San Sebastián, 1978) 57 orr.

Rezesvinto errege zela (653), euskaldunek, Froia buruzagi zutela, Zaragoza hartu eta desegin zuten, itxuraz. Gertakizun haren berri Tajon, bertako gotzainak Bartzelonako Kiriko gotzain jaunari eginiko eskutitzean dakusagu:

«Perfectamente conoce Vuestra Beatitud aquel tiempo en que la serpiente tortuosa, con su boca pestífera, esparció en ciertas gentes la virulenta cizaña de sus semillas y con fraudulento engaño desvió del recto camino el paso de mentes perdidas, en el cual tiempo cierto hombre pestífero y no de sana mente, Froya, alzándose tirano y tomados perversos autores de su crimen, pretendiendo fraudulentas grandezas, levantóse con soberbio esfuerzo contra el ortodoxo y gran siervo de Dios, Recesvinto, el rey goda, para someter a la cristiana patria: y así con motivo de su crimen, la fiera gente de los vascones sale de los montes Pirineos, se enriquece esquilmando la patria Ibera con diversas devastaciones. Ay! Cuán grande dolor! La grandeza de la calamidad impide el cuidado en el decir, pero no obstante hemos de venir a lo que ni a decir se atreve uno. La sangre inocente de multitud de cristianos es derramada, unos son heridos en el cuello, otros con armas arrojadas, muchos más con dardos. Llevaba una multitud de cautivos y robado inmensos despojos; en los templos de Dios se hace nefasta guerra, los altares sagrados son destruidos, muchos clérigos pasados a cuchillo y los cadáveres de multitud de víctimas, abandonados a los perros y a las aves de tal modo que no parece gratuita la aplicación a aquella calamidad del comienzo del salmo 78.»<sup>8</sup>

Euskaldunek Tajonek idatzi zuen guztia hau da.

8) Asturiasko Alfontso II.aren denboran, Cordobako mairuek bi armada bidali zituzten errege honi, bat Galiziatik ekingo ziona eta bestea Arabako lurretatik. Ubayd Allah euskaldunen lurretan oso barruraino sartu zen: Arabako lautadetara iritsi zela dirudi.

Ubayd Allah 825. urtean «Yabal-al-Mayusera» iritsi zen mairuen armada batekin: «Paganoen Mendira». Mayus edo Madjus Cordoban politeistek eman ohi zitzaizkien izena da.<sup>9</sup>

Politeistak edo idolatrak mairuentzat Hirutasuna eta Jaungoiko bakarra gurtzen dugun kristau oro gara.

Mairuek idolatra, gaur ere, kristauoi deitu ohi digute.

Yabal-al-Mayus, Paganoen Mendia, badirudi Araztik hasi eta beste aldeko Gorbeiarainoko mendi-soka dela.

9) Oliba, Vic eta Ripollgo gotzainak Antso Nagusiari, 1023an idatzitako gutun batean, bere mendekoak hegazti-aztikerian ibiltzea aurpegiratzen dio.<sup>10</sup>

10) Aymeric Picaudek, Codex Calistinus edo Konpostelarako lehenengo gidaren egileak, nafarrei eta euskaldunei buruz esanak ez ditut kontuan hartuko. Frantses arlote honek zutik egoteko moduko gezurrik esaten ere ez baitzuen asmatu.

11) Konpostelako Diego Galmirez lehengotzai sonatuak, 1119an Kalisto II.a Aita Santuaren gutun bat jaso zuen. Reimsko Kontziliarako deia zen. Galmirez jaunari, egia esan behar bada, teologiako arazoak baino beste arazo alaiagoak atseginago zitzaizkionez, Reimsera Oportoko Hugo gotzaina bidali zuen. Garai haietan, Euskal Herri dena Aragoarekin bat eginik zegoen. Hugo, Aragoako

<sup>8</sup> MAÑARICUA, A., *op. cit.*, 59 orr.

<sup>9</sup> SÁNCHEZ ALBORNOZ, C., *Vascos y Navarros en su primera historia*, (Madrid, 1976) 141 orr.

<sup>10</sup> AZKARATE, A., *Arqueología Cristiana*, (Vitoria-Gasteiz, 1988) 521 orr.

erregearen etsai amorratua zenez, Euskal Herritik zehar nolana igitzen ez zen ausartu. Lagun bat goardirako hartu, eskale jantziz larruak estali eta sartu zen gure lurrean, hemen gidari euskaldun bat hartu zuen eta Reimsen, oster, gotzai jantzirik azaldu omen zen.

Kontzilio ostean, Konpostelako Lehengotzaintza lortu eta gero, Baionan, oster, zomorro jantzi eta Gaztelako lurretan, gotzaien puntiladun arropak eta txarolezko zapatatxoak jantzi omen zituen.

Zomorro ibilera hau Aragoako Alfonsoren agentei ihes egitearren egin zuen Hugok.<sup>11</sup>

Hauetxek dira, irakurle, testu sonatu eta trinkoak, testu hauek direla eta, ia gotikoraino atzeratzen dute gure edeslari askok Euskalerrriaren kristautzea.

Nere gaiak puntu honekin zer ikusirik badu. Gipuzkoako lehen kristau elizaz hitzegin dut. Ahalegindu naiz frogaketa ahal den garbiena izan dadin.

## 15. SAN ADRIANEN AURKITU ZIREN TXANPONAK

1964ko udan, Gasteizko Iradier taldeak haitzulo zaharrari azterketa sakon bat egin zion. Zuloak eta bazterrak ondo miatu ondoren, ezkerreko haitzuloko koska eta zirriztuetan moneta sail bat aurkitu zuten. Gizaldiak zehar ezkutu haietan diruak utzi zituztenek arrazoi erlijiosoak zituzten, noski, ekintza honetarako. Gaur ere pasoa doan jendeak ermitan dirua botatzen baitu.

Domingo Fernandez Medrano zen Iradier taldeko arkeologi zuzendari garai hartan. Ikerketa bere gain hartu zuen.

Hona jarraian haitzulooan zeuden diruak eta beste zenbait eratako gauzak:

Denera, 142 txanpon aurkitu ziren:

Gaztela-Leongoak. Alfontso VI.aren garaikoak (1073–1109): bat bakarra.  
Aragoako Antso Ramirezen garaikoak (1063–1904): bat bakarra.  
Aragoako eta Gaztelako Alfontso I.aren garaikoak (1109–1126): 54 txanpon.  
Leongo Alfontso IX.aren garaikoak (1188–1230): bat bakarra.  
Gaztelako Alfontso VIII.aren garaikoak (1158–1214): 12 txanpon.  
Gaztela-Leongo Alfontso X.aren garaikoak (1252–1284): 30 txanpon.  
Gaztelako Antso IV.aren garaikoak (1284–1295): 2 txanpon.  
Gaztelako Fernando IV.aren garaikoak (1295–1312): 6 txanpon.  
Gaztelako Alfontso XI.aren garaikoak (1312–1350): 3 txanpon.  
Gaztelako Enrike II.aren garaikoak (1368–1379): bat bakarra.  
Gaztelako Joan I.aren garaikoak (1379–1390): bat bakarra.  
Gaztelako Enrike IV.aren garaikoak (1454–1474): bat bakarra.  
Espainiako Felipe II.aren garaikoak (1556–1598): bat bakarra.  
Espainiako Felipe IV.aren garaikoak (1621–1665): bat bakarra.  
Nafarroako Antso IV.aren garaikoak (1054–1076): 10 txanpon.  
Nafarroako Antso VII.aren garaikoak (1194–1234): 9 txanpon.  
Nafarroako Teobaldo II.aren garaikoak (1253–1270): 2 txanpon.  
Nafarroako Felipe III.aren garaikoak (1356–1357): 3 txanpon.  
Aragoako Antso Ramirezen garaikoak (1063–1094): bat bakarra.  
Aragoako Alfontso I.aren garaikoak (1104–1134): bat bakarra.

---

<sup>11</sup> MAÑARICUA, A., *Los vascos vistos en los momentos históricos*, (Bilbao, 1971) 282...orr.



Melgueil–Evêché de Maguelonno konterrikoak (XII–XIII): bi txanpon.

Miaketa hauetan Iradier taldeak beste zenbait gauza ere aurkitu ahal izan zituen San Adriango haitzuloan. Zazpi zentimetro lodieran zeukan lurra zulatu zuten.

Jarraian, aurkitu zituzten gauzak: 22 hebilla; 21 kobrezko edo brontzezkoak, 1 burnizkoa. 2 eratzun brontzezkoak. Jostorratz batzuk. Ezpata uhalen 9 hebila. 14 giltza, denak burnizkoak. Batzuk zatien faltan.(32)

Gauza hauek denak Gasteizko Museo Arkeologikoan ikus daitezke. Erromatarren gauzarik ez du inork aurkitu. Harritzekoa ere ez da; erromatarren aroan haitzuloan artzain eta ikazkinak beste inor ezin zitekeen bizi. Haitzuloa ez zegoen zabalik. Nork eta nola utziak ote dira arrasto hauek?



## BIBLIOGRAFIA

- AGUIRRE, A., *Estelas Discoidales de Guipúzcoa*, (Donostia, 1991) Aguraingo Artxiboa.-14. Folioa.
- AROCENA, F., *Revista Hidalguía*, (Madrid, 1955 nº 18)
- ALARCÓN, R., *A la sombra de los templarios*, (Madrid, 1994)
- AREILZA, J.M., El canal de los dos mares. *B.R.S.A.P.* VII (1945)
- ATIENZA, J., *La mística solar de los Templarios*, (Madrid, 1994)
- AYMERIK PICAUD, *Codex Calixtinus*, (Sahagún, 1989)
- AZKARATE, A., *Arqueología Cristiana*, (Vitoria-Gasteiz, 1988)
- AZKUE, R.M., *Cancionero Popular Vasco*, (Bilbao, 1968)
- AZURMENDI, J., *Espainolak eta Euskaldunak*, (Elkar, 1992)
- BARANDIARÁN, I., *Guipúzcoa en la Edad Antigua*, (San Sebastián, 1976)
- BARANDIARÁN, J.M., *Obras Completas, II alea*, (Bilbao, 1972)
- BARANDIARÁN, J.M., *Obras Completas, I alea*, (Bilbao, 1972)
- BELZUNZE, Charles, *La Histoire des Basques*, (Bayona, 1847)
- BERECIARTUA, J.M., *Los Templarios en Guipúzcoa, Vida Vasca*. 1956.
- CARO BAROJA, J., *Materiales para una Historia de la lengua Vasca en relación con la Latina*, (Salamanca, 1945)
- CARO BAROJA, J., *Los Vascos*, (Madrid, 1986)
- CAMPIÓN, A., Gacetillas de la Historia de Navarra, *RIEV.* Nº 5, 1911
- CANTERA, E., *Los judíos de la Diócesis de Calahorra en la Baja Edad Media*, (Logroño, 1987)
- CIROT, J., Per deuia Alavae, *Bulletin Hispanique*, 36 (1934)
- CRUSCH, J., *Vita Amandi Episcopi*, I, c. 20.  
*Dic. Geo. Hist. de la Real Academia de la Historia*, I. eta II. aleak.
- DÍEZ DE SALAZAR, L., *Ferrerías en Guipúzcoa*, (San Sebastián, 1983)  
*Donostiako Gotzaitegiko Artxiboa*. San Adriango paperak.
- ECHEVARRÍA, A., *La inscripción Funeraria de la época romana en la ermita de San Pedro de Zegama*, *Munibe* 40 (1988)
- ECHEGARAY, C., *Monografía Histórica de Villafranca de Guipúzcoa*, (Irun, 1908)  
*Enciclopedia Ilustrada del País Vasco*.-XXII alea.
- ESTRABÓN, *Geographica*, III. 4. 10 orr.  
*Fuero de los Ferrones (otorgado por) Sancho IV*, *Segurako Artxiboan*.
- GARCÍA VILLOSLADA, R., *Historia de la Iglesia*, Vol. II, (Madrid, 1963)
- GARCÍA, E., *Estudios de Arqueología Alavesa*.
- GARIBAY, E., *Los XL libros del Compendio...* (Amberes, 1571)

- GOROSABEL, P., *Dic. Hist. Geo. Des. de Guipúzcoa*, (Bilbao, 1972)  
*Historia Silense*, (Edit. Santos Coco) Madrid 1921.
- IPARRAGUIRRE, I., *Las Cinco Villas del Alto Goierri*, (San Sebastián, 1975)
- IRIGOIEN, TXO., *Eusko Folklore*. 1934.
- ISASTI, L., *Compendio Historial de Guipúzcoa*, (Bilbao, 1972)
- IVO A., *Un Puente sobre el Rio Drina*, (Premios Nobel, 1960)
- Iruñeko Gotzaintegiko Artxiboan*, C/78, nº 9.
- JIMÉNEZ DE RADA, R., *Historia de los Hechos de España*, (Madrid, 1989)
- LABAYEN, A.M., *Domenjon Andia*, (Bilbao, 1983)
- LABORDE, M., *Euskaldunak 2 Ferrerías*, (San Sebastián, 1979)
- LATXAGA, *Arkaitzetako Bisigotiko Baselizak Araban*, (Bilbao, 1976)
- LLANTELLAS, F., *Caminos Reales, Canales de Navegación y Riego en España*, (Santiago, 1815)
- LARRAMENDI, M., *Corografía de Guipúzcoa*, (San Sebastián, 1982)
- LASA, I., *Tejiendo Historia*, (San Sebastián, 1977)
- LASA, I., *Jáuregui el Guerrillero*, (Bilbao, 1973)
- LASA BAZTERRICA, M., *Eraskina*, Lekuona, M., *Idazlan Guztiak*, 5 Kondaira.
- LEKUONA, M., *Idazlan Guztiak*. 7. Kondaira, (Donostia, 1978)
- LEKUONA, M., *Idazlan Guztiak*. 2. *Eusko Etnografía*, (Donostia, 1978)
- LÓPEZ DE AYALA, P., *Crónicas*, (Barcelona, 1991)
- LIZASO, D., *Nobiliario de los Palácios, Casas Solariegas y Linajes Nobles de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*, (San Sebastián, 1901)
- Libro de la cofradía de San Bartolomé (anterior a 1500)*
- MUJICA, S., *Geografía del País Vasco-Navarro*, (Barcelona)
- MUTILOA POZA, J.M., *Roncesvalles en Guipúzcoa* (San Sebastián, 1976)
- MADOZ, P., *Dic. Geog. Est. Hist. Guipúzcoa*, (San Sebastián, 1991)
- MAÑARICUA, A., *Cristianización del País Vasco*, (San Sebastián, 1978)
- MARTÍNEZ, G., *Guipúzcoa en los Albóres de su Historia*, (San Sebastián, 1966)
- MONREAL JIMENO, L.A., *Eremitorios Rupestres Altomedievales*, (Bilbao, 1989)
- Oñatiko Protokoloak*, (4222, f.18) (4223, f.68) (1541, f.46) (1543, f.26) (1544, f.31) (1562, f.146)
- Patrimonio Ferroviario de Euzkadi*, (Eusko Jaurlaritzza, 1990)
- PÉREZ BUSTAMANTE, C., *Compendio de Historia de España*, (Madrid, 1952)
- PORTILLA, M., *Una Ruta Europea por Alava*, (Vitoria, 1991)
- SANTOYO, J.C., *Viajeros por Alava*, (Vitoria, 1972)
- SANTOYO, J.C., *De Crónicas y Tiempos Británicos*, (San Sebastián, 1974)
- SORALUCE, P.M., *Euskal-Erria XLIV*, 1891
- SÁNCHEZ ALBORNOZ, C., *Vascos y Navarros en su primera historia*, (Madrid, 1976)
- SANDERS, H., *Beati in Apocalipsim libri duodecim*, (Roma, 1930)
- SAN SEBASTIÁN, K., DEIA. Cuadernos de Historia  
*Seguruko Udal Artxiboan*. E-4-IV-1.24. E,4-III,I. A-4-I-I  
 SE, nº 2-S-III, L-3. D-4-I-I. E-2-III-3.  
*Simancaseko Artxiboan*, 1475-II, folio 195
- Taldeko lana, *Ferrerías en Legazpia*, (San Sebastián, 1980)
- TELLECHEA, I., *Anclas de Hernani*, (San Sebastián, 1977)
- TELLECHEA, I., *El Amable Venturino*, BRSVAP, XI (1955)
- Tolosako Probintziako Artxiboa*. G A O J D 1-21-1.
- UBIETO, A., *Introducción a la historia de España*, (Barcelona, 1970)

URZAINQUI, A., *Comunidad de montes en Guipúzcoa*, (San Sebastián, 1990)  
Urteko Segurako Udalaren Agiri bat.  
VIGIL, M., *Edad Antigua*, (Madrid, 1978)  
VIVES, J., *Concilios Visigóticos e Hispano-Romanos*, (Barcelona, 1963)  
YRIZAR, J., *BRSVAP*. X, 1947.  
*Zegamako Parrokiko Artxiboan*, Difuntos 2º, nº 84  
ZABALA, A.M.<sup>a</sup>, *Euskal Erria*, Octubre 1896.  
ZUNZUNEGUI, J.I., *Foiletoa*, (Donostia, 1807)



## XABIER AZURMENDI AGIRRE



Xabier Azurmendi Agirre, 1935eko azaroaren hogeita batean Zegaman jaio zen. Apaiz ikasketak Donostian 1961. urtean amaitu eta gero Erroman eta Valentzian ikasketa berriak egin zituen.

*Izatearen malura*, olerkia, 1971an argitaratua.

*Maiteno*, olerkia, 1974an.

*Jesus*, olerkia, 1976an.

*Santa Kruz apezaren bizitza*, 1986an.

*Aitzolen kazetaritza lanak*, 1987an.

*Orixeren argitaratu gabeko lanak*, 1994an.

*Klaudio Otaegiren olerkiak*, Patri Urkizurekin 1992an argitaratu zituen.

*Atzoko Zegama*. Inprimategian.

*Azken hau*, *San Adrian eta inguruaren kondairea*.

Euskaraldizkari eta egunkarietan sarri idatzi du.

Idazle askorekin kolaboratu izan duen gizona da.

# GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLAREN ARGITARAPENAK

## GERRIKO Liburu-Saila

1. *Astez Aste. Alfabetatzeko*  
Egileak: Testua: G.E.E.  
Azala: Joxe Mari Telleria  
Editorial PAX Argitaletxea. Lazkao, 1979
2. *Ahaide Nagusiak*  
Argazki Hitza. Ikus-entzunekoa  
Testugilea: J.A. Leunda  
Itzulpen eta osagarriak: G.E.E.  
Marrazkigilea: J.M. Telleria  
Eragilea: G.E.E. - Lazkao  
Inprimatzailea: Anaitasuna - Usurbil  
Argitaletxea: PAX - Lazkao
3. *Euskal Kanta Xorta*. 1981
4. *Euska Aditza. Alfabetatzeko*  
1982 G.E.E.  
Egileak: J.M. Aranburu, D. Amundarrain, P.J. Aranburu, M. Bidegain, A. Idiakez,  
M.A. Maiz.  
Gráficas Lizarra, S.A.
5. *Ixtorioa Moldatu-1. Eskolumeak txori-kabia bila*  
G.E.E. 1982
6. *Baserri zaharra*  
Baserri-tresnak. G.E.E.
7. *Goiherrin kalea euskaldundu-1*  
G.E.E. 1984
8. *Aditz Ariketak I. Indikatiboera. Euskalduntzeko*  
G.E.E. 1985. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Beneditarrak -Lazkao
9. *Aditz Ariketak II. Baldintzera, ahalmenera, menpekoak, beste batzu*  
G.E.E. 1986. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Aralar - Ordizia
10. *Esaldi konposatuak. Koordinatuak, menpekoak, beste batzu*  
G.E.E. 1987. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Aralar - Ordizia
11. *Deklinabide Ariketak*  
G.E.E. 1988. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Aralar - Ordizia
12. *Esamoldeak*  
G.E.E. 1989. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Aralar - Ordizia
13. *Hizkuntz Ordezkapenaren Nondik-Norakoak Goierrin*  
G.E.E. 1992. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Beneditarrak - Lazkao



## GERRIKO Ikerlan Sariketa

- I. *Basogintza Goierrin XVIII.-XX. Mendeetan, Harizti-Pagadi eta Sail Zuhazgabetuetatik Gaurko Pinudietara*. Sarriegi Etxezarreta, Mikel  
*Urbia-Oltzeko Artzantza*. Aizpuru Murua, Andoni  
*Artzantza Artzain Familia Batekin*. Galparsoro Sarriegi, Ainhoa  
G.E.E. 1990
- II. *Etnografiako ikerlan bat*. Arratibel Insausti, Nekane  
*Meatzaritza Goierrin (1850-1950): Aztarnak*. Herreras Moratinos, Beatriz eta Zaldúa Goena, Josune  
G.E.E./M.E. 1991
- III.3. *Juan Inazio Iztueta Etxeberria (1767-1845)*. Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiákez eta Iñaki Rezola  
G.E.E./M.E. 1992
- III.4. *Goierriko Biztanleria (1860-1986)*. Arkaitz Arruabarrena  
G.E.E./M.E. 1992
- IV.5. *Klaudio Otaegi (1836-1890)*. Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiákez eta Iñaki Rezola  
G.E.E./M.E./K.B. 1993
- IV.6. *Migrazio-mugimenduak Olaberrian*. Arkaitz Arruabarrena Goikoetxea
- V.7. *Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga (1740-1824) eta bere Cristau Doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera (1858)*. Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiákez eta Iñaki Rezola  
G.E.E./M.E./K.B. 1994
- V.8. *Sasieta Mankomunitatea. Zabortegi Kontrolatua*. Garai Arruabarrena  
G.E.E./M.E./K.B. 1994
- VI.9. *Ataungo euskara*. Joxe Migel Azurmendi  
G.E.E./M.E./K.B. 1996
- VI.10. *Karobiak Ataunen*. Nekane Urdangarin eta Leire Munduate  
G.E.E./M.E./K.B. 1996
- VI.11. *San Adrian eta inguruen kondaira*. Xabier Azurmendi.  
G.E.E./M.E./K.B. 1996

## 16. ANTOLATZAILEEN SARRERA:

### “Aitzin solasetik azken solasera”

Beti da poztekoa liburu bat argitaratzea, historiaren zati bat azaltzen baita bertan. Kasu honetan, Gerriko Ikerlan Sariketaren baitan argitaratutako liburuetan Goierri bailararen historiaren berri ematen da.

1989an hasi ginen deialdia egin, ikerlanak saritu eta liburuak argitaratzen eta 2001ean, jada, 13 liburukitan 16 ikerlanek ikusi dute argia.

Gaurko liburu hau, ordea, berezia da. Sariketako beste liburuak ez bezalakoa da hau. Beste liburuei gertatu ez zaien komeria gertatu zaio “San Adrian eta inguruen kondaira” ikerlanari: lehenengo argitalpenean argitaratutako 700 liburuak, 700 aleak agortu egin dira eta berrargitaratzea erabaki dugu.

Antolatzaileok berrargitarapen hau prestatzera animatu gaituzten arrazoiak bi dira gehien bat: alde batetik libururik gabe gelditutako jendearen eskea, estimazioa izan duenaren seinale, eta, bestetik, dirua. Beti gaude diruaren morrontzan, hala egon gara pezeta nagusi izan dugun garaian eta ez dugu uste euroak libreago egingo gaituenik... Baina liburu hau berrargitaratzeko askatasuna eman diguten erakundeak bi izan dira: Euskadiko Kutxa eta Zegamako Udala. Eskerrak bie!

Eta orain, garaia da sarrera honetan liburu honen egilea aipatzeko: Xabier Azurmendi Agirre jauna. Poza eta tristura, biak sentitzen ditugu beragatik. Poza, berea delako lehen edizioa agortu eta bigarrenez argitaratutako liburuak. Pena, berriz, Xabier gure artean ez dugulako, ezin dizkiogulako zorionak berari zuzenean eman, ezin dugulako berarekin ospatu egun handi hau. Lehenengo edizioa kaleratzerako zendu zen, ikertzaile, idazle eta lagun izan genuena.

Badakigu jakin, zerbaitek pozik ematekotan, berak egindako lanak estimazio ona izan duela eta berriz ere edizio berri bat kaleratzeko “lana” hartu dugula jakiteak emango ziokeela. Beraz, bedi, zurea den liburu hau, zuretzat omen eta oroigarri. Agur eta ohore, Xabier.

Egilearengandik gaira egin behar dugu orain jauzi: San Adrian eta inguruen kondaira ezagutarazteko liburuan aurkitzen ditugun datu batzuek ezagunak ditugu, gehiago edo gutxiago, goierritarrak eta mendizaleak garenok. Izan ere, nor ez da, Aizkorrikako edota Urbiarako aitzakian San Adriango harkaitz-zuloan barrena pasa? Benetan da misterioa zulo hori: lurrera begiratuz gero, Araba aldeko eta Gipuzkoako haizeek, nahasian, pilatutako orbel-pilak ikusten ditugu, badirudi edonongo errege-erreginak pasatzeko alfonbra prest dagoela beti... Zerura begirata, berriz, zeinen desberdina izan ohi den, askotan behintzat, zuloaren alde batetik begiratu ala bestetik begiratu! Batean laino eta bestean oskarbi, pausu batzuen gorabeheran hain desberdin azal ote daiteke zerua? Harrigarriko komeriak, askotan gertatzen direnak, leku santu horretan...

Xabierrek, nahastu zituen bazterrak, arakatu zituen mila liburu, egin zizkien ehunka galdera dozenaka laguni, astindu zuen telefonoa, egin zituen ibilaldiak... Guztia, zertarako?, San Adrian eta inguruetako “sekretuak” guri bistartzeko. Bere liburuari esker, lehen baino gehixeago ezagutzen dugu behintzat San Adrian ingurua eta ondorengoentzat ere hortxe dago altxorra.

Xabierrek argitaratzea nahi zuen bezala aurkeztu zigun ikerlana lehen argitalpenerako eta bigarren honetarako ere, bai testua eta bai argazkiak eta marrazkiak ere, bere horretan errespetatzea erabaki dugu eta halaxe ematen dizugu irakurle. Dena dela, bigarren edizioek eranskin osagarriak ere onartzen dituztenez, guk, arlo horretan edizio berria osatuta ematen dizugu. Alde batetik bi azken-solas (liburuaren bukaeran doazelako jarri diegu izen hori) daukazu irakurgai: antolatzaileon haxe bata eta Zegamako Udalarena bigarrena.

Argazkien oinak, berriz, idazlanean bertan lehenengo edizioan bezala utzi baditugu ere, ondorengo eranskinean osatuta ematen dizkizuegu. Jabetuak gara hitzak eta idatziak garrantzitsuak direla horrelako lan batean, baina irudiak eta argazkiak, osagarri soil baino gehiago direnez, ahal den osatuen ematea komeni delakoan gaude. Horregatik saiatu gara informazio osagarria biltzen. Eskertzeko lana egin du, benetan, arlo honetan, Zegamako Udaleko Kultur Teknikari den Edurne Albizuk. Eskerrik asko Edurne!

Eskerrik asko, baita ere, X. edizioan beka bihurtu dugun sariketa honetan gurekin lanean ari den, eta Zuzendari Zientifiko dugun, Joxemartin Apalategi Begiristain, antropologo eta irakasleari. Mila esker eten gabeko laguntzarengatik.

Eta, besterik gabe, amaitzera goaz. Ea bigarren edizioak ere lehenengoak bezalako arrakasta izaten duen. Hala biz!

**Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte  
Maizpide Euskaltegia  
Lazkaoko Udala**

## 17. ZEGAMATIK

1996an argitaratu zen *San Adrian eta Inguruen Kondaira* liburua lehen aldiz, zoritxarrez berau argitaratuta ikusteko aukerarik izan ez bazuen ere bere egileak. Xabier Azurmendi zenak, “axaiñek”, Zegaman urte askotan, baserriz baserri eta etxez etxe, gure edadetuei bildutako aintzinako kontu eta kontakizunez osaturik dago eskuartean duzun altxor hau. Lehen argitalpenak izan zuen arrakasta ikaragarriaren ondorioz, eta liburu honen bila jende ugari zuzendu zaigunez, beharrezkoa ikusi dugu bigarren argitalpen bat egitea. Argitalpen berri honetan, zenbait zuzenketa egiteaz gain, lehenengoan falta ziren hainbat argazki erantsi eta berriemaileen izen abizen osoak jaso dira. Halaber, baserri izenak eta jaiotze datak ere jartzea garrantzitsua iruditu zaigu, batez ere gure ondorengo belaunaldiari informazio zehatzagoa eskaintzeko eta, nolabait, Xabier Azurmendiren izpirituairekin bat egiteko.

Azkenik, azpimarratu nahi nuke Xabier Azurmendik Zegama eta zegamarron alde egindako lan paregabea; batez ere kontutan hartzen badugu bestela galduta egongo zatekeen ohitura eta bizimodu ezberdinetako belaunaldien arteko komunikazioa, zorionez, gure kasuan bere lanaren bidez bermatua. Beraz, lerro hauen bidez eta zegamarron izenean, Xabier Azurmendiri eskerrak eman nahi nizkioke gure herriaren eta ama euskararen alde egindako ahalegin eta lanarengatik.

**Juan Inazio Galdos Larrea  
Zegamako Alkatea**

## 18. ARGAZKIEN ETA MARRAZKIEN OINAK OSATUTA

- Azalekoa eta 15. orrialdekoa: San Adrian, Mikelete etxea, erre aurretik. Don Alfontso Zabalak, orduko Zegamako parrokoak, 1893an atera eta urte bereko urrian “Euskal Erria” aldizkarian argitaratua.

- 5. orrialdekoa: XIX. Mendeko Segurako bista. Joxe Mari Telleria Lezetak 1985ean Lardizabal etxeko koadro bati ateratako argazkia.

- 16. orrialdekoa: Joxe Mari Arakama, Eguzkitze zaharra baserrikoa. Bere seme Agustinek 1972an ateratakoa.

- 20. orrialdekoa: Bär, Harri Urdingo meatzeko injineruak 1905ean ateratako argazkia. Oñatiko Joxe Mari Leturiak emana.

- 25. orrialdekoa: Galtzada berriaren argazkia. Jose Manuel Gilek 1995ean aterea.

- 34. orrialdekoa: Gipuzkoako bide zaharren mapa. Luis Mari Zalduak 1996an egina.

- 40. orrialdekoa: Galtzada zaharraren argazkia. Jose Manuel Gilek 1995ean aterea.

- 41. orrialdekoa: Haitzuloaren gaineko eskailerak. “Irutxetako Ama Birgiña” liburutik hartua. Don Wenzeslao Maiora, Arantzazu-1960, 99. orrialdea.

- 44. orrialdekoa: Galtzada zaharraren argazkia. Jose Manuel Gilek 1995ean aterea.

- 45. orrialdekoa: Jabier Arakama Arrizabalaga Xabier Azurmendi Agirreri galtzada zaharra erakusten. Jose Manuel Gilek 1995ean aterea.

- 49. orrialdekoa: San Adriango bi galtzaden mapa. Xabier Azurmendi Agirrek 1996an egina.

- 52. orrialdekoa: Fraileen bola-lekua. Santi Espirituko fraileek jolas egin ohi zuten lekua. Jose Manuel Gilek 1995ean aterea.

- 53. orrialdekoa: Erregearen zaldiaren perrazuloa. Karlos V.aren zaldia egina dela uste da Zegaman. Jose Manuel Gilek 1995ean ateratako argazkia.

- 56. orrialdekoa: Tenplarien eliza Santi Espiritun. Jose Manuel Gilek 1995ean ateratako argazkia.

- 57. orrialdea: Santi Espirituko Tenplario bat. Jose Martinek emana.

- 58. orrialdekoa: Tomasa Agirre Ormazabal, Xabier Azurmendi, liburuaren egilearen ama zena, etxeko argazki batean. 1904-12-28, Ikaitz errota baserria.

- 60. orrialdekoak: Doroteo Otaegi Arrieta. 1931-05-29, Telleri baserria. Doroteok berak egileari emandako argazkia.

Bernardino Azurmendi Berasategi. 1885-05-20, Amiano goena baserria. Etxekoek utzitako argazkia.

- 63. orrialdekoa: Jerusalemgo patriarken gurutzea. Atienza, J. “La mística solar de los Templarios”. Madrid, 1983, 28. orrialdea.

- 64. orrialdekoa: Carabacako gurutzea. Jose Martinek emandako argazkia.

- 65. orrialdekoa: Bagako gurutzea. Alarcón, R., "A la sombra de los Templarios". Madrid, 1994, 277. orrialdea.

- 66. orrialdekoa: Segoviako gurutzea. "La vera cruz". Santamaría, Juan Manuel. Segovia, 1979, 16. orrialdea.

- 68. orrialdekoak: Astorgako gurutzea. Astorgako elizan erositako postala. "Catedral de Astorga". Museo "Lignum Crucis" (XII. Mendea).

Murugarrenko gurutzea. Pili Etxeberriak 1966an ateratako argazkia.

Eunateko gurutzea. Pello Aranburuk 1995ean ateratako argazkia.

Aberingo gurutzea. Pello Aranburuk 1995ean ateratako argazkia.

- 69. orrialdekoa: Santi Espiritu. "Irutxetako Ama Birgiña" liburutik hartua. Don Wenzeslao Maiora. Arantzazu, 1960, 49. orrialdea.

- 76. orrialdekoa: Santi Espirituko gurutzea. Xabier Azurmendik 1996an ateratako argazkia.

- 83. orrialdekoa: Santi Espiritura amak hurrekin. Don Wenzeslao Maiora. Arantzazu, 1960, 87. orrialdea.

- Donato Arrizabalaga Arrieta (ikerlanean Donato Arrieta bezala agertzen bada ere, Donato Arrizabalaga Arrieta da). Artzain bertsolaria. Familiak utzitako argazkia.

- 85. orrialdekoa: Gesalbizkarko (Iruetxetako) ermita. Jose Manuel Gilek 1995ean ateratako argazkia.

- 86. orrialdekoa: Jexux Mazkiaran Sarasola (1905-12-27) eta Manuela Arana Larrea, senar-emazteak. Familiak utzitako argazkia.

- 88. orrialdekoa: Iruetxetako Andra Mari. Zegamako parrokiak ateratako postala.

- 92. orrialdekoak: Joxe Alustiza Berasategi (1915-12-24). Jose Maria Gilek 1995ean ateratako argazkia.

San Adriango haitzuloa. Jose Maria Gilek 1995ean ateratako argazkia.

- 94. orrialdekoa: San Adriango ermita. Ramon Agirrek ateratako argazki zaharra.

- 96. orrialdekoa: San Adriango gazteluaren planoak. Felipe II.aren arkitektoek egina. Arabako Probintzi Artxibotik hartua.

- 97. orrialdekoa: Don Inazio Gorrotxategi Alustiza (1907-07-30). Familiak utzitako argazkia.

- 106. orrialdekoa: Zeferino Alkain Alustiza (1894-03-09), Arantzelai baserria. Familiak utzitako argazkia.

- 109. orrialdekoa: Don Andres Oiarbide (1938-06-08), Altzibar baserria. Familiak utzitako argazkia.

- 113. orrialdekoa: 1565ean San Adriani egindako irudi grabatua. "Camino de San Adrián. La más antigua ruta de peregrinaje". 4. orrialdea.

- 118. orrialdekoa: Manuela Zabaleta Aseginolaza (1922-05-17), Iritxo baserria. Familiak utzitako argazkia.

- 121. orrialdekoak: Santa Julita, Jose Manuel Gilek 1995ean ateratako argazkia.

San Kiriko, Jose Manuel Gilek 1995ean ateratako argazkia.

- 123. orrialdekoa: Frantzisko Azurmendi Munduate (1903-10-09), Goizuetan jaioa. Xabier Azurmendi Agirre, liburuaren egilearen aita zena. Etxeko argazkia.

- 145. orrialdekoak: Roman Otaegi Arrieta (1925- 11-20), Telleri baserria. Jose Manuel Gilek 1995ean ateratako argazkia.

Joxe Mari Zabaleta Berasategi, Aizkoneta baserria. Familiak utzitako argazkia.

## 19. BERRIEMAILEEN ZERRENDA OSATUTA

Ikerlanean zehar aipatzen ez diren zenbait datu lortu ditugu eta informazio osatuagoa prestatzen saiatu gara. Bigarren edizioko eranskin honek liburu osoa osatuko al du!, lagunduko al dio ikertzen jarraitu nahi duen ikertzaileari. Hala bedi.

- Joxe Mari Arakama. Eguzkitze zaharra baserria. (16. or.)
- Jabier Arakama Arrizabalaga. 1938-06-08an jaioa. Eguzkitze zaharra baserria. (45. or.)
- Tomasa Agirre Ormazabal. 1904-12-28an jaioa. Ikaitz errota baserria. Xabier Azurmendi zenaren, liburuaren egilearen, ama zena. (58. or.)
- Joxe Migel Etxeberria (60. or.)
- Bernardino Azurmendi Berasategi. 1885-05-20an jaioa. Amiano goena baserria. (60. or.)
- Doroteo Otaegi Arrieta. 1931-05-29an jaioa. Telleri baserria. (69. or.)
- Nikolas Zabaleta Ariztimuño. 1909-02-03an jaioa. Altziturri azpikoa. (70. or.)
- Iñaki Arantzadi, Segurako apaiza (75. or.)
- Donato Arrizabalaga Arrieta, “Santi Espirituko artzain bertsolaria”. 1938-06-08an jaioa. Asemendi muño baserria. (84. or. Donato Arrieta bezala agertzen da argazkiaren oinean).
- Jexux Mazkieran Sarasola. 1905-12-27an jaioa. Iruetxeta baserria. Bere emaztea, Manuela Arana Larrea, segurarra. (86. or.)
- Joxe Alustiza Berasategi. 1915-12-24an jaioa. (92. or.)
- Don Inazio Gorrotxategi Alustiza. 1907-07-30ean jaioa. (97. or.)
- Zeferino Alkain Alustiza. 1894-03-09an jaioa. Arantzelai baserria. (106. or.)
- Felix Alkain Telleria. 1935-10-14an jaioa. Arantzelai baserria. (108. or.)
- Don Andres Oiarbide, herriko erretorea eta bertako semea. 1938-06-08an jaioa. Altzibar baserria. (109. or.)
- Manuela Zabaleta Aseginolaza. 1922-05-17an jaioa. Iritxo baserria. (118. or.)
- Frantzisko Azurmendi Munduate. 1903-10-09an Goizuetan jaioa. Xabier Azurmendi Agirre, liburuaren egilearen aita zena. (123. or.)
- Frantzisko Berasategi Arrieta. 1915-10-08an jaioa. Amiano goena baserria. (143. or.)
- Karmen Otaegi Arrieta. 1936-03-17an jaioa. Telleri baserria. (143. or.)
- Migel Urbizu (144. or.)
- Roman Otaegi Arrieta. 1925-11-20an jaioa. Telleri baserria. (145. or.)
- Joxe Mari Zabaleta Berasategi. Aizkoneta baserria. (145. or.)

## 20. BERRIEMAILEEN ARGAZKIAK

Lehenengo edizioko lanean aipamena bai, baina argazkirik azaltzen ez denez, ahal ditugunak prestatzen eta bigarren argitalpen honetan argitaratzen saiatu gara. Oraindik ere bakarren bat edo beste falta da, baina lehen baino gutxiago behintzat.



*Frantzisko Berasategi Arrieta. 1915-10-08an jaioa.  
Amiano goena baserria. (143. or.)*



*Karmen Otaegi Arrieta. 1936-03-17an jaioa.  
Telleri baserria. (143. or.)*



*Felix Alkain Telleria. 1935-10-14an jaioa.  
Arantzelai baserria. (108. or.)*



*Iñaki Arantzadi, Segurako apaiza (75. or.)*



*Nikolas Zabaleta Ariztimuño. 1909-02-03an jaioa.  
Altziturri azpikoa baserria. (70. or.)*





**Zegamako Udala**



**CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA**

